

**Antonio Zavala**

**Gabon eskeko  
bertsoak  
(1814-2000)**

---

**Auspoa Liburutegia  
310**

Gabon eskeko bertsoak : (1814-2000) / [biltzailea], Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2008.

377 or. : mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 310)

Aurkibidea

LG SS 894-2008. – ISBN 978-84-7907-598-9

I. Villancicos vascos - Antologías. I. Zavala, Antonio, comp. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III. Serie.

821.361-192.21(082.2)

783.6(460.15)(082.2)

*Azaleko irudiak:* Asociación de Pintores con la Boca y con el Pie

© *edizio honena:* AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-598-9

Legezko Gordailua: S.S. 894/08

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Antonio Zavala**

**Gabon eskeko  
bertsoak  
(1814-2000)**



**Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2008

## Itzaurrea

---

*Gabon-eskeko bertsoak* eman diogu izenburu liburu oni, iru itz oiek gaur irakurleari zer eskeintzen diogun argi eta garbi adierazten dutelakoan.

*Gabon*, bertso auek abenduaren 24-an kantatzen ziralako, Eguberri festa aundiaren bezperan, alegia, Jesusen Jaiotzaren berri pozgarria alde guzietara zabaltzearren.

*Eskeko*, taldeak atez atez ibiltzen ziralako, limosna eske alegia, toki askotan Santa Ageda bezperan edo San Juan bezperan bezela. Baiña eskeko ez diran bertsoak ere azaldu dira batzuk, askoz gutxiago badira ere, eta liburu ontan sartu ditugu,

Eta *bertsoak*, kantatzen ziranak geien-bat bertsoak ziralako, lau puntuko aleak, noski. Bi puntukoak ere erabiltzen ziran, koplak alegia, baiña askoz ere gutxiago.

Ori dana, taldeak bertsolaririk gabekoak ziranean, eta antziñako bertsolariren batek jarri eta belaunaldiz belaunaldi zetozen bertso eta doiñuak buruz ikasi eta kantatzen ibiltzen ziranean.

Bertso-sail osoak, edo-ta aalik eta osoenak, sartzten aalegindu gera. Baiña Azkueren kantutegian-eta badira Gabon-kanta batzuk leenengo bertsoarekin eta bertso bakarrarekin. Onek zera esan nai du: beste sail batzuk ere bazirala, beren osotasunean iñork jaso ez baditu ere orain arte beintzat.

Orixe da, beraz, izenburuko iru itz oiekintxe adierazi nai dana: *Gabon* egunean, atez ate *eskean* kantatzen ziran *bertsoak*.

Bestelako gabon-kantak ere baziran, noski, eta eder askoak gaiñera. Adibidez, elizan kantatzekoak: *Belenen sortu zaigu Jainkoa, Oi Betlehem, Agertu da, Mesias sarritan...*

Liburu ontan eskeintzen ditugunak iru itz oien barruan sartzten diranak dira, beraz, berriz ere esanda: *Gabon eskeko bertsoak*.

Bidasoaz Iparraldekoak ere ez ditugu emen sartzten, ortarako beste billaketa bat egin bearko litzake eta. Ango norbaitek egin dezala azterketa ori.

Goi-Naparroaren iparraldean ere kantatzen ziran gabon-kanta batzuk: Erronkarin, Garraldan eta abarretan. Baiña oietako ba-koitzak azterketa berezi bana eskatzen du, testua eta doiñua fin-  
katzearren, eta alde bat utzi degu, oraingoz beintzat.

\* \* \*

Bertsoak berak ere noizbeinka aitatzten dute atez ate eskean ibiltze ori, oitura au zer zan adierazi nai balute bezela.

Bertso batek onela esaten du, adibidez: «Usariyo kostunbrea ez dedilla galdu». Beste batek, 1849-koak: «betiko legean... atarik ate gatoz zerbaiten galdean». Eta 1918-ko sail batek onela dio: «oitura abek dira gure erriyetan. / beok e ibiltzen ziran mutil koxkorretan». Oietaz gaiñera, beste aitamen asko ere atera ditezke bertso auetatik.

Garai artako literaturan, berriz, Alfonso Maria Zabalaren *Gabon gau bat* ipuia (1887) degu oitura au zer zan ederki asko argitzen diguna. Onela dio irugarren atalean:

«–Gaur berandu datoz gabon-zaleak –esan zuan Txomiñek.

–Ara or nun diran, aita, –erantzun zion bere seme Kristobalek.

Eta ala zan egiaz, bada mutil-talde bat asi zan kantari ate kanpoan.

Bozik onena zeukanak kantatu zuan lenengo, eta besteak erantzun zioten modu onetan:

Agur, jente noblia,  
berri on bat dakargu,  
atentzinoa eduki beza  
iñork aditu nai badu...».

Urrena, Gabon-kanta au oso-osorik dator, irakurleak aurrerago aurkituko duana. Ondoren, limosna emateko unea iritxitakoa, onela dio etxekojaunak etxekoandreak:

«–Ea, Iñaxi, jatxi zazu goiko aga orretatik lukainka on bat eta emaiezu gabon-zale oiei, bada guri ere orrelaxe eman oi ziguten oien sasoi.

Artu zuan, bada, Iñaxik lukainkarik aundiena, eta eman zien atea zeukan leiotik, eta joan ziran kantariak irrintzi egiñaz auzoko etxera.

Etzuten ondo alde egin mutillak, nun sentitu zan berriz ere atean soñua, eta neskata-pillo bat asi zan kantatzen, baña soñu alegeregoan, eta oetan ere lenengo bozik ederrena zeukana. Ara nik entzun eta gogoratzen zaizkitanak:

Belengo portalian  
Maria ta Jose,  
aparia prestatzen  
orain ari dire...

Oei ere eman zitzaizen oitura zana eta joan ziran aurrekoen bidean panderoa joaz».

\* \* \*

Felipe Aierbek, berriz, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1914 eta 1915-ean, *Gabon-gaba ta Egoarriak* idazlana argitaratu zuan, besteak beste onela esanez:

«Ni goierritarra naiz, eta Gipuzkoako Goierrin Gabon-gaba ta Egoarri egunak eramaten diran bezela, agertuko ditut.

Gu mutill kozkorak giñala, Ormaiztegiko San Andresak igarotzen giñutzenetik, asten giñan Egoarri begira.

Mutikoai Egoarrik ematen dien pozik biziena, *beleren* ibiltzeko poza izaten da. Igandero ta jaiero biltzen giñan Berjaldegi (Ormaiztegin) etxon-doko garo pillan lau mutil koskor *beleren* kantak ikastera. Deadar aundiena egiten zunak ondoena kantatzen zuan.

*Bertsoak* eskolan idatzi oi giñuzen, ta mutill bakoitzak bertso-papela zirriborro ta guzti eskubetan zuala, kantatu ta kantatu aritzen giñan arratsalde geienean.

Bertsoen aurreneko kantak edo abestiak ikasten giñuzen ondoena, azkenengoak kantatzerako limosna emango zigutela uste oi genduan da.

Tartean, elkar-izketak jarduten giñuzen:

–Gorosti makilla zuzenak eta gogorak bazakizkiat nik nun daren (dauden), Luiantonio!

–Lapatzako txara goenean. Iraurtxibitak egiteko gorostiak andixek eka-  
rri zizkian orain urrea gure aitajaunak.

Patxikok:

–Nik igezko makillea oraindik gordeta zeukeat.

–Aizak, i, Joxe Mari: Etxaburun, Burron ta Berroetan ez diagu gero  
kantau bear, ill-urtea die ta!

–Bai, motell. Aita gurea errezatzen dek belauniko jarrita. Gogorutzen  
enaizela uste al dek?

\* \* \*

Beleren aurreko egunetik itxitzen da mutikoentzat eskolea, Egoarri  
oporrak atsegiñak izaten dira benetan.

Uri aundietako ikasle larriak berak ziara zaleturik egoten dira Egoarrik  
etortzeko. Agorreko Samiel-ditik Egoarriak bitarte batere ikastun izan dan  
mutillak atsedentxo egin nai izatea ez da ziñaz oso arritzekoa.

Morro, mirabe neskameak beren etxerutzen dira Gabon eguneko.

Mutillak, praka ta amilla urdiñaz jantziak, abarka-mantarrak oiñetan di-  
tuztela, mortxela (pardela) makillan zear sartuta bakallau zuria gaiñean  
dutela igaro oi dira beren erri alderuntz, irritsu ta urduri, adoretsu ta sen-  
do, bizkor eta alai.

Jai aurea jai bera baño ere atsegingarrigo izaten da.

Gabon eguna, nor bere etxean izan ezik, ez da aintzat artzen; akatsa ba-  
du Gabon egunak, bakoitza bere sendikoakin (pamilikoakin) arkitzen ez-  
pada.

Gabon eguna sendi eguna da. Senideak elkarganatzeko egun izentatu-  
ba, maitetasun gozo-biguiña agertzeko aldi aukeratuba.

Sendi bildua, arraia, gozoak, su aundia, poza ta soñua bear dira, Gabon  
gaba ederki ederki igarotzeko.

\* \* \*

Mutill kozkorrek goizean goiz jeiki oi dira *beleren* ibiltzeko pozaren  
pozez. Gosaldu ta bazkaldu bearrik ez dute izaten ume kondoak eta larri-  
txoak *beleren* egunean. An da emen biltzen dituzten sagar, intxaur, talo ta

esnea naikoa ta geiegi izaten dituzte. Dirua biltzeko pozak jaterañoکو guztia ere aaztu eragiten die

Diru-gordetzaille mutillik irtenena izan oi da. Lagunak oartzen dira ordea zein etxetan zenbat eman duten ta gaitz da iruzur (tranpa) egiten.

Kaletik asten dira mutikoak kantatzen. Bai, ba. Geiena ematen dutenen etxeak aurrena bildu, beste kantari taldea etorri baiño len.

Kaletarrak eta beste edozeiñek lenen dijoazen kantariai gogozago, opa-roago demaie limosna. Berantiarrai, edo ez eman edo, badamazaie ere, gutxigo ta elkorrago.

Bertso luzeak eta astiro kantatzen dituztenak nai lituzken etxe guziak ezin bildu izaten dituzte. Orregatik, mutill-saill batzuk kanta laburrak eta agudo abestu oi dituzte txanpon geigo biltzearren. Mutill aundi aurkiak (amabiren bat urtekoak) ixi eta leia aundia izaten dute kantari erbestera juateko.

Guretzat opui aundia zan Seguraraño *beleren* juatea. An zegoan ba etxe pillo ona!

\* \* \*

*Gabon eskeko bertso* auek nundik ote ditugun? Iturri askotatik, noski: inprentako bertso-paper zaarrak, antziñako aldizkariak, artxibo-zokoetan azaldutako esku-idazkiak, mundu au aspaldi utzi zuten aiton-amonen aotik eta abar.

Geien-geienak XIX mendekoak ditugu, eta batzuk XX-koak.

Sail bakoitzaren segidan komeni diran txeetasun eta argibideak emango dira.

Bildu aal izan ditugun doiñuak ere emen aurkituko ditu irakurleak. Ala ere, sail batzuk doiñurik gabe gelditu dira, doiñu ori dakienik aurkitu ez degulako; eta berak derizkion doiñuarekin kantatu bearko ditu irakurleak.

Doiñu batzuk solfeoz idatzita aurkitu ditugu. Beste batzuk magnetofonoz jasoak dira, eta geienak solfeoz idatzi eta papere-ratu dituena, askotan beintzat, Donostiako Iñaki Karkamo adiskidea izan da.

\* \* \*



Bertso auen egilleak nor ote dira? Galdera orri ezin erantzun dezaiokegu beti. Ona izen batzuk, ala ere: Zaldibiko Juan Inazio Iztueta (1867-1845), Donostiako Joxe Bizente Etxagarai (1773-1855), Altzoko Manuel Antonio Imaz (1811-1893), Elgoibarko Pedro Migel Urruzuno (1844-1923), Donostiako Pepe Artola (1864-1929) eta abar.

Egillearen berri dakigunean, argibide ori beti emango degu bertso-sail bakoitzaren oiñean.

Bertso-jartzaille auetan apaizik ere badagoala dudarik ez da. Bat baiño geiago gaiñera. Baiña batzuk, P. M. Urruzuno bezela, erriaren bertsogintzak nola bear duan zekitenak; eta beste batzuk batere etzekitenak.

Danak ere intentzio bera zuten, noski: erriari Jesusen jaiotza-ren berri erakustea. Katekesis, alegia, era askotara egin diteke, noski.

Atez ate ibiltzeko oitura zalako, bertsoen bearra zegoan. Eskera irten bear zutenen eskuetan, bertso-sail bat nola edo ala jarri nai; eta ortik, bearbada, alkar kopiatzea. Ortatik asko samar dago; erderaz *plagio* alegia. Baiña gaizki egiten zutenik etzi-tzaien burutik pasa ere egingo eta segi aurrera.

\* \* \*

Gabon egunean bertso-kantari eskean ibiltzeko oitura au zen-bait erritan oraindik ere gordetzen dala uste degu, baiña ez leen aiñean, iñundik ere.

Orrek zera esan nai du: orain eun bat urte askoz ere bilduma aundiagoa egingo zukeala artara jarriko zanak. Ala ere, naiko sorta ugaria osatu degu eta pozik gera. Eta irakurleak ere atsegi-ñez artuko duelakoan gaude.

A. Z.

1814

## Villancicos euskaros

cantados por Navidad en el coro de la parroquia de San Vicente de la ciudad de San Sebastián, el año de 1814

---

1  
Esna ari, Pratzubel,  
ator, Antoniyo,  
erotu dek nere ustez  
gure Gregoriyo;  
arestiyan pasa dek  
ojuka mendiyán,  
Jesusa jaio dala  
Beleneko erriyan.

2  
Guazen, jarrai zaiogun  
txabolak largata,  
Manubel Inaziyo,  
jo zak arrabeta;  
salto, brinko eta dantza,  
prime, konpañero,  
deskantsatuko gaituk  
bueltakuan gero.

### Zortziko

1  
Jaungoiko zerukoa  
gizon egiñikan,  
mundura etorri da  
Mariyagandikan;  
Beleneko ate zar  
batzuben azpiyan  
jaio da otzak ikaraz  
gaurko gaberdiyan.

2  
Guazen, para gaitean  
lasterka bidean,  
Jesus Aur eder ura  
arkitu artean;  
orra izar argi bat  
begiyen aurrean,  
jarriko gaitubena  
Belengo lurrean.

3  
Zeruko aingerubak  
soñu ederrakin  
jatxirik emen daude  
beste guztiyakin;  
au da billatzen degun  
leku erogarriya,  
ona Jesus, Jose ta  
Birjiña Mariya.

4  
Belaun eta begiyak  
jarririk lurrean,  
biyotza jaso zagun  
Jaunaren aurrean,  
eskatubaz guztiyok  
barka dizaigula,  
eta bere doaia  
betiko digula.

## **Estribillo**

Manutxu, itxi izu  
mollan bitxiguba,  
ez du antxi antxikan  
ene koitaduba,  
erdu ona Txomintxu,  
erdu neskatilla,  
ariñ kaderak, txutxu,  
Jesusaren billa.

Bertso auek Donostiako Jose Bizente Etxagaray (1773-1855) bertso-jartzaille ugariak moldatuak dira. Jaun orren argibideak eta bertsoak Auspoaren 35-36 zenbakian eman genituan argitara, 1964 urtean, *Festara* izenburuko liburuan.

Ondo gogoan artzekoa da bertso auek jarri ziran urtea: 1814-garrena. Aurreko urtearen aboztuaren 31-ean Donostia erre egin zuten inglesek. Baiña Donostiako erria, buru makur gelditu bearrean, bereala zutitu zan, leengo bizimoduari eusteko.

1815

## Eguberri kantak

Donostiyako Santa Mariyako premieleizan kantatubak

1815-garren urtean

---

### Sarrera

1

Egurra ebakitzen  
nekatu ta ondoan,  
aritz baten oñean  
erdi lo nengoan;  
amets egin dedala  
dadukat gogoan,  
guztizko berri onak  
dirala beingoan.

2

Ukullu zar batean  
Beleneko erriyan  
gure Jesus jaio da  
gabaren erdiyan;  
jakindurik agudo  
artzaiak mendiyen,  
jatxi dira lasterka  
denbora gutxiyan.

2

Ekusi det zeruba,  
gero begiyetan  
argitasun aundi bat  
alde guztiyetan;  
norbaitek belarrira  
esan dit onetan  
Jauna jaioko dala  
gaur amabiyetan.

3

Izar argi eder bat  
lagun arturikan,  
iru errege datoz  
Oriyentetikan;  
galdezka igaro dira  
Jerusalendikan,  
Jesusaren jaiotzaz  
duten berririkan.

### Zortziko

1

Gau eder zoragarri  
zoriyonekoa,  
lurrera etorri zana  
gure Jaungoikoa,  
asmegitari onak  
agindutakoa,  
egunik argiyena  
ez bezelakoa.

4

Ekusi ta ezagutu  
dutenean Jauna,  
lasterka jarri dute  
lurrean belauna;  
biyotzak altxaturik  
Jesusarengana,  
irurak egin dute  
eskariyo bana.

5

Aingeru zerukoak  
lurrera etorriyak,  
Jesusen ingurutan  
an daude guztiyak;  
an daude erregeak,  
an daude artzayak,  
Aur eder arri eman  
nairikan begiyak.

6

Jesus eta Mariya  
ona Joserekin,  
ona emen aingerubak  
soñu ederrakin;  
ona zeru guztiya  
Jaungoikoarekin,  
ona gaurko gabeen  
lurrean gurekin.

### **Euskaritxoa**

Guazen, ekus dezagun  
Aur jaiio berriya,  
guazen, egin zaiogun  
ongi etorriya;  
guazen, eman zaiogun  
jana ta erariya,  
oia, legorpea ta  
jantzi-erantziya.

Bertso auk ere leen aitaturako Jose Bizente Etxegaray zanak jarriak dira.

Argitalpenak:

*Euskal-Erria*, IX, 1883.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1816

## Eguberri kantak

Donostiyako Santa Mariyako premileizan kantatubak  
1816-garren urtean

---

1  
Au gauaren guztizko  
eder ta alaya,  
berak ekarri digu  
Jaunaren doaya;  
garaiturik beingoan  
infernuko etsaya,  
gelditzen da zeruko  
atea idikiya.

2  
Kristabak, aitor zagon  
gure doikerra,  
zere Jauna izan dan  
ain kupidakorra,  
esanaz biyotzetik  
fede andiarekin:  
«Jauna izan dedilla  
betiko gurekin».

### Zortzikoa

1  
Gau eder aukerako  
parerik gabea,  
zuk ekarri gaituzu  
Erredentorea;  
zuk kristau guztiyentzat  
dakartzu bakea,  
lurrera jetxirikan  
gaur gure Jabea.

2  
Irugarren pertsona  
Trinidadekoak  
gaur idiki dizkigu  
ate zerukoak:  
bere onesgilleko  
obra birtuteak  
garaitu du etsaia  
ta urratu kateak.

3  
Ona Trinidadeko  
bigarren pertsona  
digon amoriyuaz  
egitiñik gizona;  
Mariya batzaiaren  
erraietatikan  
lurrera etorri da  
kristabagatikan.

4  
Gaur egikaritu da  
zoriyon gurean  
Guzi-al-dubenaren  
naigiña lurrean;  
gaur Betlengo estalpe  
beartu batean  
gure Jesus maitea  
dago trosa artean.

5

Herodesek jakiñik  
Aurraren jaiotza,  
bereala nai diyo  
eman eriotza;  
bañan egiztatzeko  
lendandik esana,  
aingeru bat jetxi da  
aita Josegana.

6

Ametsetan aitu du  
esaten diyola  
Ejiptoko bidean  
jarri dediyela:  
guazen, jarrai zaiogun  
kristabak munduban,  
gero arki dezagun  
guztiyak zeruban.

### Euskaritxo

Guazen guztiyok, guazen  
lasterka Belena,  
guazen, gaur da jaiotza  
gure Jesusena;  
guazen, gaur da lurreko  
gaurik ederrena,  
guazen, kristau maiteak,  
guazen bada aurrena.

Bertso aukeratuak Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak jarriak dira. Argitalpenak:

*Euskal-Erria*, IX, 1883.

*Euskal-Erria*, 55. 1906. Baiña emen *Zortzikoa*-ren bertsoak beste ordenontan daude: 1, 3, 5, 2, 4, 6.

Bertso-papera, Manterolaren bertso-bilduma, Donostia. Paper onek jira guzian ertzak ebakita dauzka. Moldiztegiaren izena izan zezakean beraz, gaur gabe badago ere.

Aldaketak:

Izenburua: Donostiako gaztetxoak Jesusen jayotzari 1850-garrengo urtean. Sarrera 1/8: sarrera garbia; 2/2: gure doakera; 2/6: fede onarekin; Zortzikoa 1/1: Gau eder aukeratu; 1/5: zuk gaur kristabarentzat; 1/6: dakartzu pakea; 1/8: guztion jabea; 2/8: urratu kateak; 3/5: Mari Birjiñaren; 3/7: etorri da lurrera; 4/8: dago trotxartean; 5/5: baña egitutzeko; 5/6: lendanaz esana; 5/7: aingerua jatxi da; 6/4: ipin dediela; 6/8: guztiok zeruban; *Euskaritxo*a idatzi bearrean, *Coroa* jartzen du; 8: guazen gu lenena.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1817

## Eguberri kantak

Donostiyako Santa Mariyako premileizan 1817-garren urteko  
Eguberriyetan kantatubak

---

### Sarrera

1

Atozte, langilleak,  
laster egizute,  
zuben neke izerdiya  
utzi ezazute;  
jarraituko nazuten  
egun badet uste,  
atsegiñez beterik  
ala zar non gazte.

2

Lendanaz emanikan  
Moises-i legea,  
mundura etorri da  
Erredentorea;  
ezagutu dezagun  
bere bondadea,  
irikitsera dator  
zeruko bidea.

2

Jakin bear dezute  
Jesus jaio dala,  
estalpe zar batean  
Belenen datzala;  
eskas izan ez dezan  
gure egin-ala,  
nere lagun maiteak,  
guazen bereala.

3

Estalpe zar batean  
Beleneko erriyan  
gure Jesus jaio da  
gabaren erdiyan,  
Birjiña Amagandikan  
umildade aundiyan,  
otzak eta bearrez  
iltzeko zoriyan.

### Zortzikoa

1

Jaunari alabantzak,  
Jaunari graziyak,  
kristabaren izena  
dadukan guztiyak,  
kunplitu diralako  
egun profeziyak,  
bere abo santutik  
gizonari utziyak.

4

Zeruba ta lurrean  
Jaun ta Jabe dana,  
larru gorriyan dator  
kristabarengana,  
zeren umiltasuna  
bear dan aurrena  
arkitzeko zeruko  
biderik onena.



## **Euskaritxo**

Guazen, igeltseroak,  
argiñ eta arotzak,  
gaur Jesus adonatu  
bear du bakoitzak;  
Birjiña Amarekin  
ikaraz dago otzak,  
mundura etorriya  
gu salbatzekotzat.

Bertso auek ere Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak jarriak dira.

Argitalpenak:

*Euskal-Erria*, I, 1880.

*Euskal-Erria*, 57, 1907. Onak bi bertso falta ditu: Zortzikoaren lenengo eta Euskaritxo.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1818

## Donostiyako gazteak

Erregeen gurtea edo adoraziyua, beren egunaren bezpera gabean, milla zortzi eun da emezortzigarren urtean

Otsastetxoa

---

Izan arren munduban  
ondasuna ugari,  
enperadore, errege,  
jaun eta agintari,  
guztiya zor diogu  
Jesus maiteari,  
berari alabantzak,  
graziyak berari.

Ona gaurko gabean  
bertan ejenploa,  
adoratu dezagun  
gure Jaungoikoa:  
birtuterik onena  
umildadekoa,  
iru errege magok  
emanitakoa.

### Zortzikoa

1  
Iru errege datoz  
Oriyentetikan,  
Jaunak izar eder bat  
lagun emanikan,  
kriyaduz ta erregaloz  
ondo beterikan,  
Jesus adoratzera  
biyotz guztitikan.

2

Irurok ipiñirik  
belaunak lurtean,  
emen arkitzen gera  
Jaunaren aurrean,  
esperantzaz beteak  
diyogun fedean,  
jarriko gaitubela  
zeruko bidean.

3

«Zu zera, Jesus, gure  
Erredentorea.  
zurea da eskeintzen  
dizudan urrea;  
Zu zerade Meltxorren  
Jaun eta Jabea,  
zurea da lurra ta  
zeruba zurea».

4

Alabantzaz beterik  
zure izen santuba,  
Gasparrek ofrezitzen  
dizu intzentsuba:  
«Au da Arabiyako  
arbolen frutuba,  
Aurtxo paregabea,  
zuretzat bilduba».

5

Baltasarrek eskaintzen  
dizu, Jesus ona,  
Ejiptoko arbolen  
urik gozoena:  
«Mirraren balsamua,  
gure goiko Jauna,  
borondatez beterik  
dakart zuregana».

### **Euskaritxo**

Belenen argitu da  
eguna gabea,  
atozte ekustera  
zeruba lurrean;  
ona non aingerubak  
dabiltzan aidean,  
Jesus Mariyarekin  
Joseren gañean.

Bertso auek ere Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak ja-  
rriak dira.

*Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu ziran, 1883 urtean.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1819

## Eguberriyetako kantak

---

### Sararte

1  
Beleneko erriyan,  
mendi zelaietan,  
txabola, legorpe ta  
bide ingurubetan,  
aingerubak diyote  
leku guztiyetan  
Jesus jaioko dala  
gau erdi onetan.

2  
Allegatu da bada  
gabaren erdiya,  
guazen arki dezagun  
Beleneko erriya;  
bide-lagun arturik  
zeruko argiya,  
guazen adoratzera  
Aur jaio berriya.

### Zortzikoa

1  
Ona misteriyoa  
parerik gabea,  
ona Birjiñagandik  
datorren lorea;  
Jesus maitea, gure  
Erredentorea,  
Jaungoiko zerikoa  
lurraren Jabea.

2  
Ona Onentzaroko  
gau egun egiña,  
Ama gelditu zana  
Mariya Birjiña;  
Jaunaren amoriyo  
geiago eziña,  
guztiya deritzaio  
kristabaren diña.

3  
Gizon egiñik dator  
lurrera zerutik,  
kristabaren etsaia  
garaitzeagatik;  
eziñ geiago egiñ  
lezake gugatik,  
eman dizayozkagun  
eskerrak bertatik.

4  
Sekulako mendean  
arturik etsaia.  
Jesus maitagarriyak  
gugana du deia;  
bitarte ipiñirik  
Birjiña Mariya,  
biyotzetik galdetzen  
diyogu graziya.

## Euskaritxo

Zorioneko gau on  
doaiez betea,  
Zuk ekarri gaituzu  
lurrera pakea,  
Mesias egiazko  
Jaun eta Jabea,  
gure Jesus, Birjiña  
Amaren Semea.

Bertso auek ere Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak moldatuak dira.

*Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, 1886 eta 1905 urteetan.

1886-koan oar au egiten da:

«Santa Maria eta San Bizente, Donostiako Premieleiza biyetan, bere-tako kapillako soñulari nagusi On Mateo Antonio Pérez Albeniz jaunak musikan ipiñiyak eta 1819-garren urtean kantatuak».

Eta 1905-ekoan beste au:

*«Versos cantados en las iglesias de Santa María y San Vicente de la ciudad de San Sebastián, en la Navidad del año 1819, siendo sus autores, de la letra José Vicente de Echagaray. y de la música Mateo Antonio Pérez de Albeniz».*

Auspoak ere argitaratu zituan, 1964 urtean, bere 35-36 zenbakian, *Festara* izenburuko liburuan.

1828

## Donostiyako gaztetxoak

milla zortzi eun da ogei eta zortzigarren urteko Eguberri bezpera gabean

---

### Baserri kanta

1

Zarrak eta gazteak,  
etxian, auzoan,  
gaur zoratu dirade  
entero beingoan;  
aditu dutelako  
Jesusen jaiotza,  
dantzan eta kantari  
ojuka dabilta.

2

Nekatzen diraneko  
egiñikan suba,  
baniatu dediyen  
apari-moduba;  
munduba egon arren  
pozak ernaituba,  
ez dago gure tripa  
beñere aztuba.

3

Agertzen dira puska  
etxeko guztiyak:  
tupiña, burrunzali,  
padera, paziyak,  
eltze, bonbilla, pitxar,  
txaltxiñak, kaikubak,  
plater, baso, danboliñ,  
poto, katillubak.

4

Sukalde-bazterretan  
ez dago eskasa  
bakallaba, txardiña,,  
bitxigu, legatza,  
opill, ogi, taloa,  
gaztaña, arraultza,  
udarea, sagarra,  
esnea ta gazta.

5

Bultzatzeko ederki  
onenbeste jende,  
sagar eta mats-urak  
gutziz on dirade;  
baña eratekotan  
kontu neurriyari,  
ez gabiltzala gero  
lurrean igeri.

### *Euskaritxo*

*Donostiyara gatoz  
agirando billa,  
ez gerade bakarrak,  
badirade milla;  
kapusaiak burutik,  
eskuban makilla,  
soñu eta kantari  
arreta, mutilla.*

## Zortzikoa

1

Arreta, jende onak,  
kristabak, atozte,  
gure lege adiña  
adi ezazute:  
milla bat zortzi eun  
eta ogei urte,  
zortzi geiagorekin  
aurten dira bete.

2

Ordu ezkeroko beti  
da urterokoa  
oroipen atsegiña  
kristabakikoa,  
berriturik zoriyon  
gau arretakoa,  
Zeruko Aitak berak  
emanikakoa.

3

Orduban etorri zan  
gizonarengana  
guztia egiñ eta  
egingo duena,  
zerubak eta lurrak  
egiñ zituena,  
asiyera azkenik  
iñoiz ez dubena.

4

Bera da santuaren  
egiyazko Jauna,  
zerutarren Errege  
eta Jabe dana;  
sortutako guztia  
mendean daukana,  
diyotena guztia  
makurtzen belauna.

5

Guztia al dubenak  
guztia emanik,  
ez du bear mesede  
esker iñorenik;  
baña amoriyua  
geiegi izanik,  
gizonarekin dago  
gaur lagun egiñik.

6

Ogei ta amairu  
urte bizitu zan,  
umill eta pobrea  
neke ta penetan;  
beti gizonarekin  
zegoen izketan,  
egiya erakusten  
ordu guztietan.

## *Euskaritxo*

*Gaur zelebratzen degu  
Jesdusen jaiotza,  
gaur da zoriyoneko  
kristabaren poza;  
gaur dago atsegiñez  
beterik biyotza,  
gaur guztiyok alegre  
kontentu gabiltza.*

Gabon-kanta auek Etxagaray-renak diranik ez da iñon esaten; baiña itxura guzia arena dute.

Kanta-.papera, moldiztegi-izenik gabea, Bonaparteren bilduman aurkitu genuan.

Paper onek, norbaitek eskuz erantsita, onelaxe dio: «Donosti.... ..... 1856 P. Baroja». Puntuz idatzi degun utsune ortan, ezin irakurri ditugun letra batzuk daude.

*Festara, Auspoa 35-36, 1964.*



1828

**Jesusen jaiotzari Donostiyako gazteak**  
urte millengo Onentzaro-gabean  
Artzai-kanta

---

1  
Onentzaro-gabean,  
betiko legera,  
agirandoan billa  
bagatoz kalera;  
nekeak utzirikan  
alderdi batera,  
onela geran arte  
galduko ez gera.

2  
Manubel errotako  
mutil aditua,  
poltsa gobernatzeko  
dago lonbratua;  
ondo ikasiya da  
gordetzen dirua,  
eta guztiz zuzena  
ematen kontua.

3  
Gorgoriyo kalparra  
Borda-gañekoa,  
eta Premin tximela  
Aldapetakoa,  
Matias Landetako  
ondoren dijoa,  
gero Pratzubelekin  
Anton auzokoa.

4  
Obek bostak dituzte  
galtzarbe sareak,  
guztiyak batak baño  
obea besteak;  
ikusi nai ginduzke  
entero beteak,  
jaietan gizentzeko  
galanki esteak.

5  
Bartolo mugakoa,  
galtzarako Txomin,  
akor daude gastuan  
ostalariyakín;  
onelakoxe lagun  
maite leialakin,  
egin oi da kontua  
diru gutxirekin.

6  
Soñu ederrarekin  
gerade koplari,  
kobru eman begiyo  
nork bere lanari,  
jaiak igarotzeko  
ondo ta ugari;  
ala nai dakiyola  
Zeruko Jaunari.

## **Euskaritxo**

Agirando galdeka  
aterikan ate,  
zer edo zer guretzat  
izango al dute;  
dala egazti edo  
zernai gauza beste,  
iñoren familiyan  
egin gabe kalte.

## **Despeitzia**

Eskerrik asko eta  
agur, etxekoak;  
eman dizaiotela  
gabon Jaungoikoak.

Bertso auek Bonaparteren bildumatik artuak ditugu.

Garai artan, 1828 urtean, bertso-jartzaille oparo bat bazan Donostian: ainbat alditan aitatu degun Jose Bizente Etxagarai jauna (1773-1855).

Ango bertsorik geienak berak jarri zituan 1813-tik 1855-era, mutil-taldeak Gabonetan, Iru Errege-bezperan, Iñauterietan eta abarretan kalez kale kantari ibil zitezen.

Bertso auek ere berarenak izan ditezkelako dudarik ez da. Baiña iñoren izenik agertzen ez duten ezkerro, ez giñan ausartu aren liburuan sartzen. Ikus: *Festara*, Auspoa 35-36. 1964.

Ori bera gertatu zitzaigun beste bertso-sail batzuekin ere. Orain, berriz, liburu ontan pozik argitaratzen ditugu, irakurlearen gustokoak izango diralakoan.

# Gau pozgarriagorik

## Sarrera Zortzikoa

---

1  
Ai au Aur zoragarri,  
guri ta mardula!  
Guzion onerako  
jaio da mundura.  
Deseatzen genduan  
eguna eldu da,  
baita arras ill ere  
gendukan beldurra.

2  
Gau pozgarriagorik,  
nere iritzian,  
ezin izan diteke  
sekula guzian;  
Adanen bekatua  
pararik azpian,  
Jaunak ifini gaitu  
beraren grazian.

3  
Illak eta biziak  
konsueloz daude,  
egin dalako Aur au  
zeru-lurren jabe;  
bizi gaitezke ongi  
ta pozez alere,  
Luzifer gaiztoaren  
beldurrikan gabe.

4  
Eguerri bezperan  
Belengo errira  
gure Salbatzallea  
gabaz etorri da;  
zoraturik nago ni  
berari begira,  
Adanen bekatuak  
betiko ill dira.

5  
Artzaiak emen datoz  
utzirik ardiak,  
animo ar dezagun  
anima garbiak;  
. . . .ren mirariak  
. . . . larriak  
. . . .ren gaitu  
. . . . .

6  
Semea egin eta  
dontzella garbia  
emen ikusten degu  
Birjiña Maria;  
auxen da milagroa  
gozo ta . . . . .  
. . . beraren ditxa  
. . . . . gaitean.

## **Euskaritxo**

Zarrak eta gazteak  
goazen bertatik,  
Jesus adoratzera  
biotz-biotzetik;  
guziok salbatzera  
jetxi da zerutik,  
nor dantzatuko ez da,  
Jesus, gaur zugatik?

Bertso auek gure artxiboan agertu zaizkigu, baiña ez genuan apuntatu ez noiz eta ez noren eskutik jaso genituan.

1829

## Donostiyako gazteak

Erregeen gurtea edo adoraziyoa beren egunaren bezpera  
gabean 1829-garren urtean

---

### Marcha

1

*Humildes criados, leales, gratos*  
errege jaun irurenak,  
*ha trece días que caminamos*  
Oriyentetik Belena;  
*al fin llegamos de gozo llenos*  
zoriyon leku onetan,  
*y nos hallamos postrados todos*  
Jaungoikoaren oñetan.

2

*Le adoramos y le rogamos*  
arren gaitzala urriki,  
*le alabamos y le pedimos*  
barkaziyoa umilki,  
*nada ofrecemos porque sabemos*  
bera dala Egillea  
*de cielos, tierra, ángeles, hombres,*  
dan guztiyaren Jabea.

### Otsastetxoa

1

Gure Jesus maitea  
jaio dan orduban,  
izar bat agertu da  
berriya zeruban;  
guztiya da argiya  
bere inguruban:  
argiya begiyetan,  
argiya zentzuban.

2

Argi onen argiyan  
argi degu ikusi  
zer modutan aurrera  
bear degun bizi;  
lege berriya argi  
digu erakutsi,  
ta Jaunaren graziyan  
ipiñi (y) arazi.

3

Miragarritzko argi  
ta graziyarekin  
bereala diyogu  
bideari ekin;  
gu izarrarekin ta  
izarra gurekin,  
Jerusaleneraño  
beti alkarrekin.

4

Erri nonbratu artan  
geranean sartu,  
ezin izan ditugu  
begiyak argitu;  
zeren gure izarra  
zaigun ezkutatu,  
eta illundurikan  
geraden arkitu.

5

Herodes aditu ta  
naigabez beterik,  
aruntza biyurtzeko  
ez degu asmorik;  
gaiztotasun arrena  
guk ezaguturik,  
bere aurrera juana  
gaude damuturik.

6

Gero geradenean  
andik ateratu,  
gure zoriyon poza  
laster da berritu;  
gure izar argiya  
da berriz agertu,  
oneraño berari  
diyogu jarraitu.

7

Ona guk nai genduben  
Belengo erriya,  
ona zori oneko  
portale azpiya;  
ona billatzen degun  
Aur jaijo berriya,  
ona emen zeruba  
lurrera jatxiya.

8

Graziyaz ta doaiez  
beterik beingoan,  
Ama maite Mariya  
ona non dagoan;  
bere Seme ederra  
arturik besoan,  
ona aita ordeko  
Joseren ondoan.

### *Euskaritxoa*

*Kristabak, berri onak,  
doaia ta poza,  
atsegin zoriyonez  
naikeran bakoitza;  
esker on aukeretan  
beterik biyotza,  
zelebratu dezagun  
Jesusen jaiotza.*

### **Zortzikoan adoraziyoa**

1

Aurtxo jaijo berriya,  
zeruko lorea,  
zure oñetan dago  
Meltxor erregea;  
eman dizu biyotza,  
eskaintzen urrea,  
ez du bererik ezer,  
guztiya zurea.

2

Jesus, zure aurrean  
da Gaspar arkitzen,  
zaitu adoratzen ta  
zaitu alabatzen;  
eskaintzen intzentsuba,  
biyotza ematen,  
barkaziyoa eta  
graziya eskatzen.

3

Mesias egiazko  
Jabe on bakarra,  
Jesus zerubetatik  
jatxitako Aurra;  
Baltasarren eskutik  
ar ezazu mirra,  
eta indazu arren  
zure on eskerra.

### *Irurak*

4

Ona Jesus gure Jaun  
zeruko aundiya,  
emen zure oñetan  
auspez ipiniya  
gizonaren lureko  
aginte guztiya,  
galdez barkaziyua,  
eskatzen graziya.

### *Euskaritxoa*

*Atozte ikustera,  
atozte, jendeak,  
Jesusaren oñetan  
iru erregeak;  
emen berdintzen dira  
aberats pobreak,  
berdiñak badirade  
gure birtuteak.*

Bertso aukeratuak Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanarenak dira.

Moldiztegi-izenik gabeko paperetan agertu ziran leenengo.

Ondoren, *Euskal-Erria* aldizkarian 1887-an. Aldaketak: Martxa: 2/5: *nada ofrecemos pues que sabemos*; Otsastetxoa, 4/1: erri sonatu artan; 5/1: Erodesi aditu ta.

Eta azkenik: *Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1829

## Eguerritako kantak

Santa Maria eta San Bizente Donostiako premieleiza  
bietarako, beren kapillako maisu D. Pedro Albeniz jaunak  
soñuban ipiñiak 1829-garren urtean

---

### Sarartea

Artzaiak, onera bildu,  
arren guztiyok ixildu,  
zeren jaio dan Aurrak  
gure Jabe bakarrak  
ezin zabalduz begiya  
dauka loaren premiya.

Ixill eta motz jolasa,  
itza bakan ta eskasa,  
ojurik egin gabe  
egoten bagerade  
loa laster doakiyo,  
otzak utzitzen badiyo.

Gaur utzirikan zeruak  
jatxi dira aingeruak  
laguntzera Aurrari  
lo-soñuba kantari,  
artzaiak, ixil, arreta,  
aditu kanta polita.

### Aingeru loa

Jesus maitea, lo ta lo  
egĩñ ezazu gozoro,  
lo oraiñ eta lo gero  
lo egĩñ zazu luzaro.

Semetxo ona, nere bakarra,  
zeruetako lorea,  
ona, enetxoa, opill zuriya  
biguñ azalik gabea.

Nere kutuntxo laztan maitea,  
ona goxoa zuretzat,  
zopatxo mami saldaz bustiya,  
eztiya ere badaukat.

Zure Aita da Zeruko Jauna,  
Ama mantxarik gabea,  
zure seaska arri gogorra  
eta zu nere Jabea.

Zuretzat eta Josepherentzat  
ditut, Amatxo Birjiña,  
ollo-saldatxo, egazti, arrai,  
arraultza, talo, gaztaña.



## Gau ona

Umore ona, zoriyon, poza  
gaurko gabeen gurekiñ  
oi dira beti, kristau maiteak,  
Jesusen jaiotzarekiñ;  
aitormen urtero berrituba,  
gaberdi ernai autuba.

Soñu ederra, kanta berriyak,  
ipintzen dira urtero,  
denbora eta leku guztiyan,  
Jesus jaio zan ezkeror;  
oroimen atsegiñ aundikiya  
zerubetatik jatxiya.

Doairik bada mundu onetan  
da kristabaren legea,  
izanarekin gaurko gabeko  
misteriyoan fedea,  
sinismen bide berdiñ zuzena  
zeruko atearena.

## Euskaritxoa

*Atozte, goazen ariñ  
kontentuz Belena,  
atozte ekustera  
Jesus jaio dana;  
ariñ goazen, atozte  
Belena kontentuz,  
ekustera atozte  
dana jaio Jesus.*

## Zortzikoa

Eguberri bezperan,  
gabaren erdiyan,  
dator Jesus mundura  
gure on zoriyan,  
estalpetxo batean,  
Belengo erriyan,  
elur aize otzetan  
leku irikiyan.

Ama ta Aita daude  
gutziz negargarri,  
otzak ikara biyak  
begira elkarri;  
nola berak ez duten  
soñean zer jarri,  
ez dakite Semea  
zerekin estali.

Lasto txetu pixka bat,  
Amaren magala,  
gañera beiarekin  
astotxo bakarra;  
oben eta Aitaren  
asnase makala,  
ez da beste gairikan  
berotzeko Aurra.

Aurtxo au da, kristabak,  
gure Jesus ona,  
Mesias egiazko  
billatzen deguna;  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsona,  
zeru eta lurraren  
Egille ta Jauna.

## *Villancicos en castellano*

### *Solo*

*Venid, venid, mis zagales,  
veréis el mayor milagro;  
el Hijo de Dios nacido  
en un miserable establo.*

### *Dúo*

*Vamos, vamos y adoremos  
al Rey de reyes por quien  
será redimido el mundo  
y tendrá gloria Belén.*

### *Coro*

*Lleguemos, lleguemos  
a adorar a Dios,  
que dignó humanarse  
naciendo entre nos;  
con gozo y locura  
celebrado sea  
prodigio tan grande  
que es gloria a la aldea.*

Bertso auek Donostiako Jose Bizente Etxagaray jaunak moldatuak dira.

Moldiztegi izenik gabeko paperetan inprentatu eta zabaldu ziran. Ale bat Parisko Liburutegi Nazionalean arkitu genuan. Beste argitaraldi bat: *Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1830

## Eguerritako kantak

---

### Sarartea edo idiarena

1

Arren laster atozte,  
adiskide maiteak,  
utzi zuben nekeak,  
larga zeren lanak,  
aditu diranak,  
berri, berri,  
zerubak emanak.

2

Bei-elea bildurik  
gaur illunabarrean,  
ukullu bazterrean  
nagoala lotan,  
amets jolasetan,  
Jesus, Jesus,  
agertu zait bertan,

3

Beleneko sarreran  
dago jaio-lekuba,  
antxe dago zeruba,  
an Ama maitea,  
an Aita-ordea,  
antxe, antxe,  
Erredentorea.

4

Asnas-lurriñarekin  
berotubaz lastoa,  
daude idi, astoa,  
ardia, bildotxa,  
bigundu naiz otza;  
goazen, goazen  
lasterka bakoitza.

### Artzaigokia

1

Artzai maitea, zorion,  
gure deia du zerubak,  
utzi agudo txabolak  
eta zuben ganadubak.

2

Artzaiak, ariñ lasterka  
guazen guztiok Belena,  
Jabe Jaun bakar gurea  
adoratzera aurrena.

3

Jaso biotzak batera,  
begiak umildu bera,  
eta belaunak lurrera  
goazen Jaunaren aurrera.

4

Agudo guazen bidean,  
guazen artzaiak kontentuz,  
zorion gurean dator  
gaur gizonagana Jesus.

## **Koplaría**

1

Aterik ate nabill  
Jesusaren galdez,  
eziñ iñon jakiñik  
jaio dan edo ez:  
nabill etxerik etxe  
Jesusen galdezka,  
erregalo egin nai  
niyoke siaska.

2

Ditut troxa oialak,  
arkume-larruba,  
Aurraren berogarri  
ondo legortuba;  
Amaren saldatxoaz  
ez nago aztuba,  
eta det aitarentzat  
apari-moduba.

## **Euskaritxoá**

Agur, Aurtxoa, salbe, Jesusa,  
zerala ongi etorri,  
zeruko lore zuri ederra,  
salbe guztiok zedorri.

## **Zortzikoa**

1

Egiñ arren gizonak  
bere alegiña,  
izan arren gogoá  
borondate diña,  
ez du erakutsiko  
bear dan adiña.  
miragarri gaurkoa  
zerubak egiña.

2

Lendanaz du Maria  
Jaunak bedeinkatu,  
bere berdiñik ez du  
lurrean arkitu;  
Espiritu Santuak  
gero du argitu,  
gaur da ama egiñik  
birjiña gelditu.

3

Mariagandik dator  
gure Egillea,  
asierarik eta  
azkenik bagea;  
bera du zeruba,  
lurra're berea,  
berarena guztiya,  
goia eta bea.

4

Egiña dago bada  
Jaunak aginduba,  
zabal irikirikan  
daukagu zeruba;  
barkatuba bertatik  
dago bekatuba,  
egiaz biotzetik  
badator damuba.

Bertso auk Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanarenak dira. *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, 1887-an, aurretik onako oar au dutela:

«*Estos villancicos, puestos en música por el afamado maestro D. Pedro Albeniz, se cantaron en 1839 en las parroquias de Santa María y San Vicente de esta Ciudad*».

Aldi ontan, 1/2 lerroa onela du *Euskal-Erria* aldizkari onek: *Jesusen galdezka*. Oso nabarmen dago punturako gaizki dagoala; ala, urrengo argitaraldian dagoan bezala idatzi degu.

*Euskaritxo*a-ren leenengo lerroan, berriz, *salbe o Jesus* dio. Urrengo argitaraldian, berriz, *salbe Jesusa* esaten da. Orrelaxe idatzi degu guk, ala bear dualakoan.

\* \* \*

Urrengo urtean, 1888-an alegia, bertso auk berriz agertu zituan *Euskal-Erria* aldizkariak, onela esanez:

«Santa Maria eta San Bizente Donostiako Premieleiza bietarako beren kapilla maisu On Pedro Albeniz jaunak soñuban ipiñiak, 1839-garren urtean».

Aldaketak: *Sarartea*, 1/4: larga zeron lanak. *Koplaria* 1/8: niyoke sieska. Zortzikoa 2/6: gero du arkitu.

Beste argitaraldi bat: *Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1831

## Gambrako gazteak

1831-garren urteko

Eguberri bezperan

---

### Artzaigokia

Gure Jesus maitea  
gaur dator mundura,  
beraren izenean  
gu ate ondora;  
urtero beon galde,  
etxe barrengoak,  
eman dizaiotela  
gau on Jaungoikoak.

### Zortzikoa

Ez dago gaur negarrik,  
pena, naigaberik,  
samiñik ez dago gaur  
eta dolorerik;  
guztia da kontentu,  
doai atsegiña,  
biotz barrengo poza  
geiago eziña.

### Euskaritxo

Salbe, adiskideak,  
jende onak, abur,  
etxe onetan Jesus  
arki dedilla gaur;  
etxeakoak, adiyo,  
Pazkua jai ona,  
bake, amoriyua  
eta osasuna.

Aingerubak, artzaiak,  
zerutar ta gizon,  
guztiak nai dute gaur  
zelebratu Gabon;  
nornai da soñulari,  
koplari edozeiñ,  
iñork iñon ez daki  
gaur nor ote dan zeñ.

Bertso aukeratuak Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanarenak dira.  
*Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, 1881 urtean. Oar bat egiten dio  
izenburuari:

«Gambrako gazteak *son indudablemente jóvenes pertenecientes a la música local de los Gambaros, que existía por aquella fecha en San Sebastián, y que tomó su nombre de la palabra euskara ganbara, por ser un desván el punto de sus reuniones*».

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

(1831)

**Gaboneko kantak**  
**Jesusen jaiotziaren ganian**  
**1831-garren urterako**

*Sarrerria*

---

O gau ederra,  
o gau dontsuba,  
gure naibagen  
amaiya!  
Aldendu bitez  
laño illunak,  
agertu bedi  
mirariya.

*Zortzikua*

Egun zorioneko  
mirariz betian,  
ze poza zabaldu dan  
gaur mundu guztian!  
Negarrez ta zizpuruz  
gengozan unian,  
zeruba agertu da  
illargi betian.

*Pozgarriya*

Guazan, guazan  
Belenera,  
zeruko bidia  
ikastera.  
An dago geure  
Egillia,  
errege guztien  
Erregia.

Ama dontzella garbi  
zerubak autuba,  
bere senar Josepe  
gizon doatsuba.  
Belenen eldu eta  
ordu gitxi barru  
geure Salbagillia  
jaiorik dakusku.  
*Guazan*, etc.

Dabiden jatorririk  
datorren Seintxubak,  
garbitu biar ditu  
gure pekatubak.  
Bere odola nai dau  
gu gaitik izuri,  
bere graziya ez deutsa  
ukatzen iñori.  
*Guazan*, etc.

Sugiaren buruba  
ausi dau Mariyak.  
ikara egin dau gaur  
inpernu guztiyak.  
Zeruko Erregiña,  
oztarku ederrak  
beteko ditu pozez  
munduko bazterrak.  
*Guazan*, etc.

Bakia kantetan da  
zeru ederretan,  
guk bere kantau daigun  
erbeste onetan.  
Aingeruben soñubaz  
geuria baturik,  
Señ au adora daigun  
biotz-biotzetik.  
*Guazan*, etc.

Zerutarrak lurrera  
badatoz aldrika,  
eta artzain guztiak  
ardiyak larga ta  
baduaz Belenera,  
guazen gu bere,  
antxe ikusten Jesus,  
Ama ta Josepe.  
*Guazan*, etc.

Eureen arpegi ederrak  
ikustia gaitik,  
ez bada gomutetan  
bideko nekerik.  
Zer ez genduke biar  
egin guk lurrian  
eurakaz egoteko  
beti iraunian?  
*Guazan*, etc.

Jaunaren agindubak  
errez ta bigunak.  
plagiarenak barriz  
gutzizko astunak.  
Sari amai bagiak  
dagoz eskeñirik,  
Jesusen lege ederra  
gordetia gaitik.  
*Guazan*, etc.

Eriotzaren bere  
ez dauka bildurrik,  
Jesus maite dabenak  
arima guztitik.  
Azkeneko arnaseen  
larritasunetan  
lagunduko deutse, bai,  
Jaun onek benetan.  
*Guazan*, etc.

Zeruban sartutia  
bada atsegiña,  
bizi garan artian  
egin alegiña,  
daikegun an ikusi  
guztiok baturik,  
bere gloriya andiya  
estalki bagarik.  
*Guazan*, etc.

### Izenbagea (*Anónima*)

Gabon-kanta au Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan, 1880-an. *Izenbagea* dala esaten da; baiña gure iritzirako eliz-gizon batena izango da.

*Euskalzale* aldizkarian ere agertu zan, 1898.12.22-an. Aldaketa batzuk baditu, Adibidez: *eresten* eta *eresi kantatzen* eta *kantatu* esan bearrean; fonetismo batzuk kendu eta abar. Baiña gauza aundirik ez.



1832

## *Villancicos Euskaros*

### Gambrako gazteak

1832-garren urteko

Eguerri bezpera gabean

---

#### Pastorela

1

Erri, baserri, borda,  
soro zelaietan,  
txabola, mendi, bide,  
bazter legorretan,  
itxasoan, ontziyan  
eta txalupetan,  
umore ona da gaur  
leku guztiyetan.

2

Eskallera-buru ta  
ate-ondoetan  
jendea franko dabil  
agirandoetan;  
eta gu soñubakin  
alde guztietan,  
gelditubaz kantari  
kale-kantoietan.

#### Estribillo

Guazen lasterka, guazen,  
Belena kontentuz,  
soñu eta kantakin  
ikustera Jesus.  
Atozte laster, guazen  
pozez Belenera,  
kanta ta soñubakin  
Jesus ikustera.

#### Coro

Atozte laster, guztiok ernai,  
irazar bedi bakoitza,  
gaurko gabean celebratzen da  
Jesus onaren jaiotza;  
zerutik datoz bakea eta  
atsegiñ, zorion, poza,  
soñuba, kanta, tinbal, atabal,  
dantza, ojuba, jolasa.

#### Zortzikoa

1

*Noche maravillosa*  
zorionekoa,  
*admirable prodigio*  
zerubetakoa;  
*iris de paz eterna*  
kristabakikoa,  
*origen y principio*  
lege berrikoa.

2

*Preñez inexplicable*  
kastidadekoa,  
*de Madre virgen pura*  
mantxa bagekoa;  
*nacimiento divino*  
ta Jaungoikozkoa,  
*obra incomprensible*  
gaur gau erdikoa.

Bertso auek Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak moldatuak dira.

Argitaratu, bertako *Euskal-Erria* aldizkarian egin ziran, 1882-garren urtean.

Bai ere *Festara* liburuan, Auspoa 35-36, 1964.

1833

## Iru Errege gabeen, Donostian Ilion Berriko gazteak 1833-garren urtean

---

### Kantaridia

Esna, mutillak, ernai, lagunak,  
ariñ atozte gugana,  
guztiok pozez aitor dezagun  
gure doai zoriona;  
adiskideak, jende maiteak,  
Eguberriren urrena  
oroikarria izendatua  
iru Errege eguna.

### Artzaigokia

1

Aurten ibilliya da  
jendea naikeran,  
agirandoen billa  
Errege-bezperan;  
jakia, sagardoa  
ardoa aukeran,  
afaldu eta gero  
trago onak eran.

2

Biotza zabaldurik  
jan eta ondoan,  
barrengo atsegiña  
laster da kanpoan;  
kontentuz beterikan  
gorputza beingoan,  
naigabe mintasunik  
ez dago gogoan.

### Euskaritxoa

Agur, Errege gaba,  
betoz Erregeak,  
salbe, Orienteko  
jaun agintariak;  
oroipena Ilion  
berriko gazteak,  
batzuek soñu jotzen,  
kantari besteak.

### Zortzikoa

1

Iru Errege datoz  
neketan bidean,  
amabi egun eta  
amabi gabeen;  
izar argi bat dute  
laguntzen aurrean,  
berak ipiñi ditu  
Belengo lurrean.

3

Amaren besoetan  
ikusirik Jauna,  
irurak jatxi dute  
lurrera belauna;  
biotzak jasorikan  
Aurtxo arengana,  
umill egin diote  
eskario bana.

Bertso auek ere Donostiako Jose Bizente Etxagaray jauna zanak moldatuak dira.

Argitaratu ere, bertako *Euskal-Erria* aldizkarian egin ziran, 1900-garren urtean.

Bai ere *Festara* liburuan, Auspoa 35-36, 1964.

Izenburuan *Ilion Berri* esaten zaio Donostiari. Ori baitzan antziñako Troia iriaren bigarren izena. Au erre eta kiskaldua izan zan, Donostia ere egin zan bezela.

1833

## Donostiako gazteak

Jesusen jaiotzari

1833-garren urteko

Onentzaro gabean

---

### Pastorela

1

Ernai, guztiok, ez da gaur lorik,  
alegra bedi bakoitza,  
atozte bada zelebraztera  
Jesus onaren jaiotza;  
ager dezagun, aitor dezagun  
alegre zorion poza,  
soñuarekin jaso dezagun  
Jaunarengana biotza.

2

Gaurko gauza da oroigarria  
zeruan eta lurtean,  
aingeruakin daude gizonak  
Jesus onaren oñean;  
guazen gu ere ikus dezagun  
portal azpian lurtean  
santu guzien zeruko Jauna  
ukullu pobre batean.

### Coro

Ez da orain sortua,  
ez da aurtengoa,  
baizik da lege zarra  
denboretakoa,  
agirando galdea  
Onentzarokoa.

### Zortzikoa

1

Beti umore ona  
oi degu gazteak,  
ez dakigu zer diran  
pena naibageak;  
eta gaur zorionez  
beingoan beteak,  
soñuakin kantari  
naikera gureak.

2

Poza ezin gorderik  
gaurko gauarekin  
kristabaren izena  
izan utsarekin,  
Jesus, Maria, Jose  
dirade gurekin,  
adoratu ditzagun  
biotz garbiakin.

3

Zeru eta lurraren  
Jaun ta Jabe dana,  
digun amorioaz  
egiñik gizona,  
Ama Birjiñagandik  
dator guregana,  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsona.

4

Egiazkoa bada  
gure eskarioa,  
damutasun gurea  
bada ziñezkoa,  
zabalduko digute  
bide zerukoa,  
degun beren gloria  
sekuletakoa.

### **Coro**

Jesus Salbadorea,  
salbe zure Ama,  
eta aita-ordeko  
zeruak emana.

Moldiztegi-izenik gabeko kanta-papera, New Librery, Chicago. Atzean, eskuz, oar auek: «Echegarai, Donostian, a 3 july 1856, Baroja».

*Euskal-Erria* aldizkaria, 1900. Aldaketak: *Pastorela* 1/6: agertu zorion poza; *Coro* esan bearrean, *Kantaridia* dio; Zortziko 1/4: pena naigabeak.

Kanta auek 1833-koak dirala *Euskal-Erria* onek esaten du; 1856-koak dirala, berriz, leen aitaturtako kanta-paperak. Ez dakigu zer izango dan.

*Euskal-Erria* aldizkaria, 1908. Baiña onek *Pastorela*-ren bi bertsoak bakarrik ditu, eta 1853 urtean kantatu zirala dio.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

## Jesusen jaiotzako gau pozgarritsuan euskal errietako gazteriak kantatzeko Iztueta jaunak ifintako itz neurtuak

---

1  
Agur, Jesus, Maria, Jose,  
Joakin eta Ana,  
badakigu Jesus maitia  
jaio zan gaua dana.

2  
Erriko zenbait galai gazte  
kantuz gera atera,  
atsegiñezko poz andi bat  
zuei gaur ematera.

3  
Egiazko berria da ta  
bear degu sinitsi:  
Jaungoikoaren Semea gaur  
zerutik zaiku jetsi.

4  
Iñork ezin berri bat eman  
au dan baño obea:  
Belenen jaio omen zaiku  
gure Salbadorea.

5  
Urte askoan egon gera  
egun onen begira,  
Adanen bekatu guziak  
sekulako ill dira.

6  
Atsegingarrizko berri au  
munduak dezan jakin,  
adierazi du zeruak  
izar eder batekin.

7  
Izar oni nora dijoan  
jarraitu bear zaio,  
ekusi nai duenak Aur au  
non ta nola dan jaio.

8  
Goazen bertatik Belena  
Aur eder onen billa,  
sendatu digunean pozez  
bekatuaren miña.

9  
Belengo estalpean dago  
Jesus larru gorrian,  
ollarrarekin astoa ta  
idiaren erdian.

10  
Salvadore batentzat da au  
umildade aundia,  
asnasarekin berotutzen  
ari zaio idia.

11  
Aur eder au bera dalarik  
zeru ta lurren Jabe,  
jaio nai izan du mundura  
ondasunikan gabe.

12  
Zerutikan jatxirik digu  
Aur onek erakutsi  
nola bear degun guziok  
mundu onetan bizi.

13  
Egiten baldin baditugu  
onen esanak ongi,  
berarekin egongo gera  
zeruan beti-beti.

14  
Onelako berri ederra  
degunean ekarri,  
limosna on bat uste degu  
gaur etxe onetatik.

15  
Jakiñean etorri gera  
gazteria guzia  
limosnagillea dala txit  
emengo nagusia.

16  
Urrea biralduko digu  
zeren daukan gordea;  
nagusia bezin prestua  
da etxeko andrea.

17  
Errian alako andre bat  
senti ez det besterik:  
bera dator solomo eta  
lukainkaz beterik.

18  
Gaztaña egosiak eta  
sagarrakin ogia,  
igual da ekartzen badu  
urdai puska lodia.

19  
Eskale guziak dituzte  
ate oek zabalak;  
gurasoen gain gañekoak  
dira seme-alabak.

20  
Barkatu utsegiterikan  
baldin egin badegu,  
beste urtean ere pozik  
etorriko gera gu.

21  
Obeto kantatuko degu  
askoz ere gaur baño;  
Jaungoikoak gau on diela  
datorren urteraño.



Bertso-papera, *Donostian, Ignacio Ramon Baroja-ren moldiztegiuan* argitara emana.

Izenburuak egillea salatzen digu: *Iztueta jauna*; Zaldibiko Juan Inazio Iztueta Etxeberria alegia (1767-1845).

Sail au noiz jarria dan ez da esaten.

\* \* \*

Beste argitalpen bat, ezeren aldaketarik gabe: Jose Garmendia Arruebarrena: *Iztueta'ren olerkiak*, Tolosa, 1978.

\* \* \*

*Anuario de Eusko-Folklore, 1933* urtekarian, sail ontako bost bertso ematen zaizkigu: 1, 4, 9, 15 eta 21-garrena, Altsasuan jasota.

Aldaketak: 1/1: Aur Jesus, Maria, Jose; 4/2: bera baido obia; 4/3: Beleren jaio omen zaigu; 9/1: Belerengo estalpian dago; 9/2: Jesus narru gorrian; 9/3: astuarekin ollarra zan; 15/1: Bidean gatoz informaturik; 15/3: limosnerua dala txit; 21/2: askoz ere gaur baido; 21/3: Jaungoikuak gaubon digula; 21/4: urrengo urteraño.

\* \* \*

Irunen jaio eta Soraluzen bizi zan Jerardo Ezenarro *Urzelai* zanaren paperetan sail ontako lau bertso aurkitu ditugu: 1, 4, 3 eta 19-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/1: Jesus, Jose eta Maria; 1/2: Joakin eta Sant'Ana; 3/2: bear degu siñistu; 3/3: Jaungoikuaren Seme ori; 3/4: zerutik jetxi zaigu; 4/1: Iñok ezin eman berri bat; 4/3: Belenen jaio ta emen dator; 4/4: gure Salbatzallia. Eta 19-garrena beste onela:

Etxe onek zabalak ditu  
atiak eta bentanak;  
ostian gurasuen gañerakuak  
dira seme-alabak.

\* \* \*

Orain urte-pilla bat, Oruezabal abizeneko –ez naiz izenaz oroitzen– anai jesuita zaar baten eskutik sail ontako amairu bertso jaso nituan: 1, 2, 3, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 18, 19 eta 20-garrena.

Aldaketak: 1/1: Agur, Jesus, Maria ta Jose; 2/4: gaur zuei ematera; 3/2: bear degu sinistu; 3/4: zerutik jatxi zaiguna; 6/1: Atsegingarritzko berri bat; 7/1: Izar ori nora dijoan; 7/4: mundura nola dan jaio; 10/2: o zer naitasun aundia; 10/3: arnasakin berotutzen; 19/2: ate oiek zabalak; 20/3: beste urtean ere pozaz.

\* \* \*

Jesus Lete *Ibai-ertz* zanak, *El Diario Vasco* egunkarian, 1990-XII-19-n, *Gabon kanta ezezagun bat* izeneko idazlan batean, sail ontako zenbait bertso eskeintzen zituen: 1, 2, 5, 7, 9, 10, 8 eta 18-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/1: Jesus, Maria eta Jose; 1/2: San Joakin da Santa Ana; 2/4: gaur zuei ematera; 3/1: Egiazko berri eder au; 7/1: Izar ori nora dijoan; 7/2: bear zaio jarraio; 7/3: jakin nai duenak Aur au; 7/4: nun da nola dan jaio; 8/1: Goazen guztiok Belena; 8/2: Aur eder orren billa; 8/3: sendatu digunian, pozik; 8/4: pekatuaren miña; 9/3: astoarekin, idiaren; 9/4: ollarraren erdian; 10/1: Salbadore batentzat au da; 10/3: arnasarekin berotutzen; 18/3: igual da ekartzen badezu.

Aurretik argibide auek ematen zituen:

«Mutil koskorak giñala, Gabon eskean ibiltzeko, gogo biziz saiatzen giñan aalik eta kanta alai, berri eta politena aurkitzen. Au zan bere arrazoa: zenbat eta gogozkoagoa izan entzuleentzat, orduan eta sari geiago ematen ziguten, eta guk ori nai.

Ondorengo kanta au ez da berria. Gutxienez eun urte paseak ditu, naiz askorentzat gaur berria izan, sekula entzun ez dutelako».

Sudur onekoa gure *Ibai-ertz* zana, kanta oni zaar-usaia artzen baitzion, bete-betea asmatuz.

Ondoren, kanta au berak nundik zuan esaten du:

«Otzaurteko amona bati, itzez itz, jaso da».

# JESUSEN JAYOTZACO GAU POZGARRITSUAN

EUSCAL ERRIETACO GAZTERIAC CANTATZEKO

## IZTUETA JAUNAC IFINTACO ITZ NEURTUAC.

1	8	15
Agur, Jesus, Maria, José, Joaquin eta Ana, Badaquigu Jesus maitia Jayo zan gaua dana.	Goacen bertatic Belena Aur eder onen billa Sendatu digunean pocez Becatuaren miña.	Jaquiñean etorri guera Gazteria gucia Limosnaguillea dala chit Emengo nagusia.
2	9	16
Errico cembaitgalai gazte Cantuz guera atera Atseguinezco poz andi bat Zuey gaur ematera.	Belengo estalpean dago Jesus larru gorrian Ollarrarequin astoa ta Idiaren erdian.	Urrea biralduco digu Ceren daucan gordea Nagusia becin prestua Da echeco andrea.
3	10	17
Eguiazco berria da ta Bear degu sinitisi Jaungoicoaren semea gaur Cerutic zaicu jetsi.	Salvadore batenzat da au Humildade aundia Asnasarequin berotutzen Arizayo idia.	Errian alaco andre bat Senti ez det beneric Bera dator solomo eta Lucaincaz beneric.
4	11	18
Inorc ecin berri bat eman Au dan baño obea Belenen jayo omen zaicu Gure Salvadorea.	Aur eder au bera dalaric Ceru ta lurren jabe Jayo nay izan du mundura Ondasunican gabe.	Gaztaña egosiac eta Sagarraquin oguia Igalda ecartzen badu Urdai pusca lodia.
5	12	19
Urte ascoan egon guera Egun onen beguira Adanen becatu guciac Seculaco ill dira.	Cerutican jaichiric digu Aur onec eracutsi Nola bear degun gucioc Mundu onetan bici.	Escale guciac dituzte Ate oec zabalac Gurasoen gain gañecoac Dira seme alabac.
6	13	20
Atseguin garrizco berri au Mudnac dezan jaquin Adierazo du Ceruac Izar eder batequin.	Eguiten baldin baditugu Onen esanac ongui Berarequin egongo guera Cerulean beti beti.	Barcatu utseguiterican Baldin eguin badegu Beste urtean ere pocic Etorricco guera gu.
7	14	21
Izar oni nora dijoan Jarraitu bear zayo Ecusi nai duenac aur au Non ta nola dan jayo.	Onelaco berri ederra Degunean ecarri Limosna on bat uste degu Gaur eche onetatic.	Obeto cantatuco degu Ascoz ere gaur baño Jaungoicoac gau on diela Datorren urteraño.

1841

## Jesusen

### jaiotzako kanta berriyak

---

1

Onentzaro eguna  
alderatutzean,  
asten gera sentitzen  
zerbait barrenean;  
saltoka pozez dabil  
guztion biotza,  
gau artan degulako  
Jesusen jaiotza.

*Estrib.*

2

Nola poztuko ez du  
bakoitza Gau Onak,  
salbatzera badator  
Jainkoa gizonak?  
Aurtxo bihurturikan  
jaio da Belenen,  
goazen adoratzera  
Jesusa lenbailen.

3

Ozta jaio da Jesus  
millaka aingeruak  
jatxi dira lasterka  
utzirik zeruak;  
eta daude kantatzen  
aren inguruan:  
«Gloria zeruan ta  
pakea munduan».

4

Indian Erregeak,  
mendian artzaiak,  
irrikiturik dauzka  
Belena joan naiak;  
ez daukate egonik,  
ez janik, ez lorik,  
ez daukate Belena  
joan arteko onik.

5

Bereala utzirik  
larre eta aitzak,  
badijoaz artzaiak  
arturik emaitzak;  
batak darama gazta  
galanta, zuriya,  
besteak arkumea,  
besteak guriya.

5

Gaspar, Melxor, Baltasar,  
iru Erregeak,  
ibilli ez ditezen  
galdurik bideak,  
zeruan agertu da  
izar gidariya,  
erakusteko zuzen  
Belengoa erriya.

7

Ez dijoaz, ez, utsik  
aientxen eskuak,  
emalleak dirade  
Errege prestuak;  
bada aien emaitzak  
dira intzentsua,  
eta urre oriya  
ta mirra gozoa.

8

Belena bezin laster  
nekeaz azturik,  
Jesus adoratzer  
joan dira bertatik;  
Portale pean daude  
Jose ta Mariya,  
erdian dutelarik  
Aur jaio berriya.

9

Belauniko jarririk  
auspezka lurrean,  
antxen daude guztiak  
Jesusen aurrean,  
adoratzen dutela  
biotz garbiakin,  
eskañiak egiñaz  
beren emaitzakin.

10

Au berau bear degu  
guk emen gaur egiñ,  
nai badiogu eman  
Jesusi atsegiñ,  
kantatzen ditugula  
umore onean,  
Jesusen koplak oiek  
emaitzen ordean.

### *Estribilloa*

Goazen, goazen,  
goazen Belena,  
Aurra adoratzer  
al dan lenena;  
antxen dago  
Portale pean,  
Ama Birjiñaren  
aldamenean.

Bertso auk moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik ditugu.

Baiña nungoak eta noizkoak diran orriaren beeko barrenean esaten da:  
*Hernani Año 1841.*

Ez da egillearen izenik esaten. Baiña zortziko auen puntuak ez dira launaka biltzen, binaka baizik. Ori ez du bertsolari jator batek egiten. Gizon eskolatu baten lana izango da, beraz, agian.

Orregatik, baditeke Agustin Iturriaga (1778-1851) izatea, idazle au Ernanikoa eta garai artakoa izanik.

1843

## Jesusen

jaiotzako kanta berriak

1843-garren urtean

---

1

Paradisoko fruta  
eder ta gozoak  
galdu izan zituen  
gure gurasoak,  
utzitzen ginduela  
aien pekatuak,  
aiek berak bezala,  
gu ere galduak.

2

Etsaia gure jabe  
egiñik orduan,  
tristura baizik etzan  
arkitzen munduan.  
Nola arkituko etzan  
tristura jendea,  
deaurruak bazeukan  
arturik mendean?

3

Kupitu zan gutzaz txit  
gure Jaungoikoa,  
eta ifini zigun  
erremedioa,  
bidaltzen zigularik  
Semea zerutik,  
onek atera gintzan  
estadu artatik.

4

Gaurko gaba izan zan  
gauetan onena,  
Seme ura munduak  
ikusi zuena,  
gelditzen zalarika  
ordutik jendea,  
len tristuraz bezala,  
kontentuz betea.

5

Nork pentsa jatxi zala  
Gauon gaberdian  
portaletxo batera  
Belengo errian,  
dontzella garbi batek  
iduki ondorean  
bederatzi illabetez  
bere sabelean!

6

Maria zan dontzellen  
artean santena,  
Jainkoa sabelean  
iduki zuena,  
gelditzen zalarika  
len bezela gero:  
santa eta dontzella  
erditu ezkeru.

7

Berri au jendeari  
adiaraztera  
aingeruak ziraden  
etorri lurrera;  
ez ziraden azkena  
artzaiak mendian  
jakin izan zutenak  
Gauon gaberdian.

8

Bereala asi ziran  
batetik bestera:  
«Guazemazute –esanaz–  
Jauna ikustera;  
orain jaio omen da  
Birjiña Amagandik,  
Jainkoa izan arren  
Aurtxo bat egiñik».

9

Zeru eta lurraren  
Jaun eta Jabea  
ikustera an dijoa  
lasterka jendea;  
eta presentaturik  
beren emaitzakin,  
adoratutzen dute  
biotz umillakin.

10

Aurtxoa adoratzera  
juan ziran jendeak,  
ala artzaiak nola  
iru Erregeak;  
pozez biurtu ziran  
graziaz beterik.  
aita-amen artean  
Semea utzirik.

### **Estribilloa**

Kanta, dantza ta poza  
umore onean  
izan bear ditugu  
gaurko egunean,  
«Biba Jesus! –deituaz  
kaleak barrena–.  
Biba gure etsaia  
garaitu duena!».



Bertso auek moldiztegi-izenik gabeko paper batetik ditugu. Bertsoak jarri ziran garaiko argitalpena izango da, paperak eta letraren itxurak adiztera ematen dutenez.

Bertso auek ere, aurreko saillarenak bezela, binaka biltzen dituzte puntuak, eta ez launaka, bertsolari jator batek egingo lukean bezela. Orre-gatik, bertso auen jartzaillea gizon eskolaturen bat izatea ez litzake arri-tzekoa izango..

Leen esan degunez, olakoa eta 1843 urtekoa, jartzaille oparoa bazan Donostian: Jose Bizente Etxagaray (1773-1855). Ikus: *Auspoa*, 35-36. Baiña beste argibiderik gabe, segurutzat ezin jo dezakegu bertso auek ere arenak diranik.

1844

**Donostiako gaztetxoak**  
**iru Errege bezpera gabean**  
**1844-garren urtean**

---

**Martxa**

*Marchan los reyes, llevan por guía*  
*izar berri bat argia,*  
*astro brillante y prodigioso*  
*zeruetatik jatxia;*  
*Él los dirige, ellos le siguen,*  
*jakintsua da laguna,*  
*camino recto sin extravía*  
*zuzen dijoaz Belena.*

**Pastorela**

1

*Celebrado el origen*  
*de nuestra redención,*  
*obra incomprensible*  
*de gran veneración,*  
*sigue otra divina*  
*que causa admiración:*  
*de los tres Reyes Magos*  
*la santa adoración.*

2

*Caminando Melchor,*  
*Gaspar y Baltasar,*  
*un astro luminoso*  
*llegan a alcanzar,*  
*que descende del Cielo*  
*y les viene a guiar,*  
*marchando por delante*  
*al sagrado lugar.*

1

*De Madre Virgen pura*  
*al fruto sin mancilla,*  
*los Ángeles, los Reyes,*  
*le doblan la rodilla;*  
*al divino Mesías*  
*que al nacer tanto brilla,*  
*al Criador de todo*  
*todo se le humilla.*

**Coro**

2

*Hoy víspera de reyes*  
*con nuestra orquesta*  
*cantamos pediguñeos*  
*de puerta en puerta;*  
*aguinaldos buscamos,*  
*que es cuenta nuestra,*  
*el darlos o negarlos*  
*la cuenta es vuestra.*

**Zortzikoa**

1

*Jesusaren jaiotza*  
*Onentzarokoa,*  
*urtero berritzea*  
*ez da oraingoa;*  
*Erregien bezpera*  
*da ondorengoa,*  
*kristabaren oroitze*  
*denboretakoa.*

2

Meltxor, Gaspar, Baltasar,  
iru Erregeak,  
Orienteko jaunak  
naikeraz beteak,  
aisa utzi dituzte  
beren aginteak,  
eta erraz ikasi  
Belengo bideak.

4

Izarraren argia  
estali danean,  
Erregiak arkitu  
dira Portalean;  
ipiñirik bertatik  
belaunak lurrean,  
irurak umill daude  
Jesusen aurrean.

3

Izar berri eder bat  
jatxi da zerutik,  
Errege jaun oheri  
laguntzeagatik;  
gidatzalle argia  
dijoa aurretik,  
Belengo portalera  
bide zuzenetik.

5

Frutu bedeinkatua  
Birjiña Amarena,  
jaiotzetik ainbeste  
agintze duena;  
Aingeru, Erregiak  
dirade aurrena,  
ipintzen diotena  
lurrean belauna.

### **Euskaritxo**

Gaur Errege bezperan  
aterikan ate  
gure eskarioa  
aditu bezate;  
agirandotxo zerbait  
eman nai badute,  
beren etxekoetan  
egin bage kalte.

Kanta-papera, «*SAN SEBASTIAN: imprenta de Pío Baroja, plaza nueva n. 10*», Jose Manterola zanaren bilduman. Paper onek, eskuz idatzita, itz auek ditu: *Autor: D. José Vicente de Echegaray.*

Kanta auek bigarren argitaraldia ere izan zuten. Ale bat, Chicago-ko New Librery-n dago. Baiña paper onek urtea aldatzen du: *1855-garren urtean* dio izenburuan. *Martxa* deritzan bertsoa falta du, eta moldiztegi-ize-na beste onela dakar: *San Sebastian: Imprenta de Pío Baroja.*

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

## I

1  
Aingeruak esan du  
or goiko mendian  
Jesus jaio zagula  
Dabiden errian;  
gloria zeruan da  
pakea lurrean,  
borondate oneko  
gizonen artean.

2  
Gaurik luzienian  
denbora're otza,  
Belengo portalean  
Jesusen jaiotza;  
eman Aur eder oni  
nork bere biotza,  
oetan etortzea<sup>1</sup>  
logratu al bagentza.

3  
Aingeruak lendanaz  
abisaturikan,  
artzaiak jatxi dira  
saltoka menditikan;  
gure Salbadorea  
adoraturikan,  
orain biurtzen dira  
gozoz beterikan.

4  
Zeru-lurren arteko  
pakea egitera  
Jesus etorri zagu  
mundu onetara;  
Jainko bat umillatu  
gizon egitera,  
nork eztu jua bear  
Au adoratzera?

5  
Jesusi eman zaiogun<sup>2</sup>  
erregalo bana,  
berari ondoena  
gustatzen zaiona:  
biotz garbi umilla,  
borondate ona,  
au da Aurrak gugandik  
deseo duana.

6  
Jaungoikoaren Ama  
Birjiña Maria,  
Semea egin eta  
dontzella garbia;  
eman bear diguzu  
arren lizentzia,  
adoratu dezagun  
Aurtxo eguzkia.

7

Kanta, kanta gogotik,  
zar eta gaztiak,  
aberats eta pobre,  
txiki eta aundiak;  
Jesusek egin ditu  
betiko pakiak,  
gizonarentzat daude  
zeruko gloriak<sup>3</sup>

10

Bederatzi illabete  
gauaz kunpliturik,  
Aur eder bat jaio da  
Birjiña Amagandik;  
Aita San Jose zuen  
berekín esposo,  
Gabonez eraten da  
zenbait ardo gozo.

### *Estribillo*

8

Amabi orduetan,  
Jerusalen ondoko  
erritxo batean,  
Aurra modu onetan,  
guztiok gaudela lotan,  
parrez jaio omen da,  
besterikan ez bezela,  
Belengo portalean,  
guztiok kontsola gaitean.

11

*Esta noche, señores,*  
umore onarekin,  
*vengo* zuen artera  
berri on batekin;  
*el amor que tú traes*  
gizonaganako  
*quiso bajar del cielo*  
gure onerako.

## II

9

Estudiorik gabe,  
ez banu erratzen,  
orain abiatzen naiz  
aurrera kantatzen;  
printzipiorik ez du  
Aita Eternoak,  
finik ez du izango  
Zurekin zeruak.

13

Agur, *infante bello*,  
urrengo urteraño,  
agur, Jose, Maria,  
beste bateraño:  
*ángeles y pastores*,  
zubei ere agur,<sup>4</sup>  
astoa eta iria,  
agur, agur, agur.

### III

14

Berri onak, jenteak,  
Belengo erritik,  
Jesus jaio dalako  
Birjiña Amagandik;  
artzaiak jatxi dira  
saltoka menditik,  
adoratzera Jesus  
biotz-biotzetik.

16

Zeruak eta lurren  
egillea dana,  
umildadez beterik  
dator gaur gugana;  
goazen bada guziok  
pozez beragana,  
goazen adoratzera  
Jesus Aur laztana.

2

San Jose, dadukazu  
eskuan lorea,  
izango zenduela  
zeruko señailea;  
Birjiña Mariaren  
esposo maitea,  
ondo guardatu dezu  
bai umildadea.

17

Ditxa ta zorionez  
zaudete beteak,<sup>5</sup>  
Jose eta Maria  
esposo maiteak;  
zuen gurasotasun  
graziaz beteak  
gaur zabaldu dizkigu  
zeruko atea.

15

Arriturikan daude  
Jose eta Maria,  
adoratzen dutela  
Aur jaio berria;  
negu-biotzean ta  
gauaren erdia(n),  
etorri zan mundura  
Jaungoiko aundia.

18

Adanen bekatuak  
graziak galdurik,  
Jaunak beragandikan  
genduzkan botarik;  
etzan zer esperatu  
beñere zerurik,  
ezpalitz Jesus jaio  
Birjiña Amagandik

19

Zarrak eta gazteak,  
txiki eta aundiak,  
eman dizaiozkagun  
Jesusi graziak;  
ain dirade aundiak  
gure irabaziak,  
iritxi dituanak  
gaur mundu guziak.

20

Guziok zoraturik  
kantuz eta dantzan,  
dibertitu gaitean gaur  
bere alabantzan;  
zerurako bidea  
irikiko bazan,  
Jesus munduratzea<sup>6</sup>  
preziso bear zan.

21

Kanta dezagun bada  
guziok batean,  
nola para gaituen  
Jesusek pakean,  
bera gelditzen zala  
gizonen tartean,  
bizi-leku arturik  
ostia batean.

22

Amorioa zer dan  
emen da ezagun,  
lezio au guk ere  
ikasi dezagun;  
Jesusi artarako  
eska diozagun  
bere jaiotzagatik  
dizagula lagun.

23

Aditu dutenian  
Jesusen jaiotza,  
norbait mugitzen dala  
sentitzen det otsa;  
nagusi-etxeakoandreak  
zabaldurik boltsa,  
kantariak artzen du  
atarian poza.

24

Agur, etxe onetako  
famili guzia,  
ematen dizkitzugu  
milloi bat grazia;  
gure porta-bidea  
ondo merezia,  
urrengo urteraño  
agur, nagusia.



### *Estribillo I*

25

Etxekoandre zabal  
pare gabekoa,  
nun arkitu beste bat  
esku obekoa?  
Alproja bete kapoi,  
pezetaz kolkoa,  
sikiera eskarrik asko  
esaiok, tontoa.

### *Estribillo II*

26

Goazen, ene semea,  
trago bana aldian,  
pitxarra goratuaz  
oju garrazian;  
pijo-pijo, ene semea,  
*brinco, brinco, compañeros,*  
zankoa arin eta  
berakoa firme.

### *Estribillo III*

27

Erregeak datoz  
presaz Belena,  
guk billa dezagun  
Jesus lenena.  
Iru errege orientetikan:  
Gaspar, Beltxor ta Baldasar;  
aiek irurek ere zekien<sup>7)</sup>  
Trinidadeta nola zan;  
Trinidadeta, Trinidadeta,  
Birjin Amaren Semea.

### IV

28

Eguerri-bezperan,  
negu-biotzean,  
jaio da gure Jesus  
leku arrotzean;  
ez palazio aundi  
eta aberatsean,  
baizik estalpe pobre  
arrote otzean.

29

Maria eta Jose,  
gutziz errukarri,  
otzak ikaraz zeuden  
begira alkarri;  
onetan amabiak  
dirade etorri,  
argitara danean  
Seme eder ori.

30

Eguzkia pasata  
osorik kristala,  
orobat gelditu da  
Amaren sabela;  
Espiritu Santuak  
egiñik itzala,  
orra or Mariagan  
ama eta dontzella.

31

Ditxa ta zorionez  
dator gaur gugana,  
agertu da mundura  
Jaungoiko-gizona,  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsona,  
Mesias egiazko<sup>8</sup>  
gure Jesus ona.

34

*Estribillo*  
Atozte, artzaiak,  
guazen lasterka,  
ardiak utzirik  
emen muturka;  
idiak an orroi,  
astoak arrantza,  
guk zer egin dezagun?  
Soñu eta dantza.

## V

### *Canciones de los tres Reyes*

32

Nor ezta zoratuko  
atsegin kontentuz,  
ikusi ezkerotzik  
Aurtxo eder Jesus?  
Inguraturik dago  
Belenen aingeruz,  
arin datoz artzaiak  
oju eta kantuz.

35

Iru errege datoz  
orientetikan,  
Jaunak izar eder bat  
lagun emanikan,  
kriaruz eta erregaloz  
ondo beterikan,  
Jesus adoratzera  
biotz guztitikan.

33

Egiñikan gu ere  
orien lagunak,  
guazen bada guztiyok  
biotz ta barrenak;  
gizonaren amorez  
gizon egitera,  
guazen bada guztiyok  
ura adoratzera.

36

Alabantzaz beterik  
zure izen santua,  
Gasparrek ofrezitzen  
dizu intzensua,  
mirraren balsamoa,  
gure Jainko Jauna,  
borondatez beterik  
dator gaur gugana.

Atozte, artzaiak,  
 ardia utzirik;  
 Belengo portalean,  
 txit pozez beterik,  
 an dago Jaungoikoa  
 gizon biurturik,  
 lurrera etorrita  
 zeruak utzirik.

Bertso-sail luzea izan degu oraingo au: Bertso eta *estribillo*, ogei ta amazapi ale.

Or goien ezarri degun izenburua, guk erantsia da, leenengo bertsotik artuta.

Saillak, guk arkitu degun tokian beintzat, beste izenburu luzeago au dauka:

«*Canciones de Noche Buena. Estas canciones sirven para José Antonio Salsamendi y sus compañeros, que son Martín Joaquín de Yturrioz, José León de Yurrita y Juan José Amondarain, en Villafranca, día 19 de Diciembre, año de 1845*».

Bertso oiek, Tolosan aurkitu nituan, makinaz idatzitako orri batean. Gerroztikako kopia bat da, beraz. Eta izenburu luze ori ez degu uste inprentatzko orri batean agertua izango danik.

Oiek danak kontuan artuta, gure iritzia au da: Ordiziko lagun oiek, buruz ikasi eta atez ate ibiltzeko-edo, bertso auk eskuz kopiatuko zituzten, kanta-paperean batetik-edo artuta. Eskuzko orri ori norbaitek eskuratu eta makinaz beste kopia bat egingo zuan urteen buruan. Denborarekin, eskuzkoa galdu eta makinazkoa azaldu. Eta guk bertso oiek andik onera aldatu. Arrigarriak dira benetan, batzuetan beintzat, bertso zaarrek korritzen dituzten bideak.

Bertso-sail au bost zatitan banatuta dago. Irakurleari irakurketa errez-tutzearren, zati bakoitzaren asieran erromatar zenbaki bana ezarri degu.

Bertsoen egillea nor dan ez da iñun esaten. Baiña egille bakarra ez da izango. Oso bertsogintza ezberdiña ikusten baita bertso batetik bestera. Puntu trakets samarrak ere ikusten dira.

Irakurlea oartuko zanez, irugarren zatiaren azken bertsoa erromantze zaar baten puska bat da.

\* \* \*

Bilbon, Euskaltzaindiaren liburutegian, izenburuak onela dion esku-idazki bat dago: *Arte métrica bascongada o tratado analítico de la versificación euskara*.

Ez da egillearen izenik esaten. Baiña baditeke aita Jose Inazio Arana zanaren lana izatea. Oker ez bagaude, Loiolan ere bada esku-idazki orren beste kopia bat. Baiña, egillea nornai izanik ere, bere jardunean ari dala, sail luze ontako laugarren zatiaren bostgarren bertsoa eskeintzen du; eta batere aldaketarik gabe eskeiñi ere.

Ori ikusi orduko, auxe pentsatu genduan: esku-idazki orren egilleak ere bertso auek ezagutuko zituala, bertso-paperen batean-edo. Bestela, erriaren aotik jasoa izatera, aldaketa-paltarik etzan izango.

\* \* \*

Laugarren zatiaren bertsoak *Euskal-Erria* aldizkarian ere aurkitu ditugu, 1886 urtean, 517 orrialdean.

Azpian argibide jakingarri au ematen du: «Tolosa-inguruko erriyetan aspaldi kantatu oi ziradenak».

Aldaketak: 1/5: ez jauregi eder aundi; 4/1: Ditxa ta zoriona; 4/3: ager-tu da munduan; 4/5: Irutasun Santuko; 6/3: bijoaz bada ara; 6/6: gizon egiñ danak; 6/7: bakarrikan nai ditu; 6/8: borondate onak.

\* \* \*

Lekarotzen, Aita Donosti zanaren artxiboan, Arjentinatik bialdutako kuaderno batean, laugarren zatiaren iru bertso agertu dira: 1, 5 eta 3-ga-rena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/1: Eguberri bezpera; 1/6: ez aberatsian; 1/7: baizik estal-bi pobre; 3/1: Iguzkia pasa eta; 3/2: oso da kristala; 3/3: orobat gelditzen da; 3/7: horra Maria ama; 5/3: ikusi danez geroz; 5/4: jαιο dela Jesus; 5/7: Mesias egiazko; 5/8: haurtxo eder Jesus.

---

<sup>1</sup> Bertso auek arkitu ditugun orrian: *etortzera*.

<sup>2</sup> Orrian: *Jesusi emangazogun*.

<sup>3</sup> Bertso onen puntuak beste onela daude orrian: *gazteak, aundiak, pa-keak, gloriak*.

<sup>4</sup> Orrian: *subeyre Agur*.

<sup>5</sup> Orrian: *zaude beteak*

<sup>6</sup> Orrian: *Jesus munduratzera*.

<sup>7</sup> Orrian: *erencequien*.

<sup>8</sup> Orrian: *Maria egiazko*. Baiña *Euskal-Erria* aldizkarian, 1886: *Mesias egiazko*. Onela idatzi degu guk ere, ala bear dualakoan.

1849

**Donostiako gazteak**  
**Iru Errege bezpera gabean**  
**1849-garren urtean**

---

*Aguinaldo*

Donostiar gazteak,  
betiko legean,  
soñu eta kantakin  
umore onean,  
Errege-egunaren  
bezpera-gabean,  
aterik ate gatoz  
zerbaiten galdean.

*Pastorela*

Izan arren munduan  
ondasuna ugari,  
Errege aundiena  
eta agintari,  
guztia zor diogu  
Jesus maiteari;  
berari alabantzak,  
graziak berari.

Ona gaurko gabean  
bertan ejenploa,  
iru errege magok  
emanitakoa;  
birtute aundiena  
umildadekoa,  
fedez adora zagun  
gure Jaungoikoa.

*Zortziko*

«Zu zera, Jesus, gure  
Erredentorea,  
zu zerade Meltxorren  
Jaun eta Jabea;  
zurea da eskeintzen  
dizudan urrea,  
zurea da mundua,  
zerua zurea».

Alabantzaz beterik  
zure izen santua,  
Gasparrek ofrezitzen  
dizu intzentsua:  
«Au da Arabiako  
arbolen frutua,  
Aurtxo berdin bagea,  
zuretzat bildua».

Baltasarrek eskeintzen  
dizu, Jesus ona,  
Ejiptoko arbolen  
urik gozoena:  
«Mirraren balsamoa,  
gure goiko Jauna,  
borondatez betea  
dakart Zuregana».

Sei bertso auek, *Pio Baroja-ren moldiztegui*an argitara emandako kanta-paper batetik kopiatuak ditugu.

Orri orren fotokopia bat, Azpeitian jaso genduan.

Izenburuak argibide jakingarriak ematen dizkigu; nungo bertsoak diran, zein urtetakoak eta zertarako jarriak.

Baiña egillearen izenik ez da esaten. Garai artan, leen ere esan degunez, bertso asko jarri zituen Donostian Jose Bizente Etxagaray jaunak (1773-1855), Eguberri-festetan eta abarretan kantatzeko. Orregatik, auek ere arenak izan ditezke.

1849

**Eguberriko kantak Donostiakoak,**  
soñuan ipiñiak bere maisu kapillako D. J. J. Santesteban-ek,  
Jaunaren 1849-garren urtean

---

**Asierako jolasa**

1

Zelebra zagus, nere kristabak,  
gure Jesusen jaiotza,  
zeruetako obra onekin  
alegra bedi bakoitza;  
eman zaiogun esker onean  
fedearekin biotza.

2

Onetarako adora zagus  
pozez kontentuz lurtean,  
bere graziak ipiñi gaitzan  
zeruetako bidean,  
sinisturikan biotz osotik  
beti beraren legean.

3

Urriki zaite pekatariatz,  
zeru lurraren Jabea,  
Erredentore gizonarena,  
Jaungoikoaren Semea;  
barka gaitzazu ofenditua  
zure ontasun aundia.

**Artzai kanta**

1

Guazen lasterka, guazen Belena,  
ez degu bear gelditu,  
Jesus maitea jaiot berria  
dezagus arte arkitu;  
zeru argia lagun degula  
galtzen utziko ez gaitu.

2

Adora zagus biotz guztitik  
aingeruakin batean,  
bere grazia eta pakea  
digula beti lurtean,  
zeruetako bere gloria  
eman dizagus artean.

3

Adora zagus Trinitadeko  
bere bigarren pertsona,  
alaba zagus Jesus gurea  
gaur egin dana gizona,  
obra zeruko miragarria  
zori onean egiña.

4

Eska zaiogun iruki gaitzan  
bere grazian munduan,  
libra gaitzala etsaietatik  
eriotzeko orduan,  
eta ondoren artu gaitzala  
bere glorian zeruan.

## **Birjiña Amaren lenengo amabost urteak**

### **Zortzikoa**

1

Amaren sabeletik  
mantxarik bagea,  
Nazareten jaio zan  
Birjiña Maria;  
amoriozko Ama,  
zeruko bidea,  
len orain eta beti  
graziaz betea.

2

Nazaretkoak ziran  
aita eta ama,  
eta beren izenak  
Joakin eta Ana;  
esperantzaz beteak  
Jaungoikoagana,  
Berak eman zioten  
Birjiña Ama dana.

3

Guraso on obekin  
egon zan Maria  
iru urte egiten  
aingeru-bizia;  
aurtasunetik zuen  
Jaunaren grazia,  
jakinduria eta  
birtute aundia.

4

Gero amabi urte  
egon zan tenploan,  
Jaunaren etxe santu  
Jerusalengoan;  
munduko zan gutzia  
utzirik beingoan,  
ageri zuen ondo  
bere ejemploan.

### **Koroa**

Salbe lore zeruko  
aur jaio berria,  
izan zaitea, Jesus,  
ongi etorria;  
salbe Ama maitea  
Birjiña Maria,  
Jose aita ordeko  
Jaunak ipiñia.

Kanta-papera, «*Donostian Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguian*».  
Jose Manterola, *Cancionero Vasco, Segunda serie, Tomo IV.*  
*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.



1849

## Donostiako galai gaztetxoak

Jesusen jaiotzari

1849-garreneko urtean

---

### Pastorela

1

Txanton koplari latza,  
Pello kantaria,  
eta auzoko Txomin  
arrabetaria,  
adiskide azkarrak  
ditugu gurekin,  
gau ona pasatzeko  
pozez elkarrekin.

2

Gure eskarioa  
da urterokoa,  
agirandotxo zerbait  
borondatezkoa;  
Eguerri jai obek  
zelebra ditzagun  
beron esker onean  
ala gau non egun.

### Estribillo

Soñuba joaz kanta, mutillak,  
umore ona gurekin,  
etxeko jende prestu maiteak,  
agur onenbesterekin,  
urte askoan bizi beitea  
Jaunaren graziarekin.

### Zortzikoa

1

Gaurko misterioa  
parerik gabea,  
Birjiñagandik dator  
Erredentorea;  
zeruetatik datoz  
Ama ta Semea,  
Jesus eta Maria  
graziaz betea.

2

Berakin dute Jose  
aita ordekoa,  
gizon justu, ejemplo  
kastidatekoa;  
ezagutzen duena  
dala zerukoa  
Birjiñaren frutoa  
gaur jaiotakoa.

### Estribillo

Guazen. lagun maiteak,  
Belengo atera,  
Aurtxo jaiio berria  
guazen ikustera;  
guazen arin lasterka  
portale azpira,  
adoratzera Jauna  
zerukoa bera.

Kanta-papera: «*Imprenta de Ignacio Ramón Baroja*».

Kanta auek norenak diran ez da paperean iñon esaten; Baiña itxura da-  
na Jose Bizente Etxagarai jaunarena dute.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

1850

## Donostiako gazteak 1850-garren urteko Errege bezpera gauean

---

### Martxa edo ibil berdiña

Iru errege Orientetik  
datoz Belengo bidean,  
zeruko izar argi ederra  
lagun dutela aurrean;  
berak emanik argitasuna  
Mesias jaio danean,  
berealaxe sinistu dute  
biotz osotik fedean.

Errege obek eman digute  
ejemplo ona gaur bertan,  
nola agertu, zer moduz egon  
Jesus onaren oñetan;  
eskatzen beti biotz barrendik  
gogoz ordu guztietan,  
gorde gaitzala bere grazian  
bizi geran egunetan.

### Pastorela edo artzai-kanta

Pozez, kontentuz, naikeran eta  
guztiz umore onean,  
egondu giñan etxe onetan  
Onentzaroko gauean;  
gaur ere berriz onera gatoz  
adiskide on legean,  
zelebratzera Errege eguna  
bezperatikan pakean.

Jakin dezaten gure esker ona  
beti izan dala egia,  
adi bezate arretarekin,  
zabal bezate begia:  
ikus dezaten gure egin naia  
berontzat dala aundia,  
soñua, kanta, jaiotz-lekua,  
guztia degu berria.

### Zortzikoa

1

Etxekoai gau onak  
emanik aurrena,  
zelebratzera gatoz  
Errege-eguna;  
berak bezela degu  
izarra laguna,  
adoratu dezagun  
gure Jesus ona.

2

Jai ona bezperatik  
degu gaur gazteak,  
batzuek soñuakin,  
kantari besteak;  
ontarako gurekin  
datoz Erregeak,  
lendanaz aitortuaz  
beron bondadeak.

3

Errege santu onek  
Orientekoak,  
izan arren lenago  
mago legekoak,  
sinistatu dituzte  
obra on gaurkoak,  
argiturik beingoan  
izar zerukoak.

Beren umiltasunak  
digu erakutsi  
gloria zerukoa  
nola erabazi;  
gaurdandik ikasten  
bear degu asi,  
eta oitu bezela  
ez geroko utzi.

### **Koroa**

Beron agirandoaz  
Onentzaroetan  
oroituko gerade  
gure egunetan;  
orduan etorria  
ez gaude damutan,  
ageri dan bezela  
oraiñ emen bertan.

Kanta-papera, «*Donostian Ignacio Ramon Baroja-ren moldizte-  
guian*».

*Euskal-Erria*, XIV, 1886.

*Festara*, Auspoa 35-36, 1964.

## Al Nacimiento del Hijo de Dios

---

### Pastorela

1

*Venid, lindas pastoras,  
venid en este día  
latiendo de alegría  
el joven corazón;  
y al Niño que ha nacido  
en míseros pañales  
con ecos celestiales  
rendid adoración.*

*Venid, bellas coronas  
tejed de puras flores,  
de mágicos colores  
y aroma celestial;  
venid, que al tierno Niño  
de amor y vida lleno  
aduerme ya en su seno  
la madre virginal.*

### Coro

*Cerquen la pobre cuna  
lentos de amor los ángeles  
y entonen los arcángeles  
su mística oración;  
y formen con sus alas  
de mil y mil colores  
de eternos resplandores  
púrpureo pabellón.*

### Zortzikoa

1

Gau eder aukerako  
parerik gabea,  
ekarri gaituzuna  
Erredentorea;  
mundu guztiarentzat  
dakartzu pakea,  
Belenen jaiorikan  
Jaun eta Jabea.

2

Irugarren Pertsona  
Trinidadekoak  
zabal idiki ditu  
ate zerukoak;  
bere obra birtute  
onezgillekoak,  
kunplitu dira lenaz  
agindutakoak.

3

Trinidad Santuko  
bigarren Pertsona,  
digan amorioaz  
egin da gizona;  
zerua utzirikan  
jetxi da gugana,  
Birjiña Mariaren  
seme Jesus ona.

4

Beleneko portale  
zori onekoa,  
estalpe doaitsua,  
bide zerukoa;  
kristabaren sor-leku  
lege berrikoa,  
toki iñon bestetan  
ez bezelakoa.

### **Koroa**

Salbe, lore zeruko  
Aur jaio berria,  
izan zaitea, Jesus,  
ongi etorria;  
salbe, Ama maitea  
Birjiña Maria,  
Jose aita ordeko  
Jaunak ipiña.

Kanta-papera, «*San Sebastian: imprenta de Pío Baroja*».

Sail ontako azken bertsoa eta 1849-ko *Eguberri Kantak Donostiakoak* sailleko azkena berdiñak dira. Aita baten semeak izango dira beraz; Jose Bizente Etxagarai jaunak moldatuak, alegia. Ez dakiguna zera da: onako sail au zein urtetakoa dan.

*Festara*, Auspoa 35-35. 1964.

1850

## Tolosako

### Gabon-kanta zaarrak

---

1

Belengo errian,  
mendi, zelai eta  
txabola, legorpe ta  
inguru oetan,  
aingerubak diote  
leku guzietan  
Jesus jaioko dala  
gauberdi onetan.

2

Allegatu da bada  
gaubaren erdian,  
guazen, argi dezagun  
Belengo errian;  
bide-lagun arturik  
zeruko argia,  
guazen adoratzera  
Aur jaio berria.

3

Zorioneko Gabon  
doaiez betea,  
zuk ekarri gatu (*sic*)  
lurrera pakea,  
Mesias egiazko  
Jauna eta Jabea,  
gure Jesus, Birjiña  
Amaren Semea.

4

*Oh lucidísimo oriente,  
espejo el más cristalino,  
en quien se mira Dios Padre  
y os engendra como a su Hijo;  
esplendor de luz eterna,  
sol de justicia encendido  
en el fuego de amor,  
venid, guíanos, que estamos  
en tinieblas sumergidos.*

#### ***Estribillo***

*Ángeles y serafines  
al nacido de María  
en estas humildes pajas  
le alaben y bendigan.*

5

Aspaldi esan zigun  
guri aingerubak  
jaio biar zuela  
guzion burubak;  
ala disponiturik  
zekarren zerubak,  
erremediatzeko  
gure pekatubak.

6

Olentzaro-gauba da  
txit zoragarria,  
Belenen Aurra egiten  
Birjiña Maria;  
Jose aita ordezko  
an dago jarria,  
aingeruz beterikan  
inguru guzia.

7

Saltoka dantzan datoz  
menditik artzaiak,  
erregaloz beterik  
diana guziyak,  
aritu diranian  
onla notiziyak,  
Jaunari eskatzera  
beraren graziyak.

Bertso auek Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan azalduak dira. Euskeraz sei bertso, alegia, zortziko txikian; erderaz, berriz, beste bertso bat eta kantarte edo *estribillo* bat.

Eskuz idatzitako orri batean daude. Goiko ertz batean onela irakurtzen da: «*En Tolosa de billancicos en Tolosa año 1850*».

Esku-idazki ori, paperak eta letrak aditzera ematen dutenez beintzat, esaten dan urtekoa izango da, gure iritzirako beintzat.

Baiña ez degu uste, gaur egunean beintzat, Tolosan eta inguruetan, bertso auek kantatuko diranik.

Erderazko bertsoaren leenengo lerroa beste onela idatzita dago orri ortan: *O Ludicimo oriente* Ala bear dualakoan, *Oh lucidísimo oriente* idatzi degu guk.

Sail onek izenbururik ez du esku-idazki ortan. Emen daukana, guk erantsia da.



1850

## Donostiako gaztetxoak

Jesusen jaiotzari

1850-garrengo urtean

---

### *Pastorela*

Au gauaren guztizko  
eder eta alaia,  
berak ekarri digu  
Jaunaren doaia:  
garaiturik beingoan  
infernu etsaia,  
gelditzen da zeruko  
sarrera garbia.

Kristabak, aitor zagus  
gure doaikera,  
zeren Jauna izan dan  
aiñ kupidakorra,  
esanaz biotzetik  
fede onarekin:  
«Jauna izan dedilla  
betiko gurekin».

### *Zortzikoa*

1  
Gau eder aukeratu  
parerik gabea,  
zuk ekarri gaituzu  
Erredentorea:  
zuk gaur kristabarentzat  
dakartzu pakea,  
lurrera jatxirikan  
guztion Jabea.

2

Irugarren Pertsona  
Trinidadekoak  
gaur iriki dizkigu  
ate zerukoak;  
bere onegilleko  
obra birtuteak  
garaitu du etsaia,  
urratu kateak.

3

Ona Trinidadeko  
bigarren Pertsona,  
digu amorioaz  
egiñik gizona;  
Maria Birjiñaren  
errietatikan  
etorri da lurrera  
kristabagatikan.

4

Gaur egikaritu da,  
zori on gurean,  
Guzi-al-duenaren  
naigiña lurrean;  
gaur Belengo estalpe  
beartu batean,  
gure Jesus maitea  
dago trotxartean.

5

Erodesek jakiñik  
Aurraren jaiotza,  
bereala nai dio  
eman eriotza;  
baña egitutzeko  
lendanaz esana,  
aingerua jatxi da  
Aita Josegana.

6

Ametsetan aitu du  
esaten diola:  
Ejiptoko bidean  
ipin dediela;  
goazen, jarrai zaiogun  
kristabak munduan.  
gero arki dezagun  
guztiok zeruan.

### ***Koroa***

*Guazen guztiok, guazen  
lasterka Belena,  
guazen, gaur da jaiotza  
gure Jesusena;  
guazen, gaur da lurreko  
gaurik dan onena,  
guazen, kristau maiteak,  
guazen gu lenena.*

Moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean, azalduak dira bertso auek.

Izenburuari esker, erriaren eta urtearen berri badakigu. Egillearenik ez, ordea.

Baiña Jose Bizente Etxagaray jaunarenak diralakoan gaude. Batetik, bertsoen joskera arena dalako. Bestetik, bertso batean *gaituzu* esaten da, *diguzu* esan bearrean. Donostiako euskeraren aspaldiko akatsa da ori, Etxagaray jaunaren bertsoetan ere noizbeinka azaltzen dana. Ortaz, gaiñe-ra, itz berri batzuk ere badira, Larramendik-edo asmatuak: *doaikera, ones-gilleko, egikaritu, naigiña, egitutzeko...* Eta Etxagaray-ren bertsoetan ere olakorik bada.

Dana dala, aren liburuan (*Auspoa* 35-36) ez genituan bertso auek sartu; eta, an ezean, beste liburu ontan leku ematen diegu orain.

1851

*Zorcico para Gabon,  
para Iglesia y Calle*

---

*Iglesia*

1

Jesusa jaio zaigu  
gaberdez Belenen,  
adoratu dezagun  
kristauak len-bait-len;  
Erregien antzera  
presenta gaitezen,  
Jesus adoratzera  
umilki biotzez.

2

Eguzki, illargi, izar  
fundatu baño len,  
Jangoiko Zerukuak  
erabaki zuen  
Jesusa jaiotzia  
portal pobre baten  
dontzella batengandik,  
admira gaitezen!

3

Relijio santuko  
misterio andiya,  
jakintsu guzientzat  
da miragarriya:  
Maria gelditurik  
dontzella garbiya,  
Semia egitia;  
fedeko egiya.

4

Artikulu fedeko  
ezin ukatua,  
emeretzi gizaldiz  
klaru probatua,  
Eliza Ama Santak  
kreduan sartua,  
ezin dudatuko dan  
milagro santua.

5

Berotasun gozo bat  
suaren antzera,  
Jesusek botatzen du  
gure biotzera;  
gozotasun onekin  
urtetik urtera  
Gabon-gabian gatoz  
Aurra alabatzera.

6

Zeruak lurra juaz  
Belen portalian,  
mundua betetzen du  
Jesusen grazian;  
guziyok parte degu  
txit zori onian,  
aprobetxa gaitezen  
Gabon-arratsian.

7

Elizan juntaturik  
deboto andiyak,  
gizon ta emakume  
zar-gazte guziyak,  
ematen ari dira  
Jesusi graziyak;  
Jaunak paga ditzala  
zeruan guziyak. Amen.

3

Txit goguan dauzkagu  
igazko kapoyak,  
ogei ta lauan pasa  
ziraden guziyak;  
lukainka asko ostian  
Jaunari graziyak,  
jende karitatiba  
du Deba guziyak.

### *Calle*

1

Miragarrizko Aur bat  
gaberdi onetan  
zerutik datorkigu  
dontzella bategan;  
ogei musiko gaztek  
gozatzen beragan,  
musika jotzen degu  
aurten ere Deban.

4

Adi bezate ongi  
nagusi, etxeko andre,  
Gabon-limosna dala  
zeruaren jabe;  
sari eder onetan  
pentsatzen badebe,  
limosnarikan bage  
jungo ez gerade.

2

Urtetikan urtera,  
Abenduz Abendu,  
Jesusaren jaiotza  
zelebratzen degu;  
alabatu dezagun  
uda eta negu,  
urte abundosua  
aurten eman digu.

5

Karidatez beterik  
mirabe bat jetxi,  
limosnarikan bage  
ezin degu etsi;  
kapoia kakarakaz  
eskaleran senti,  
Jaunak eman deitzela  
ugalmenez beti.

6

Etxeko andre, nagusi,  
 aur eta bizitze,  
 biotzetik graziyak  
 gugan artu bitze;  
 kapoi ederra degu,  
 beste asko biltze,  
 Eguarri-jai onak  
 urtez pasa bitze.

7

Eguarri-jai onak  
 espera ditugu,  
 emakiña bat kapoi  
 zakuan badegu;  
 ongi-ongi erreta  
 jan biar ditugu,  
 adios, jende onak,  
 gabon, baguaz gu.

Bertso auk, erderazko izenburu orrekin, Asteasun eskuratu genituen.  
 Molgiztegiaren izena: *Vergara: Imp. de J. Undiano. 1851.*

Izenburuak dionez, bi zati ditu sail onek, bata elizan kantatzekoa, eta bestea kalean atez ate.

Nungo bertsoak diran, bigarren zatiak esaten digu, Deba bi bider izendatuz. Galdetzera izanak ez baigera, erri ortan bertso auen aztarrenik gelditzen ote dan ezin esango degu. Baiña erabat aaztuta egoteaz ez giñake arrituko, urte asko igaro dira eta.

Bertsolaria nor izan zan ere ez dakigu. Baiña iru aldiz poto egiten du. Sail batean bein uts egitea ditekena da noski. Baiña irutan deskuidatzea geiegi da. Agian egilleak etzuan ori oker zegoanik pentsatuko. Bestela, oker ori errez zuzenduko zuan.

Jose Antonio Arana Martijak ere argitara eman zituan bertso auk, bere *Marijesiak* izeneko lanean, *Euskera*, 1003, I.

1854

## Donostiako gaztetxoak

Errege-bezperan

1854-garren urtean

---

1

Milla ta zortzireunda  
bost amarreko urte  
Jesus jaio zanetik  
kontatzen dizkute;  
emezortzi gizaldi  
konpontzen dituzte,  
Eskriturak urtero  
berritzen digute.

2

Izar miragarritzko  
batek lagundurik,  
iru errege mago  
ikusten ditut nik  
Belengo portalian  
belaunikaturik,  
Jesusa adoratzen  
pozez txunditurik.

3

Oitura santu oni  
segituaz aurtan,  
amar musiko gera  
borondatez irten;  
oiturazko saririk  
ezpazaigu batzen,  
Jesus alabatziatz  
ezkera kantsatzen.

4

Azkeneko bertsuan,  
etxeko andria,  
esan degun bezela,  
jo degu atia;  
eskaleretan degu  
sentitzen kapoia,  
soñuaren konformez  
ona ta gaztia.

5

Kapoi ederra degu,  
etxeko andria,  
Jaunak gorde dezala  
bere familia.  
Jesusen izenean  
ai zer afariya!  
Agur, etxeko andre  
zintzo ta ugariya.

## Zortzikoa

### *Duo*

Artzaiak zoraturik  
ura aien poza,  
alegriaz urturik  
nork bere biotza!  
Anton buru-zuriyak  
makillan bildotsa,  
ez dutela sentitzen  
gaberdiko otza.

### *Estribillo*

Jendea pozez dabill  
gau eder onetan,  
agirandoen billa  
leku guztietan:  
soñu eta kantakin  
ate ondoetan,  
eskalara-buruan  
eta kalietan.

### *Solo*

Aurtxo inozentea  
Belengo bidian  
badirudi daudela  
zeruko glorian;  
erregeak arturik  
guztiyok erdian,  
Jesus adora zagun  
aiekin batian.

Bertso auek Jose Manterolaren bildumatik artuak ditugu. Eskuz idatzi-ta daude. Baiña orriaren barrenean onela irakurtzen da: *Sn. Sebastian: imprenta de Pio Baroja*. Bertso-papereen batetik kopiatuak izango dira, beraz.

Izenburuak nungo bertsoak diran, noiz eta norentzat jarriak, garbi asko esaten digu.

*Solo* deritzan bertsoaren puntuak beste onela daude bertso-paperean: *bidean, gloriyan, erdian, batian*. Manterolak, bere bilduman, sail bakoitza nork jarria zan sarritan idatzi zuen. Aldi ontan ez, ordea. Berak bere *Cancionero Vasco*-n dionez, eta guk ere leen esan degunez, berrogei urtean (1813-1853), Donostian agertzen ziran Gabon-kantarik geienak Jose Bizente Etxagaray-k moldatuak izaten ziran. Ikus: *Auspoa*: 35-36. Baiña auek urrengo urtekoak dira: 1854.

Ondorengo urteetan bertso-jartzaille asko izan zan Donostian. Aietan onenak, dudarik gabe, Bilintx, Ramon Artola, Biktoriano Iraola eta abar. Auek, artean gazteak izan arren, bertsogintzan asiak izango ziran. Baiña beste argibiderik gabe, bertso auek ezin oietako iñori erantsi.



## 1857ko kantanak

---

### *Pastorela*

Jaunak berak emanik  
nai degun guztiya,  
Zuretzat dakazkigu,  
Birjiña Mariya,  
arrai fresko, arraultza,  
esne egosiya,  
iriñ-opill ederra  
eta egaztiya.

Aita Jose aurretik,  
Ama asto gañean  
urrikari dabilta  
Belengo kalean:  
ate batean galde,  
gelditu bestean,  
iñon artu nai ezik  
ostatuz etxean.

Aita Josepherentzat  
sardina ta artua,  
gaztaña, bakallua  
eta sagardua;  
Aurraren berogarri  
bai eta sendoa,  
estaltzeko euna  
geronek eoa.

Etixerik utzi gabe  
Belengo erriyan,  
gutziz nekaturikan  
betiko ibilliyen,  
otzak eta bearrez  
iltzeko zoriyan,  
legorpe bat arkitu  
dute gaberdiyan.

### **Zortzikoa**

Guk uste gabetanik  
gau eder onetan  
Jauna mundura dator  
gaur amabiyetan;  
legorpe bat eziñik  
alde guztiyetan,  
Ama galdezka dabill  
otzak ikaretan.

Portale Beleneko  
zoriyonekoa,  
leku pobre umilla  
pare gabekoa,  
toki iñon besterik  
ez bezelakoa,  
mundura datorrena  
gure Jaungoikoa.

## Euskaritxo

Guazen, adiskideak,  
lasterka bidean,  
guazen gelditu gabe  
ariñ gaur gabean;  
guazen bada, mutillak  
guztiyok batean,  
guazen Jesus maitea  
arkitu artean.

Bertso auek Donostiako Jose Manterolaren bildumatik artuak ditugu.

Nungo bertsoak diran eta noiz jarriak, moldiztegiaren izenak esaten di-  
gu: *Donostian Pio Baroja-ren moldiztegiaren - 1857.*

Egillearen izenik etzaigu inun ageri. Eguberrietan eta Inauterietan, eta  
bai beste zernai festa ospatu bear zanean ere, bertsoen batzuk norbaiti ja-  
rri arazi eta kalez kale kantari ibiltzeko oitura zuten garai artako donos-  
tiarrek.

Sarritan esan degunez, Jose Bizente Etxagaray izan zan urte askoan  
(1813-1853) jartzaillerik ugariena. Ura, ordea, 1855-ean il zan, eta bertso  
auek 1857-koak dira. Baiña leen ere aditzera eman degunez, nork bertso-  
ak jarri bazan orduan ere Donostian: Bilintx, Ramon Artola, Biktoriano  
Iraola...

(1862)

**Lenengo gizona egitea eta Jesusen munduratzea  
nola diran ikas bidea ogei itz neurtuetan**

---

The image displays a musical score for a piece titled "Lenengo gizona egitea eta Jesusen munduratzea nola diran ikas bidea ogei itz neurtuetan" (1862). The score is written in a single system with five staves, all using a treble clef and a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The time signature is 3/4. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and accidentals (sharps and naturals). The piece concludes with a double bar line and repeat dots.

1  
Nobedade andiak,  
guziz berri onak,  
zerutik ekarriak  
Jaungoiko-gizonak,  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsonak,  
zeru eta lurreko  
Errege ta Jaunak.

2  
Adan eta Eba ziran  
zori onekoak,  
egian zituanean  
gure Jaungoikoak;  
aiek ziran lenengo  
gure gurasoak,  
jatorrizko gaitzaren  
kutsu gabekoak.

3  
Adan lendabiziko  
gure gurasoa,  
Jaunak lur-puska batez  
egiñetakoak;  
gañera eman zion  
ditzazko lekua,  
an adoratu zezan  
bere Jaungoikoa.

4  
Leku miragarria  
zan Paradihoa,  
fruta gozo ta lorez  
txit inguratua;  
arbola baten fruta  
zan debekatua,  
zeren zedukan Jaunak  
beretzat autua.

5  
Etsai gaiztoak zuan  
Eba asakatu,  
arbola baten fruta  
zezala probatu;  
apenas bokadu bat  
zuan auan sartu,  
ordutikan ziraden  
gure gaitzak sortu.

6  
Ebak eragian zion  
Adani pekatu,  
munduaren galera  
amdik zan gertatu;  
Jaunak instante artan  
zion kargu artu:  
«Adan, nere aginduaz  
nola zera aztu?».

7

Adanen pekatuak  
galdurik grazia,  
andikan etorri zan  
gure gaitz guzia;  
eziñ aundiagoa  
izan desgrazia,  
ordutik gelditu zan  
zerua itxia.

8

Baña etzenduan nai  
gizona galtzea,  
Jaungoiko Soberano  
guztion Jabea;  
antziña-antziñatikan  
zendukan gordea  
gure anparatzalle  
Birjiña Ama-andrea.

9

Maria Birjiñaren  
errai garbietan  
Jaungoikoaren Semea  
aragiz jantzi zan;  
Espiritu Santua  
zerutik jetxi zan,  
salbatzeko bidea  
andik iriki zan.

10

Jose eta Maria  
senar-emazteak,  
ditxa ta zorionez  
zaudete beteak;  
Birjiña Amagandik  
Jesus jaiotzeak,  
ark zabaldu zizkigun  
zeruko atea.

11

Antziñatik zeukaten  
profetak esana  
nola etorriko zan  
Aurtxo bat gugana;  
au zan bada Belenen  
gaubaz jaio zana,  
gu salbatzeagatik  
egin zan gizona.

12

Mirari guztietan  
danik aundiena  
zan Jesusek gugatik  
an egin zuena:  
zerutik jetxitzea  
lurrera gugana;  
au zan amorioak  
eragin ziona.

13

Zerua eta lurren  
Egillea dana  
amorioak dakar  
mundura gugana;  
goazen bada guztiok  
laster Beragana,  
adoratu dezagun  
gure Jesus ona.

16

Iru Errege ziran  
Belena etorri,  
ofrenda txit aundiak  
zituzten ekarri;  
intzensua ta mirra,  
urra ugari,  
eskaintzean ziraden  
belauniko jarri.

14

Aditzera emanik  
aingeru justuak,  
juan ziraden Belena  
artzai mendikoak;  
aiek izan ziraden  
zorionekoak,  
Jesus adoratzeko  
lendabizikoak.

17

Belengo menditikan  
artzaitxo pobreak,  
eguzki aldetikan  
berriz Erregeak;  
aiek ziran lenengo  
bisitatzalleak,  
izandu zituanak  
guztion Jabeak.

15

Urrena Erregeak  
eguzki aldetikan  
juan ziraden Belena  
txit urrutitikan,  
Jesus adoratzera  
biotz guzitikan,  
zeruko izar batek  
argi egiñikan.

18

Orra zer gertaerak  
Jesusen jaiotzan,  
gurekin bizitzera  
zerutik jatxi zan,  
eta erakustera  
nola bizi izan,  
gu salbatzeagatik  
gurutzean il zan.

19

Orañ kanta dezagun  
guziok batean  
nola para ginduzen  
Jesusek pakean,  
Bera gelditzen zala  
gizonen artean,  
bizi-lekua arturik  
ostia batean.

20

Esan dedan bezala  
lenengo bertsoan,  
orra eman berri onak  
al dedan moduan;  
bizi gaitezen bada  
pakean munduan,  
gero goza dezagun  
glorian zeruan.

Ogei bertso auek, gaiaren adierazgarri dan izenburu luze orrekin, Bonaparteren bildumatik artuak ditugu.

Bertso-paper bat da, beeko barrenean onela diona: *Bear dan baimenarekin.- Tolosan Andres Gorosabelen echean 1862 garren urtean.*

Urtea bakakigu, beraz, baiña egillearen izenik ez da iñun esaten. Somatzeko biderik ere ez degu ikusten.

Azken bigarren bertsoa aurreko beste sail batean ere berdintsu dago.

\* \* \*

Zaldibiko Patxi Erauskin bertsolaria zanaren seme Martin Erauskinetik, sail ontako iru bertso kantatu zizkigun: 1, 2 eta 6-garrena.

Doiñua arek kantatu, guk magnetofonoz jaso eta Aita Leopoldo Francés zanak solfeoz papereratu zuan.

\* \* \*

Bertso auen beste argitaraldi bat. *E. Lopez etxean* inprentatua, Zaldibiko Patxi Erauskin bertsolaria zanak egin zuan, 1913 urtean.

Agidanean, bertso auek nunbaitetik eskuratu zituan, atsegin izan zitzaizkion eta inprentara bialdu zituan, berriz ere zabal zitezen. Baiña al daketa auek sartu zituen:

Izenburua: *Lenengo gizona egitea eta Jesus munduratzea Olentzaroz kantatzeko.*

1/1: Olentzaroz ematen; 1/2: gabiltz berri onak; 1/3: zerutik biralduak; 1/7: zeru-lurren jabe dan; 2/5: lenengo gurasoak; 2/6: izandutakoak; 3/1: Adan gure guraso; 3/2: lendabizikoa; 3/4: ondo egindakoa; 3/6: zorion lekua; 4/1: Gauza ikusgarria; 4/3; fruta gozo, larrosaz; 4/4: txit kopuratua; 4/7: Jaunak an zeukalako; 5/1: Etsai gaiztoak zuten; 5/2: Eba aisakatu; 5/3: arbol arentxen fruta; 5/5: ale bat zubalako; 5/6: bere auan sartu; 5/7: argatikan ziraden; 6/5: ta Jaunak beriala; 6/6: au zion galdetu; 8/1: Bañon etzenduan nai; 8/2: gizonen galera; 8/3: Jaun goiko guztiz altsu; 8/5: guretzat aspalditik; 8/7: gure laguntzalle Ama; 8/8: Birjiña Andrea; 9/2: sabel txit garbian; 9/7: salbatzeko atea; 10/3: pozez ta zorionez; 11/1: Aspalditik zeukaten; 11/5: au bera zan Belenen; 11/8: gizon egin zana; 12/7: au zan amorioa; 13/1: Zeruak eta lurak; 13/2: egin zituana; 13/3: amorio-arekin; 13/4: dator guregana; 13/5: eramateagatik; 13/6: danok beregana; 13/7: adoratzera gatoz; 14/5: Jesus adoratzeko; 14/6: lendabizikoak; 14/7: aiek izandu ziran; 14/8: zori onekoak; 15/4: txit apartetikan; 16/5: intzentzuaz gañera; 16/7: eskaintzean batean; 18/7: mundutarrak sinismen; 18/8: onekin gabiltzan; 19/1: Amorioa izan; 19/2: biotza betean; 19/7: bizi lekua dauka; 20/1: Gaur adoratzen degu; 20/2: al degun moduan; 20/3: ia bizi gaitezen; 20/4: pakean munduan; 20/5: danok gerta gaitzala; 20/6: beraren onduan; 20/7: betiraunde guzian; 20/8: gozatzen zeruan.

Eta bertso-paperaren barrenean oar auek: 1913-an . *Pachi Erausquin'ek. E. Lopez'etxean*. Bereak balitu bezela, alegia?

Ez nuan apuntatu bertso-paper ori noren eskutik jaso nuan.

\* \* \*

Andik bederatzi urtera, 1922-an, bertso auek berriz argitaratu zituen Patxi Erauskin bertsolari orrek.

Aldaketak, 1913-ko argitaraldian sartu zituenak eta beste auek: 3/4: egindutakoa; 7/5: aundiagoa nola; 8/5: aspalditik zendukan; 8/6: guretzat gordea; 8/7: lagundutzalle Ama; 9/8: orduan iriki zan; 12/7: au da amorioak; 13/6: danok beragana; 13/7: adonatu dezagun; 14/4: ardizai mendi-koak; 15/4: txit urrutitikan; 17/2: ardi zai pobreak; 18/5: baita erakustera; 18/7: gau ta egun sinismen; 19/2: biotzan betean; 20/1: Guk Jesus adonatu; 20/2: goi, al dan moduan; 20/3: eta bizi gaitezen.

Eta paperaren barrenean: *1922'an Errauskin Errotariak. Beasain'en A. Zunzunegi'n moldiztegian*.



Bertso-paper au Oiartzunen jaso genduan, Altzibar baillaran.

\* \* \*

*Argia* astekarian, 1927-XII-25-ean, sail ontako iru bertso agertu ziran: 2, 3 eta 11-garrena.

Aldaketak: 2/4: goiko Jaungoikoak; 2/5: lenengo gurasoak; 2/6: izandutakoak; 3/1: Adan gure guraso; 3/2: lendabizikoa; 3/4: ondo egindakoa; 3/6: zorion lekua; 11/1: Jakintsuak zeukaten; 11/2: aurretik esana; 11/5: au bera zan Belenen; 11/7: gu gaizkatzeagatik; 11/8: gizon egin zana.

Ondoren, firma: *Erauskin Errotari*.

\* \* \*

Andik bi urtera, 1929-XII-22-an, sail ontako zazpi bertso argitaratu zituan *Argia* astekari orrek: 11, 14, 15, 16, 17, 18 eta 19-garrena.

Asiera onela:

Beleren bai Beleren  
jaio da Jesus lazaren.

Aldaketak: 11/1: Jakintsu, Profetak zeukaten; 11/2: aurretik esana; 11/5: berauxen da Belenen; 11/7: gu gaizkatzeagatik; 11/8: gizon egin-tzana; 14/5: Jesus adoratzeko; 14/6: lendabizikoak; 14/7: aiek izandu ziran; 14/8: zorionekoak; 15/1: Bakaldun, Erregeak, gero; 16/1: Iru, Bakaldun ziran; 16/3: esku erakutsi onak; 16/5: intsentsuaz gañera; 16/7: eskaintzeaz gañera; 16/8: belaun biko jarri; 17/2: artzai txiro pobreak; 17/4: bakaldun, erregeak; 17/6: ikertu zaileak; 18/4: Donoki'tik jetxi zan; 18/5: baita erakustera; 18/7: ludi onetan sinismen; 18/8: onekin gabiltzan; 19/1: Naitasuna deiogun; 19/2: biotzak betean; 19/3: pasa ginduztelako; 19/4: guztiok pakean; 19/7: bizitokia dauka.

Eta firma: *Erauskin Errotari*.

\* \* \*

Urrengo urtean, 1930-XII-21-ean, berriz ere Erauskin Errotariak bialdu-ta, sail ontako bost bertso argitaratu zituan *Argia*'k: 1, 2, 3, 4 eta 5-garrena.

Aldaketak, 1913-ko bertso-paperak dituanak eta beste auk: 1/5: Trinidad Deuneko; 3/5: egindutakoa.

\* \* \*

Andik lau urtera, 1934-XI-11-n, leenengo amar bertsoak argitaratu zituan *Argia*-k, beti bezelaxe Erauskin Errotariak bialduta.

Izenburua: *Lenengo gizona egitea eta Jesus ludiratzea Olentzaroz abesteko.*

Aldaketak, 1913-ko argitaraldikoak eta beste auk: 1/5: Trinidad Deuneko; 6/3: ludiaren galera; 9/7: gaizkatzeko atea.

\* \* \*

Urte berean, 1934-XI-25-ean, gaiñontzeko bertsoak argitaratu zituan *Argia*-k, aldi ontan ere Erauskin Errotariak bialduta.

Aldaketak: 1913-koak eta beste auk: 11/5: berauxen da Belenen; 11/7: gu gaizkatzeagaitik; 12/1: Begiramen guztietan; 12/7: au zan maitetasunak; 13/3: maitetasun osoaz; 14/4: ardizai mendikoak; 16/8: belaunbiko jarri; 17/2: ardizai pobreak; 17/6: ikertutzailleak; 18/5: baita erakustera; 18/7: luditarrok sinismen; 19/1: Maitetasuna diogun; 19/2: biotzak betean; 19/3: nola pasa ginduzten; 19/7: bizi tokia dauka; 20/2: al dan on moduan.

Eta bukaeran oar au: «Aurtengo onek ikastea naiko dezute. Bizi banaiz urrungo urtean jarriko ditut besteak».

\* \* \*

Patxi Erauskin onek bertso auk *Argia* astekarira ainbat aldiz bialtzeaz ez degu batere arritu bear. Ordiziko berri-emalea zan. Astero zerbait bialtzeko ere gaia bear da. Eguberri aurrean, ordea, bertso auk bialdu eta bere eginkizun ori ondo beteta zeukan, aldi artarako beintzat.

Guk begi onez ikusten ez deguna zera da: batetik, bertso zaarrei itzak aldatzea; eta, bestetik, aspaldiko bertso zaarrak zirala ez esatea.

\* \* \*

Bilboko *Euzkadi* egunkariak, *Mañariko*-k bialduta, bertso auek 1933-IV-1-ean agitaratu zituen, bere *Euzko Erri-Jakintza* saillean.

Izenburua: Bertso zarrak.

Aldaketak: 7/2: galdurikan grazija; 8/6: zedukan gordea; 9/3: Jainkoaren semia; 13/1: Zeru eta lurraren; 14/3: juan ziran Belenera; 15/3: juan ziran Belenera; 16/2: Belenera etorri; 19/3: nola para genduzan; 20/7: le-  
rro au falta.

Orrezaz gaiñera, bizkaitar fonetismo asko: *andijak*, *gixonak*, *ixan*, *zori-jonez*...

Bukaeran, onako oar au: «Bertso onek, emeko atso bateri entzunikuak dira».

\* \* \*

Ernaniko Ramon Apaolaza zanaren bilduman ere arkitu ditugu bertso auek, makinaz idatzita. Baiña aldaketarik ez dute, fonetismo bat edo beste izan ezik.

\* \* \*

*Juventud* aldizkarian, 1928-XI-30-an, sail ontako iru bertso agertu ziran: 1, 16 eta 17-garrena, aldaketa auekin: 1/1: Nobedade aundia; 1/2: guztiz berri ona; 1/3: agertu da mundura; 1/4: Jaungoiko gizona; 1/6: bigarren pertsona; 1/8: errege ta Jauna; 16/1: Iru errege dira; 16/5: intzentsu eta mirra; 16/7: eskeintzen ziotela; 16/8: majestadeari; 17/6: konsolatzalleak.

Baita beste iru bertso auek ere:

Jakin bear dezute  
Jesus jaio dala,  
estalpe zar batean  
Belenen datzala;  
egin dezagun bada  
gere egiñala,  
nere lagun maiteak,  
goazen bereala.

Zeru eta lurreko  
Jaun da Jabe dana,  
elur aize otzetan  
dator guregana;  
erakustea dala  
gauzarik bearrena,  
umiltasun aundia  
munduan aurrena.

Ikusirik erregen  
ofrenda aundiak,  
nere lagun maiteak,  
gaur izan nobliak;  
guztiok dakiguna  
Jesusen jaiotza...  
Beraren izenean  
nai degu limosna.

Eta bertsoen azpian oar jakingarri au: «*Nobedade aundia* au aspalditik kantatzen da Gipuzkoako Goierri aldean, Ormaiztegin beintzat, Egoarri-egunean».

\* \* \*

Uztapidek bertso auen aitamena egiten du bere *Lengo egunak* gogoan liburuan, *Uztapideko familia* atalean.

# Lenengo Guizona eguia eta Jesus munduratzea

## OLENTZARZ KANTATZEKO

—1—  
Olentzaroz ematen  
Gabiltz berrionak  
Zerutik biralduak  
Jaungoiko guizonak  
Trinidad santuko  
Bigarren personak  
Zeru-lurren jabe dan  
Erregue ta jaunak.

—2—  
Adan ta Eba ziran  
Zori onekoak  
Eguin zituaniak  
Gure Jaungoikoak,  
Lenengo gurakoak  
Izandutakoak  
Jatorrizko gaitzaren  
Kutsu gabekoak.

—3—  
Adan gure guraso  
Lendabizikoa  
Jaunak lur-puska batez  
Dado egundakoa  
Gañera eman zion  
Zorion lekua  
An adoratu zezan  
Bere Jaungoikua.

—4—  
Gauza ikusgarria  
Zan Paradisoa  
Fruta gozo, larrosaz  
Chit kopuratua  
Arbola baten fruta  
Zan debekatua  
Jaunak an zeukalako  
Beretzat autua.

—5—  
Etsai gaiztoak zuten  
Eba aisakatu  
Arbol arenchen fruta  
Zezala probatu  
Ale bat zubalako  
Bere auan sartu  
Argatikan ziradon  
Gure gaitzak sortu.

—6—  
Ebak eraguin zion  
Adani pekatu  
Munduaren galera  
Andik zan guertatu;  
Ta Jaunak beriala  
Au zion galdetu:  
Adan, nere aginduaz  
Nola zera aztu?

—7—  
Adanen pekatuak  
Galdurik grazia  
Andikan etorri zan  
Gure gaitz guzia.  
Ezin ausdiagoa  
Izan desagria  
Ordutik guelditu zan  
Zerua ichia.

—8—  
Bañon etzenduan nai  
Gizonen galera  
Jaun goiko guztiz altsu  
Guretzat aspalditik  
Zendukan gordea  
Gure laguntzalle Ama  
Birjina Andrea.

—9—  
Maria Birjinaren  
Sabel chit garbian  
Jainkoaren semea  
Araguiz jantzi zan;  
Espiritu Santua  
Zerutik jechi zan  
Salbatzeko atea  
Andik iriki zan.

—10—  
Jose eta Maria  
Senar-emazteak  
Pozet ta zorionez  
Zaudete beteak;  
Birjina Amagandik  
Jesus jagitzeak  
Ark zabaldu zizkigun  
Zeruko atepak.

—11—  
Aspalditik zeukaten  
Profetak esana  
Nola etorriko zan  
Aurcho bat gugana;  
Au bera zan Belenen  
Gaubaz jayo zana  
Gu salbatzeagatik  
Guizon eguin zana.

—12—  
Mirari guztietan  
Danik aundiena  
Zan Jesussek gugatik  
An eguin zuena  
Zerutik jechitzea  
Lurrera gugana  
Au zan amorioa  
Eraguin ziona.

—13—  
Zeruko eta lurrak  
Eguin zituana  
Amopioarekin  
Zan gurugana  
Eramateagatik  
Danok beregana  
Adoratzea gatoz  
Gure Jesus ona.

—14—  
Aditza emanik  
Ainguru justnak  
Juan ziraden Belena  
Artzak mendikoak;  
Jesus adoratzeko  
Lendabizikoak  
Ayek izandu ziran  
Zori onekoak.

—15—  
Urrena Erregueak  
Eguzki-aldeitan  
Juan ziraden Belena  
Chit apartetikan  
Jesus adoratzera  
Biotz Guztitikan  
Zeruko izar batek  
Argui eguñikan.

—16—  
Iru Erregue ziran  
Belena etorri  
Ofrenda chit aundiak  
Zituzton ekarri  
Itzeshnuz gañera  
Urrea-ugari  
Eskaintzean batean  
Belauniko jarrri.

—17—  
Belengo Menditikan  
Artzaicho pobreak  
Eguzki-aldeitan  
Berriz Erregueak  
Ayek ziran lenengo  
Bisitzaileak  
Izandu zituanak  
Guztion jabeak.

—18—  
Orra zer guertaerak  
Jesusen jayotzan;  
Gurekin bizitzera  
Zerutik jechi zan  
Eta erakustera  
Nola bizi izan  
Mundutarrak sinismen  
Onekin gabiltzan.

—19—  
Amorioa izan  
Biotza betean  
Nola para guindutzen  
Jesussek pakean  
Bera guelditzen zala  
Gizonen artean  
Bizi lekua dauka  
Ostia betean.

—20—  
Gaur adoraten degu  
Aldegun modnan  
Ia bizi gaitzen  
Pakean munduan  
Danok guerta gaitzala  
Beraren onduan  
Befraunde guzian  
Gozatzen Zeruan.

1913-an.

*Pachi Erausquin'ek.*

## Zortzi bertso Jesusen jaiotzari kantatzeko ipiñiak

---

### Koruak

1  
Berri onak, jendeak,  
Belengo erritik,  
Jesus jaio dalako  
Birjiñ Amagandik;  
artzaiak jatxi dira  
saltoka menditik,  
adoratzera Jesus  
biotz-biotzetik.

3  
Zeruen eta lurren  
Egillea dana,  
umildadez beterik  
dator gaur gugana;  
goazen bada guztiok  
pozez beragana,  
goazen adoratzera  
Jesus Aur laztana.

### Bikida

2  
Ditxa ta zori onez  
zaudete beteak,  
Jose eta Maria,  
esposo maiteak;  
zuen gurasotasun  
graziaz beteak  
gaur zabaldu dizkigu  
zeruko atea.

4  
Adanen pekatuak  
grazia galdurik,  
Jaunak Beragandikan  
genduzkan botarik;  
etzan zer esperatu  
beñere zerurik,  
ez balitz Jesus jaio  
Birjiñ Amagandik.

### Kant-astea

*Aurtxo txiki bat Belenen  
idiak dauka berotzen,  
goazen guztiok ainbat lasterren,  
goazen guztiok bera adoratzten.*

5  
Guztiok zoraturik  
kantuz eta dantzan,  
diberti gaitean gaur  
bere alabantzan;  
zerurako bidea  
irikiko bazan,  
Jesus munduratzea  
preziso bear zan.

6

Arriturikan daude  
Jose eta Maria,  
adoratzen dutela  
Aur jaio berria;  
negu-biotzean ta  
gabaren erdian  
etorri zan mundura  
Jaungoiko aundia.

8

Amorioa zer dan  
emen da ezagun,  
lezio au guk ere  
ikasi dezagun;  
Jesusi artarako  
eska diozagun,  
bere jaiotzagatik  
dizaigula lagun.

7

Zarrak eta gazteak,  
aundi ta txikiak,  
eman dizaiozkagun  
Jaunari graziak;  
aiñ dirade aundiak  
gure irabaziak,  
iritxi ditugunak  
gaur mundu guziak.

Bertso-sail au Azpeitiko errian arkitu genduan, 1958 urteko udaran, Fiel Uria apaiza zanaren paperetan.

Inprentatu ere bertan egin ziran. Bertsoen ondotik onela irakurtzen baita: *Azpeitian: P. Martinez-en moldizteguien*.

Bertso-paper ontan ez da inñun egillearen izenik esaten. Ezta bertsoak zein urtetan jarriak diran ere.

Baiña beste argibide au eman genezake: bertso auk eta aurreko saillekoak alkarrekin zer ikusirik badutela. Ango 10/1-8, 13/1-8 eta 7/1-2 bertso-lerroak, eta emengo 2/1-8, 3/1-8 eta 4/1-2 lerroak ia berdiñak baitira.

Orregatik, bi egille izango dira eta batek besteari kopiatu dio; edo-ta egille bakarra izango degu, bi bider bertsoak agertu arazia.

Aurreko bertsoak 1862 urtean argitara emanak baitira, onako auk ere garai berekoak izango dira gutxi gora-beera. Paperaren eta letraren itxura ere ordukoxea da.

**Jesusaren jaiotzako bertsuak**

---

1

Notiziya bat degu  
kontsolagarriya,  
Belengo portaletik  
dago etorriya;  
jaio da guziontzat  
Errege berriya,  
betiko izan dediñ  
gure alegriya.

2

Nazaretik eldu da  
Birjiña Mariya,  
kristabak izan dezan  
zeruko gloriya;  
Aita poderosoak  
egiñik graziya,  
Espiritu Santuaren  
obra da guziya.

3

Lenagotik zegoan  
profetak esana  
gure Salbadoria  
etorriko zana;  
orregatikan degu  
Eguarri-eguna,  
zelebratu dezagun  
daukagun fortuna.

4

Jose eta Mariya  
pobreza aundian  
Eguarri-bezperan  
Belengo kalia;  
ostaturik etzuten  
zebiltzan tokian,  
zer pasatu bear zan  
iñork etzekian.

5

Arrimatu ziraden  
estalpe batera,  
astua ta iriyya  
zegozten tartera;  
daukazun estaduan  
animatzen zera  
lastuaren gañian  
gaba pasatzera.

6

Dontzella bat izanik  
bere birtutean,  
Semea egiten du  
estalpe batean;  
zer pentsatu badago  
askoren artean,  
milagro ori nola  
izan litekean.



7

Jainkoak nai duena  
aisa egiten du,  
bere abillidadea  
iñork ezin kendu;  
orra Seme ederra  
nun digun biraldu,  
Adanen pekatutik  
ez gaitezen galdu.

8

Izar diferente bat  
zeruan da atera,  
jende guziyak diyo:  
«Ori zer ote da?  
Gureztat notiziya  
dator ematera,  
iñork ote dakiyen  
guazen jakitera».

9

Aingeruak jua dira  
artzaiarengana,  
esanaz nun jaio dan  
desiatzen zana;  
korrika or dijoaz  
Manueltxogana,  
presente egiñikan  
arkumetxo bana.

10

Artzai buru-zuriyak  
salto eta brinko,  
gure Salbadorea  
jaio zaigulako;  
zeru-lurren Errege  
nonbratua dago,  
Luzifer ingratuak  
nai baño lenago.

11

Baita etorri ziran  
iru erregeak,  
jakiteagatikan  
Jesusen legeak;  
Gaspar eta Beltxor,  
Baltasar bestea,  
nai dutela diote  
Aurra ikustea.

12

Aurra adoratzera  
erregeak emen,  
ikusirik pobrezta  
arritu ziraden;  
erregaliyak ere  
ekarri zituben:  
urria ta intzensua,  
mirra irugarren.

13

Notizia onekin  
emen gera eldu,  
usariyo kostunbrea  
ez dedilla galdu;  
txorizo ta lukainka,  
arraultz eta diru  
artu dezagun iñork  
ematen badigu.

14

Agur, nere kristabak,  
urrengo artian,  
Eguarriak pasatu  
umorez pakian;  
projimoa amatzen  
saiatu gaitian,  
traba izan ez dedin  
zeruko atian.

Bertso auek Parisko Liburutegi Nazionaletik ditugu. Paperaren barrenean onela esaten da: *Pueden imprimirse. Tolosa 16 de Mayo de 1867. Benito Gorostegui.*

Ondoren: *Tolosan: - Mendizabalen alargunaren Moldizteguien 1867 garren urtean.*

Eta firma bezela onela: *Motrikuarrak jarriak.*

Bi aldiz inprentako itza kendu eta gañetik itz berria idatzi da bertso-pa-per ortan: *poderosoak* eta *salbadoria* kendu eta *zerutakoak* eta *salbatza-ilea* jarri. Beste argitalpen bat egiteko-edo, erderakadak kendu, alegia.

1868

«Aingeru eder batek...»

---

1  
Aingeru eder batek  
emanik berria,  
ia gizon egin zala  
Jaungoiko aundia,  
desagerturik zure  
tristura guzia,  
artu zenduan, Jose,  
atsegin aundia.

*Estribillo*

*Konsuelo orrengatik,  
Jose ta Maria,  
alkantza iguzute  
zeruko gloria.*

1  
Konsueloz bete ziñan,  
Jose, ekustean  
aingeru ta artzaiak  
guztiak batean  
adoratzen zutela  
Belengo estalpean  
Jesus jaio berria  
ganadu artean.

3  
Pozik eman ziñion  
Jesusen izena,  
bere Aitak zeruan  
paratu ziona,  
Salbagillea dala  
esan nai duana;  
orixen da zureztat  
berririk onena.

4  
Simeonek emanik  
zeruko berria,  
gure salbagillea  
zala etorria,  
ekustean Jaunaren  
miserikordia,  
artu zenduan, Jose,  
atsegin aundia.

5  
Ejiptora joanik,  
an allegatzean  
ango idolo aiek  
lurrera erortzean,  
eta ori zure begiz  
ongi ekustean,  
atsegin aundia zan  
zure biotzean.

6

Galilea aldera  
berriz itzultzeko,  
esanik aingeruak  
ez ikaratzeko,  
Aurra bere amarekin  
zerekin artzeko,  
etzegoala beldurrik  
ia Aurra galtzeko.

7

Jesus billaturikan  
juduen elizan,  
ekusirikan nola  
disputan ari zan,  
doktore aiek ezin  
konbertiturikan,  
zure biotza pozez  
negarrez asi zan.

Bertso auek Arantzazuko artxibotik ditugu. Eskuz idatzita daude.

San Josereren zazpi naigabeak eta pozak indar aundiko debozioa izan da kristauen artean. Xenpelarrek ere baditu gai orrezaz bertsoak. Ikus: *Auspooa* 88-89-90, 1969. Baita ere *Auspoaren Sail Nagusia*, zortzigarren zenbakia.

Bertso auek ere gai bera dute; baiña pozak bakarrik aitatzen dizkigute, naigabeak alde batera utzirik.

Bertso auek nun, noiz eta nork jarriak diran, orri berean bertsoekin batera eskutitz bat bada eta berak adierazten digu. Bere ortografian uzten degu:

«Aranzazu 4 de Marzo de 1868.

*Querido Juan Bautista: ay le remito unos versos que a todo prisa he puesto a mi modo; porque la traduccion literal del castellano no me gustan. Esa la cantan en Lizarza, estos van en octavas, con el estrivillo en cada octava; haber si Vs. se amoldan pues yo no tengo ya más habilidad.*

*Nosotros estamos locos de contento cantando Benedictas, salves, etc. Francisco Aguirre tambien esta muy guapo, quien saluda a V. y a sus padres con sus afectos. De mi parte cumplira V. con don Pablo Felipe y V. recibiendo los afectos del Asari y mios dispondra como guste del viejo*

*Fr. Juan Jose de Salazar.*

*P. D. Cumpla V. tambien con la Martina y la chiquilla».*

1868

«Ekustean Belenen...»

---

1  
Ekustean Belenen  
Aur jaio berria,  
txit aundia zan, Jose,  
zure alegría.

*Estríbillo*

*Kontsuelo onengatik,  
Jose ta Maria,  
alkantza iguzute  
zeruko gloria.*

2  
Aingeruz beterikan  
portale guztia,  
ekustean zenduan  
atsegin aundia.

3  
Jesusen izen gozo  
ta zoragarria  
paratzean zenduan  
atsegin berria.

4  
Jauna Aur bat egiñik  
eta Aur txikia,  
ekusteak, bai, zizun  
eman pozaldia.

5  
Ejiptoko idolo  
lurrera eroriak  
aumentatu zizkizun  
gozamen-aldiak.

6  
Galileara itzulita  
Jesusen bizia  
seguratu zenduan,  
ura alegría!

7  
Tenploan erakusten  
doktriña berria  
billaturik, bete zan  
pozezko neurria.

Bertso auek aurrekoen iturri beretik datoz: Arantzazutik, alegia, eskuz idatzitako orri batetik.

Gaia ere ber-bera: San Joseren pozaldiak, or goien adierazi degun bezela.

Egillea ere aurrekoen bertsoena da: *Fr. Juan Jose de Salazar*. Bertako praileren bat, dudarik gabe.

Nor izan zan eta zer bizitza eraman zuan, beste bertso-saillik jarri ote zuan eta abar, Arantzazuko paperetan billa saiatur zerbait aterako litzake, bearbada. Baiña azterketa ori bertako batek egin bearko luke.

Bertso auekin batera, beste eskutitz bat dator, leengoa baiño lau egun geroago idatzia. Au ere emen erakusten degu, bere ortografia errespetatuz.

Eskutitz onek ere txetasun jakingarri asko ditu. Argibide oietako bat, bertsoak nori bialduak diran: Juan Bautista Olaetxea, Ikaztegieta erre-torea. Aurreko eskutitzak etzuan olakorik esaten.

Ona eskutitz ori:

*«Aranzazu 8 de Marzo de 1868*

*Querido Juan Bautista: le remito a V. otros versos más faciles para cantar en el tono de la cancion de misiones, o como quiera, reducirlos a zorticos con el estrivillo, que aunque no incluyen la traducción literal del castellano, contienen en algun modo su sentido principal; y son como si-guen:*

(Emen eskutitza eten egiten da, bertsoei leku ematearren. Guk orain es-kutitza osorik eskeintzen degu; bertsoak leen eman ditugu).

*Sin mas, con afectos a la Martina, chiquilla y demas citadas personas en mi ultima, se repite suyo*

*Fr. Juan Jose de Salazar.*

*Guipuzcoa. Sr. D. Juan Bautista de Olaechea, Rector por Tolosa en Icazteguieta».*

Juan Jose Salazar orrek bertso auetarako nai duan mixioetako doiñua. *Atoz, pekataria* asten dan kanta ezagunarena izango da bearbada.

# Izenik gozuena

---

The musical score for 'Izenik gozuena' is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#). It consists of five staves of music. The first staff begins with a 3/4 time signature and a repeat sign. The second staff continues the melody with various rhythmic patterns. The third staff features a change in time signature to 2/4 and includes another repeat sign. The fourth and fifth staves complete the piece with a final cadence.

Salbatzalleen aotik  
datoz itzak gugana:  
bein amorioz entzunik  
illa piztutzen dana.

*Korua:*

*Ez gizonaren kantua,  
ez ere aingeruarena,  
ez da ain izen gozua  
nola dan Jesusena.*

1

Barkatua zerade zu:  
Aren zori onera  
zerade gaur alderatu  
koruaz gozatzera.

*Korua.*

2

Bildotx gaitzgabearentzat  
gloriazko izena;  
izen eder au neretzat  
da saririk onena.

*Korua.*

3

Dolorearen osiña,  
Jesus, dezu progradu;  
pekatiaren miña  
ditxan dezu trukatu.

*Korua.*

4

Gizon leialak, laudatu  
Jesusen glori argia;  
emakumeak, kantatu:  
«Jauna, gizon jatxia».

*Korua.*

5

Kanta, umeak, lendanik  
Aren izen santua;  
zein gure osasunagatik  
ill zan gurutzetua.

*Korua.*

6

Eta zeruko pakea  
bagoaz gozatzera,  
Jesusen izen maitea  
guziak kantatzera.

*Korua.*

Kanta auek bertso-paperetan zabaldu ziran. Argitara eman zituan etxea:  
*Donostian: Baroja-ren moldizquieran.*

Kanta-paper onen iru ale ere ezagutzen ditugu: bat, norik eman zigun  
apuntatu ez genuena; bigarrena, Donostian Bernardo Estornes Lasa zana-  
ren eskutik jaso; irugarrena, Jose Manterolaren bilduman gordetzen  
dana.



Baiña Manterolaren bilduma ortan doiñua ere azaldu da, irakurleari bertsoen aurretik eskeintzen dioguna.

Inprentaz argitaratuta dago, gaiñera. Ez dakigu zein argitaletxek plazaratuko zuan; eta ez zein liburutan-edo azalduko zan ere.

Egillearen izenik ez da esaten. Ala ere, bertso auek apaizen baten lana dira, dudarik gabe; eta erriaren bertsogintza nola zan gutxi zekiana.

# ICENIC GOZUENA.

---

Salvatzalleén aotic  
datoz hitzac gu gana:  
bein amorioz enzunic  
illá pistutzen dana.

## CORUA.

*Ez guizonaren cantua,  
ez ere aingueruarena,  
ez da áin icen gozua  
nola dan Jesusena.*

1.

Barcatua cerade zu:  
Aren zori onera  
cerade gáur alderatu  
coruaz gozatzera.

**Corua.**

2.

Bildoch gaitzgabearentzat  
gloriazco icena;  
icén eder áu neretzat  
da sariric onena.

**Corua.**

3.

Dolorearen ociña  
Jesús dezu progatu,  
pecatariaren miña  
dichan dezu trucatu.

**Corua.**

4.

Guizon leyalac laudatu  
Jesúsen glóri arguia;  
emacumeac cantatu  
Jauná, Guizon jachia.

**Corua.**

5.

Cantá umeac lendanic  
Aren icen santua,  
cein gure osasuna gatic  
ill zan gurutzetua.

**Corua.**

6.

Eta ceruco paquea  
bagoaz gozatzera,  
Jesusen icen maitea  
guciac cantatzera.

**Corua.**

---

Dorostian : BAROJA-ren moldizquiran.

Antziñako bertso papera.

## Jesusen jaiotzearen gañeko lauko samurrak

---

Eguzkiyaren urteieratik  
sartuieraño artian,  
dontzella baten Seme bakarra  
Errege dogu guztian.

Igarle batek esa'eban legez  
zazpireun urte baño len,  
Zeruko Jauna agertu yaku  
gizon egiñik Belenen.

Giza-aldiyen Egille dontsuak  
gure gorputza yantzirik,  
atera gaitu eriotzatik  
eukidun-ez bat egiñik.

Amodiozko su-gar biziyak  
bere biotza bizturik,  
askatxo baten Jesus dau yarri  
umiltasunez beterik.

Ama garbiyen errai garbiyak  
zeruko doez beteak,  
daroiatz bere sabel txikiyan  
mirari guztiz aundiyak.

Barri dontsu au agertuteko  
aingeru-aldra ederrak,  
biraldu dituz artzain artera  
artzain guztien Artzañak.

Dontzella onen sabel garbiyan  
Jaunak dau egin etxea,  
gizonezkorik ezautu baga  
sorturik Amak Semea.

Galtzu artean Jesus maiteak,  
betiko Jauna izanik,  
dontzelliaren ugatz gozoa  
artu dau pozez beterik.

Aingeru baten barri ederrak  
sabel bietan usturik,  
lengusin biyen ikustereak  
jaso dau Ioane pozturik.

Atsegiñezko koru ederrak  
aingeruakaz egiñak,  
kantetan dagoz Jesus onari  
guztizko pozez beteak.

## Azkena

*Jesus, zuretzat  
gloria,  
dontzelliaren  
Semea;  
Aitagaz beti  
bedeinka dilla  
Meope Santu  
maitea.*

Bertso auek edo, izenburuak dionez, lauко auek kanta paperetan argitara eman zituan *Bilbao. Imp. de J. de Astuy* moldiztegiak.

Eskuz idatzitako edo erantsitako itz auek ditu beeko barrenean paper orrek: *D. Meltxor apaizarena. Begoña*. Seguru asko, egillea bera degula esan naiko dute.

Izkera, izan ere, Bizkaikoa da bete-betean. *Begoña* egoki dator, beraz. Bestetik, berriz, apaizek garai artan Eguberri-eguneko *laudes* edo gorespenak izeneko otoitz-aldian erreztatzen zuten *himno* edo kantuaren itzulpena da.

Itzulpen zabal samarra, baiña kantu ori da lauко oietan euskeratu dana. Egillea, *Don Meltxor* ori alegia, *apaiza* izatea ere egoki datorrena degu, beraz.

Bizkaieraz idazterakoan, “j” izkia sarritan erabili izan da. Emen, berriz, “y” izkia artu da. Guk arkitu degun ortan utzi degu.

## Gabon-kanta zarrak (Bizkaitarrez)

---

Gabon-jaiak oi dira  
urtian beinguak,  
alegre egoteko  
bai gure goguak;  
triste egon bagara  
gaur Gabon artian,  
poztu jaio ezkeru  
Jesusa lurrian.

Jesus, billots, otzetan,  
zaitut Zu erruki,  
Zugandiko gosian  
gaitzuz gu erruki;  
erdi galdu gu gabiz  
denbora onetan,  
etorri ez baziña  
aurten Gabonetan.

Jesus, ondo-etorriya  
zuri emotera,  
aingeru ta artzaiñak  
orra eldu dira;  
baita erren, itxuak,  
guztiyok batera,  
saltoka doaz arin  
aldatz gora-bera.

### *Estribillo*

*Barri onak gizonarentzat  
entzuten doguz munduan,  
jaiorik dala Jesus ederra  
Belen zorionekuan,  
an daguala askatxu baten  
Aman da Jose onduan.*

Belengo portalian  
gaur gizon egiñik,  
agertu jaku Sein bat  
Jaungoiko egiñik;  
.....euzula mirari  
ain arrigarria:  
izan bat itxi gabe  
beste bat artzia.

Jaio zan, bai, Seintxu au  
Birjiñiagandik,  
dontzella gelditu zan  
beti ain ederrik;  
jaio baño lenago  
eta jaiotzian,  
baita jaio ezkeru,  
beti bardiñian.

## *Estribillo*

Birjiña eder, guztiz garbiya,  
zeruetako loria,  
Zugandik dator Seintxu ederra,  
Jesusen izen gozua,  
zure Semia gura dau izan  
andre guztien artian.

Bertso auek, izenburu orrekin berarekin, ez dakit nundik ditugun. Itxura danez, jasotzerakoan ori idaztea aaztu egin zitzaigun, eta orain ezin argibide ori eman.

Gerok makinaz idatzitako orri batean dauzkagu. Nunbaitetik kopiatuak ditugu, beraz. Ori bakarrik esan genezake.

Izenburuak bi gauza adierazten dizkigu. Bata, bertso-sail oni zaar-itxura artzen ziola ori idatzi zuanak ere; guk bertso auek kopiatu genituan patera idatzi zuanak, alegia.

Bestea, bertsoak bizkaieraz zeudela abisatu bearra zegoala pentsatu baldin bazuan, bera gipuzkoarra zalako egingo zuan seguru asko ori.

Bostgarren bertsoan utsune bat aurkitu du irakurleak. Bestetan ere orrela utzi oi degu, bertsoak illun idatzita daudelako ezin irakurri degunean. Oraingo ontan ere gauza bera izango da.

## Gabon-kantak

### «Gabaren gaberdiyan...»

---

1  
Gabaren gaberdiyan  
jaio da Eguzkiya,  
munduan ipinteko  
betiko argiya.

2  
Pekatuan sarturik  
zaudeten tristiak,  
Jesusaren ondoren  
atozte guztiak.

3  
Otzak kimurturikan  
–au ikustekua!–,  
dago portale baten  
gure Jaungoikua.

4  
Zeruak eta lurrak  
berak eginikan,  
azkenik Belenera  
dator gugarikan.

5  
Eguraldi otza eta  
gabaren erdiyan,  
Jaun *Dios* onarentzat  
ai au miseriya!

6  
Bere borondateak  
dakar, bai, mundura,  
munduan ez izanik  
iñor bere gura.

7  
Zeruak arriturik  
Jesus ikusirik  
lurrean dagoala  
lastoz estalirik.

8  
Konpasioz beterik  
datoz Belenera,  
musika ederrakin  
Jesus ikustera.

Onako gabon-kanta auek *La Constancia* egunkarian agertu ziran, 1932.12.27-an.

Paper-punta edo *recorte* ori Tolosako Manuel Urreta zanak gordeta zeukan bere paperen artean.

Bertso edo kopleen aurretik argibide auek ematen dira:

«*Con mucho gusto publicamos hoy unos villancicos de Navidad, que un amigo ha hallado en una cartera que usó en la última guerra carlista, junto con el nombramiento de alférez, firmado por el mismo Don Carlos, en favor de D. X. X., los cuales se cantaban en campaña al llegar las fiestas de Navidad, con regocijo de soldados y oficiales, tanto en los tiempos de Don Carlos V, que en los de Don Carlos VII*».

Bigarren bertsoan *Jesus aren ondoren* irakurtzen da egunkarian. *Jesu-saren ondora* bear dualakoan, orrela idatzi degu.

*Jesusa* esaten zan garai batean, liburu ontan bein eta berriro agertzen danez, denborarekin *Jesus* biurtu bazan ere.



## Bertso berriak

### «Abenduko illaren...»

---

1

Abenduko illaren  
ogei ta lauean  
Jesus Salbadorea  
jaio da gauean,  
gu ipintzeagati  
estadu obean,  
erremediatu ta  
zerura bidean.

2

Aberatsa da baño  
jaio da pobrezan,  
ez gaur asko bezela  
ponpan ta grandezan;  
soberbiak indarrik  
izandu ez dezan,  
Jaungoikoa jetxi da  
alako tristezan.

3

Belengo portaleko  
ukullu-zokoak  
jaiotzeko autuak  
ditu Jaungoikoak;  
ez palazio eder  
apaindutakoak,  
oiek dira birtute  
umildadekoak.

4

Jaungoikoa ukullu-  
-zokoan jaiotzen,  
astoa ta iria  
arnasaz berotzen;  
misterio oietan  
zer dan igarotzen  
pentsatzean legoke  
burutik erortzen.

5

Zeru-lurren Jabe da  
alde batetikan,  
nai duana egiten  
duana bestetikan;  
Jesus orretaraño  
umillaturikan,  
nork pentsa zezakean  
orrelakorikan?

6

Espiritu Santuak  
zuan formatua,  
Mariaren entrañetan  
Aur bedeinkatua;  
kristalean argien  
gisa pasatua,  
egiñ arren birjiña  
dago gelditua.

7

Jaungoikoa mundura  
gizon egiñikan,  
orra nola jaio dan  
Mariagandikan,  
galdu gabetanikan  
birjiñdaderikan;  
beste ama bat ezta  
onelakorikan.

8

Aundiak dira oiek  
mundutar batentzat,  
bañan ezta milagro  
Jaungoikoarentzat;  
nai duana Jesusek  
egiten du beintzat,  
eta saiaturten da  
txit asko guretzat.

9

Amari Jose eman  
zaio esposotzat,  
Jesusek izan ditzan  
biak gurasotzat;  
umanidade danak  
artu bear ontzat,  
zergati meseretan  
diran guzientzat.

10

Jesus nola jaio dan  
eta zergatikan  
zerbait esplikatu det  
kantuzko platikan;  
guzion Jaungoikotzat  
ezagaturikan,  
adoratu dezagun  
auspez jarririkan.

11

Ongi etorri, Jesus,  
zuri milla grazi,  
adoratzen zaitugu  
potentzi ta guzi;  
Jaungoikoarekin guk  
nai genduke bizi,  
arren ez gaitzatzula  
zeregandik utzi.

12

Nork pentsa zezakean  
Jesus ona ala  
gizona salbatzera  
etorriko zala:  
bizi gaitezen bera  
amatutzen dala,  
gero bere glorira  
eraman gaitzala.

Amabi bertso auk *Tolosa: Imprenta de la Viuda de Mendizabal* moldiztegian argitara emandako kanta-paper batean agertu ziran.

Etxe ori 1936-ko gerra aurrean Isaak Lopez-Mendizabal-en izenez eza-  
gutzen zan. Mendizabalen alargunaren izenarekin, berriz, 1840-tik 1877-  
ra, oker ez bagaude beintzat.

Beste argitaraldirik ere izan du sail onek. Oien berri ondoren emango degu.

Lenengo bertsoa irakurrita. Gabon-egunean Tolosako kaleetan kantatzen diran kantak dirala pentsatuko du edozein tolosarrek. Ez da orrela, orde. Tolosakoak beste bertso batzuk dira, leenengo bertso orrekin asten bazaizkigu ere. Beste sail bat da, onen urrena eskeiñiko deguna.

Laugarren bertsoaren azken lerroan *burutik erotzen* bearko luke bearbada.

\* \* \*

Esan bezela, bertso-sail au bein baiño geiagotan atera dute moldiztegiek argitara. Orain, gure eskuetara iritxi diran argitaraldien berri emango degu.

Bertso-papera, *Imp. de B. Valverde - Irún* moldiztegian inprentatua. Bertso guziak aurreko paperak bezelaxe ditu. aldaketa au izan ezik: 11/2: zure milla grazi.

\* \* \*

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de E. López* moldiztegian inprentatua. Leenago amaren izenarekin eta orain semearenarekin, baiña etxe bera da. Eusebio López-en izenez, 1878-tik 1929-ra ezagutu zala uste degu.

Aldaketak: 4/5: misterio onetan; 4/8: burutik erotzen; 8/4: Jaungoiko arrentzat; 11/2: zure milla grazi.

\* \* \*

Bertso-papera, *Imp. de Vda. de B. Valverde*.

Aldaketak, aurreko paperarenak, berari kopiatuko zion eta.

\* \* \*

Bertso-papera, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*.

Aldaketak: 2/2: jaiño pobrezan; 3/3: jaiotzeko artuak; 4/5: misterio onetan; 4/8: burutik erotzen; 10/8: pez jorrikan; 11/2: zure milla grazi.

\* \* \*

Bertso-papera, *Imp. Macazaga - Rentería*.

Aldaketak: izenburua: Gabonetako Kantak; 2/2: jaio zan pobrezan; 4/5: misteriyo onetan.

\* \* \*

*Bertsolariya* astekaria, 14 zenbakian, 1931-XII.20-an.

Aldaketak: 1/4: jaio zan gaubean; 2/2: jaio zan pobrezan; 4/4: asnasaz berotzen; 4/5: misteriyo onetan; 11/8: zerengandik utzi.

\* \* \*

Liburuska bat bada *Gabon'etako eta Urte Zar'eko kantak* izenarekin, *Imp. Macazaga - Rentería* moldiztegiak argitara emana, zein urtetan ez badakigu ere.

Liburuska onek amabi bertso auk ere agertzen ditu, eta batere aldaketarik gabe.

\* \* \*

Irunen jaio eta Soraluzen bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zana-ren bilduman, eskuz idatzita, bigarren eta irugarren bertsoak arkitu ditugu, eta bai leenengo bertsoaren bigarren erdia ere.

Aldaketak: 2/6: izango ez dezan; 2/7: Jaungoikua jetxi da; 3/3: jaiotzeko lekuak; 3/8: umildadezkuak.

Eta beste bertso au ere bai:

Salto ta brinko datoz  
artzaiak menditik,  
berri onen bat dute,  
ala deritzat nik.  
Atoz, guazen,  
adora dezagun  
Belenen jaio dan  
Aur eder ori,  
Aur eder ori.

\* \* \*

Felipe Ayerbek, *Euskal-Erria* aldizkarian, 72 zenbakian, 1915 urtean, *Gabon-gaba ta Egoarriak* izeneko idazlana argitaratu zuan, bertso aukeratuak agertuz.

Aurretik onako oar au egiten zuan: «Ezkioarrak abesten duten beste gabon olesa ere emen jarri nai det. Jakiña ba orraztuta!».

Eta *orrazketaren* aitzakiarekin aldaketa-mordo aundia sartu. Besteren lanari zor zaion errespetua alde bat utzi, beraz. Eta obetu bearrez, bertsoak erabat trakestu eta itxusitu. Aldaketa oiek ez dute onera aldatzerik merezi.

\* \* \*

Orain urte batzuk, Ataungo 6, 7 eta 8-garren maillako ikasleak, *Zorionak* izeneko kuaderno-moduko bat atera zuten Eguberriari buruz.

Bertan, *Ana Elisabet* izenarekin firmatzen zuan nexka batek, sail ontako bost bertso agertzen ditu: 1, 4, 7, 9 eta 12-garrena, aldaketa auekin:

1/3: Jesus gure Jabea; 1/6: izate obean; 1/7: biotzak zuzenduta; 4/1: Jaungoikoa estalpe; 4/5: zeru-lurren Jabea; 4/6: zaigu lurreratzen; 4/7: gu guziongatikan; 4/8: onela umiltzen; 7/5: batere galdu gabe; 7/6: garbitasunik; 7/8: orrelakorikan; 9/2: zitzaion senartzat; 9/3: Jesusek izan zitzaion; 9/5: Emen bizi geranak; 9/7: mesede aundirako; 9/8: dira guziontzat; 12/1: Nork pentsatu zezaken; 12/2: Jesus Aur apala; 12/6: maitatutzen dala; 12/7: gu zeru ederrera.

# Gabonetako kantak

«Abenduko illaren...»



A - ben - du - ko i - lla - ren



o - gei ta lau - e - an



Je - sus Sal - ba - do - re - a



ja - io da ga - ue - an,



gu i - pin - tze - a - ga - tik es - ta - tu o - be -



an, e - rre - me - di - a - tu ta



ze - ru - ra bi - de - an, \_\_\_\_\_ e - rre - me - di - a -



tu \_\_\_\_\_ ta ze - ru - ra bi - de - an. \_\_\_\_\_



A - ben - du - ko i - lla - ren, o - gei - ta lau - e -



an gu - zio - k nai gen - du - e - na i -



ri - tsi gen - du - an, gu - zio - k nai gen - du -



e - na i - ri - tsi gen - du - an.

1  
Abenduko illaren  
ogei ta lauean,  
Jesus gure Jabea  
jaio da gaubean,  
gu ipintzeagatik  
izate obean,  
biotza zuzenduta  
zerura bidean.

2  
Estalpe zartxo baten,  
Belendik ondoan,  
Aurtxo jaio berria  
ara nun dagoan;  
Jainkoa izan arren  
beartsu dago an,  
ikasi dezagun zer  
erakusten duan.

3  
Ostaturik Belenen  
ez da Aur onentzat,  
eta estalpean du  
aska bat oetzat;  
lasto artean dago  
Aur gaxoa otzak,  
ai zein gogorrak diran  
gizonen biotzak!

4  
Nork esango zukean  
Jainkoa izanik  
gu zeruratzeagatik  
gizonduko zanik?  
Ikustean Aur ori  
lastotan etzanik,  
izango al da biotzik  
biguntzen ez danik?

5  
Estalpe zartxo onek  
barrenen du aska,  
orra Jainko-Aurraren  
lurreko seaska;  
idia ta astoa  
Aurrari arnaska,  
gaxoa otz da eta  
berotzeko dauzka.

6  
Aingeru batek die  
esan artzaia  
gure Jainkoa jaio  
zaiela berai;  
ara nola datozen  
bildotxeekin alai,  
Belenen dutelako  
Jesus ikusi nai.



7

Millaka aingeruak  
gabaren erdian  
goi-goiko zerutikan  
datozte aidian;  
guztik datoz abesten  
gau ain ederrian:  
«Gloriya zeruan ta  
pakia lurrian».

9

Gabon, eskarrik asko,  
gabon, etxeoak,  
gabon izan bezate  
etxe ontakoak;  
limosna eman digute  
oraindañokoak,  
aurrera jarraitzeko  
asmoetan goaz.

8

Jesus Aurrán jaiotza  
eskuan artuta,  
ez gerade etorri  
bideak galduta;  
nai duenak ikusi  
zerbait ordainduta,  
zizkua ementxen dago  
aboa zabaldua.

Bederatzi bertso auk *E. López'en etxean*. - *Tolosa* moldiztegian argitaratu ziran.

Gure eskuetaraiño iritxi ez bada ere, argitaraldi zaarragorik izango da bearbada, bertso-paper ontan eskuren bat euskera *garbitzen* eta *orrazten* aalegindu dala ematen du eta.

Leenengo bertsoa, izan ere, onen aurreko saillaren leendabizikoa da. Baiña emen pixka bat aldatuta dago. An, 1/6 eta 1/7 lerroetan, *estadu obean* eta *erremediatu ta zion*; emen, berriz, *izate obean* eta *biotza zuzenduta*.

Garbizale-kutsu ori beste itz batzuetan ere nabari da: *beartsu*, *abesten*, *zoriya*, *ordainduta* eta *zizkua*. Bertsolariak *pobre*, *kantatzen*, *gloriya*, *pagatuta* eta *poltsa* esango zuan, noski.

Ez da, beraz, bertsolariaren testu jatorra. Baiña egunen batean azalduko dan duda egiten degu, bertsoak andik eta emendik artu eta osatutako sailla ote dan errezeloa baitegu.

Bertso auetako batzuk Tolosan urtero kantatzen dira, kalez kale eta atetik ate, Gabon-egunean. Ortarako bi doiñu erabiltzen dira. Bertsoen aurretik jarri ditugu.

\* \* \*

Beste argitaraldirik ere izan du sail onek. Aldaketarik gabe, onako aukerak: Bertso-papera, *E. López'en etxean*. - Tolosa.

Bertso-papera, *I. López'en etxean*. - Tolosa, beste argitaraldi bat.

Bi bertso-papera aukeratu *Iru erregeak* izeneko beste bertso-sorta bat daukate alboan. Baiña bertso oiek Pedro Migel Urruzuno apaiz jaunarenak dira.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.

Bertso-papera, *Tolosa'n Lopez Mendizabal'enean*. Onek, beste bertso batzuekin batera, sail ontako 1 eta 9-garren bertsoak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea. Onek ere, beste bertso batzuekin batera, sail ontako 1 eta 9-garren bertsoak.

\* \* \*

*Euskalzale* aldizkarian, 1898-XII-22-an, Baleriano Mokoroa jauna zanak, *Olenzaro eguna Tolosan* izeneko idazlan batean, sail ontako iru bertso eskeintzen ditu: 1, 8 eta 9-garrena.

Aldaketak: 1/3: Jesus salbatzallea; 1/6: bizitza obean; 1/7: okertasun gaberik; 8/2: eskutan artuta; 8/4: burutik nastuta; 8/7: zizkua emen dago.

\* \* \*

Donostiako Apaizgaitegiak, 1965 urtean, *Canciones populares de Navidad - Gabon kantak* izeneko liburuska bat kaleratu zuan. Ontan, kanta auazaltzen da:

Abenduko illaren  
ogei ta lauean,  
guzioek nai genduen  
iritsi genduan.

Gabeko amabiak  
jo duten orduan,  
jaio da Jesus ona)  
abere artean.

Nació, nació, pastores,  
Jesús que es nuestro Bien.  
Vayamos presurosos  
camino de Belén.

## BERSO



## BERRIAC.

1

Abeduco illaren  
Ogucita lauean,  
Jesus Salvadorea  
Jayo da gaubean;  
Gu ipintzeagati  
Estadu obean,  
Erremediatu ta  
Cerura bidean.

2

Aberatza da baño  
Jayo da pobrezan,  
Ez gaur asco becela  
Pompan ta grandezan  
Soberbiac indarric  
Izandu ez dezan,  
Jangoicoa jechi da  
Alaco tristezan.

Ucullu zocoac,  
Jayotzeo autuac  
Ditu Jaungoicuac  
Ez palacio eder  
Apaindutaocac,  
Oyec dira virtute  
Umildadecoac.

4

Jaungoicoa ucullu  
Zocoan jayotzen,  
Astoa ta iria  
Arnasaz berotzen,  
Misterio onetan  
Cer dan igarotzen,  
Pensatsean legoque  
Burutic erortzen.

5

Ceru lurren jabe da  
Alde batetican,  
Nai duana eguiten  
Duana bestetican;  
Jesus orretaraño  
Umillaturicån,  
Nor pensa cezaquean  
Orrelacoricån.

6

Espiritu Santuac  
Zuan formatua,  
Mariaren entrañetan  
Aur bedeincatua;  
Cristalean arguien  
Guisa pasatua,  
Eguin arren virgiña  
Dago guelditua.

7

Guizon eguñican,  
Orra nola jayo dan  
Mariagandican;  
Galdu gabetican  
Virgiñdaderican,  
Beste Ama bat ezta  
Onelacoricån.

8

Aundiac dira oyec  
Mundutar batentzat,  
Bañan ezta milagro  
Jaungoico arrentzat  
Nai duana Jesusec  
Eguiten du beintzat  
Eta zayatutcen da  
Chit asco guretzat.

9

Amari José eman  
Zayo esposotzat;  
Jesusec izan ditzan  
Biac gurasotzat;  
Umanidade danac  
Artu bear zaitzat,  
Cergati mesereñan  
Diran guciöntzat.

10

Jesus nola jayodan  
Eta cergatican,  
Cerbait esplicatu det  
Cantuzco platican:  
Gucion Jaungoicotzat  
Ezagaturican,  
Adoratu dezagun  
Auzpez jarrirican

11

Adorateen zaitugu  
Potenci ta guci;  
Jaungoicoarequin guc  
Nai guenduque vici  
Arren ez gaitzazula  
Ceregandico utzi.

12

Noro pensa cezaquean  
Jesus ona ala,  
Guizona zalvatzera  
Etorricco zala;  
Bici gaitecen bera  
Amatutzen dala,  
Guero bere glorira  
Eraman gaitzala.

1871

## Artzai-kanta

---

1

Zeru-lurren Jabea  
Belenen da aurtu,  
portalpe bat du bere  
jaio-leku autu;  
artzaiak berri on au  
degunian artu,  
berarengana joan da  
degu adoratu.

2

Kontentuz izan gera  
arkume ta guzi,  
geren Jabea bean  
degula ikusi;  
ganaduben tartean  
pobrezan da bizi,  
lekurikan onena  
lukena merezi.

3

Bertan utzi ditugu  
eraman guziyak,  
gaztak, esnia eta  
arkume biziyak,  
intxaur, gaztain da sagar  
ondutzen asiyak;  
Mariya Amak eman  
dizkigu graziyak.

4

Aingeru Gabrielelek  
emandako itza:  
«Jaio da Jaungoikoa,  
Jesus baiteritza».  
Au da falta senti zan  
zerubaren giltza,  
gu an sartzeko baldin  
ongi bagabiltza.

Bertso auek ere Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik.

Bertsoen ondotik, eskuz erantsita, onela irakurtzen da: «Ramon Artola-k jarriak, Donostiyan, 1871-garren urtean».

*Auspoa*-ren leen zenbakian argitaratu genituan, 1961-ean.

Baita Auspoaren 284 zenbakian ere, 2003-an.

## Kantartekua

Erdu, gaztiak, gurera,  
 poztu zaitez ikusita  
 guk daukagun umetxua  
 bart zerutik ekarrita;  
 itaskan dauka amatxok  
 umizaran imiñita,  
 erdu, erdu ikustera,  
 ara zelako polita.

1

«Jaungoikuak iges dau»  
 diñue zeruan,  
 ta aingeruak datoz  
 badago munduan;  
 kantu soñuak dira  
 Belen inguruan  
 ikusi daigun ia  
 an ete dagan.

2

Umetxu jaioparri  
 txosna baten dago,  
 pekatari guztiyak  
 baño umillago.  
 Ebaren sagartxua  
 kosta biar jako,  
 zeru ta lurra baño  
 askogaz geiago.

3

Leku guztiyak ditu  
 Jainkuak beteten,  
 ezta nun eztaguan  
 erreza esaten;  
 baño ez al ditu oñak  
 lurrian ezarten,  
 errez kabiduten da  
 itaskatxo baten.

4

Umizaran lotuta  
 daukaz eskutxuak,  
 etara zituanak  
 utsetik zeruak;  
 oñ ta zinbriya baga  
 emonik arkuak,  
 ta euren ibilleran añ  
 lege seguruak.

5

Ilgo ezpadau Jesus  
 otz izugarriyak,  
 biar dabe berotu  
 asto ta idiyak.  
 Beroni zor izanik  
 biziya biziya  
 ta euren izatia  
 andi ta txikiyak.

6

Amatxok egiten dau  
kantaten alegiñ,  
.....txuan Jesus  
atsegindu dediñ;  
jakinik datorkola  
naikua zeregiñ,  
ta naikoa denpora  
noz negarrak egiñ.

8

Jauna biurtu bada  
umetxo titiko,  
norpere soberbiya  
nok eztau itxiko?  
Adorau deigun Jesus  
danoek belaunbiko,  
eruan gaizan gero  
zerura betiko.

7

Asko bildurtu baga  
eguraldi otzak,  
artzaintxuak daruaz  
Jesusgana pozak,  
eskintzera arrautza,  
esne ta bildotsak,  
euren almen guztiyak  
ta euren biotzak.

Bertso auek liburu ontatik ditugu: Fernando Aranberri Odriozola, *Ermua eta Eitzako euskara*, bertako udalak argitara emana.

Bertsoak eskuz idatzitako libreta batean agertu omen dira, eta goien aitatuak liburu ortan faksimilez argitara emanak.

Egillea Ezekiel Etxabarria apaiz jauna izan omen zan, Eibarren jaioa eta Ermuan illa, 1925.05.21an, 72 urterekin, bertan apaiz bezela berrogei ta amasei urte egon ondoren.

6/6 lerroa ez degu osorik irakurri aal izan.

Sail onekin batera beste bertso-sail batzuk ere ageri dira libreta ortan. Oietako bat 1879-ko Eibarko misioa.

1881

## Jesus jaio berriyari

---

1

«Jaio da Jesus -diyo aingerubak,  
jaio da Jesus Belenen,  
oialtxoetan Amak bildurik  
aska batean da arkitzen.  
Goazen, artzaiak, adoratzera  
Aur zerutarra lenbaitlen;  
Ark ditu pozaz eta atsegiñez  
bazter guziyak betetzen».  
*Alai zaitetzte, jendeak...*

### *Kantartea*

*Alai zaitetzte, jendeak,  
jaio da Aurra,  
paketuko ditubana  
zeru ta lurra.  
Denbora eldu da  
uzteko tristura,  
pekatubak ekarriya  
gure mundura.*

2

Antziñatikan espero zana  
gaur da mundura etorri,  
orrek guziyen salbazioya  
digu zerutik ekarri;  
nai du gizona zuzen-bidean  
bere onerako jarri,  
eman zaizkagun gure esker onak  
Belena joanik Aurrari.  
*Alai zaitetzte, jendeak...*

3

Nork zezakean au uste izan?  
Nork zezakean pentsatu?  
Zeñi zitzaien bururatuko?  
Zeñi iñoiz gogoratu?  
Jantzirik Jauna gure aragiz  
bear zala guganatu,  
giza-jendea nai zualako  
pekatutikan libratu?  
*Alai zaitetzte, jendeak...*

4

Birjiña zana birjiñ utzirik  
jaio da Jesus gurea,  
jaiotza beziñ miraritsuba  
izan zan bere sortzea;  
ez du nai izan osotasunik  
Ama Mariak galtzea,  
baizik len beziñ dontzella garbi  
geroz ere gelditzea.  
*Alai zaitetzte, jendeak...*

5

Zeru ta lurren Jabearentzat  
ostaturik ez da arkitu,  
pobre jaioaz, ejenplo on bat  
guri berak eman digu.  
Munduba aztubaz goiko gloriyaz  
beti gaitezen oroitu,  
gure biyotzak zerurontz jaso  
lur bekotikan nai ditu.  
*Alai zaitetzte, jendeak...*



6

Jesus Aurrari jarraitutzea  
gure eginkizun aundiya,  
beragatikan enura<sup>1</sup> gabe  
uztea guzi-guziyya,  
iristearren Arrek dakarren  
zori on eta graziya,  
neke txit labur oien ondoren  
beti-betiko sariya.  
*Alai zaitetze, jendeak...*

Bertso auek izenburu luze au daukan liburuska batetik artuak ditugu: *Jesus eta Mariaren billerakoentzat itz neurtubak. Bai eta Eguerri, garizuma edo misiyo denborarako. Eta berebat dotriñan dabiltzanentzat. Ama guziz garbiyaren alabai lenbizi, gero berriz aurtengo erromeriyagatik Arantzazuko Birjiñari eskeñiyak. Bear dan baimenarekiñ. Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldizteguiyan, 1881-garren urtean.*

Izenburuak dionez, beste bertso eta kanta geiago baditu liburuska orrek. Baiña beraren egillea nor dan ez da esaten.

---

<sup>1</sup> Enura: duda. (Liburuskaren oarra).

1882

## Gabonetarako kantak

---

1  
Gabon, etxeko andre  
eta nagusiyak,  
ederki dira emen  
barrengo guziyak;  
gu berriz kanpokuak  
miseriz josiyak,  
agiranduengatik  
gera etorriyak.

2  
Gau onak ematera  
gaurko egunekin  
emen gatoz sei lagun  
umore onekin,  
kantatzeko asmuan  
denok elkarrekin;  
gustora geldituko  
dirade gurekin.

3  
Ogei eta laugarren  
abenduko gaba,  
desio genduben ta  
noizbait etorri da;  
naiko txanpon biltzeko  
asmua orain da,  
gure boltsa txit ongi  
berotu biar da.

4  
Gure boltsan badago  
tokiya ugari,  
baño dirua gutxi  
zaigu or ageri;  
propina ona emen  
ematia guri  
etzaio gogoratzen  
oraindik iñori.

5  
Apari batengatik  
gabilta onela,  
diru pixka bat biltzen  
nola edo ala;  
gaur gutxi eman ezin  
lezateke iñola,  
pozik artuko degu  
beok eman ala.

6  
Orra sei bertsoekin  
despedidarako,  
bertso au jarri bada  
lagunarentzako;  
baliyo du urrengo  
Gabonetarako,  
Gabon guztiyak emen  
igual diralako.

## ***Estribilloa***

*Orra sei mutil gazte  
etorri onera,  
apari on batentzat  
dirua biltzera;  
propina baten jabe  
egiten bagera,  
lagun guztiyok ondo  
konponduko gera.*

26 Dicbre 1882  
Pepe Artola  
(1864-1929)

Donostiako Pepe Artola bertso-jartzaille ugariak *album* aundi batean bildu zituan bere bertso-sail asko. Bilduma ori Auspoaren 297 zenbakian agertu genduen, *Ustez laguna detan* izenburuarekin. Zazpi bertso auek ortik artuak ditugu.

Pepe Artolak emeretzi urte zituan orduan, eta bertso auek ortarako moldatuko zituan, noski: Gabon-egunean kalez kale bere lagunekin kantari ibiltzeko.

1882

## Jesus jaio berriari

---

*Soñu ederrak joaz  
bidian aстера,  
Belen aldera goaz  
Jesus ikustera.*

Oskarbi dagoala,  
izarren ardian,  
artzai batzuek dira  
ageri mendian;  
gaxoak erne daude  
ardura andian,  
aingeru bat jua zaie  
gabaren erdian.  
*Soñu ederrak joaz...*

Aurtxo jaio berria  
or larru gorrian,  
aingeruak kantari  
dauzkatzu aurrian:  
«Gloria Jainkoari  
zeru ederrian,  
borondate on dunai  
pakea lurrian».  
*Soñu ederrak joaz...*

«Poztu, artzaiak, poztu!  
–aingeruak diyo–,  
Belengo estalpien  
dala Jesus jayo;  
mendietan barruna  
oju ta lekayo,  
joanik adoraziyo  
eman bear zayo».  
*Soñu ederrak joaz...*

Orra nola dituan  
Jesusen jaiotzak  
biziro alegratu  
artzaien biotzak;  
dijoaz, galtzar-pean  
arturik bildotsak,  
Belengo estalpera  
geiegizko pozak.  
*Soñu ederrak joaz...*

Estalpeko idi ta  
astoaren aska,  
orra biurturikan  
Jesusen siaska;  
lasto batzuek berriz  
koltxoetzat dauzka,  
andikan guzioi  
dagokigu otska.  
*Soñu ederrak joaz...*

Aur gaxoa sufritzen  
dago dar... dar... otzak,  
alkar joaz oñ-esku,  
papar ta okotzak;  
ala ere gugatik  
irri-parrez pozak,  
beregandu nai dizku  
guzion biotzak.  
*Soñu ederrak joaz...*

Mendaron, 1882-ko Abenduaren 16-an

**Pedro Migel de Urruzuno**  
(1844-1923)

*Euskal-Erria*, 1882

*La Baskonia*, 1908

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

Pedro Migel Urruzuno jauna Mendaroko mojen kapellaua izan zan urte mordoan. Bertako mutikoak ere bazekiten apaiz ori bertso-jartzaille zala, eta Gabon aurretik berarengana joaten ziran, Gabon-bertsoren batzuk jarri eta emango ote zizkien, atez ate eskean ibiltzeko. Baietz, bada; jarriko zituela. Ala, jarri eta mutikoei eman; auek buruz ikasi eta eta etxez etxe an ibiltzen diran. Bearbada, beraz, Urruzunoren Gabon-bertsoak Mendaroko mutikoak kantatzen zituzten oietzek izango dira.

1882

## Iru Erregeen adorazioa

---

*Iru Errege Meltxor,  
Baltasar ta Gaspar,  
Belen aldera pizkor  
dijoaz ta azkar*

Izar guziz argi bat  
ara sortaldian,  
aiñ ederrik ikusi  
ez da aspaldian;  
iru errege datoz  
jarraika bidian,  
juduen errege non  
jaio dan galdian.  
*Iru Errege...*

Gauza arrigarriak  
arkitu dituzte,  
Jesus aiñ pobre zanik  
etzuten, ez, uste.  
O, zeru eta lurrak,  
arritu zaitezte!  
Iñork ez gaitu maite  
Jesusek ainbeste.  
*Iru Errege...*

Izarra ezkutatu  
da Jerusalem, en,  
berriz agertu andik  
atera bezin len;  
gelditurik estalpe  
gañian Belenen,  
«Zeruko Erregea  
dago –diyo– emen».  
*Iru Errege...*

Seaskatzat aska bat,  
koltxoitzat lastuak,  
bere oñ-eskutxuak  
osoro oztuak;  
zerbait berotu arren  
idi ta astuak,  
nola bizi gindezke  
onezaz aztuak?  
*Iru Errege...*

Intzentsu, urre mirraz  
beterik eskuak,  
Jesusi eskeñiaz  
Errege prestuak,  
ara nola lurrian  
dauden auspeztuak,  
zerutar danak berriz  
oiei poztuak.  
*Iru Errege...*

Jesusek dizkitzute  
entzun erreguak,  
esan al baño garbi  
ta ederraguak;  
bedeinkatuaz zuen  
asmo ta goguak,  
agur, zorioneko  
errege maguak.  
*Iru Errege...*

**Pedro Migel de Urruzuno**  
**(1844-1923)**

1882-ko Abenduan

*Euskal-Erria*, 1882

*Koroi eder bat*, Auspoa, 291, 2005

1883

## Errege bezperako

---

1

Errege bezpera da  
guztizko gau ona,  
etxietan biltzeko  
guk falta deguna;  
zerbaiten esperuan  
gatoz beongana,  
emango al digute  
denok txanpon bana.

2

Errege bezperatik  
gatoz gu onera,  
urtero bezela gaur  
zelebratuzera;  
sei lagunak batian  
guaz kantatzera,  
propinarekin gero  
konponduko gera.

3

Onera etorri gera  
sei lagun dezente,  
bertsuak kantatzera  
oso baliente;  
kantuz asiko gera  
izugarri fuerte,  
agirandotxo zerbait  
guri eman arte.

4

A zer kuadrilla eman  
ongi kantatzeko,  
triste dagona berriz  
kontsolatuzeko!  
Bañan obiagua  
dirua artzeko,  
baldin badute asko  
guri emateko.

5

Diruak istilluak  
ematen dizkigu,  
ori dala meriyo  
orla gabiltza gu;  
boltsan moneda askorik  
ageri etzaigu,  
apariyentzat diña  
bilduko ez degu.

6

Despedida emateko  
ona seigarrena,  
bukatu zangun bara  
al dan laisterrena;  
etorriko gerade  
gu seiak urrena,  
baldin uzten baigute  
sartutzen barrena.



## *Estribilloa*

Agirandubaengatik  
sei lagun nekian,  
jira ta bira emen  
gabiltza eskian;  
arkitzen gera beon  
etxeko atian,  
propina ona guri  
gaur eman artian.

7 Enero 1883

Leen esan bezela, Donostiako Pepe Artola bertso-jartzaille ugariak *album* aundi batean bildu zituan bere bertso asko. Bilduma ori Auspoaren 297 zenbakian agertu genuen, *Ustez laguna detan* izenburuarekin. Zazpi bertso auek ortik artuak ditugu.

1886

## Gabon-kantak

(Gabonetan kantatuak)

---

1  
Gau on zelebratzera  
gatoz beongana,  
desiatzen diyogu  
denori gau ona;  
bidez nai genuke guk  
bete boltsa dana,  
emango al digute  
denok txanpon bana.

2  
Onuntz gatoz miseri  
ikaragarriyan,  
eta arkitzen gera  
gosiak premiyan;  
ez badigute beok  
laguntzen guzian,  
sartu biarko degu  
Miserikordian.

3  
Gure boltsan badago  
tokiya ugari,  
bañan dirua gutxi  
zaigu or ageri;  
propin ona ematia  
etxe ontan guri  
etzaio gogoratzen  
oraindik iñori.

4  
Eztegu beñere izan  
orlako miserik,  
uste det eztegula  
jango bisigurik;  
ezta gaur gurituko  
tripako esterik,  
gure boltsan eztago  
lau kuarto besterik.

5  
Santero-nian degu  
eman gaur ordena  
guri gaur ipintzeko  
bixigu onena;  
ez baldin bada sortzen  
paga bear dana,  
egin bear ko degu  
guk beliarena.

6  
Lau lagun alproja abek  
etxetik etxera  
etorriyak gerade  
diruen eskera;  
orain beokgandikan  
zerbait degu espera,  
orduantxen guztiyak  
aterako gera.

### **Estribilloa**

Batzubentzat gau ona,  
bestientzat gau txar,  
diru eske gabiltza  
gu lau alproja tzar;  
bekaigute kobria,  
zillar edo urre xar,  
alde egin dezagun  
emendikan azkar.

Diciembre 1886  
Pepe Artola

Bertso auek ere Pepe Artolarenak dira; leen aitatutako *album* edo bilduma ortatik artuak.

*Goazen, artzaiok, goazen,  
goazen al dan lenen,  
Jesus jaiorik dago  
gure zai Belenen.*

1  
Aingeru batek digu  
berria ekarri  
Jesus Belenen dala  
mundura etorri;  
bildots bana arturik  
diyogu alkarri:  
«Goazen eramatera  
zeruko Aur orri».  
*Goazen...*

3  
Ara aingeru-tropak  
zer kantatzen duan:  
«Gloria Jainkoari,  
gloria zeruan,  
pakea gizonari  
betiko munduan».  
Orra zeru-lurretan  
zer poza dagan.  
*Goazen...*

2  
Ai zein kanta ederrak  
ditugun aditzen!  
Zerukoak dirala  
zaigu iduritzen!  
Millaka aingeruak  
zaizkigu arkitzen,  
airietan kantari  
orra non dabilten.  
*Goazen...*

4  
Estalpe bat jauregi  
eta bertan aska,  
ona nolakoa dan  
Aur onen seaska;  
koltxoetzat lastoak  
ipiñirik dauzka,  
idi-astoak dute  
berotzen arnaska.  
*Goazen...*

5

Eguzkia diruri  
zure arpegiak,  
izar eder bi berriz  
dituzu begiak;  
laztantzen zaituztela  
Jose ta Mariak,  
bete dituzu oso  
zorionez biak.  
*Goazen...*

6

Poztu gaitu, o Jesus!,  
gu zure jaiotzak,  
emen dakaizkitzugu  
artzaiok bildotsak;  
agur, Jesus maitea,  
bagoaz gu pozak,  
zuri utzirik emen  
guzion biyotzak.  
*Goazen...*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**  
**(1844-1923)**

*Euskal-Erria*, 1886

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1886

## Iru Erregeak

---

*Erregeak dijoaz  
mendietan bera,  
berai lagunduaz  
goazen Belenera.*

1

Begira, bai, begira  
kontuz sortaldera,  
ara non agertu dan  
izar txit ederra;  
Berri onen bat dakar  
zerutik lurrera,  
erregeen giari  
dijoa aurrera.  
*Erregeak...*

3

Izarra zaielarik  
Belenen gelditu,  
beren adimentuak  
dizkie argitu;  
estalpe baten Jesus  
dutela arkitu,  
bere pobrezaz dira  
osoro arritu.  
*Erregeak...*

2

Erregeak ondoren  
datoz izarraren,  
Baltasar, Meltxor eta  
Gaspar irugarren;  
Jesus adoratzera,  
umill egon arren,  
anditasun guzia  
orra non datorren.  
*Erregeak...*

4

Bigungarritzat dauka  
askako lastoa,  
nola ez da egongo  
Aurtxoaz oztua?  
Asnasaz berotzeko  
idi ta astoa,  
orra nola dagoan  
justuen Justoa.  
*Erregeak...*

5

Badakigu zerala  
zeru-lurren Jabe,  
ona urre ta mirra,  
intzentsua ere;  
eskeintzen dizkitzugu  
dan bezela lege,  
bada zera Jaungoiko,  
gizon ta Errege.  
*Erregeak...*

6

Etorri gera, Jesus,  
zu adoratzera,  
ori egiñ ondoan  
bagoaz atzera;  
zeruko aingeruak  
betoz kantatzera,  
agur, Jesus maitea,  
bagoaz atzera.  
*Erregeak...*

**Pedro Migel de Urruzuno**  
**(1844-1923)**

*Euskal-Erria*, 1886

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

*Ara artzaiak mendiyen bera,  
guazen berakiñ batera,  
gaztaña, esne ta gaztanbera  
Jesusi eramatera.*

1  
Artzaiak datoz mendiyak bera  
dakartzkitela bildotsak,  
gaberdiya da, baña ez ditu  
ikaratutzen gau otzak;  
ara saltaka nola datozen,  
poz dira beren biotzak,  
ditualako ainbesteraño  
poztu Jesusen jaiotzak.  
*Ara artzaiak...*

3  
Lasto gañian oial batzuek  
zartxoak baña garbiak,  
jauregi ordeztalpe zar bat  
dauka zeruen Jabiak;  
ispillu ontan ondo begira  
beza ondasun gabiak,  
bere laguntzat nonbait Jesusek  
nai dituela pobriak.  
*Ara artzaiak...*

2  
Belen ondoan estalpe baten  
dago askatxo batian  
Aur jaio berri eder-eder bat,  
gaxoa lasto tartian;  
asto-idiyak dute berotzen  
asnasaz biyen artian,  
Zeruko Aur au adoratzeke  
belaunikatu gaitian.  
*Ara artzaiak...*

4  
Aingeru batek artzai oiei  
ekarri diye berriya:  
Jesus jaiorik arkitzen dala  
lasto gañian jarriya;  
jaio orduko sufrutuz nai du  
salbatu bere erriya,  
O Jesus!, zure amoriyua  
da oso arrigarriya.  
*Ara artzaiak...*



5

Ara zerutik nola datozen  
aingeru asko kantari,  
begira kontuz, aditu ondo  
zer diran kantatzen ari;  
bada diyote: «Zeru goietan  
gloria Jaungoikoari,  
eta lurrean pakea gizon  
borondate on dunari».  
*Ara artzaiak...*

6

Dizdiatzen du urreak ainbat  
Aur eder orren illiak,  
zeruetatik ekarritako  
izarrak ditu begiak;  
eguzkia´re illun lezake  
bere arpegi argiak,  
zeru berri bat lurrera digu  
gaurko gabea Mariak.  
*Ara artzaiak...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
**(1844-1923)**

*Euskal-Erria*, 1887

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1888

## Iru Erregeak

---

*Adoratzera Jesus dijoaz  
Belenen iru errege,  
kantari eta soñuak joaz  
goazen berakin gu ere.*

2

Izar ederrez berdin gabe bat  
sortaldian da ageri,  
Belen aldera bide egiten  
asitzen dala diruri;  
iru errege mago ondoren  
jarraika datoz berari,  
izar eder au dutela beti  
beren aurrean giyari.  
*Adoratzera...*

3

Jerusalendik irtenik dira  
Belen alderuntz abiya,  
agertzen zaie berriz aurrean  
giyari izar argiya;  
estalpe zartxo baten gañian  
jartzen da geldi-geldiya,  
adierazten an dagoala  
Aur txiki Jainko andiya.  
*Adoratzera...*

2

Ezkutaturik izarra dabiltz  
Jesus non jaio dan galdez,  
beldurrez dago Jerusalemen  
ango errege Erodes;  
jakin nairikan magoengandik  
Jesus jaio dan edo ez,  
esaten diye: «Onuntzakoan  
atozte berriz mesedez».  
*Adoratzera...*

4

Lasto tartian askan Aurtxo bat  
gaxoa larru-gorrian,  
bero dezaten asnasaz dauzka  
asto-idiak aldian;  
iru errege alare zaizka  
belaunikatzen aurrian,  
gizon, Errege ta Jainko dana  
adoratzeko lurrian.  
*Adoratzera...*

5

Gizon bezala pozik diyote  
mirra eskeintzen aurrena,  
errege dala begiraturik  
urra berriz urrena,  
Jaungoiko danez usai gozoko  
intzentsurikan onena,  
errege oen zoriona da  
eman diteken goiena.  
*Adoratzera...*

6

Bedeinkazioz bete zaituzte  
Jaungoiko Aur Belengoak,  
zuazte zuen erriyetara  
emanaz berri angoak;  
zuen biyotzen poz-atsegiñak  
esan bitzate aoak,  
ondo joanak izan zaitezte,  
agur, errege magoak.  
*Adoratzera...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
**(1844-1923)**

*Euskal-Erria*, 1888

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1888

## Errege bezperan

---

1  
Iru Errege gatoz  
presaka ta larri  
Belengo portalera  
gogoz izugarri.  
gure Jesus maitia  
ikustera sarri,  
intzentsu, urre, mirra  
eman nairik Arri.

2  
Gaspar, Meltxor, Baltasar  
gera gu irurak,  
gaitza egiten digu  
gu denari urak;  
berotu nairik ondo  
tripa ta buruak,  
falta egiten digu  
gaur beon diruak.

3  
Nola Orientetik  
gatozen onera,  
uste gabian denak  
etxi ontan gera;  
beongandik dirua  
degu gaur espera,  
zelebratu dezagun  
Errege bezpera.

4  
Etxekoandre, nagusi,  
zerbait bekaigute,  
etxea degulako  
biziro aparte;  
ez badute ematen  
guretzat da kalte,  
kartzelara gaur denak  
sartuko gaituzte.

5  
Despeitu bear degu  
onradamentian,  
gustora denak emen  
daudezen artian;  
emengo diru denak  
ditugu partian,  
etorriko gerade  
datorren urtian.

### **Estribilloa**

Zori onian gera  
etxe ontan gaur gu,  
oraindikan dirurik  
batere eztegu;  
baldin emen ondotxo  
bildutzen badegu,  
apariyentzat diña  
osatuko degu.

*Enero 5, 1888.*

Bertso aukeratuak Pepe Artolarenak dira, bere *album* edo bilduma ortatik artuak. *Ustez laguna detan*, Auspoa 297,2006.

*Artzaiakin batera  
Belenera zuzen,  
Jesus adoratzera  
goazen, goazen, goazen.*

1  
Aingeru bat zerutik  
dator diyoala  
Jainko gizon egiña  
gaur jaioa dala;  
artzaiak aditzean  
sinisturik ala,  
badijoaz Aurraren  
billa bereala.  
*Artzaiakin...*

3  
Artzaiak billa dira  
bereala joaten,  
Belen ondoan ara  
zer arkitzen duten:  
Jose eta Maria  
estalpe zar baten,  
eta Aur bat erruki  
duena ematen.  
*Artzaiakin...*

2  
Millaka aingeruak  
or datoz kantari:  
«Gloria zeruetan  
gure Jainkoari;  
eta lurrean berriz  
pakea ugari  
gizon borondatea  
ona dutenari».  
*Artzaiakin...*

4  
Estalpe ortan aska  
ta askan lastoa,  
lasto gañian Aurra,  
gaxoa oztua;  
arnasaz berotzeko  
idi ta astoa,  
ara nola dagoen  
justuen justoa.  
*Artzaiakin...*

5

Eguzkia diruri  
bere arpegiak,  
izar eder bi berriz  
Aur orren begiak;  
zeru txiki bat dute  
Jose ta Mariak  
Belengo estalpian  
arkitutzen biak.  
*Artzaiakin...*

6

Jesus adoratzer  
alik eta lenen,  
etorririkan gaude  
gu oraiñ Belenen;  
zuretzat ar gaitzatzu  
oraiñ, Jesus, emen,  
eta gero betiko  
zeruetan, amen.  
*Artzaiakin...*

**Pedro Migel Urruzuno-koa**  
**(1844-1923)**

*Euskal-Erria*, 1888

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

## Bertso berriak

### «Eguarri bezperan...»

---

1

Eguarri-bezperan  
da gau ditzosoa,  
jaio zaiguna Jesus  
Jaun amorosoa;  
salbatuko bagiñan  
au zan prezisoa,  
argatik etorri da  
guzion Maisua.

2

Jesus Jaungoikoa da  
beti izanikan,  
gizontasuna badu  
gero arturikan;  
ori nola jaio dan  
eta zergatikan  
adierazi nai det  
kantuzko platikan.

3

Jesus, eskatzen dizut  
zedorri grazia,  
ondo esplikatzeko  
doaiez jantzia;  
abertitu ezazu  
nere inozentzia,  
Zurekin egingo det  
bear dan guzia.

4

Zorigaiztoz egiñ zuan  
Adanek pekatu,  
zeruan sartutzea  
zigun debekatu;  
Jesussek libratzeko  
bere gaiñ du artu,  
baita logratu ere  
juaten dana sartu.

5

Adanen pekatuaz  
jabetua dana,  
Jesus zeruetatik  
jetxi da gugana;  
gu salbatzeagatik  
berak artu lana,  
gaur ezta txarra ori  
egiten duana.

6

Jesusi pekatu-rik  
gustatzen etzaio,  
mantxarrik ere bage  
mundura da jaio;  
Jaungoikotasunari  
tokatutzen zaio,  
jakiñ nai duanak nola  
atendi bizaio.

7

Mariaren entrañetan  
garbi eta justu  
Espiritu Santuak  
Semea da piztu;  
gizonaren obrarik  
ark izandu eztu,  
fedeko gauza da ta  
bear da sinistu.

8

Garbi pasatuzen du  
argiak kristala,  
Mariak artu zuan  
Seme ori ala,  
Espiritu Santuak  
obratzen zuala,  
egñ arren birjiña  
geldituzen dala.

9

Jesus degu onela  
kriatutakoa,  
Jaungoiko eta gizon  
unitutakoa;  
bigarren pertsona da  
Trinidadekoa,  
bai, gure Salbadore  
zoriekkoa.

10

Jaungoikoa etzaigu  
etorri grandezan,  
zeruak eta lurak  
naiz bereak izan;  
Belengo portalean  
jaio da pobrezan,  
ukulluan ganadu  
artean bajezan.

11

Ukulluan jaio ta  
gero miseriak,  
asnasaz berotuzen  
asto ta idiak;  
Jesusekin parterik  
eztu soberbiak,  
dauzka umildadeko  
birtute andiak.

12

Maria, zeundelako  
justuen graduan,  
Espiritu Santua  
Esposo zenduan;  
Semea kontzebitu  
izan zan orduan,  
Jaunak eskojitua  
Zu zera munduan.



13

Martzoaren ogei ta  
bostgarren eguna,  
Espiritu Santuak  
obratu ziguna,  
alkarri unituaz  
Jainko ta gizona,  
Trinidade Santuko  
bigarren pertsona.

14

San Gabrieleke Maria  
zuan saludatu:  
«Jauna dago zurekiñ»  
egiñaz mandatu;  
sabeleko frutua  
Jesus bedeinkatu,  
artean aurdun zanik  
etzan akordatu.

15

Jose eman diote  
gero esposotzat,  
Jesusek izan ditzan  
bere gurasotzat;  
ondo konpontzen dira,  
artu zuten ontzat,  
ejemplo ona eman  
dute guzientzat.

16

Guregatik da Jesus  
zerutikan jetxi,  
umildade-pobrezak  
ditu erakutsi;  
oien billa geranak  
gaur munduan gutxi,  
ponpa ta grandezakiñ  
nai genduke bizi.

17

Gu salbatzeagatik  
Jesusen jaiotza,  
Pasio santua ta  
gero eriotza;  
konbertitu liteke  
brontzezko biotza,  
baldiñ gure fedea  
ezpadago otza.

18

Zerua iriki ta  
Jesus degu lagun,  
ondo erakutsiaz  
zer egiñ biagun;  
kontsideratzen dala  
zenbat zor diogun,  
beraren pausoetan  
segi degiogun.

19

Jesusek zabaldu du  
zeruko atea,  
oraiñ nai luke danok  
ara juatea;  
betiko ditxa guri  
nai du ematea,  
Jaun Dibinoak orra  
zer borondatea.

21

Orra bertso berriak  
Imaz zarrak jarri,  
Jesus zertarako ta  
nola dan etorri;  
paperak danok artu  
ta maiz irakorri,  
sarritan kantatzeko  
Salvadore orri.

20

Eskatzen digu alkar  
guk estimatzea,  
ta Jainkoa guziena gaiñ  
ondo amatzea,  
len okerrik badegu  
erremediatzea,  
eta geiago Jesus  
ez ofenditzea.

Bertso auk Tolosa: *Imprenta de la Viuda de Mendizabal e hijos* moldiztegian argitaratu ziran, eta Loiolako Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman aurkitu genituen.

Azken bertsoak egillearen izena ematen digu. Leen ere esan degunez, Altzoko Manuel Antonio Imaz (1811-1893) jartzaille oparoa izan zan. Ikus: *Auspoa* 68-69-70.

# Jesusen jaiotza

---

## Iztribilloa

*Goazen guziok, goazen,  
lasterka Belena,  
adoratu dezagun  
Aurrik ederrena.*

1

Aingeruak esan du  
or mendi gañean  
Jesus jaio zaigula  
Belengo estalpean;  
gloria zeruban ta  
pakea lurrean  
borondate oneko  
gizonen artean.

2

Ogei ta laugarrena  
degu Abenduan,  
deseo genduena  
iritxi genduan;  
gaubeko amabiyak  
jo duten orduan,  
gure Salbatzallea  
jaio da munduan.

3

Belengo portaleko  
estalpe batean  
umil jaio da Jesus  
ganadu tartean;  
astoa ta idia  
dauzka aldamenean,  
asnasaz berotzeko  
oztutzen danean.

4

Txit egun ditxosoa  
degu Egubarri,  
zergatikan dan Jesus  
gugana etorri;  
guziok bear degu  
deboziaz jarri,  
eskerrak emateko  
jaio dan Aurrari.

5

Espiritu Santuaren  
obraz sortu dana,  
Trinidade Santuko  
bigarren pertsona,  
Amari galdu gabe  
dontzellatasuna,  
jaio zaigu Belenen  
gure Jesus ona.

7

Aurtxo bedeinkatuak  
digu milla grazi,  
guretzako zerua  
nai du irabazi;  
gu salbatzeagatik  
eta nola bizi  
guri erakusteko  
da zerutik jetxi.

6

Zer poza biotzean  
guk orain daukagun!  
Jainkoaren Semea  
etorri da lagun;  
txit maite gaituala  
ongi da ezagun,  
beraren alabantzan  
kantatu dezagun.

8

Zori onean, Jesus,  
zu jaio ziñaden,  
bestela zeruetan  
sartzen ez giñaden;  
gu salbatzeko gizon  
egin zera emen,  
gloria gozatzeko  
alkarrekin, amen.

### **Erregeen etorrera**

#### **Iztribilloa**

*Jesus adoratzera  
erregeak datoz,  
biyotz umillarekin  
gu ere bagatoz.*

1  
Iru errege ziran  
sort-aldetikuak:  
Meltxor, Gaspar, Baltasar,  
mago jakitsuak;  
nola ziran irurak  
on eta santuak,  
Salbatzallearen zai  
zeuden prestatuak.

2  
Liburu santuetan  
irakurri zuten  
nola jaiotuko zan  
Mesias Belenen.  
Gero izar eder bat  
agertu zitzaien,  
ala gertatu zala  
aditzera ematen.

3  
Emen dator lenbizi  
Meltxor jakintsua,  
eskeiñitzen Jesusi  
umill intzentsua;  
ikusten badu ere  
Aurtxo biurtua,  
guzien Jaun da Jabe  
dauka aitortua.

4  
Bigarren agertzen da  
Gaspar ondradua,  
esku-erakutsitzen  
urre gorritua;  
ikusten badu ere  
pobre beartsua,  
aitortzen du Errege  
guzien burua.

5  
Baltasar beltzarana  
dator irugarren,  
gizonari bezela  
mirra eskeiñitzen;  
era onetan digu  
adierazitzen  
Aurtxo ilko dala  
gu salbatzearen.

6  
Eskeñi dezaiogun  
guk ere Jesusi;  
zeruko intzentsua  
oraziyo sarri,  
karidadez urrea,  
mirra norik berari,  
gogor uko egiñaz  
grina gaiztoari.

7

Jaio bazera, Jesus,  
umill ta beartsu,  
diguzun amorioz  
ori egin dezu;  
Jaungoikoa zerala  
ezagutzen degu,  
zeru-lurren Errege  
aitortzen zaitugu.

8

Emen agertu zera  
Aurtxo bat bezela,  
Zu maitatzen ikasi  
dezagun onela;  
umiltasun orretan  
saiatzen bagera,  
joango gera zurekin  
zeru ederrera.

Bertso auek bi izenburu dituzte. Bi sail baitira. Bakoitzak izenburua eta *iztribillo* bana eta zortzina bertso. Edo, obeto esateko, bi zati dituan sail edo paper bakarra.

Bertso-paper ori *Tolosan*: - *P. Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen Moldiztegiuan* argitaratu zan.

Nork jarritako bertsoak diran ez dakigu; baiña baditeke, gure iritzirako beintzat, Altzoko Manuel Antonio Imaz bertsolariarenak (1811-1893) iza-tea. Ikus: *Auspoa* 68-69-70. 1967.

Batetik, bertsolari orren joskera ikusten diegu guk beintzat bertso auei. Eta, bestetik, bertso auen laster aitatuko degun kopia batean, gerra aurrekoa bera, Don Manuel Lekuonari zor zaion argibide jakingarri au aurkitu degu izenburuan: «Gabon-Eguarritarako kantak Altzo'ko bertsolariak jarriak».

Bigarren zatiaren bertsoak, *Erregeen etorrera*-koak alegia, *El Correo de Guipúzcoa* aldizkarian ere agertu ziran, aldaketarik gabe gaiñera, 1903-I-6-an.

\* \* \*

*Euskal-Esnalea* aldizkarian, 1927 urtean, 244 orrialdean, bertso sail onen leen zatia argitaratu zan, batere aldaketarik gabe.

\* \* \*

*Gauon Kantak* izenburuarekin, *Tolosa - Imp. de E. López* moldiztegian argitara emandako kanta-paper batean, leenengo zatiaren zenbait bertso aurkitu ditugu: 2, 6, 3, 5/1-4 eta 8-garrena, ordena orretan.

Aldaketak: 2/4: logratu genduan; 2/7: gure Salbagillia; 2/8: jaio zan munduan; 3/1: Belengo portalian; 3/3: jaio da Jesus umil; 3/4: ganadu artian; 3/7: arnasaz berotzeko; 5/1: Espiritu Santuagandik; 5/2: sortu dan gizona; 6/1: Ai zer konsuelua; 6/2: artu biar degun; 6/3: Jaungoikuaren Semia; 6/5: erakutsiko digu; 6/6: zer egin bear degun; 6/7: beraren alabantzak; 6/8: kantatu ditzagun; 8/5: zori onian gizon; 8/8: zeruetan, amen.

Eta beste bertso auek ere bai:

Kristalian argiya  
nola dan pasatu,  
jaio ta gero ere  
dontzella gelditu.

Espiritu Santubak  
emanik graziya,  
aren kontzeziñua  
beti da garbiya.

Goiko mendiyetatik  
pastoriak datoz,  
esanik aingeruak  
jaio dala Jesus.

Deboziñoan jarri  
Jose ta Maria,  
anparatzeko seme  
estimagarria.

Jose eman diote  
Mariari esposo,  
biyak egin dirade  
Aur onen guraso.

*Gabon kanta Berriak* izenburuarekin, *Imprenta y Librería de F. Elosu*. - *Durango* moldiztegian argitara emandako kanta-paper batean, Tolosako E. López-en etxeko orriaren bertso oiek berak agertu ziran. Kopiatu egingo zizkion, noski.

Baiña aldaketa batzuk ere sartu zizkion. Oietako asko, izkera bizkaieratzearren. Merezi ez dutelakoan, ez ditugu aldaketa oiek onera aldatzen.

*Rentería: Tip. Vda. Valverde* mozdiztegian argitara emandako beste kanta-paper batean, bertso guziak Durangoko Elosuren orrian bezela daude.

\* \* \*

Moldiztegi-izenik ez duan bertso-paper-batean, izenburuak onela dio: *Bertso Berriyak Vicente Gomez'ek eta Ignacio Aizpurua'k jarriyak*. Ala ere, jaun oiek ez dira benetako egilleak izango. Paperak, izan ere, amabi bertso ditu; baiña geienak, beste zenbait paperetatik artuak.

Asteko, sail ontako leenengo zatiaren bertso auk: 2, 6, 4, 7, 5 eta 8-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 2/1; Ogetalugarrena; 2/3: alkantzatu dezagun; 2/4: zer de-seo genduan; 2/5: gaurko amabiyak; 3/1: Belengo portalean; 3/3: jaio da Jesus umil; 3/4: askatxo batian; 3/7: arnasaz berotzeko; 4/3: Jesus zergaitikan dan; 4/6: debozioan jarri; 4/7: graziak emateko; 4/8: gaur dan aur oni; 5/1: Espiritu Santuan; 5/2: obra sortu dana; 5/7: jaio da Mariagandik; 6/1. Ai zer konsuelua; 6/2: orain daukagun; 6/3: Jaungoikoaren Semea; 6/5: erakutsiko digu; 6/6: zer egin bear degun; 6/7: beraren alabantzak; 7/1: Jaungoikoagatikan; 7/2: degu milla grazi; 7/5: lenengo redimitu; 7/6: gero nola bizi; 7/7: berak erakutsiko; 7/8: gero nola bizi; 8/6: egin ziñan emen; 8/7: glorian goatzeko.

Oietaz gaiñera, «Notiziya bat degu» asten dan Gabon-kantaren bi bertso, 11 eta 12-garrena, aldaketa auekin: 11/1: Baita etorri dira; 11/4: Jesusen berriak; 12/2: iru errege emen; 12/5: erregaluak ere; 12/6: ekarri zituzten.

Eta beste iru bertso auk ere bai:



Espiritu Santuak  
berak du obratu,  
Mariaren entrañetan  
Semea formatu;  
kristalian argiya  
bezela pasatu,  
eginda gero ere  
dontzella gelditu.

Jesus estimatzian  
izandu alkanzo,  
mundutarren partetik  
biar degu jaso;  
Jose eman ziola  
Amari esposo,  
biyak egin ziraden  
Aurraren guraso.

Karguan jarri dira  
Jose ta Maria,  
anparatzeko emen  
estimagarria;  
Espiritu Santuak  
emanik argia,  
oien kontzeziyua  
izan zan garbia.

\* \* \*

Amabi bertso oiek berak dituan beste bertso-paper bat ere aurkitu degu, *Guernica.- Imp. de Goitia y Compañía* moldiztegian argitaratua. Onen aldaketak ez ditugu onera aldatzen, geiegi ez luzatzearren.

Moldiztegi-izenik gabeko beste bertso-paper batean ere, amabi bertso oiek agertu ziran. Baiña onen aldaketak ere onera gabe uzten ditugu.

\* \* \*

*Eusko-Folklore* urtekarian ere agertu ziran bertso auetako batzuk, 1922-an, Bizkaian jasota.

Lerroak launaka daude, eta ez zortzinaka, lauko guztien atzetik onako luzagarri au kantatzen dala adieraziz:

Maria i Jose  
Jesus Maria.

Baiña lau bertso bakarrik: 2, 6, 3 eta 8-garrena. Oso aldatuta, ordea; eta tartean bertso berri batzuk ere bai. Ona emen danak:

Ogeta laugarrena  
degu abenduen:  
desio gendua  
logradu genduen.  
*Maria i Jose*  
*Jesus Maria.*

Belengo portalien,  
estalpe batien  
jaijo da Jesus umil  
ganadu artien.  
*Maria i Jose...*

Gaubeko amabijek  
jo duten orduen,  
gure Salbagillie  
jaijo da munduen.  
*Maria i Jose...*

Astoa ta idije  
dauzka aldamenien  
arnasaz berotzeko  
otzitzen danien.  
*Maria i Jose...*

Ai, ze konsuelue  
artu biar degun!  
Jaungoikoaren Semie  
etorri de lagun.  
*Maria i Jose...*

Kristalien argie  
garbi da pasatu:  
jaijo ta gero bere  
dontzella geratu.  
*Maria i Jose...*

Berak erakutsiko deusku  
zer egin biar degun,  
beraren alabantzak  
kantadu dezaigun.  
*Maria i Jose...*

Espiritu Santuagandik  
sortu da gixona;  
Trinidade Santuko  
bigarren pertsona.  
*Maria i Jose...*

Deboziñoz jarri dira  
Jose eta Maria  
anparatzeko seme  
estimagarria.  
*Maria i Jose...*

Zorijonian, Jesus,  
zu jaijo ziñian;  
bestela zeruetan  
sartzen ez giñian.  
*Maria i Jose...*

Jose eman diote  
Mariari esposo,  
bijak izan deitzezen  
Aur onen guraso.  
*Maria i Jose...*

Zorijonian gixon  
egiñ zara emen  
gloria gozatzeko  
zeruetan. Amen,  
*Maria i Jose...*

\* \* \*

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, don Manuel Lekuonak bialduta, leenengo zatiaren zazpi bertso agertu dira: 2, 6, 4, 3, 7, 5 eta 8-garrena, ordena ortan.

Aldaketak; 2/3: danok nai genduana; 3/1: Belengo sarrerako; 3/4: ganadu tartean; 3/7: arnasaz berotzeko; 4/1. Txit egun pozgarria; 4/2: degu Eguberri; 4/3: Jesus zerutik bait-da; 4/6: belauniko jarri; 4/8: jaiio dan aur orri; 5/1: Jainkoaren Arnasa; 5/2: beroz sortu dana; 5/3: Irutasun Doneko; 5/4: bigarren laguna; 5/6: lengo osotasuna; 5/7: orra Mariagandik; 5/8: jaiio Jesus ona; 6/1: Ai zer nolako poza; 6/2. orain guk daukagun; 6/7: beraren alabantza; 6/8: gaur kanta dezagun; 8/7: ta gero zerurat.

Eta izenburua: *Gabon-Eguarritarako kantak Altzo'ko bertsolariak jarriak.*

\* \* \*

*Argia* astekarian, 1926-XII-26-an, *Gurasobide*-k, ainbeste bertso zaar gorde eta salbatu zuan Manuel Urreta tolosarra zanak alegia, onela idazten zuan:

«*Tolosa*.- Gabonak badatozkigu bere alaitasun berdiñik gabeakin. Jesu-sen Jaiotza bere eresí soñu ta abesti pozgarriakin.

Atsegiñ aundiaz artzekoa da eliz-nagusiko apaiz jaunen lanketa ederra ume maitiai erakusten, guretzako izkuntzik maitagarrinian, Gabon abesti samur ta entzungarriak, aingeru poza zabal dedin erriko etxe guzietara ta bere usai eztsua erriak ditun alderdi ta toki aundienetik txikienetara...».

Eta, ondoren, leenengo zatiaren leenengo bertsoa eskeintzen zuan.

\* \* \*

*Príncipe de Viana* aldizkariak, 33-34 zenbakian, 1968-ko azaro-abendu-  
duan, sail ontako sei bertso argitaratu zituan: leenengo zatiaren 1, 3, 4, 2,  
5 eta 8-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/6: ta pakea lurtean; 2/3: deseio ginduen; 2/4: erditsi gin-  
duan; 2/6: jo zuten orduan; 3/3: jaio da Jesus umil; 3/5: asto eta idia; 3/7:  
arnasez berotzeko; 4/2: degu Eguberri; 5/2: obraz sortu zana; 6/7: glorian  
gozatzeko.

Ortaz gaiñera, «Artzai buru-txuri bi» asten dan bertso ezaguna ere bai.  
Baita beste kantaste edo *estribillo* au ere:

Goazen, artzaiak,  
segi dezagun  
laixter Belenera,  
Jesus adoratzera  
al dan laixterrena. (*bis*)

Ez du esaten bertso oiek nundik jasoak dituan. Seguru aski, Naparroa-  
ko erriren batean.

\* \* \*

Donostiako Jose Elizondo zanaren paperetan, bi bertso agertu dira.

Leenengoa onela osatuta dago: aurrena sail ontako 2/5-6 lerroak; eta  
gero, 6/3-6 lerroak.

Aldaketak: 6/4: egin zaigu lagun; 6/5: auxe da konsuelua; 6/6: oraintxe  
daukagun.

Eta bigarren bertsoa onako au:

Gure andreak ere  
badoaz bidean,  
kapoiak arturika  
buruen gañean,  
poz aundi bat dutela  
beren biotzean,  
Jesusi emateko  
dagon estalpean.

\* \* \*

Orain urte batzuk, Ataungo 6, 7 eta 8-garren maillako ikasleak, *Zorionak* izeneko kuaderno moduko bat atera zuten Eguberriari buruz.

Bertan, sail onen leenengo zatia agertzen da, norbaiten aotik *Rosarito*, *Maidera* eta *Jaione* izenekin firmatzen duten iru neskak jasota.

Aldaketak: 3/4: ganadu artean; 4/1: Txit aunditasunakin; 4/3: zergaitik an da Jesus; 6/2: guk orain daukagun; 6/3: zergaitik Jainkoaren Semea; 6/4: etorri delako; 7/1; Aurtxo bedeinkatua; 7/2: iru milla grazi;

\* \* \*

Sail ontako leenengo zatiaren zazpi bertso, *estribilloa* eta aurrenekoa ez beste guziak alegia, Zaldibiko Rufino Iraola adiskideak argitaratu zituan, *El Diario Vasco* egunkarian, 2000-XII-28-an, eta *Gure Gabon kanta entzutetsuena* izenburuarekin.

Baiña *koplak* dirala esaten du; puntuak binaka dituzten bertsoak, alegia. Ez da orrela, ordea, garbi asko ikusten danez. Launa dituzte puntuak.

Aldaketak: 2/7: gure Salbadorea; 3/1: Belenengo portaleko; 3/4: ganadu tartean; 3/7: arnasaz berotzeko; 4/8: jaio dan Haur horri; 6/6: ongida dezagun; 7/2: ditu mila grazi; 8/7: lorian gozatzeko.

Argibide jakingarri asko ematen ditu, bera eta bere lagunak mutil koskorretan nola ibiltzen ziran atez ate, kanta auek kantatzen.

Berak nundik dituan ere esaten du:

«Hain zuzen, oraintxe dela urte pare bat arte ez dut sekula idatzita ikusi. Orduan, Jose Mari Satrustegiren hitzaldi baten ondoren, Antonio Etxe-

berriari ikusi nion paper hori, hizlariari eman baitzion ale bat, baina neuk ez dut inoiz irakurri. Hemen datozen hamalau koplak hauek nik buruz dakizkien bezala idatziak daude. Uste nuen, ordea, hamalau baino gehiago zirela, eta Antonio Etxeberriarengana jo nuen «falta» zitzaizkidanak emango ote zizkidan. Sorpresa haundia eraman nuen, haren paperean ere hamalau bakarrik agertzen baitira. Beraz, guztira hamalau koplak dira eta oso alde txikiak daude, ia-ia baterez, bertsio honetatik Antoniok daukan bertsiora».

*Koplak* dirala, eta ez *bertso*, bein eta berriro esaten du:

«Hamalau koplak dira, eta ez zazpi bertso, nahiz eta lehenengo koplak eta bigarrenak, hirugarrenak eta laugarrenak, etab., elkarrekin errimatzen duten. Doinuak garbi erakusten du hori, koplakero errepikatzen da, eta geldialdia ere koplak bakoitzaren ondoren egiten da».

Baiña besteetan beste doiñu batekin kantatuko dira, eta an doiñuak ere *bertsoak* dirala erakutsiko du, eta ez *koplak*.

Eta, dudarik ez duana, kanta-paperak *bertso* bezala eratzten dituala, eta ez *kopla* bezala.

Ondoren onela esaten du Rufino Iraola adiskideak:

«Zer da ‘ongida’?»

Bada koplaren bat edo beste, hain ongi ulertzen ez dena; esate baterako, hamargarrena: «Txit maite gaituela ongida dezagun, / beraren alabantzantzan kantatu dezagun». Susmoa nuen “gaituela” hori ez ote zen “gaitu eta”. Baina Antonio Etxeberriaren bertsioan ere guk gogoratzen dugun bezala dator. Bestetik, “ongida” hitzak zer esan nahi ote du? Agian, eskertu? Azkenik, potoa dago: dezagun/dezagun. Hala ere, zalantza txiki horiek gorabehera, hunkigarria da».

Neroni ere sarri xamar gertatu izan zait zailtasun txiki batekin topo egin eta antxe korapillatzea; eta, andik denbora puska batera, uskeri bat zala ikusi. Oraingo ontan ere gauza bera degu.

Ez da “ongida dezagun”, baizik eta “ongi da ezagun”; eta orrela ez dago poterik, eta ulertu ere errez egiten da: «txit maite gaituala ongi da ezagun».

Onela jarraitzen du Iraola jaunak:

«Lehen ere esan dut, eta ez dut uste Zaldibitik kanpo inon kantatu izan denik. Beharbada, Gaintzan edo Lazkaomendin? Koplakilea nor dan ez dakigu, noski. Ez daude, nik dakidanez, inongo kantutegietan jasoak».

Kantutegietan bearbada ez; baiña bertso-paperetan bai, leen adierazi degunez, Tolosa, Durango eta Gernikako moldiztegietan argitara emanak. Baita *Euskal Esnalea*, *Eusko-Folklore*, *Argia* eta *Príncipe de Viana* aldizkarietan ere saillaren bertsoeren batzuk agertu. Manuel Lekuona eta Jose Elizondo jaunak ere bertso auen berri bazuten.

Baiña ona urrena zer esaten duan Rufino adiskideak:

«Dena den, baliteke norbaitek argibide gehiago izatea; hala balitz, pozik egingo nituzke behar diren zuzenketa guztiak».

Orixe da azterlari jator baten portaera; berak dakiana esan; eta ondoren, geiago jakindakoan, bere esanak zuzendu eta osatu.

Nik neronek ere baditut makiña bat zuzenketa eta osaketa Auspoaren bertso-liburuetan egin bearrak. Egin ere egingo al ditugu egunen batean, Jaunak nai badu.

1892

## Artzai kanta

---

Aditu det zeruko  
aingeruen boza,  
zeñak diran txit sartu  
biyotzera poza;  
eta denok dezagun  
berri on au goza,  
diyote gerta dala  
Jesusen jaiotza.

Erodes egiña da  
zenbait maltzur saio,  
delako Jaungoikozko  
Erregea jaio;  
zuben aginte dana  
oso galdu zaio,  
berriz bere eskura  
etorko etzaio.

Dator berdin jartzera  
gaiztuen esola,  
eta erakustera  
Beraren eskola;  
Erodesek txinistu  
ezin du iñola,  
errege gallenena  
Belenen dagola.

Miragarrizko gauza  
guztiyen Jabeak,  
oso zabaldu ditu  
geroko ateak;  
pekatu beltzak zeuzkan  
pozoidun kateak,  
puskatu ditu guztiz  
Jesusen pakeak.

Jaio da zuzentzeko  
munduko legeak,  
lengoak baztarturik  
jartzeko bereak;  
denok gaude zorion  
gozatsuz beteak,  
an dubeko zabal (*sic*)  
Jesus Erregeak.

**Juan Inazio Uranga**

*La Unión Vascongada* 1892, 472 zk.



1893

## Jesusen jaiotza

(Euskarazale apaiz on Ramon Irazusta jaunari)

Villancico - Zortzikoa

---

1  
Illaren ogei ta lau  
gau Abendukoa  
da gure Jesus ona,  
bai, jaiotakoa;  
mirarizko jaiotza  
zori onekoa,  
glorियaz zerutikan  
etorritakoa.

2  
Argi denen argiya  
jaio da munduan,  
San Jose ta Maria  
daukazki onduan;  
aingeru pilla berriz  
bere inguruan,  
zerutik etorriyak  
jaio dan orduan.

3  
Zeru lurren Jabea  
Belen portalian,  
ara non ageri dan  
pobretasunian;  
astua ta iriya  
dauzka aldamenian,  
goxatu dedin aien  
berotasunian.

4  
Oso soñu ederra  
entzun da biziro,  
biyotz pozgarria ta  
xamurra guztiro;  
aingeruen abotik  
aditzen da gero  
miragarrizko itz au:  
*Gloria in excelsis Deo.*

5  
Artzai pilla bat dator  
menditikan bera,  
gure Salbatzallea  
non dan ikustera;  
bere aurrean pozez  
belaunikatzera,  
eta fede biziyan  
adoratutzera.

6  
Dantza, poza, soñua  
da bere urrian,  
inguru denak datoz  
sasoi ederrian;  
denak gelditzen dira  
belaunka lurrian,  
biyotza pozturikan  
beraren aurrian.

7

Pillaka dakazkite  
txit gauz egokiyak,  
Jesus maitiarentzat  
prest erregaliyak:  
sagar, intxaur, babarrun,  
gaztaiñ, egaztiyak,  
eta bizkar gañetan  
zintzilik ardiyak.

8

Non-nai entzuten da gaur  
alaitasun otsa,  
erabat botarikan  
naigabe ta lotsa;  
kanta zagun guk ere  
pozturik biyotza  
mirariz betetako  
Jesusen jaiotza.

Donostiako Pepe Artola zanaren *album* edo bildumatik ditugu bertso  
auek. Bertsoen barrenean onela dio: *Publicado en la Unión Vª, el 25 Di-*  
*cie. 1893.*

Beste argitalpen batzuk:  
*Ibaizabal*, 28 Doc. 1902.  
*Auspoa* 297, 2006.

## Iru Errege

---

Iru Errege datoz  
Oriyantetikan,  
bañan gizarajoak  
irurak txutikan,  
Jesusa ikustera  
txit zoraturikan,  
intzentsua ta mirra  
erruz arturikan.

Amabi egunetan  
ainbeste gabian  
obek ibildu dira  
Belen bitartian;  
izartxo bat gidari  
arturik aurrian,  
gere Jesus maitia  
billatu artian.

Kaietano Sánchez Irure  
(? - 1917)

*La Unión Vascongada* 1894, 846 zk.

## Gabon kantanak

---

Ama Birjiña dator  
oraiñ Nazaretik,  
laisterka Belenera,  
tristuraz beterik;  
bera bakar-bakarrik,  
ez du laguntzarik,  
orremeste birian  
oso nekaturik.

Belengo Portalera  
tristia eldu da,  
pobre arlote baten  
alako modura;  
andikan istantera  
arunt zabaldu da,  
gure Birjiñagana  
jendia bildu da.

Bere larritasunez  
ukullu batera,  
alaxen bai sartu zan  
zerbait egitera;  
etzenduen andikan  
bakarrik atera,  
zer gertatu zitzaion  
noa esatera.

Gure Jesus aundiya  
an bertan jaio zan,  
majaera batian  
lotan egondu zan;  
gauz au ikusi gabe  
zeñek lezake esan:  
gu danoren Jabia  
orlako pobrezan?

Jesusaren jaiotza  
adoratutzera,  
artzaiak jetxi ziran  
menditikan bera;  
arras pozgarriya zan  
aietxen sarrera,  
irrintza ta saltoka  
Belenen aurrera.

Belengo Portalian  
jaio zan gabian,  
kantuan asi ziran  
guziyak batian,  
artzaitxoak txit pozaz  
zoratu nayian,  
gure Jesus maitia  
arturik aurrian.

Adoratu dezagun  
artzaien modura,  
gaur jaiotzen zaigu ta  
Jesusa mundura;  
Berak emango gaitu  
gerora zerura,  
gloriyan bizitzera  
Amaren ondora.

Kaietano Sánchez Irure  
(? - 1917)

*La Unión Vascongada* 1894, 1183 zk.

1895

## Gabon kantak

---

1  
Gabon gaba dalako  
gatoz gu onera,  
euskal lege zarrean  
gabon ematera;  
borondate onakin  
guaz kantatzera,  
ez bildurtu gurekin,  
ezagunak gera.

2  
Oso urrutitikan  
gatoz orla biyak,  
miseriyaz betiak,  
orrela jantziyak;  
kupigarriyak dira  
biyoren antsiyak,  
kanpo ta barren gaude  
biziro autsiyak.

3  
Onuntz iritxi gera  
gorputzak ozturik,  
beon esperantzetan  
biyotzak pozturik;  
guretzako ez dauka  
gaur iñork kupirik,  
gure boltsan ez dago  
tokiya besterik.

4  
Bixigu batentzako  
nai genuke osa,  
Gabon gaba dezagun  
zori onez goza;  
bañan erdi kraskatu  
zaigu orain boza,  
beok zerbait eman ta  
izango da poza.

5  
Agur, etxeko denak,  
eta ondo bizi,  
agirandotxo zerbait  
ez al da merezi?  
Beste norabaitera  
baguaz igasi,  
preso sartu bañon len  
zarpa zar ta guzi.

### Estribilloa

Santeronian degu  
ustez apariya,  
izango degu antxen  
naiko egaztiya;  
bañan ez eiztariyak  
onuntz ekarriya,  
baizik plateretara  
egan eroriya.

Bertso aukerak Pepe Artolaren eskuz idatzitako *album* edo bildumatik ar-  
tuak ditugu.

Ondoren onela dio: Etxerik etxe kantatuak. *Diciembre 9, 1895.*

Bertso aukerak ere *Ibaizabal* astekarian agertu ziran, 1902-ko Abendua-  
ren 21-ean.

Firma bezela onela dio: *Donostian, Pepe Artola.*

Pepe Artolaren beste Gabon-kanta batzuk eskeiñi ditugu leenago ere.

7/1 bertsoan *ortuzik* irakurtzen da *Ibaizabal*-en; guk *ozturik* idatzi de-  
gu, ala bear dualakoan. Era berean, 7/3 lerroan *iñok* zion, eta guk *iñork*  
idatzi degu, Pepe Artolak orrelaxe idatziko zuan eta.

Auspoa Liburutegian ere agertu ziran bertso aukerak, 297 zenbakian,  
2006-an.

1896

## Gabon kantak

---

1

Gabon etxeuari  
desio diyogu,  
borondatez kantura  
onera gatoz gu;  
mixeriya besterik  
gurekin ez degu,  
emen guretzat zerbait  
sortuko al zaigu.

2

Martin Tipulas da au,  
bestia Garratza,  
irugarrena berriz  
Krakas gizon latza;  
guk nai genuke egiñ  
legorrez arrantza,  
gero pasa dezagun  
ederki arratsa.

3

Zerbaiten usayian  
jira eta bira,  
gure ezurrak oraiñ  
nekatuak dira;  
laister gutzaz kupitzen  
emen ez badira,  
eramango gaituzte  
Miserikordira.

4

Agur, etxeko denak,  
baguaz emendik,  
ibildu bear asko  
daukagu oraindik;  
iñork galdetzen badu  
zer eman digunik,  
gutxi (asko) eman dutela  
esango diyot nik.

### Estribilloa

Zori onian sartu  
gerade onera,  
urtero bezelaxen  
gabon ematera,  
birez apariyentzat  
dirua biltzera;  
asko emanagatik  
konponduko gera.

Pepe Artolaren *album* edo bildu-  
matik artuak.

*Auspoa* 297, 2006-an ere agertuak.



1897

## Jesus jaio berriari

---

*Bildotsak eta gaztai bigunak  
eramatean Jesusi,  
amioririk geien diguna  
Bera nai degu ikusi.*

Aurtxo eder bat, ederren dana  
eder guzien artean,  
askatxo baten lastotan dago  
estalpe zartxo batean;  
ainguru asko Aurra gordetzen  
estalpearen atean,  
goazen Aur onen aurrera eta  
belaunikatu gaitean.  
*Bildotsak eta...*

Izarrak berriz diruritenak  
dira Aur onen begiak,  
aiñ atsegiñak, aiñ pozgarriak,  
aiñ eder eta argiak;  
Alare otzak, berotzen dute  
astoak eta idiak,  
gizonak baiño errukiago  
dutela abere biak.  
*Bildotsak eta...*

Ille ederra, diruriena  
urre gorriaz egiña,  
bekoki zabal, alaiagoa  
eztana zeru urdiña;  
azal zurian kolore gorri  
larrosaz eziñ berdiña,  
zorion dana emen genduke  
beti zureak bagiña.  
*Bildotsak eta...*

Berak egiñak dira zeruak,  
lur-itsasoak baitare,  
Berak egin ta bere-beriak  
guzi-guziak goi ta be;  
alare ara nola dagoan  
izara zartxo bat gabe,  
dana utzirik egitearren  
gizonen biotzen Jabe,  
*Bildotsak eta...*

Aurtxo ederra, zerori zera  
lore guzien loria,  
nere mingaiñak esan al baiño  
ederrago ta obia;  
aingeru-talde andiak datoz  
gogoz kantatzen gloria,  
zuri begira berriz txoratzen  
pozez Jose ta Maria.  
*Bildotsak eta...*

Mundu guzia, Jesus maitea,  
poztu du zure jaiotzak,  
orra artzaiak non dakartzkiten  
beren gaztai ta bildotsak;  
guk berriz ezer eztegelako,  
garaitu ez gaitzan lotsak,  
artu itzatzu zuretzat, Jesus,  
betiko gure biotzak.  
*Bildotsak eta...*

**P. M.**

*Euskalzale*, 1897.12.23

*La Baskonia*, 1908.12.20

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1898

## Iru Erregeak

---

*Lurreko erregeak  
datoz Jesusgana,  
adoratzera beren  
Erregea dana.*

Sortaldera izar bat  
joan da albistari,  
orra onetan bertan  
naikoa mirari;  
izar guziz eder au  
dutela gidari,  
iru errege datoz  
jarraika berari.  
*Lurreko...*

Jerusaleneraiño  
diranean eltzen,  
izar gidari ura  
zaie ezkutatzen;  
baiña ala ere ez  
dira ateratzen,  
Mesias non jaio zan  
an dabiltz galdetzen.  
*Lurreko...*

Sinismen illa duten  
alper ta nagiak,  
ez dituzte nai izan  
idiki begiak;  
baiña datoz, utzirik  
beren jauregiak,  
estalpetxo batera  
iru erregiak.  
*Lurreko...*

Dabiltz zerbait nairikan  
izarraren ordez,  
judioen Errege  
non jaio dan galdez;  
berri oekin dago  
beldurrez Erodes,  
jakintsuei galdez  
dakiten edo ez.  
*Lurreko...*

Jaun oien iritzia  
da Jerusalemen.  
jaiorik izan bear  
duala Belenen;  
erregeak diote:  
«Zertan gaude emen?  
Goazen Belen aldera.  
goazen, bai, len-bait-len».  
*Lurreko...*

Irurak belauniko  
Jesusen aurrian,  
zeru batean daude  
estalpe zarrían;  
dakartzkioten mirra,  
intzentsu ta urrian,  
bere mendeko dira  
aitortzen lurrian.  
*Lurreko...*

Erregeak bidean  
ez ditezen galdu,  
ara izarra berriz  
non zaien azaldu;  
beren atsegiñ poza  
eziñez estaldu,  
ari jarraika dira  
Belenera eldu.  
*Lurreko...*

Andia izandu da  
egiaz omena,  
erregeak Jesusi  
eman diotena;  
baita ere zorion  
errege oena,  
zeru-lurretan argi  
diteken onena.  
*Lurreko...*

Estalpe zar batian  
Zeruko Erregia,  
orra emen lurrian  
daukan jauregia;  
lurrekoak ikasi  
bezate egia:  
digun amorioa  
dala geiegia.  
*Lurreko...*

Erregeak daudela  
arturikan loak.  
«Erodesgana ez joan  
–dio aingeruak–,  
etxerakoan bide  
egokiagoak  
arturik, orain agur.  
errege magoak».  
*Lurreko...*

**P. M.**

*Euskalzale*, 1898.01.06

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1898

## Eguarri-Erregiak

---

1

Urte guzian aritzen gera  
guraize ta labanakin,  
ur bero, otza, orrazia ta  
jaboi apardunarekin;  
apaindu eta gaztetzen degu  
alegin guztiyarekin,  
konpontzen gera, aberats, pobre,  
eder, gazte ta zarrekin.

2

Urtero bezela aurten ere  
onuntz datozen jaunari,  
desiatutzen degu morroiak  
osasun ona danari;  
zeñaz biyotzez esaten degun  
zelebratzeko Eguarri,  
despeitu ondo Urte Zar eta  
ongi asi Urte Berri.

3

Naitasuna guk degun bezela  
onuntz datozen denari.  
ala berian nai genuke guk  
beok izatia guri;  
nai baldin badute zerbait beok  
eman Anton ta Joxeri,  
begiratu bezaiote bada  
gure *bandeja* zar orri.

*Diciembre, 1898.*

Iru bertso auk ere Pepe Artolaren *album* edo bildumatik ditugu. Enkarguz jarritakoak dirala dirudite.

*Ustez laguna detan, Auspoa 297, 2006.*

1898

## Jesusen jaiotzan

---

*Gaur Jesus ikusteko  
daukagun gogoaz,  
len-bait-len iristeko  
Belenera goaz.*

Ara artzaiak zaitzen  
mendian ardiak,  
eta zerutik bera  
aingeru-taldiak,  
argiz edertzen mendi  
ta Belen aldiak;  
eguerdia diruri  
gaurko gaberdiak.  
*Gaur...*

Ara txabola baten  
lastoakiñ aska,  
orra Aur-Jainkoaren  
lurreko seaska;  
astoa ta idia  
Berari arnaska,  
gaxoa otz da eta  
berotzeko dauzka.  
*Gaur...*

Gloria Jainkoari  
an zeru goietan,  
pakea gizonari  
lurbira onetan;  
poza ta atsegiña  
alderdi danetan  
Jesusen jaiotzak du  
banatzen benetan.  
*Gaur...*

Jaungoiko ta gizona  
txabola batean,  
Zeruko Erregea  
amaraun artean;  
zer erakusten digun  
ala egotean.  
zentzurikan badegu,  
oartu gaitean.  
*Gaur...*

Mendiak bera datoz  
lasterka artzaiak,  
Jesusi ekartzera  
esne ta gaztaiak;  
biotzean poza ta  
arpegi alaiak,  
gaurtikan geralako  
Jesusen anaiak.  
*Gaur...*

Ona, Jesus maitea,  
nun zure jaiotzak  
pozez bete dituen  
guzion biotzak;  
berez badira ere  
gaixo eta otzak,  
arren artu itzatzu  
betiko zuretzat.  
*Gaur...*

**P. M.**

1898-ko Lotazillaren 16-an

*Euskalzale*, 1898.12.22

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

## 1899 Erregeak

---

1  
Iru errege onak  
Belen portalera  
Orientetik datoz  
Jesus ikustera:  
intzentsu, urre, mirra  
Arri eskeintzera,  
eta pozaren pozaz  
adoratutzera.

2  
Izartxo bat dutela  
gidari aurretik,  
amairu egunian  
datoz txit pozturik;  
eta Belenen Aurtxo  
Jauna ikusirik,  
gelditu dira bertan  
belaunikaturik.

3  
Biotzez egiñ dute  
pozezko omena,  
eskeñirik zekarten  
gauzarik onena,  
esanaz: «*Zerutikan  
onuntz datorrena,  
da Jauna ta Errege  
errege denena*».

Bertso aukeratuak Pepe Artolaren *album* edo bildumatik ditugu.

Guk dakigularik, toki auetan agertuak dira:

*Euskal-Erria*, 1899.12.30

*Correo de Guipúzcoa*, 1900.01.08.

*Ibaizabal*, 1903.01.04.

*Pueblo Vasco*, 1913.01.06

*Auspoa* 297, 2006



1899

## Iru Erregeak

---

*Jesus nun jaio dan jakiteko  
gaur artu degun gogoak  
gakaraz bidean gu, sortaldeko  
iru Errege Magoak.*

Izar ederrez berdin gabe bat  
sortaldean da agiri,  
jende guziak arriturikan  
begira daude berari;  
aurrerantzean bide egiñaz  
mugitzen dala diruri,  
iru Errege ondoren datoz  
bera dutela gidari.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Erodes galdez jakintsuari  
Mesias jaio ote den,  
erantzun dute jaioa izan  
bear duela Belenen.  
«Lagun maiteak –esaten die–,  
zuek jakin al dan lenen,  
adoratu ta atozte berriz  
nerau joan nadiñ ondoren».  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Jerusalenen sartzetakoan  
izarra zaie gordetzen,  
baiña sinismen berak dutena  
argiro dute agertzen;<sup>1</sup>  
Erodes beren aurrean dute  
baiña eztira bildurtzen,  
nun jaio ote dan judioen  
Errege ari galdetzen.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Belenerako bidean zaie  
berriz izarra argitu,  
Errege oiek Jesusengana  
berak eraman nai ditu;  
txabola zartxo baten gañean  
zaielarikan gelditu,  
errege danen Errege Jauna  
barruan dute arkitu.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

—

---

<sup>1</sup> *Euskalzale*-k: argiro dotu agertzen.

Arriturikan ango pobrezaz  
daude Aurrari begira,  
dizkiotela eskeintzen gogoz  
intzentsu, urre ta mirra;  
Jaungoiko-gizon-erregeari  
dagozkion doaiak dira,  
Jesusek berriz itz egin die  
biotzen erdi-erdira.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Atzeruntzkoan egitearren  
aingeruaren esana,  
biurtzen dira beren errira  
joan gabe Erodesgana.  
Pozik zoazte, adoraturik  
lurrean Zeruko Jauna,  
beronek eman degizuela  
glorian koroe bana.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

**P. M.**

1899-ko Ilbeltzaren 2-an

*Euskalzale*, 1899.01.05

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

1899

«Goazen alkarren laguntzen...»

---

*Goazen alkarren laguntzen,  
goazen albait lenen,  
gure Jesus dezagun  
ikusi Belenen.*

Estalpe zartxo baten  
Belendik alboan,  
Aurtxo jaio berri bat  
ara non dagoan;  
Jainkoa izan arren  
beartsu dago an,  
ikasi dezagun zer  
erakusten duan.  
*Goazen...*

Nork esango zukean,  
Jainkoa izanik,  
gu zeruratzearren  
gizonduko zanik?  
Ikustean Aur ori  
lastotan etzanik,  
izango da biotzik  
biguntzen eztanik?  
*Goazen...*

Ostaturik Belenen  
ezta Aur onentzat,  
eta estalpean du  
aska bat oetzat;  
lasto artean *kir... kir...*  
Aur gaixoa otzak,  
ai zein gogorak diran  
gizonen biotzak!  
*Goazen...*

Estalpe zartxo onek  
barruan du aska,  
orra Jainko Aurraren  
lurreko seaska;  
idia ta astoa  
Aurrari arnaska,  
gaixoa otz da eta  
berotzeko dauzka.  
*Goazen...*

Aingeru batek die  
esan artzaiai  
Salbatzaillea jaio  
zaiela berai;  
ara nola datozen  
bildotsekin alai,  
Belenen dutelako  
Jesus ikusi nai.  
*Goazen...*

Millaka aingeruak  
gabaren erdian  
ara nola zerutik  
datozen airian;  
danak datoz eresten  
gau aiñ ederrean:  
«Gloria zeruan ta  
pakea lurrean».  
*Goazen...*

**P. M.**

1899-ko Abenduaren 19-an  
(*Gabon-gaba* izeneko ipuiaren barruan).  
*Euskalzale*, 1899.12,24  
*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

## Gabongo kantak

---

1

Giza-aldi osuak,  
millaka urtiak,  
igaro oi zituen  
negarrez jenteak;  
noz izango ete zan  
gugazko bakia,  
edigirik betiko  
zeruko atia.

2

*Igarlak:*  
Abakuk ezan euskun,  
baita Isaiasek,  
premiña izango ebal  
jaio zan Jesusek;  
itaska zar-zar baten  
ipiniko zala,  
aberien artian,  
munduko Osasuna.

3

Ze doñu desbardiñak  
dantzuzan munduak,  
zerubak opa doskuz  
atsegiñezkuak;  
barriz gizonak dabilz  
alkar maitatuten,  
erdu, Jesus maitia,  
guztiok baketuten.

4

Eguala mundua  
premiñaz beterik,  
gatx-egiñen pisua  
ezin aldendurik,  
agertu zan Edaari  
guztiz eztitsua,  
galgarriak galtzeko  
txito ajutua.

5

Salbagilla maitia  
jaijo da Belenen,  
bertara jua biar dogu  
guztiok len-bait-len;  
artzain dontsu batzuen  
eskepe batian,  
Jesusa jaijo jaku  
abere artian.

6

Poztu zaiteze bada,  
asaba dontsuak,  
Abranen illunpetan  
zagozan justuak;  
agertu da zerutik  
zubentzat zoriya,  
argitzeko betiko  
illunpe guztija.

7

*Urte barrirako:*

Jesus bere izena  
gaur ipini jako,  
gizona salbetara  
etorri dalako;  
gaurtik asi da emoten  
bere odol garbija,  
au da arima zuzenen  
betiko sarija.

Bertso auek Bilbon aurkitu genituan, Bizkaiko Liburutegi Probintzialean, eskuz idatzita.

Urterik ez da esaten; baiña, letraren itxuragatik, XIX mendeko azken aldera idatziak dirala pentsa diteke.

Bertso auek ez ditu, gure iritzirako, bertsolari batek moldatu, gizon eskolatu batek baizik. Apaizen batek, ziur aski. Baiña jende ikasiaren euskera erri xumearen euskeratik urbillago zegoan, gero egon zan baiño.

4/5 lerroan *Edaari* irakurtzen degu guk, zer esan nai duan antzematen ez badiogu ere.

## Donostiako gazteak iru Errege bezpera gabean

---

1

Gure musika ederra  
berriro arturik,  
agindubaz ez gaude  
gaztiak azturik;  
Errege-bezperari  
bera eman nairik,  
ez diogu guk artzen  
ñori dirurik.

2

Argi eder batekin  
Tharsis Arabia  
bat-batetan jarri da  
biziro argia;  
konturatu zaiote  
beren Erregia  
nonbait jaioa dala  
guztion Jabia.

3

Ematen digutena  
gutzizko alegria  
misterio aundiko  
iru gauza dia:  
intzentsu eta mirra,  
gañera urria,  
orienteko jaunak  
kontuz ekarria. <sup>1</sup>

4

Iru Erregek dute  
egin batzarrea:  
«Ikusten dan argian  
on da jarraitzea!  
Berak erakutsitzen  
digula bidea,  
seguruba izango da  
eta askoz ohea».

5

Jerusalen aundian  
sartu dira gabez,  
erregien Erregez  
galdetubaz bidez;  
sazerdote, eskriba  
bildurikan galdez,  
arriturik geratzen  
zaiote Erodes.

6

Guztiari egiñaz  
kortesi berena,  
berriro artu dute  
bidea Belena;  
emen billatu dute  
espero zutena:  
Jose eta Maria,  
Jesus jaio dana.

7

Gozo, kontsuelua,  
alegri aundia,  
biotzak salta naian  
belaunka jarria;  
batak eta besteak  
arturik aldia,  
bertan uzten diote  
erregalo aundia.

8

Jaunaren bendizioz  
bete diranean,  
beren errietara  
dijoaz bidean;  
gu ere orain baguaz  
urrena artean,  
etorriko gerade  
datorren urtean.

### **Euskaritxo**

Kanta eta musika  
alegratzekoa,  
erri guztiarentzat  
badegu naikoa.

Bertso aukeratuak Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian agertu ziran, 1899-ko ilbeltzaren 6-an. Errege-egunarekin, beraz. Nork jarriak diran ez da esaten.

---

<sup>1</sup> El Correo de Guipúzcoa egunkarian beste onela daude bertso onen puntuak: alegriya, dira, urria eta ekarria.



# Jesusi kantatzeko

## Gabon-gabian

Ne - re kris-tau mai - ti - ak au  
da a - le - gri - ya ar - gi e - gi - ten  
da-go gu - ri i - llar - gi - ya. A -  
la - ba - tu di - tza-gun Jo - se ta Ma - ri -  
ya ain - ge - ru - bak kan - ta - tu zi -  
yo - ten glo - ri - ya.

1  
Jesus, nere jendiak,  
gaurko alegriya,  
argi egiten dago  
guri illargiya;  
alabatu ditzagan  
Jose ta Mariya,  
aingeruak kantatu  
ziyoten gloriya.

2  
Adanek galdu zuben  
Jaunaren graziya,  
gure neke gogorren  
aundiyetan asiya;  
pekatuaren mantxa  
ain da itxusiya,  
desterratu ginduen  
jatorri guziya.

3  
Josepe ta Mariya  
Belenen sarturik,  
etziyoten eman nai  
iñon ostaturik;  
tristurak eta otzak  
zeuden flakaturik,  
nola gelditu ziran  
desanparaturik.

4  
Belenen asi dira  
ostatuen billa,  
esanaz jendiari  
erruki zedilla;  
San Jose bere jabe  
ona ta umilla,  
portale triste baten  
alojatu dira.

5  
Jesusen pobreziya  
erruki gaitian,  
mundu triste onetan  
geraden artian.  
Zer ditxa aundiyagorik  
izan ditekian:  
zeru-lurren Jabia  
askatxo batian?

6  
Guztiyaren Erregiak  
ai au miseriya:  
berai akonpañatzen  
bi animaliya!  
Oriyek biyak dira  
astua ta idiya,  
asnasiar berotzen  
Aur jaio berriya.

7

Marruatikan datoz  
iru erregiak,  
izar eder bat dute  
zuzentzen bidiak;  
Jesus billatu arte  
ain ziran firmiak,  
presente egiteko  
beren siñaliak.

9

Adios, nere jendiak,  
diyot nik esaten,  
Josek eta Mariyak  
aditu dezaten;  
aiskide izan gaitian  
munduan alkarren,  
gloriyak gozatzeko  
zeruetan amen.

### **Estribillua**

8

Erodes erregia  
infame faltsua,  
nai ekiyuan kendu  
Aurrari lepua.  
«Alperrik egingo dek  
oraingo asmua,  
ez dek engañatuko  
gure Jaungoikua».

Jesusen Ama Birjiña eta  
aita ordeko San Jose,  
Gabon-gabian jaio zan Jesus,  
alegratu zaitetze,  
Aita Eternuak bigaldu gaitu  
anima galduen eske.

Bertso auek *Oñate: Imp. de M. Raldua* moldiztegian argitarara emandako kanta-paper batetik ditugu

Baiña, tamalez, etzaigu ez argitaratu ziran urterik esaten, eta ez egillearen izenik ere.

Doiñua Orion jaso genuen, Andu baserrian, Errikotxia bertsolariaren alaba Maria Joxepa Lertxundi zanak kantatuta.

\* \* \*

Bertso auek, beren estribillua eta guzi, eta aldaketarik gabe gaiñera, Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian ere argitaratu ziran, 1901.12.25-ean.

\* \* \*

Sail ontako bertso batzuk Bilboko *Euzkadi* egunkarian ere agertu ziran, 1932-VII-29-an, *Mañariko*-k bialduta, bertso-lerroak launaka bildurik eta aurretik argibide auek emanaz:

«Bertso oneik. ni txikiya nintzala, gure aitak (g. b.) Gabonetan abes-tuten ebazan. “Kitarra” eder bat, bere kutxa dotorian ondo gorderik eu-kiten eban; eta Gabon-jaietan bertso zar oneik abestuteko joten eban. Eta jai-ostian, barriro be, urterarte gordeten eban. Bertsuok oso zarrak ei dira».

Sail ontako bost bertso bialdu zituan *Mañariko*-k, aldaketa auekin: 1/1: Jesus neure jentia; 1/4: geure illargia; 1/5: alabatu zaiteze; 1/7: ain-geruak zioten; 1/8: kantatu gloriya; 2/1: Adanek galdu eban; 2/3: gure neke gogorra; 2/4: andik da asiya; 2/6: au da itxusiya; 2/7: desterratu genduzan; 3/1: San Jose ta Mariya; 3/5: tristuraz eta otzez; 4/1: Belenen asi ziran; 7/1: Persiako semiak; 7/5: Jesus billatu artian; 7/8: euren se-ñaliak.

Eta beste bertso auek ere bai:

Goiko mendiyetik  
pastoriak datoz,  
esanik aingeruak  
jaio dala Jesus.

Adoraturik Jesus  
iru erregiak,  
nolakuak ziraden  
Jesusen gloriak.

Artzañak aditurik  
milagro au zana,  
presente egin zioten  
arkumetxu bana.

Estadu pobre artan  
Aurra ikusita,  
iru erregiak daude  
oso arrituta.

Au da lendabiziko  
egin zuten lana:  
belaunikotu ziran  
Jesus onagana.

Ezin aspertu dira  
begira jarrita,  
ikusirik an Jesus  
alako polita.

Urre, intzentso, mirra  
zirian eskiniyak,  
erregela artzeko  
Birkiña Mariyak.

Ixar guztiyak baño  
ederragokua  
nola izango ezta  
geure Jaungoikua?

Zeruko Jaun da Jabe  
eta lurekua,  
edertasun guztiyen  
paregabekua.

Seintxu maite, lora ederra,  
zeru-lurraren Jaubia,  
askatxu baten jaiorik dago  
Jaungoikuaren Semia,  
au eginda gixonakaitik  
kanta dezagun gloria.

## Mari Domingi

---

1

Orra Mari Domingi,  
begira orri;  
gurekin nai dubela  
Belena etorri.  
Gurekin nai badezu  
Belena etorri,  
atera bearko dezu  
gona zar ori.  
*Atoz, atoz, zure  
billa nebillen ni;  
atoz, atoz, zure  
billa nebillen ni;  
atoz, goazen,  
adora dezagun  
Belenen jaio dan  
Aur eder ori.*

2

Nondikan atera den  
gona zar ori?  
Berririk baldin baden  
gorde zan ori.  
Arriturik ziagon  
Belengo erria,  
ater'akin ortik,  
farragarria.  
*Atoz, atoz...*

3

Jo dezan panderoa  
ik, Antonika.  
Nondikan etorri aiz  
orren korrika?  
Ezin esplikaturik  
misterioa,  
Belenen jaso dala  
Aur Dibinoa.  
*Atoz, atoz,...*

# MARI DOMINGUI.

Andantino.

PIANO.

Piano introduction for 'Mari Domingui'. The music is in 6/8 time with a key signature of two sharps (F# and C#). It consists of two staves: a treble staff with a melodic line and a bass staff with a harmonic accompaniment. The tempo is marked 'Andantino'.

CANTO.

*p* Or-ra Mari Domin-gui beguira o - rri

Piano accompaniment for the first vocal line. It features a treble staff with a melodic line and a bass staff with a harmonic accompaniment. The tempo is marked 'Andantino'.

Gurequin nai du be - la Belena e-to - rri Gurequin nai bade.

Piano accompaniment for the second vocal line. It features a treble staff with a melodic line and a bass staff with a harmonic accompaniment. The tempo is marked 'Andantino'.

zu Belena eto - rri A-te-ra bearco de - zu gona zar o

Piano accompaniment for the third vocal line. It features a treble staff with a melodic line and a bass staff with a harmonic accompaniment. The tempo is marked 'Andantino'.

ri A - toz Atoz zu - re billa nebillen ni A -

toz A.toz zu - re billa ne.billen ni Atoz goacen A.do - ra.de

zagun Belenen jai. odan Aur eder o - ri Aur eder o - ri.

2°

Nondican ateraren  
Gona zar ori  
Berriric baldin baden  
Gorde zan ori  
Arrituric ciagon  
Belengo erria  
Ateraquin ortic  
Farragarria.  
Atoz Atoz &

3°

Jodezan panderoa  
Ye Antonica  
Nondican etorri aiz  
Orren corrica  
Ecin esplicaturic  
Misterioa  
Belenen jayo dala  
Aur diyinoa.  
Atoz Atoz &



Oso Gabon-kanta ezaguna degu onako au.

Donostiako Jose Antonio Santesteban musikolari ospetsuak argitaratu zuan, bere *Aires Vascongados para canto y piano* kantutegian, 37 zenbakian.

Kantutegi ori 1982 urtean agertu zan berriro, Lino Akesolo zanak itzaurrea idatzirik. Ortik artuak dira onako argibide auek:

«Musikolari biok, Juan Jose (1809-1884) eta Jose Antonio (1835-1906) Donostian ia mende osoa bete zuten.

...Biak, Donostian, organu-jotzaille eta musika-irakasle joxemaritar guztien begiko izanak dira.

...Irakurleak aurrean duen kantu-liburu onek joan dan mendean Donostian eta inguruetan zebillen musika-giroan murgiltzen gaitu...

Santesteban 1862n asi zan kantuok argitaratzen. Banaka banaka, lenbizi, txorta-txortaka, gero, olaxe larogei bat kopurua osatu arte... Baiña, agian, gorespenik atsegingarriena ez ote zitzaion Vienatik bere bizian etorri? Europako musikazaleen artean ospetsuenetakoa dan uri ortan sari nautsia eman zioten, 1876n, Santestebanen kantabilduma oni».

2/1 lerroan *ateraren* idazten du Santestebanek. Ala bear dualakoan, guk *atera den* ipiñi degu.

Doiñua, esan bezela katurako eta pianorako idatzia, kantutegi ortatik artu degu zuzen-zuzenean.

\* \* \*

Errenteriko Enrike Elizetxearen makinaz idatzitako orritxo batean sail ontako beste bi bertso agertu dira. Onako auek:

Ojua eta dantza  
denak batian,  
egin zagun guztiok  
oso pakian;  
Jesusen izenian  
dantza dezagun,  
bere laguntza gero  
izan dezagun.  
*Atoz, atoz...*

Irrintzia ta poza  
algararekin,  
ori biar diñagu  
guk elkarrekin;  
pozez gurtu dezagun  
Jesus Aur ona,  
Berak eman dezaigun  
gaur zoriona.  
*Atoz, atoz...*

## Artzai-kanta

---

1

Bigar eros dezagun  
errege-opilla,  
bezperatikan gatoz  
agirando billa.  
Ez gerade bakarrak,  
badabiltza milla,  
atez ate kantari  
alegre mutillak.

2

Dibertitua dabil  
jendea naikeran,  
atarian, etxean  
eta eskallera,  
agirando galdezka  
Errege-bezperan,  
bigar izan dezagun  
zer jan ta zer eran.

Bi bertso aukeratuak ere, eta bai urrengo doiñua ere, aurreko doiñua eta bertsoak ditugun toki beretik artuak dira: *Aires vascongados para canto y piano por J. A. Santesteban*, 39 zenbakian.

# ARTZAI CANTA.

Andantino.

PIANO.

Piano accompaniment for the first system, featuring a treble and bass clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The music consists of chords and moving lines in both hands.

1ª VOZ.

1ª VOZ.  
Bi - gar e - ros de - za - gun e - rre gue o - pi - lla

2ª VOZ.

2ª VOZ.  
Bi - gar e - ros de - za - gun e - rre gue o - pi - lla

Piano accompaniment for the second system, continuing the harmonic support for the vocal lines.

1ª VOZ.  
Vezpe - ra - ti - can ga - toz a - guiran do bi - lla.

2ª VOZ.  
Vezpe - ra - ti - can ga - toz a - guiran do bi - lla

Piano accompaniment for the third system, concluding the piece.

Ez guera de ba - ca - rrac ba - da - bil - tza mi - lla

Ez guera de ba - ca - rrac ba - da - bil - tza mi - lla

A - tez a - te can - ta - ri a - legre mu - ti - llac

A - tez a - te can - ta - ri a - legre mu - ti - llac.

2.  
 Dibertitua dabil  
 Gendea naiqueran  
 Atarian, echean,  
 Eta escalleran:  
 Aguirando galdezca  
 Erregue vezperan,  
 Bigar izan dezagun  
 Cer jan, ta cer eran.

## Gabon kantak

---

1

Urtian beñ bezela  
astian bi aldiz  
obe genduke danok  
Gabon gaba balitz;  
au naiko lutekenak,  
esan gabe berriz,  
topatuko nituke  
billa asiko banitz.

2

Urtetikan urtera  
aiñ dezu añ bakan  
orlako arrats ona  
bada izanikan;  
luze egiten baita  
bat zai egonikan,  
naiz Eguarriyak izan  
bere budotikan. (*sic*)

3

Eguarri bezpera da  
gau alaigarriya,  
penak kentzallia ta  
arrunt pozgarriya;  
oietik jaiki azten  
dubena eriya,  
eta kantari jartzen  
bizi dan guziya.

4

Urrengo Gabon arte  
gaudezen pakian,  
kant'abek ikasiyaz  
bada bitartian;  
ondo izango gera  
badegu etxian,  
Gabonetan bezela,  
beste arratsian.

*La Baskonia*, 1905.12.20

## Iru Errege Orianteko

---

1

Iru Errege Orianteko,  
Gazpar, Meltxor ta Baltazar,  
aiek irurak omen zekiten  
Trinidadea nola zan;  
Trinidadea, Trinidadea,  
Birjiña Amaren Semea,  
uraxen da guzion Erregea.

2

Iru Errege Oriantetik  
Jesus onaren bidera,  
izar eder bat agerturikan  
bidea erakustera,  
izarrarekin ziran giatu  
zuten artean Jesus billatu.

\* \* \*

Doiñu eta bertso auen iturria: *Aires vascongados para canto y piano*  
por J. A. Santesteban, 41 zenbakian.

Leenengo bertsoaren azken lerroek euskal erromantze zaarrekin zer  
ikusirik badutela dirudi.

Bigarren bertsoari lerroren bat falta zaiola ematen du.

*Euskal-Erria* aldizkarian, 1906-an, onako idazkitxo au agertu zan:

«*Días que no volverán. Preludio del año. Donostia.*

*Ya a los pocos días, o sea la noche víspera de Reyes, se oyen de puerta en puerta los tradicionales cantos a semejanza de los de Gabon o Nochebuena, siendo de los obligados los siguientes:*

Erregiak datoz  
presaz Belena,  
guk billa dezagun  
Jesus lenena.  
Iru Errege Oriyanteko,  
Gaspar, Meltxor ta Baltazar,  
oiek irurak omen zekiten  
Trinidadia nola zan».

# IRU ERREGUE ORIANTECO.

*Andante.*

PIANO *p*

I - ru e - rre - gue O - ri - an -

te - co Gaz - par Mel - chor - ta Bal - ta -

zar A - yee i - ru - rac o - men ce -

qui - ten Tri - ni - da - de - a no - la - zai Tri - ni - da - de -

- a Tri - ni - da - de - a Vir - gi - nã a - ma - ren se - me -

- a U - ra - sen da - gu - ci - on e - rre - gue - a.

2.

Iru erregue oriantetic  
 Jesus onaren bidera  
 Izar eder bat aguerturican  
 Bidea eracustera  
 Izarrarequin ciran guiatu  
 Zuten artean Jesus billatu



## Erregeen adorazioa

---

1

Atozte ikustera,  
atozte, jendeak,  
Jesusaren oñetan  
iru Erregeak.  
Emen berdintzen dira  
aberats pobreak,  
berdiñak badirade  
gure birtuteak.

2

–Aurtxo jaio berria,  
zeruko lorea,  
zure oñetan dago  
Meltxor erregea;  
eman dizu biyotza,  
eskaintzen urrea,  
ez du bererik ezer,  
guztia zurea.

3

–Jesus, zure aurrean  
da Gaspar arkitzen,  
zaitu adoratzen da  
zaitu alabatzen;  
eskaintzen intzentsua,  
biyotza ematen,  
barkazioa eta  
grazia eskatzen.

4

–Mesias egiazko,  
Jabe on bakarra,  
Jesus, zerubetatik  
jatxitako Aurra,  
Baltasarren eskutik  
ar ezazu mirra,  
eta indazu, arren,  
zure on eskerra.

5

Ona Jesus, gure Jaun  
Zeruko aundia,  
emen zure oñetan,  
auspez ipinia,  
gizonaren lureko  
aginte guzia,  
galdez barkazioa,  
eskaten grazia.

Bertso aukeratuak J. A. Santestebanen kantutegitik artuak dira: *Aires bascongados para canto y piano*, 45 zenbakian.

# ERREGUEEN ADORACIOA.

Tempo de Zortzico.

PIANO.



Musical notation for the piano introduction, consisting of a treble and bass staff. The treble staff begins with a piano (*p*) dynamic marking. The music is in 3/8 time and features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.



Musical notation for the piano accompaniment, consisting of a treble and bass staff. The treble staff includes a piano (*p*) dynamic marking and a section labeled 'A'. The music continues with the same rhythmic pattern as the introduction.



Musical notation for the first vocal line and piano accompaniment. The vocal line is written in a treble clef and includes the lyrics: "toz - te i - etis - te - ra A - toz - te gen - de - ac Je". The piano accompaniment is in a bass clef.



Musical notation for the second vocal line and piano accompaniment. The vocal line is written in a treble clef and includes the lyrics: "su - sa - ren o - ñe - tan I - ru e - rre - gue - ac. E -". The piano accompaniment is in a bass clef. A *ritard.* (ritardando) marking is placed above the final notes of the vocal line.

-men ber-din-tzen di-ra A-be-rats po-bre-ac Ber-

-di-nac ba-di-ra-de Gu-re bir-tu-te-ac.

2

Aurcho jayo berria  
 Ceruco lorea  
 Zure oñetan dago  
 Melchor Erreguea;  
 Eman dizu biyotza  
 Escaintzen urrea  
 Ezlu bercrie ezer  
 Guztia zurca.

5

Jesus zure aurrean  
 Da Gaspar arquitren  
 Zaitu adoratzen ta  
 Zaitu alabatzen;  
 Escaintzen incensua  
 Biyotza ematen  
 Barcacioa eta  
 Gracia escatzen.

4

Mesias eguiyazco  
 Jabe on bacarra  
 Jesus cerubetatic  
 Jachitaco aurra;  
 Baltasaren escutic  
 Ar ezazu mirra  
 Eta indazu arren  
 Zure on eskuerra.

5

Ona Jesus gure Jaun  
 Ceruco aundia  
 Emen zure oñetan  
 Auspez ipimia;  
 Guizonaren lurreco  
 Aquinte guztia  
 Galdez barcacioa  
 Escatzen gracia.

## Gabon kantak

(Bromakuak,  
kuadrilla ona baita etorri onera)

---

1  
Osasuna diyogu  
desio denari,  
etxe onetan arki-  
tutzen diranari;  
pakea, poza eta  
dirua ugari,  
beok dezaten gero  
zerbait eman guri.

2  
Erdi katarratu ta  
erdi elbarriyak,  
onera sartu gera  
oso egarriyak;  
beon aurrean pozez  
gaude gu jarriyak,  
bustiko ote ditugu  
emen eztarriyak?

3  
Zarpatsu xamar gaude  
irurak jantziyak,  
kupigarriyak dira  
gaur gure antsiyak;  
erropa berririk ez,  
lenguak autsiyak,  
gutzaz gaur kupituko  
al dira guziyak.

4  
Apetitu ona ta  
jatekua falta,  
au da gaur arratseko  
guk dakagun planta;  
debilidadiakin  
indar denak joanta,  
pizkortuko gerade  
bixigua janta.

5  
Gure ondo nai denak  
eskasak dirade,  
gañera artakuak  
oso ez gerade;  
gure barrenak oso  
penatuak daude,  
ikusirik aurrean  
orrenbeste jende.

6  
Ariyo, etxeukuak,  
gabon bat pasatu,  
ez guregatik ezer  
txarrikan pentsatu;  
beongandikan guaz  
biziro kontentu,  
gaizki esan guziyak  
meserez barkatu.

## **Estribillo**

Afari batentzako  
bildu nai genuke,  
au dalako meriyo  
orra zenbat neke;  
gañera bixigua  
ez dago gaur merke,  
zardiñ zarra biarko  
jan bixigu truke.  
*Agirandoooo!*

Bertso aukeratuak Pepe Artolaren *album* edo bildumatik artuak ditugu.

Guk dakigularik, toki auetan argitaratuak dira:

*La Voz de Guipúzcoa.*

*Ibaizabal*, 1902.12.28

*Auspoa* 297, 2006..

Antxiñetako usariyoa da Donostian, Errege bezperan, kantari etxerik etxe ibildutzia; urtero izaten dira, ondo jantziyak, errege moduan ibiltzen diranak, artzai-kantak kantatuaz; baiñan beñ ere ez da falta joxe-maritarrik umore onez ibiltzeko, musua zi-kinduta, *mokollo* billa dabiltzanak, edo legorrian arrantza egiñ nayian.

Aurten zebiltzan batzuberi begira egondu nintzan, eta gañera gogoan artu nituben aiek kantatzen zituzten bertsoak. Irakurlariak jakin nai badute, emen ezarriko ditut. Ara nola diran:

1

Urrutitikan gatoz  
txit errukariyak,  
miseriaz betiak,  
oso egarriyak;  
bustiko ote diran  
emen eztarriyak,  
esperantzetan gaude  
gu denak jarriyak.

2

Txit lotsatiyak gera  
onela jartzian,  
ikaratutzen gera  
norabait sartzian;  
bañan beon dirua  
eskuan artzian,  
lotsa denak utzitzen  
ditugu atzian.

3

Ostatu ederrian  
nairikan apaldu,  
*Ezkurre*-nera denak  
gera len azaldu;  
bañan an ezagutu  
gaituztenian gu,  
makillazoka azkar  
gaituzte bigaldu.

4

*Salcedo*-k esan digu  
orla ikusita,  
ez penaz egoteko  
luze iritzita;  
*Ponsol*-enera bigar  
eiteko bixita,  
an jarko gaituztela  
ederki jantzita.

5

Ankak oso bustiyak,  
gorputzetik otza,  
barrengo babarrunak  
naiko soñu-otsa;  
dar-dar sugurren punta,  
gañera kokotza,  
berriz izango degu  
mokua zorrotza.

6

Arrastaka nekian  
jira eta bira,  
beon aurrian gaude  
nolabait begira;  
gutzaz aguro beok  
kupitzen ez badira,  
eramango gaituzte  
Miserikordira!

## Estribilloa

Onera sartu arren  
guziak eskera,  
ez izutu gurekiñ,  
gaiztuak ez gera;  
beongandik gauz ona  
degu gaur espera,  
ondo zelebratzeko  
Errege bezpera.  
*Agirandooooo!!...*

Alde batzuketan usiatu ta bigaldu arren, beste lekuetan naiko farra eragiñazten zuten; azkenera kraskatu ziran, eta ezin kantaturik gelditu ziran; orduan diyo batek:

–Aizak, Erramun, ezin diat *kantatu*.

Ta bestiak dio:

–Ni ere ez nak *kontentu*.

Iругarrenak:

–Obe diagu *kontatu*.

Esan ta egin, partilla egin zutenian sakabanatu ziran, beren mutur zikiñ ta guzi, bidian oju egiñaz:

–Agirando!!

Sei bertso auek, eta bai aurreko eta atzeko prosa-lerroak, Pepe Artola zanaren *album* edo bildumatik artuak ditugu.

*Ibaizabal* aldizkarian ere agertu ziran, 1902-I-26-an, *Pepe Artola*-k firmatuta.

Bi iturri auek, aitatzerik merezi duen aldaketarik ez dute.

Prosak esaten duanez, gazte-talderen bati entzun eta artutako bertsoak dira. Baiña ez det uste ori benetan artu bear danik. Pepe Artolak berak moldatutako bertsoak izango dira, dudarik gabe.

Bertso auen beste argitalpen bat: *Baserritarra*, Donostia, 1908-I-4.

Bai eta: Auspoa 297, 2006.



(1902)

## Jesusen jaiotza

---

1

Aiñ otz dagoelarik  
eta gauerdian  
zer bear ote dute  
artzaiak errian?  
Egiñalean datoz  
presaka bizian,  
okerren bat gertatzen  
ote da mendian?

2

Artzaiak daudelarik  
ardien aldean,  
okerrikan ez dediñ  
izan artaldean,  
aingeruak zaizkate  
agertu airean,  
soñu alaiak joaz  
kantuen artean.

3

Aingeruak agertu  
zaiozkatenean,  
aditu zer dioten  
odeien gañean:  
«Gloria zeruan ta  
pakea lurrean  
borondate oneko  
gizonen artean».

4

Odeien gañetikan  
jatxi da mendira  
aingeru bat esanaz:  
«Berri onak dira;  
zoazte len baña len  
Dabiden errira,  
zuen Salbatzallea  
jaio dan tokira».

5

Zer poza ta atsegiña  
artzaitxo oiena!  
Bereala dijoaz  
lasterka Belena;  
daramate Aurrarentzat  
dutenik onena:  
arraultzak, esnea ta  
arkume gizona.

6

Belenen sarrerako  
estalpe batean  
arkitu dute Aurra  
askatxo batean;  
ikusi arren ere  
aiñ leku pobrean,  
belaunikatu dira  
beraren aurrean.

7

Lastoaren gañean  
dagoen Aurtxo,  
mundua baña ere  
da lenagokoa,  
beste gauza guztien  
gañetikakoa;  
aragiz jantzi arren  
beti Jaungoikoa.

8

Amorioak dakar  
zerutik lurrera,  
zerurako bidean  
gizonak jartzera.  
Ez al degu joan bear  
artzaien antzera  
Aurtxoaren aurrean  
belaunikatzera?

*Guazen, guazen guziok  
Belengo estalpera,  
Aurtxoaren aurrean  
belaunikatzera.*

Bertso auek *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziran, 1902-ko abenduaren 21-ean.

Egillearen izenik ez da esaten, baiña bertsoen joskera Pedro Migel Urruzuno apaiz jauna zanarena da bete-betea.

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005.

1902

## Iru Erregeak

---

Izar txit eder bat da  
zeruan ageri,  
arriturikan gaude  
begira berari,  
datorrelako iru  
Erregen giari,  
egiñik aingeru ta  
gizonen mirari.

–Nork egin zaitu izar  
aiñ alai ederra?  
–Nere egillea da  
Jaungoikoa bera.  
–Jetxia al da gizon  
egiñik lurrera?  
–Jetxia da, ta guazen  
Beraren aurrera.

Txabola bat an dago  
txikia ta zarra,  
eta bere gañian  
geldirik izarra;  
Erregeak ondoren  
dijoaz bertara,  
guazen ba guziok  
txabola artara.

Jaungoiko ta gizona  
eta Erregea,  
eskeintzen dizkitzugu  
mirra ta urrea;  
gañera intzentsua  
izanik obea,  
zeralako zeru ta  
lurren Jaun-Jabea.

–Zertara, Erregeak,  
zerate etorri?  
–Adoratzera, Jesus  
maitea, zedorri.  
–Zer derizkiotzute  
izar eder orri?  
–Gu etorri gerala  
jarraika bedorri.

–Jesus, ditugu gorde  
nai zure legeak.  
–Bai, o gizon guziz on  
errurik gabeak!  
–Nai degu izan geran  
baiño're obeak.  
–Agur, nere biotzeko  
iru Erregeak.

**P. M.**

1902-ko Abenduaren 28-an

*Ibaizabal*, 1903.01.04

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

## Gau-on

---

1  
Arkitzen bazan ere  
lenago mundua  
pekatuaren bidez  
osoro galdua,  
gu salbatzera dator  
Jaun urrikaltsua,  
o amorio bizi,  
fiñ eta gartsua!

2  
Artzai pobre batzuek  
zeuden gau erdian,  
beren ardiak zaintzen  
txit esnai mendian;  
an jakin dute nola  
Dabiden errian  
Mesias arkitzen dan  
otzak lau orrian. (*sic*)

3  
Atoz ordu onean.  
Seme Jaungoikoa,  
zerurik altuenaz  
gañetikakoa;  
gugatik aurtxo pobre  
biurtutakoa,  
Birjiña Amaren Seme  
paregabekoa.

4  
Zeruko Erregerentzat  
nolako jaiotza!  
Jauregi ordezkauka  
estalpe bat otza,  
seaskaren lekuan  
aska eta aotza...  
eta ez diogu eskeintzen  
nork bere biotza?...

*Kantatu dezaigun  
Seme Jainkoari,  
poz aundi bat emanaz  
Beraren Amari.*

Bertso aukerak *Ibaizabal* astekarian agertu ziran, 1902-ko Abenduaren 21-ean. Egilleraren izenik ez da esaten.

1902

## Gabon kantak

Umore oneko gazteak etxerik etxe kantatzen dituztenak

---

1  
Gabon gaba dalako  
gatoz gu onera,  
euskal lege zarrean  
gabon ematera;  
borondate onakiñ  
guaz kantatzera,  
ez bildurtu gurekiñ,  
ezagunak gera.

2  
Osasuna diogu  
desio denari,  
etxe onetan arki-  
tutzen diranari;  
pakea, poza eta  
dirua ugari,  
beok dezaten gero  
zerbait eman guri.

3  
Oso urrutitikan,  
gañera kantsiak,  
miseriak betiak,  
onela jantziak;  
erropa berririk ez,  
lengoak autsiak,  
gutzaz urrikalduko  
al dira guziak.

4  
Erdi katarratu ta  
erdi elbarriak,  
onera sartu gera  
oso egarriak;  
beon aurrean pozez  
gaude gu jarriak,  
bustiko ote ditugu  
emen eztarriak?

5  
Jateko gogo ona,  
jatekua falta,  
au da gaur arratseko  
guk daukagun planta;  
auldadiakin gure  
indar dena joanta,  
pizkortuko gerade  
bixigua janta.

6  
Bixigu batentzako  
nai genuke osa,  
Gabon gaba dezagun  
zorionez goza;  
bañan erdi kraskatu  
zaigu orain boza,  
beok zerbait eman ta  
izango da poza.

7

Onera sartu gera  
gorputza ozturik,  
beon esperantzetan  
biotzak pozturik;  
guretzako ez dauka  
gaur iñork kupirik,  
gure poltsan eztago  
tokia besterik.

8

Ario, etxeak,  
gau on bat pasatu;  
ez guregatik ezer  
txarrikan pentsatu;  
beongandikan guaz  
biziro kontentu,  
gaizki esan guziak  
meserez barkatu.

### Estribilloa

Apari batentzako  
bildu nai genuke,  
au dalako merio  
orra zenbat neke;  
gañera bixigua  
eztago gaur merke,  
sardin zarra bearko  
jan bixigu truke.  
Agirandoooooo!

Bertso aukeratuak *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziran, 1902-ko Abenduaren 21-ean.

Firma bezela onela dio: *Donostian, Pepe Artola*.

Pepe Artolaren sail onen antzeko beste sail bat eskeiñi degu leen ere.

Leenengo bertsoak dionenez, euskal lege zaarra da Gabon gauean etxerik etxe ibiltzeko oitura ori. Pepe Artola bera ere orrela ibilia zan gaztetan. Gero, urteak aurrera, baiña garai bateko oitura gogoan beti.

7/1 bertsoan *ortuzik* irakurtzen da *Ibaizabal*-en; guk *ozturik* idatzi degu, ala bear dualakoan. Era berean, 7/3 lerroan *iñok* zion, eta guk *iñork* idatzi degu, Pepe Artola orrelaxe idatziko zuan eta.

## Jesusen jaiotzan

---

*Goazen al degun lenen  
bidean astera,  
goazen, goazen Belenen  
Jesus ikustera.*

Ara Aurtxo eder bat  
jaio berri dana,  
eta txabol txiki bat  
etxetzat daukana;  
eta Bera izanik  
zeru-lurren Jauna,  
etorri nai izan du  
zerutik gugana.  
*Goazen...*

Txabolan bertan daude  
Jose ta Maria,  
oialetan bilduta  
Aur zoragarria;  
beren egonlekua  
bada're pobria,  
Aur zorioneko au  
da beren gloria.  
*Goazen...*

Txabola orretan da  
aska bat ageri,  
eta askan lastoa,  
bera ez ugari;  
lasto artian dago  
Aur aiñ eder ori,  
astoa ta idia  
arnaska berari.  
*Goazen...*

Artzaiak pozez datoz  
mendietan bera,  
len-bait-len eldu naian  
Jesusen aurrera;  
ara non egiñ duten  
txabolan sarrera,  
eramanaz bildotsak  
eta gaztanbera.  
*Goazen...*

Begira aingeruak  
nola diran ari  
soñu ederrak jotzen,  
baitare kantari:  
«Gloria zeruetan  
gure Jainkoari,  
gizonari lurrean  
pakea ugari».  
*Goazen...*

–Agur, Jesus maitea.  
–Ario, artzaiak.  
–Bagoaz orain eta...  
–Bai; zaitu ardiak.  
–Zu nork zaituko zaitu?  
–Jose ta Mariak.  
–Agur, ba, eta ondo...  
–Pasa Gabon-jaiak.  
*Goazen...*

**P. M.**

1903-ko Abenduaren 14-an

*Ibaizabal*, 1903.12.20.

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005



## Villancicos

### «Zelebra zagun...»

---

1  
Zelebra zagun, nere kristabak,  
gure Jesusen jaiotza,  
zeruetako obra onekin  
alegra bedi bakoitza,  
eman zaiogun esker onean  
fedearekin biotza.

3  
Urriki zaitetz pekatariaz,  
zeru-lurraren Jabea,  
Erredentore gizonarena,  
Jaungoikoaren Semea;  
barka gaitzazu ofenditua  
zure ontasun aundia.

2  
Onetarako adora zagun  
pozez kontentuz lurrean,  
bere graziak ipiñi gaitzan  
zeruetako bidean,  
sinisturikan biotz osotik  
beti beraren legean.

Iru bertso auk *El Pueblo Vasco* egunkarian agertu ziran, 1903-XII-25-ean.

Aurretik, argibide jakingarri auk ematen ditu:

«*Cantar el nacimiento de Jesucristo y aun los misterios de la Redención es el objeto de los Villancicos o Noelac, composiciones comunes a todas las literaturas cristianas y que muestran en casi todas ellas análogo carácter y una gran semejanza en su concepción, en sus formas y desarrollo.*

*La literatura euskara no podía carecer de composiciones de esta índole, dado el arraigo que las doctrinas católicas han tenido siempre en el País Vasco, y, en efecto, posee un gran caudal de poesías destinadas a celebrar el natalicio del Dios-hombre y los misterios de la Redención».*

Bertso geiago ere izango zituan sail onek; baiña egunkari orrek eskeiñitako iru oiekin konformatu bearko degu. Ea sail osoa norbaitek nunbait ere aurkitzen duan.

1904

## Nere bartko ametsa Jesusen jaiotza

---

1

Nere baserri zarrean bullak  
esnaturik goizaldera.  
nabaitu nuben esaten: «Guazen  
guztiyok Belen aldera».

2

Ta ikusirik gero leiotik  
Anton da Peru pasatzen.  
esan nioten: «Aiskideak, or  
zerbait al da ba pasatzen?».

3

«Ez al dakizu Belenen dala  
Jaungoiko Jesus bart jaio?  
—esan ziraten—. Nola etzaizu  
zuri burura au jaio?»

4

Beste guziyak jakin ori ta  
nola ez dezu jakin zuk,  
lenaztandikan esana bazan  
gauz au profeta jakintsuk?».

5

«Izan liteke, bai; goiz irten da  
gure etxetik Jose Juan;  
eta ark ere, zuek bezela  
Belena naiko zuen jua».

6

«Zuk ere obe zenduke ortik  
zerbait artuta atera,  
eta segitu guri Belengo  
portale edo atera.

7

Aingeruak bart eman dutenez  
beren kantakin berriya,  
an dago gure Salbatzallea:  
Jesus Aur jaio berriya».

8

«Banua, artu ditut arkume  
guri bi makil batian;  
gogoz juango naiz Jesusengana,  
Peru, zuekin batian».

9

«Guazen saltoka, guazen lasterka  
pozez mendi oek bera;  
aliek lenena billa dezazun  
Aurtxo jaio berri bera.

10

Iritxi gera, iritxi gera  
noizbait portale zarrera:  
atozte onuntz, emendik dauka  
estalpe onek sarrera.

11  
Ukullu ortan nabaitzen da Aur  
jaio berriyaren otsa;  
o!, gaixuak or sentituko du  
gaur izugarrizko otza.

12  
Mundura jetxi zaigu zerutik  
Jesus, len emen etzana;  
ara non dagoen ganbelatxoan  
lasto gañean etzana.

13  
Ama Mariya ta aita Jose  
gogoz begira dauzkala,  
ta idiya ta astoa ere  
urruti txit ez dauzkala.

14  
Oiek asnasez berotzen dute  
ta gu're adora dezagun,  
eta famili au erregalo  
gabe utzi ez dezagun.

15  
Ara intxaurrak, gaztak, gaztaiñak  
eta arkume aziyak,  
geren artalde txit bikañetan  
oso guriro aziyak».

16  
Ontaz eskura guri ematen  
Ama Mariya asi zan,  
eta onetan esnatu naiz ta au  
gaur igerri: goiza zan.

**Ramon Artola**

*El Pueblo Vasco*, 1904.12.24  
*Sagardoaren graziya II*, Auspoa  
284, 2003

## «Belenen dago zerua guzia...»

---

1  
Belenen dago zeru guzia  
Gabon-gabaren erdian,  
aingerutxoak dantzan dabilta  
oso atsegin aundian.

2  
Ama Birjiña, Seme egin dezu,  
erronpilla bat emazu,  
nik ez dadukat erronpillarik,  
ez da zer beste emanik.

3  
Nik badadukat erronpilla bat  
Jaun Zerukoak emanik,  
baldin uraxe ematen ezpazaitut  
ez daukat ezer besterik.

4  
Iguzu, bada, iguzu.  
baldin emango badezu,  
baldin ematen ezpadezu  
naigabeturik gauzkatzu.

Lau bertso edo kopla auek Felipe Ayerbek eskeiñiak dira, *Gabon-gabata Egoarriak* idazlanaren barruan, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, 1915-ean.

Sail luzeagoa izango zan, dudarik gabe, gure iritzirako beintzat.

2/1 lerroan *Neskutsa Ama* idatzi zuan Felipe Ayerbe dalako orrek. *Ama Birjiña* bear duala ez du iñork ukatuko.

Neurrirako ala bear duan ezkerro, *dadukat* eta *badadukat* idatzi degu guk 3/3 eta 3/1 lerroetan.

3/3 lerroan ez degu aldatu *ezpazaitut* ori; baiña garbi dago *ezpadizut* bear duala.

Azkenik, 4/4: lerroan agertzen dan *naigabeturik* itz ori ere, *Ama Neskutsa* dalakoa bezela izango da: euskera *garbitzearren* sartutako adabaki bat, *ofenditurik* edo berezko jatorra kenduta.

Ona Felipe Ayerbe orrek berak zer esaten duan bere idazlan orren beste toki batean:

«Izketan ozta-ozta dakiten aurtxo biguñai entzun izan diet nere ate ondoan:

Jesus Maria ta Jose,  
Joakin eta Ana,  
au da nik dakidana».

Leen eskeiñi degun sail baten leenengo bertso edo koplaren itzak dira oiek, oker ez banago. Juan Inazio Iztueta beraren egillea.

1906

## Jesus jaio berriari

---

*Ariñ, kristauak, Belen aldera  
goazen guztiok kantari,  
gure biotzak eskeñitzaera  
Aurtxo Jesus maiteari*

Aurtxo eder bat ederren dana  
eder guztien artean,  
askatxo baten lastotan dago  
estalpe zartxo batean;  
aingeru asko Aurra gordetzen  
estalpearen atean,  
Aur zoragarri onen oñetan  
belaunikatu gaitean.

Berak egiñak dira zeruak,  
lur-itxasoak baitere,  
Berak egiñ da bere-beriak  
guzti-guztiak goi ta be;  
ala ere ara nola dagoan  
seaska bat ere gabe,  
dana utzirik egitearren  
gure biotzen, ai!, jabe.

Izar biziak diruditenak  
dira Aur onen begiak,  
aiñ atsegiñak, aiñ pozgarriak,  
aiñ eder eta argiak;  
ala ere otzak, berotzen dute  
astoak eta idiak,  
gizonak baño errukiago  
dirala abere biak.

Aurtxo ederra, Zu, Jesus, zera  
lore guztien loria,  
nere miñgañak esan al baño  
ederrago ta obia;  
aingeru-talde aundiak datoz  
gogoz kantatzen gloria,  
Zuri begira zoratzen dira  
pozez Jose ta Maria.

*Euscaldunen eliz-cantac*, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.

Liburuska onek, beste eliz-kanta askoren artean, Gabonetakoak zortzi ditu; leenengoa au eta besteak onen segidakoak.

Bertso auk bearbada Pedro Migel Urruzunorenak izango dira.

1906

«Ariñ, ariñ, kristauak...»

---

*Ariñ, ariñ, kristauak,  
ariñ, bai, Belena,  
Jesus adoratzera  
al dan lasterrena;  
bioliñak, txistuba,  
danboliñ soñuak  
artzaiak jotzen daude  
kontentuz ta pozak.*

Gure Jesus jaiο da  
gabaren erdian,  
Ama Birjiñagandik,  
Belengo errian,  
otzak eta bearrak  
iltzeko zorian,  
estalpe zartxo baten  
leku irikian.

Zer gertatzen ote da  
Belengo errian?  
Soñu ta dantzan dabiltz  
gabaren erdian,  
ta aruntz-onuntz lasterka  
artzaiak mendian  
alkar billatzen dira  
alegiñ guztian.

*Euscaldunen eliz-cantac*, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.

1906

«Aingeru ta artzaiakiñ...»

---

*Aingeru ta artzaiakiñ  
gu ere gaur goazen,  
zeru-lurren Jabea  
jaio da Belenen.*

Gure Ama Birjiña  
gaur dago Belenen,  
Aurtxo jaio berria  
pozez erakusten;  
eta artzaiak berriz  
Jesus adoratzen,  
alakoxeko soñu  
politak kantatzen.

Ona, Jesus maitea,  
nun zure jaiotzak  
pozez bete dituan  
guztion biotzak;  
berez badira ere  
gaixo eta otzak,  
arren!, artu itzatzu  
betiko Zuretzat.

Guk ere kanta zagun  
belaunikaturik.  
Aurtxo jaio berria  
emen ikusirik,  
guztion Jabe dala  
pozik aitorturik,  
eta biotzetikan  
Bera maitaturik.

*Euscaldunen eliz-cantac*, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.



1906

«Kantatu dezaiozun...»

---

*Kantatu dezaiozun  
Aurtxo Jaungoikoari,  
poz aundi bat emanaz  
Beraren Amari.*

Arkitzen bazan ere  
lenago mundua  
pekatuaren bidez  
osoro galdua,  
gu salbatzera dator  
Jaun errukitsua,  
o amoriyo bizi  
piñ eta gartsua!

Atoz ordu onean,  
Seme Jaungoikoa,  
zeru gañ-gañak baño  
gañetikakoa,  
gugatik aurtxo pobre  
biurtutakoa,  
Birjiñ Amaren Seme  
paregabekoa.

Artzai pobre batzuek  
zeuden gau erdian  
beren ardiak zaitzen  
txit ernai mendian;  
An jakiñ dute nola  
Dabiden errian  
Mesias arkitzen dan  
estalpe batian.

*Euscaldunen eliz-cantac*, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.

1906

«Goazen guztiok...»

---

*Goazen guztiok Belen aldera,  
goazen guztiok len-bait-len,  
zeru-munduen Jaun ta Jabea  
jaio dalako Belenen.*

Illuna dago gaba,  
ez dago izarrik,  
bañan ez det sentitzen  
argi bearrik.  
Jesus nerea!  
Nun billatu Zu baño  
argi ohea?

Pekatarien billa  
zatoz lurrera,  
maitasunez biotzak  
irabaztera.  
Maite nazazu!  
Bada pekatari bat  
emen naukazu.

Ille kixkurrak ditu  
ta begi urdiñak,  
zerua bera baño  
obeto egiñak.  
Jesus laztana!  
Zuri begira dago  
lurbira dana.

*Euscaldunen eliz-cantac, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-  
18. 1906.*

1906

«Gabaren erdian...»

---

**Batek:**

Gabaren erdian  
zeru garbian  
eguzki berri bat  
ikusi da bart.

Zeru bat egiñik  
guri itxodoten,  
Jesus ta Maria  
zeñ laztan dauden.

Ama Birjiña zan  
zeru garbia;  
eguzkia Jesus  
jaio berria.

Goazen bada biak  
bedeinkatzera,  
ta pozaren pozez  
ala esatera:

Ai guri itxodoten  
zeñ laztan dauden!  
Biotz situakiñ  
Belena goazen.

*Ongi dala etorria  
Jesus, gure Jaun aundia;  
gaurtik gure maitiak  
Ama-Semiak.*

**Guztiok:**

Biotz situakiñ  
Belena goazen,  
aingerua dago  
ara gu deitzen.

Danok pozaren pozez  
goazen esatera:  
*Ongi dala etorria  
Jesus, gure Jaun aundia;  
gaurtik gure maitiak  
Ama-Semiak.*

*Euscaldunen eliz-cantac, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.*

1906

«Ai zeñ eder ta atsegiña...»

---

Ai zeñ eder ta atsegiña  
zauden, Jesus laztana,  
Amatxoren magaletik  
Belenetik  
danok deitzen Zugana.

A!, begira nola dagon  
etxetxo bat gaberik,  
neguaren biotzean,  
estalpean,  
otz-ikaraz beterik!

*Goazen, goazen Belenera  
Jesus adoratzera,  
biotz garbi ta beroak  
amorez eskeintzera.*

Ai, zeñek ez du deituko  
Jesus gaur biotzera,  
jakiñikan, bai, orrela  
datorrela  
bere billa lurrera!

*Euscaldunen eliz-cantac, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.*

1906

«Atozte, kristauak...»

---

Atozte, kristauak,  
biotza pozturik,  
atozte guztiak  
Belenera,  
jaio dan gure  
Jesus ikustera,  
*adoratu dezagun  
auspezturik.*

Betiko Aitaren  
ixpillu osoa,  
aingeru ederren  
eguzkia.  
Gure aragiz  
begira jantzia,  
*adoratu dezagun  
auspezturik.*

Ardiak utzi ta  
datoz artzai onak,  
zerutik deituak  
estalpera.  
Goazen gu ere  
berakiñ batera,  
*adoratu dezagun  
auspezturik.*

Gugatik amorez  
askatxo batean,  
otzik dar-dar zauden  
Jesus ona!  
Atoz gugana,  
Aur gozo laztana,  
*berotuko zaitugu  
biotzean.*

Begira zeruen  
aberastasuna.  
gugatik aur pobre  
bat egiña;  
bere Ama da  
Ama ta Birjiña,  
*adoratu dezagun  
auspezturik.*

*Euscaldunen eliz-cantac*, Bilbon, Villarr-en moldizkiran, Gran Vía, 16-18. 1906.

1907

## Iru Erregeak Jesusekiñ izketan

---

–Adoratzten zaitugu,  
zeru-lurren Jauna.

–Iru Errege aundi  
zatozte nigana.

–Bai, jakin degulako  
jaioa zerana.

–Nundik jakin dezute?  
Zer da gerta dana?

–Erodes erregeak  
galde digu egiñ...

–Ni jaio ote naizen  
nai al luke jakiñ?

–Aruntzakoan nai du  
itz egin gurekiñ.

–Ez juan; ezteion bere  
barruak irakiñ.

–Izar bat agertu da  
bizi ederra.

–Nik bialdu dizuet  
bera sortaldera.

–Ura giari dala  
gu etorri gera.

–Estimatzen det asko  
zuen etorrera.

–Ona urrea, mirra  
eta intzentsua.

–Amorio ori da  
andi ta osua.

–Eta guretzat berriz  
osoro gozua.

–Ni izango naiz beti  
zuen gurasua.

–Jerusalenen gorde  
zaigu izar ori.

–Etzaizute berriro  
agertu bedori?

–Agertu zaigu baña  
lenago diruri...

–Erodes ere dala  
kontuan erori?

–Jaungoiko, gizon eta  
errege zerala...

–Adoratu nazute  
bear dan bezela.

–Agur, Jesus, bagoaz  
orain bereala.

–Agur bada ta ondo  
bizi zaitzela.

**P. M.**

*Baserritarra*. 1907.01.05

*Koroi eder bat*, Auspoa 291. 2005

1907

## Artzaiak Jesusekin itzketan

---

–Nola, Jesus maitea,  
zeruak utzirik  
zaude askatxo ortan  
lurrera jetxirik?  
Etzegoan Belenen  
zuretzat etxerik?  
Eztakit nola zauden,  
Aurtxoa, bizirik.

–Belenen ezta iñor  
nizaz errukitu,  
ostaturikan eziñ  
izan det arkitu.  
Oraiñ zuek, artzaiok,  
zerate kupitu,  
bañan zuen biotzak  
zerk mugitu ditu?

–Aingeru bat zaigula  
etorri mendira,  
arriturikan geunden  
berari begira.  
Taldi andiak berriz  
an agertu dira.  
kantaz ta soñu gozoz  
beteaz lurbira.

–Zerutikan lurrera  
nola jetxi naizan  
aingeru onek nunbait  
dizuete esan.  
Berri au pozgarria  
zuentzat da izan,  
baña bazenekiten  
nun arkitzen nintzan.

–Oialetan bildurik  
lastotan jarria  
arkituko degula  
Aur jaio berria  
da aingeruak eman  
diguten berria,  
mundu guziarentzat  
oso pozgarria.

–Bisita au izango  
det beti goguan.  
nere bendizioaz  
orain zaitetze jua.  
Lagunduko dizutet  
bizitzen munduan,  
zoriontzeko gero  
betiko zeruan.

**P. M.**

*Baserritarra. 1907.12.21*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

1908

## Erregeak Jesusekin itzketan

---

–Nundik zatozte, nere errege maiteak?

Alaituko nau zuen berri jakiteak.

–Sortaldetikan gatoz, Jesus, zure billa, igaroaz arrisku eta neke milla.

–Nola jakin dezute jaioa naizela, etortzeko errege leialak bezela?

–Izar ederrak digu berria ekarri, berari jarraituaz gatoz erriz erri.

–Jerusalenen ezer zaratarik etzan?

Eztizute Erodes jaunak ezer esan?

–Bisita dezagula juatean atzera, bera're etortzeko Zu bisitatzera.

–Baña esan zazute, errege maiteak,

etzaituzte izutu bideko nekeak?

–Bide guziak pozik ditugu igaro, Zu arkitzeagatik ondorean gero.

–Erodes erregeak nai zaituzte galdu, etzaitzete geiago argana azaldu.

–Ondo da, ta ar zazu dakartzugun prenda: intzentsu, mirra eta urrezko ofrenda.

–Nere bendizioaz zuen etxetara zuazte orain, berri onak ematera.

–Batetik penaz eta bestetikan pozak, bagoaz Zuri emen utzirik biotzak.

**P. M.**

*Baserritarra*, 1908.01.04.

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

Bearbada, irugarren eta laugarren bertsoak alkarrekin tokiz aldatuta daude.



1908

## Jesusen jaiotza

---

1

Izar eder bat giari eta  
mendi estrata barrena,  
alai dijoaz iru Errege  
zaldi gañean Belena;  
dedamakite erregalitzat  
jauregiako onena,  
jaio dan Aurtxo aringanaxe  
iritxi nairik lenena.

2

Dedamakiten bide guzian  
argiratuaz berria,  
artzai artean zabalduz dijoaz  
ara joateko larria;  
argati abek artaldeatik  
bereziz bildots guria,  
damate ara poztu naiean  
Aurtxoa eta Maria.

3

Estalpetzat au dadukatela  
ganadu-teia zakarra,  
oiaren ordeztu besterik bage  
baizik majara bakarra;  
antxe jaio da Jesus, nun ere  
relijioan indarra,  
baztertxo aiek argiratuaz  
len giari zan izarra.

4

Eta seaskan balego gisa  
majara barru etziña,  
ala arki da, Aurra epelduz  
astoan asnas-lurriña;  
San Jose aita adoratuaz  
bere Semetxo fiñ-fiña,  
eta txit gozo pozaz betea  
Amaren biotz Birjiña.

5

An goietako aingerutxoak,  
lira-soñu ta kantuan,  
deitzen diote: »Jesus maitea,  
atoz onuntz, atoz gugan!«.   
Beartsu gisa lasto gañean  
naiz jaio emen munduan,  
urre gorrizko alki polita  
antxe daduka zeruan!

**Alejandro D. Berroa**

Bertso auek Donostiako *Baserritarra* astekarian agertu ziran, 1908-01.04-an. Bai ere *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1908-01.06-an. Egillearen izena bertsoen ondotik azaltzen da. Jaun ori oso bertso-jartzaille ugaria eta saiatua izan zan. Baiña oraingoz ezin degu berari buruz argibide geiago eman.

1908

## Belengo estalpean

---

–Nundik etorri zera,  
Aurtxo aiñ polita,  
eta lasto gañean  
zaude or jarrita?

–Zuri beti dizudan  
ongi-naiak nakar,  
maitatzen bizitzeko  
beti biok alkar.

–Etxe ontxo bat etzan  
Zuretzat lurtean,  
egon gabe aiñ pobre  
estalpe zarrean?

–Pobreza da txit maite  
dedan birtutia.  
idikitzen duana  
zeruko atia.

–Izarrak beziñ eder  
dituzu begiak,  
bata baño bestea  
ederrago biak.

–Eder guziak baño  
ederragoa naiz,  
edertu nai badezu  
atoz nigana maiz.

–Nundik datoz kantu ta  
soñu aiñ alaiak?

Atzera ote datoz  
onera artzaiak?

–Artzaiak juan ziran da  
datoz aingeruak,  
Gloria kantatuaz  
bedratzi koruak.

–Or agirian dauden  
bildots ta gaztaiak  
benturaz dizkitzute  
ekarri artzaiak?

–Gaixoak nautenian  
aiñ pobre ikusi,  
errukiturik oiek  
dizkirate utzi.

–Zure bendizioa  
nai nuke iritxi,  
ez nazazula arren  
eman gabe utzi.

–Ar zazu bendizio  
oso ugaria,  
lurrean pakea ta  
zeruan gloria.

**P. M.**

*Baserritarra, 1908.12.19*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

## Ama Birjiña ta aurtxo

---

Zar da gaztiak, kanta  
gaur gora begira,  
gure Jaun da Jabia  
dagoan tokira,  
egan igo gaitezen  
utzirik lurbira,  
gloriyan bizitzera  
zeruben erdira.

Aingerutxuak pozaz  
daude gaur zeruan,  
danak soñua juaz  
jarririk kontuan;  
koroï eder-eder bat  
arturik eskuan,  
Aur jaiio berriyari  
jazteko buruan.

Zerua ta lurraren  
Jabe dana gaurtik,  
jaiio zaigu Belenen  
Birjiñarengandik,  
artzaiak zaiturikan  
belaunikaturik,  
kanta polit-politak  
berai kantaturik.

Maita zagun pozkiro  
Aur jaiio berriya,  
esanaz: «Izan zaitez  
ongi etorriya!».  
Bai eta ere maita  
Birjiña Mariya,  
goza dezagun danok  
zeruan gloriya.

O Aur zoragarriya,  
zure etorrera  
da bizi geran danok  
fedez zuzentzera;  
orreatatik kantari  
konten ari gera,  
esanaz: «Atoz, atoz  
gu eramatera!».

Maita ditzagun beti  
pozturik biyotza,  
oroiturik Belenen  
izan dan jaiotza;  
deitziarren zerutik  
atozte onuntza,  
irixten danerako  
geren eriyotza.

Kaietano Sánchez Irure  
(? - 1917)

*El Pueblo Vasco*, 1908.12.25

1909

## Erregeak Jesusekiñ

---

–Zerk ekarri zaituzte,  
Errege Magoak?  
–Zu adoratutzeko  
daukagun gogoak.

–Nundik jakin dezute  
obera bidia?  
–Izar eder bat izan  
degu gidaria.

–Etzaizute bidean  
okerrik gertatu?  
–Izarra ezkutatu  
ta berriz agertu.

–Ikusi al dezute  
lenik Jerusalem?  
–Bai; an egondu gera  
onera baño len.

–Erodesek zer dion  
badezute jakiñ?  
–Izketan egon gera  
errege orrekiñ.

–Ezer esan dizute  
bere mesedeak?  
–Badatozela bera  
ta adiskideak.

–Erodes datorrela  
ni adoratzerara?  
–Bai, uste dan bezela  
jaioa bazera.

–Beraz eztaki ziur  
jaio ote naizen?  
–Aruntzakoan goaz  
esatera zuzen.

–Argana gabe zoazte  
zuen etxietara.  
–Lenik nai degu zerbait  
kajatik atera.

–Kaja orretan dauden  
gauz oiek zer dira?  
–Dakartzkitzugun urre,  
intzentsu ta mirra.

–Eta zuek zatozte  
ni adoratzerara?  
–Bai, bada Jainko, gizon  
ta Errege bazera.

–Bedeinkatzen zaituztet  
beti-betiko gaur.  
–Esker milla oraiñ ta  
agur, Jesus, agur.

**P. M.**

*Baserritarra, 1909.01.02*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

1909

## Aurtxo Jesusi

---

*Belenera goaz gaur  
alai eta pozak,  
Jesusi eramanaz  
gaztai ta bildotsak.*

Aingeru batek die  
artzaiari esan  
Jainkoa jaio dala  
Aurtxo baten gisan;  
ara artzai gaixoak  
galdez nun dabilzan,  
Aur orren jaiotz ori  
nun ote dan izan.  
*Belenera...*

Aska zartxo bat eta  
lastua barruan,  
ara lasto artian  
Aurra nun dagan.  
Zeru-lurren Errege  
aiñ pobre munduan?  
Orra gugatik zenbat  
sufritutzen duan.  
*Belenera...*

Artzaiak billa datoz  
mendian barrena,  
ara txabola baten  
arkitu dutena:  
Aurtxo bat, jaio izan  
danik ederrena,  
gizona salbatzera  
oraiñ datorrena.  
*Belenera...*

Aska ondoan daude  
asto ta idia,  
arnasaz berotuaz  
Aur jaio berria;  
baita're Aurra zaitzen  
Jose ta Maria,  
guri erakusteko  
zerura bidia.  
*Belenera...*

Aingeruak zerutik  
or datoz kantari:  
«Gloria zeru goian  
gure Jainkoari,  
ta borondate ona  
duan gizonari  
pake santu bat eta  
ondasun ugari».  
*Belenera...*

Aurtxo eder zeruko  
loreen loria,  
zerutikan lurrera  
zera etorria;  
on guziak baño're  
zera Zu obia,  
iguzu pakea ta  
zeruko gloria.  
*Belenera...*

**P. M.**

*Baserritarra, 1909.12.19*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

1910

## Artzaiak atez ate eskian

---

*Jesus etorri zaigu  
zerutikan lagun,  
goazen Belenera ta  
adora dezagun,  
goazen, goazen goazen  
adora dezagun.*

Aingeru batek digu  
artzaioi esan  
nola Aurtxo eder bat  
jaio dan pobrezan;  
ederragorik eziñ  
ditekela izan,  
zerbait eramateko  
gaixoak jan dezan.  
*Jesus etorri...*

Oial zartxo batzuek  
dauzkala soñian,  
ara nola dagoan  
lo lasto gañian;  
Jose eta Maria  
askaren oñian,  
lo lotxo kantatzeko  
esnatzen danian.  
*Jesus etorri...*

Aska batean dago  
Aur gaixoa otzak,  
su egiteko Josek  
biltzen ditu zotzak;  
errukitu zaitzte,  
kristauen biotzak,  
arren limosnatxo bat  
Aur gaixoarentzat!  
*Jesus etorri...*

Astoa ta idia  
askaren atzian,  
arnasaz berotzeko  
Aurra oztutzian;  
nola eztegun juan nai  
ara esku-utsian,  
limosna biltzen gabiltz  
egiñal guzian.  
*Jesus etorri...*



Zerutikan etorri  
dira aingeruak,  
soñu jo ta kantari  
bedratzi koruak;  
argi ta alai daude  
Belen inguruak,  
idiki diralako  
guretzat zeruak.  
*Jesus etorri...*

Atez ate gabiltza  
limosnaren billa,  
eman diguzute ta  
orain esker milla;  
ikusi nai duanak  
Aur eder umilla,  
Belenera gurekiñ  
etorri dedilla.  
*Jesus etorri...*

**P. M.**

*Baserritarra. 1910.12.17*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

1910

## Iru Erregeak Jesusekin izketan

---

–Nundik nora zatozte,  
nere Erregeak?

–Sortaldetik Zugana  
gakarzuki fedeak.

–Eta nork erakutsi  
dizute bidia?

–Izar eder bat izan  
degu gidaria.

–Eta nork eman nere  
jaiotzaren berri?

–Izarra ikusita  
diogu igerri.

–Eztezute bidian  
izan luzapenik?

–Jerusalenen puxkat  
zuzendu eziñik.

–Eziñ zendutelako  
arkitu ostatu?

–Ez; baizik zaigulako  
izarra ezkutatu.

–Eta nola zerate  
azkenik zuzendu?

–Erodesek Belenen  
zaudela esan du.

–Erodesek badaki  
emen nagoala?

–Bai, ta dio bera're  
etorriko dala.

–Or ikusten ditudan  
gauz oiek zer dira?

–Dakartzkitzugun urre,  
intzentsu ta mirra.

–Erregalo oiekin  
zatozte nigana?

–Baitare beste zerbait  
obeago dana.

–Zer da oriek baño  
obeago dana?

–Emen uzten dizugun  
biotz eder bana.

–Bedinkatzen zaituztet,  
Errege maitiak.

–Idiki zaizkigutzu  
zeruko atiak.

–Ara idikirikan,  
zuazte pakian.

–Agur, Aurtxo ederra,  
zerura artian.

**P. M.**

*Baserritarra, 1910.12.31*

*Koroi eder bat, Auspoa 291, 2005*

(1918)

**Olentzaro-abestiyak**  
**1918-an argitaratu eta**  
**Zarautzen eta Oriyon**  
**abesten diranak**

---

1

Salto ta gabriolka,  
indarrez beteta,  
artzai makil-luze bat  
igo dek presaka;  
diyo baserrietan  
*pra-pra* juaz tronpeta:  
– Esna zaitezte danok  
Jesus jaio'ek eta.

2

Esna ari, Pratzuel,  
ator, Antoniyo,  
erotu dek nere ustez  
gure Gregoriyo;  
or zatorrek saltoka  
ojuka mendiyen,  
Jesus jaio dala-ta  
Belengo erriyan.

3

–Belendikan netorrek  
lertzeko zoriyan,  
korrika egiñalan  
aldapa guztiyan;  
orrelako gertaerik  
gizonen biziyen  
munduan eztek pasa,  
ezta're gloriyan.

4

–Zer dek ba berri ori?  
Esan diguk emen;  
ez atariyan egon,  
sar ari barrenen;  
zerbait jarri zaiozu  
oneri, Madalen,  
suba're piztu biarko  
dezute lenbailen.

5

–Antziñako profetak  
adiratu zuten  
Jesus jaioko zala  
gaur gabez Belenen;  
agindu ura betetzen  
juanak ziraden,  
Jose eta Maria  
an dira arkitzen.

6

Ez al dituk ikusten  
argirik mendiyak?  
Ez al dituk aditzen  
zeruko abestiyak?  
Jainkoak jantzi dizkik  
gizonen jantziyak,  
zabalduaz zeruko  
ate len itxiyak.

7

Zeru-lurren Jabeak  
–au da mirariya!–  
aldamenean zeuzkak  
astua ta iriya;  
belaunikaturikan  
Jose ta Mariya,  
askatxo zar batian  
Jaungoiko aundiya.

8

–Joxepa, bete zazu  
otarra sagarrez,  
gaztain, intxaurrak eta  
errege-sagarrez;  
gure Aurtxoia ere  
or ari da farrez,  
guazen bada guztiyok  
jantziyaz legorrez.

9

–Patxi ere badator  
bere astuakin,  
esne, egazti eta  
beste zerbaitekin,  
Jaunari eskeintzera  
duan guztiyakin,  
eta jarraituzera  
bere biotzak.

10

Gauza arrigarriyak  
ikusi begiyak,  
abesti zerukoak  
adi belarriyak;  
aingeruak goitikan  
dirade jatxiyak,  
laztantzera askatxon  
dagon Aur txikiya.

11

Mutil txikiyak degu  
gaur egun aundiya,  
abestu zagun bada  
gure poz aundiya;  
orain entzun zazute  
albiste berriya:  
«Gaur Olentzaro da ta  
biyar Eguarriya».

12

Kantari asi gera  
gaur ordubiyetan,  
diadar ta marruka  
baztar guztiyetan;  
oitura abek dira  
gure erriyetan,  
beok e ibiltzen ziran  
mutil koxkorretan.

13

Kanta zatarra pranko  
zituzten aituko,  
beti batzuek aitzen  
ziran aspertuko;  
emendik aurrera guk  
ditugu berrituko,  
eztariya autsi arte  
ez gera geldituko.

14

Oitura biguñ abek  
diran bitartian,  
Jesus jaioko zaigu  
beti biyotzian;  
kristotarrak bezela  
bizi ta iltzian,  
danok sartuko gera  
zeru ederrian.

15

Ematen dizkiyogu  
eskerrak danari,  
nola nagusi eta  
etxeoandriari;  
erregutzen diyogu  
Belengo Aurrari,  
zabaldutuzala emen  
ondasuna ugari.

Amabost bertso auek Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman aurkitu genituan, Gipuzkoako Diputazioaren liburutegian. Bialdu, zarauztar batek egin zizkion *Aitzol* jaunari, Berazaditar Kandidak, 1932 urtean.

Izenburuak argi eta garbi adierazten digu bertso auek zein erritan kantatzen ziran: Zarautz eta Oriu.

Egillearen izenik ez da inon esaten, ordea. Naiko errikoiak dirudite bertso auek. Ala ere, apaiz edo gizon eskolaturen batek moldatuak izango diran errezeloa daukagu.

Ain zuzen, bigarren bertsoa eranskiña da. Berez, Donostiako Jose Bizonte Etxagaray (1773-1855) bertso-jartzaille ugariarena da. Ikus: *Auspoo*, 35-36, 26 orrialdean.

Sail au bi artzairen arteko alkarrizketa da, bakoitzak zer dion bereizten oso erreza ez bada ere.

# Olentzero

O-len-tze-ro jua n zai-gu men-di-ra la-ne-  
ra, in-ten-tzi-o-a-re-kin i-katz e-gi-te-  
ra. A-di-tu du-a-ni-an Je-sus jai-o-da-  
la, lais-ter-ka e-to-rrida be-rrie-ma-te-  
ra. O-rra, o-rra gu-re O-len-tze-  
ro, pi-pa or-tzi-an du-la e-  
xe-ri-ta da-go; ka-poi-ak e-re bai-tu a-  
rrau-tza-txu-a-kin, bi-ar me-rien-da-  
tze-ko bo-tillaar-du-a-kin.

1  
Olentzero juan zaigu  
mendira lanera,  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aditu duanian  
Jesus jaio zala,  
laisterka etorri da  
berri ematera.

*Orra, orra,  
gure Olentzero,  
pipa ortzian dula  
exerita dago;  
kapoiak ere baitu  
arrautzatxuakin,  
biar meriendatzeko  
botilla arduakin.*

2  
Olentzero guria  
ezin degu ase,  
bakarrik jan dizkigu  
amar txerri gazte.  
Saieski ta solomo,  
makiña bat este,  
Jesus jaio da eta  
kontsola zaitzte.  
*Orra, orra...*

3  
Olentzerok dakarki  
atsegiñ da poza,  
jakin baidu mendian  
Jesusen jaiotza.  
Egun argi onetan  
alaitu biotza,  
kanpo eta barruan  
kendu azkar otza.  
*Orra, orra...*

4  
Olentzero guria,  
begira onera,  
izar dizdizari bat  
doa Belenera.  
Bere argi dirdiraz  
goazen estalpera,  
Jesus Aurtxoarekin  
gaba pasatzera.  
*Orra, orra...*

Olentzeroren doiñu eta bertso auek liburuska ontatik artuak ditugu. *Canciones populares de Navidad - Gabon kantak, Seminario Diocesano, Diciembre 1965.*

Olentzeroren bertso asko dago eta toki askotan. Bildutako zenbait ale emen eskeinduko ditugu orain, naiz eta batzuk errepikatuak izango diran.

\* \* \*

Errenterin, 1959-ko udaran, Bordaxar baserriko Zapiraindarren aotik edo Monika Galarraga, Juanito Zabaleta bertsolariaren alargunaren aotik, onako auek jaso nituan:

Emen eldu gerade  
berri on batekin,  
gure enbajadore  
Olentzerorekin.

Olentzero joan zaigu  
mendira lanera,  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aditu zuanian  
Jesus jaio zala,  
lasterka etorri zan  
parte ematera.

Herodes erregia.  
infame faltsua,  
kendu izan nai zion  
Aurrari lepua.  
Alferrik egingo dek  
oraingo asmua,  
ez dek engaiñatuko  
gure Jaungoikua,

Guk galdetu diyogu:  
«Aizak, Olentzero,  
zer bear ote (y) ukek  
ondo asetzeko?».  
Erresponditu digu...  
«Amar ane arto,  
*seiscientos* txardin eta  
bost karga sagardo».

Guk eman bear diyogu  
gauza prezisua:  
saieski ta solomo,  
igual txorizua;  
arraultz kapoiarentzat  
badegu zestua,  
orra denbora dela  
eman abisua.

\* \* \*



*El Bidasoa* aldizkarian, 1948.12.25-ean, Emilio Más-en *Canciones Navideñas* idazlanean, bertso auek agertu ziran:

Emen eldu gerade  
berri on batekin,  
gure enbajadore  
Olentzerorekin.  
Idiyak eta astuak  
beren karruekin,  
ezin karriaturik  
zagi arduakin.

Olentzero juan zaigu  
mendirra lanera,  
intentziyuarekin  
ikatz egitera;  
aditu zuenian  
Jesus jaio zala,  
lasteka etorri da  
guri esatera.

Olentzero guria  
ezin degu ase,  
osorik jan dizkigu  
amar zerri gazte;  
lukainka ta solomo,  
makiña bat este,  
Jesus jaio da eta  
kontsola zaitezte.

Auzoko bi gizonak  
lagunduz alkarri  
atzo zagi ta ardo  
diote ekarri;  
bere oian ondoan  
azkar zuan jarri,  
beti ura gogoan  
emen dabill larri.

Oian beste aldean  
turroi bat aundiya,  
aspalditik an dauka  
legortzen jarriya.  
Ura dena jatean  
ai zer egarriya!  
Zagitik bearko du  
busti iztarriya.

Olentzero guriak  
juan nai du itxera,  
sukalde bazterrian  
lasai afaltzera,  
nafar ardo zarrakin  
gazta bat jatera,  
eta gero patxaran  
pipa piztutzera.

Olentzerok esan du  
biotzez egiya:  
ikusgarria dela  
aur jaio berriya;  
begiyak dituela  
izar txit argiya,  
eguzki ederra dela  
bere arpegiya.

\* \* \*

Emilio Jose Esparzak, bere *Noticia curiosa sobre Olentzero en la Navidad de Lesaca* (1973) liburuskan, onako auek agertzen ditu:

Olentzero buru-aundiya,  
entendimentuz jantziya,  
bart arratsian edan omen du  
amar arruko zagia.  
Ai, urde tripa-aundiya.  
ai, urde tripa-aundiya!

Orra, orra,  
gure Olentzero:  
pipa artzen duela  
ixerita dago;  
kapoitxua badauzki  
arraultzetxuakin,  
biar berendatzeko  
botill-arduakin!

Emen eldu gerade  
Berri On batekin,  
gure enbajadore  
Olentzerorekin.

Olentzero juan zaigu  
mendira labera,  
intenziuarekin  
ikatz egitera;  
aditu zuenian  
Jesus jaiyo zela,  
lasterka etorri omen zen  
parte ematera.

Olentzero guria  
fortuna tristia,  
arropak saldu dizka  
bere emaztiak.  
Olentzero guria  
eziñ degu ase,  
bakarrik yan dizkigu  
amar zerri gazte;  
saieski ta solomo  
tripazaiak aste,  
Jesus jaiyo dalako  
konsola zatezte!

Olentzero, begi-gorri,  
non arrapatu duk arrai ori?  
Zorioneko errekatan  
arratseko ameketan.

O, o, o, biar Olentzero,  
i, i, i, etzi Eguberri,  
kantatu dezagun  
Ama Birjiñari;  
Eguberri, berri,  
nik atorra berri;  
Eguberri zar,  
nik atorra zar;  
maukarik ez,  
niri axolik ez.

\* \* \*

*El Diario Vasco* egunkariak, 1978.12.23-an:

Olentzero guria  
ezin degu ase.  
bakarrik jan dizkigu  
amar txerri gazte.  
Saieski ta solomo,  
makiña bat este,  
Jesus jaio da eta  
kontsola zaitetze.

Olentzerok dakarki  
atsegiñ da poza,  
jakin baidu mendian  
Jesusen jaiotza.  
Egun argi onetan  
alaitu biotza,  
kanpo eta barruan  
kendu azkar otza.

Olentzero guria,  
begira onera,  
izar dizdizari bat  
doa Belenera.  
Bere argi dirdiraz  
goazen estalpera,  
Jesus Aurtxoarekin  
gaua pasatzera.

## Albako gultzurruna

---

1

Albako gultzurruna  
aitz baten gañian,  
gizon bat arrantzuan  
itxas bazterrian.

Kañabera orrekin  
zabiltzan gizona,  
Jaunagoikoak dizula  
zuri egun ona.

*Alaitu ta poztu gaitezen  
gaurko gabarekin,  
gure Jesus onaren  
etorrerarkin.*

2

Gabon gaba dala ta  
gatoz gu onera,  
lengo usarian  
Gabon egitera.  
Otz dago atarian  
luzaro egoteko,  
baimena nai genduke  
barrura sartzeko.

*Alaitu ta...*

3

Aingeruak deiturik  
artzaiak Belena,  
bizkarrean zutela  
arkume onena.  
Gu ere orrelaxe  
gatoz gaur zuena,  
ezpañetan degula  
kanta alaiena.

*Alaitu ta...*

4

Kantuak utzi digu  
legor eztarriya,  
betor, etxeoandre,  
orain edariya.  
Otz dago edateko  
sagardo mikatza,  
naiago degu beraz  
napar ardo beltza.

*Alaitu ta...*

5



Arkumerik ez bada  
betor ollaskoa,  
berdiñ da lukainka edo  
urdai azpikoa;  
dozena arrautzakin  
bada xolomoa,  
ta besterik ezean  
amar durokoa.  
*Alaitu ta...*


6

Agur, etxeoandre,  
ta eskerrak milla,  
Jesus Aurtxoia gutzaz  
oroitu dedilla.  
Zu baño andre oberik  
ez dago munduan,  
bizi-bizirik zaude  
gaurtikan zeruan.  
*Alaitu ta...*

Doñu eta bertso auek liburuska ontatik artuak ditugu. *Canciones populares de Navidad - Gabon kantak, Seminario Diocesano, Diciembre 1965.*

## «Lenengotik izan zan...»





gaur-ko ga-ba-re - kin, — gu-re Je-sus — o -



na - ren e - to - rre - ra - re - kin.

1  
Lenengotik izan zan  
profetak esana  
Mesias prometitua  
etorriko zana,  
patriarka santuak  
desiatzen zutena,  
Jaungoikoaren Semea  
egitiñik gizona.

3  
Belenera juañ ziran  
Jose ta Maria,  
amar milla aingeruk  
egitiñik guardia.  
Portal epel batian  
Jesus narru gorrian,  
otzak ikaraz dago  
gauaren erdian.

2  
Aingeru Gabrieleñ  
zizun anuntziatu,  
Espiritu Santuagandik  
zenduan kontzebitu.  
Andra guzien artian  
bedeinkatua zera zu,  
orrelako milagrorik  
ez da iñun aditu.

4  
Jesus adoratzera  
iru errege santu,  
zeruko izar ederrak  
zituen giatu.  
Erregaloz beterik  
ziran presentatu,  
Maria Santisimak  
zituan rezibitu.

5

Jerusalen guztia  
orduaz zan turbatu,  
Erodes traidoriak  
junta zuan batu.  
Belengo umiak iltzeko  
zuan ordenatu,  
Jesus aien artian  
nai zuan arrapatu.

6

Maria Santisima  
gure Ama maitia,  
pekatari guziona  
kontsolagarria,  
zuk ekarri diguzu  
zerutik argia,  
pekatario Ama  
Birjiña Maria.

7

Maria Santisima,  
zaitut alabatzen,  
zu beti gizonarentzat  
zaude erregutzen;  
Jaungoikuak ortarako  
destinatu zinduzen,  
orain zeruan zaude  
gloria gozaten.

8

Zeruan eta lurrian  
ama bat bakarrik,  
semia egin da dontzella  
geldituko danik.  
Ura grazia zeukan  
Jaungoikuagandik,  
mantxarrik etzuela  
pekatuarenik.

9

Aita poderosua  
parerik gabia,  
ezin izan lezake  
beste bat obia.  
Guziz da izugarria  
zure poderia:  
zeru guziarekin  
lurraren Jabia.

10

Orra bertso batzuek  
Jesusen alabantzan,  
ez dago zer dudatu  
au orla pasa zan.  
Ama Birjiñagandik  
Belenen jaio zan,  
gu salbatziagaitik  
gurutzian il zan.



Amar bertso auk Soraluzen kantatzen ziran, garai batean beintzat. Orain ere kantatzen diran ez dakigu.

Iru iturri izan ditugu: Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bertso-bildumarentzat, Irunen jaio eta Soraluzen bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanak 1935 urtean bialdu zuan era; Eibarko Juan San Martin adiskidea zanaren eskutik jaso genduan orria, makinaz idatzia; eta Soraluzeko Ramiro Larrañagak eman zigun fotokopia, au ere makinaz idatzia.

Bertsoak liburu ontan agertzeko, iturri batetik eta bestetik erarik onena artzen jardun gera. Bakoitzaren aldaketak bereala emango ditugu.

Iru iturri oiek laugarren bertsoa bostgarrenaren atzetik daukate. Guk aurretik jarri degu, gauzak orrela gertatu baitziran.

Sail onek zer ikusirik badu or goien eskeiñi degun beste batekin; 1862 urtekoa bera. Ango amaikagarren bertsoa eta emengo leenengoa antzekoak baitira. Eta ango 18/7-8 lerroak eta emengo 10/7-8 lerroak, berdiñak.

Doiñua, Ramiro Larrañaga jaunak kantatua da, guk magnetofonoz jaso eta Manuel Yaben jaunak solfeoz papereratua.

\* \* \*

Andres Ezenarro *Urzelai* jauna zanak *Aitzol* jauna zanari bialdua.

Bertsoak: 1, 2, 3, 5, 4, 6, 7, 8, 9 eta 10-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/8: egiñikan gizona; 2/7: orrelako milagrorikan; 3/1: Jose eta Maria; 3/2: Belenera ziran; 3/4: arturikan guardia; 3/7: otzak ikara dago; 5/7: Jesus oien artian; 8/6: pekatuarekin.

\* \* \*

Eibarko Juan San Martin jaunaren orria:

Izenburua: «Soraluze edo Plaentxian abestutzen dan gabon-abesti zaar bat».

Ordena: 1, 8, 2, 3, 5, 4, 6, 7, 9 eta 10-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/8: egiñikan gizona; 2/1: Aingeru San Gabriele; 3/4: egiñikan guardia; 3/5: Portalope batian; 4/4: zituzten giatu; 4/6: ziraden presentatu; 4/8: zituzten errezibitu; 5/1: Mesias jaio zala; 5/2: zanian zabaldu;

7/5: Jaungoikuak artarako; 8/1: Maria Santisima; 10/1: Or amazazpi bertso.

\* \* \*

Soraluzeko Ramiro Larrañagaren fotokopia:

Ordena, San Martin jaunak bezela.

Aldaketak: 2/1: Aingeru San Gabriele; 4/4: zituzten giatu; 5/1: Mesias jaio zala; 5/2: zanian zabaldu; 7/5: Jaungoikuak artarako; 8/1: Maria Santisima; 10/1: Or amazazpi bertso.

Aurretik, berriz, oar auek:

*«Una de las más antiguas canciones de Navidad que se cantaban en Soraluze - Placencia de las Armas (Guipúzcoa).*

*De los diecisiete “bertsos” que, al parecer, tenía, sólo diez han sido recordados por las pocas personas que los sabían».*

Eta azkenik:

*«Placencia, 7 de Diciembre de 1960».*

# Jesusen jaiotzako kantak

«Abenduaren oi ta laubian...»

---

1  
Abenduaren oi ta laubian  
artzaiak mendiyán,  
ardiyái kontu iten  
neguen erdiyan;  
aingeruen boza bat  
zuten gau erdiyan:  
Mesias jaio zala  
Belengo erriyan.

2  
Abiatzen dirade  
al dan lasterrena,  
arkume banarekin  
mendiyan barrena;  
eztakite nondik dan  
biderik onena,  
izar bat asten zaie  
aurrian barrena.

3  
Izarrak esan diye  
segitzeko arri,  
ez kasoik egiteko  
besten esanari;  
Belengo atariyan  
egin zaie jarri,  
aingeruak asi ziran  
gloria kantari.

4  
Allegatu ziranian  
al dan lasterrena,  
gabonak eman eta  
artzaiak barrena;  
ikusi zutenean  
askan zegoana,  
presente egin zioten  
arkumetxo bana.

5  
Jaungoikoaren Semea  
aska batian dago,  
soberbien indarrik  
izan ez dein gero;  
neguaren erdiyan  
ikulluan dago,  
gu salbatzeagatik  
etorriya dago.

6  
Neguaren erdiyan  
siaskarik gabe,  
ikullu zar batian  
guztion Errege,  
zeru, lur, itxaso ta  
gizon guztin jabe,  
zeñ egongo ote da  
orrei kanta gabe?

7

Jose, ekarri zazu  
sortatxo bat egur,  
Aurra otzak dago ta  
berotu dezagun;  
narru gorrian dago  
Aurtxua abendun,  
erropa asko biar du  
berotzeko negun.

8

Gure Salbadorea  
dago narru gorrik,  
berotu egin dute  
astoak eta irik;  
guk ere kanta zangun  
belaunikaturik,  
Aurtxo jaio berriya  
ola ikusirik.

9

Jaungoikoaren Semea  
ganaru tartian,  
Belengo portaleko  
ekullu batian;  
mundu ontan guztiyok  
gauden bitartian,  
adoratu biar degu  
guztiyok batian.

10

Lenengo gurasuak  
pekatu egitian,  
munduba geratu zan  
soberbiz betia;  
Jaungoikoaren Semea  
gizon egitia,  
oinbeste gugatikan  
umillat.....

11

Alegiña eginda ere  
ez degu pagatzen,  
beraren obra onak  
asi ezkerokontatzen;  
ogei ta amairu urtean  
egon zan bizitzen,  
azkenean gugatik  
gurutzean il zen.

12

Ate-ondokuentzat  
dezu zuk erruki,  
ondo portatu zera  
zu, bai, gaur gurekin;  
Jaungoikoa gerta dedilla  
munduban zurekin,  
il da gero joateko  
zerura berakin.

Bertso auek, izenburu orrekin, Orion jaso genituan, eskuz idatzitako kuaderno batetik. Kuaderno ori oriotarren batek idatzia zan; eta gure eskuetan jarri zuan, atzera itzultzekotan.

Bertsoak noizkoak diran ez da esaten. Ez-eta nork jarriak diran ere. Bertako bertsolariren batek agian, Orion bertsolari-paltarik bein ere ez da izan eta.

---

<sup>1</sup> 10/8 lerroa ezin degu osorik irakurri. Bearbada *umilla gaitian* edo *umillatutzia*, azkeneko au oso puntu aberatsa ez bada ere.

## Jesusen jaiotza

«Berri onakin gera...»

---

1

Berri onakin gera,  
jentiak etorri,  
aingeruak zeruti  
digute ekarri;  
ain da zoragarriya  
enbajada ori,  
geuk ere eman biar  
deutseguz alkarri.

2

Oindioko esana  
egija klaro da,  
aingeruaren esanik  
ez baiteke duda;  
ezin geijagoraño  
guretzat ona da:  
Jaungoikoaren Semia  
gaur dator mundura.

3

Zori oneko gaba  
zaiguna etorri,  
ditxa pare gabia  
nork lezake neurri?  
Berri onak ematen  
asi gara gaurti,  
biyar zelabratzeko  
Pazko Egubarri.

4

Aur oneta pasa deigun (*sic*)  
egun andi ori,  
alabantzak emanaz  
zeruko Erregeri;  
onek merezi dituz  
baten lekuan bi,  
berorren etorrera  
santifika bedi.

5

Adan eta Ebaren  
uts egiñakgaitik,  
desterratuak gaude  
gu Paradisuti;  
balle triste onetan  
egon biar beti,  
etorten ezpazaigu  
Mesias zerutik.

6

Profetak eman zuten  
aditzen lenago;  
«Mesias prometitua  
etortzeko dago».  
Aingeruak autortu zuten  
zer nola dan klaro:  
dontzella bategandik  
biar zala jαιο.

7

Gugaz errukiturik  
Jaun benerabilia,  
enbra bat kriatu dau  
ain soberania;  
Maria pekatuaren  
mantxarik gabia,  
zugandik jaio biar da  
gure Salbadoria.

8

Ditxazko gizon Jaunak  
zeruan nonbratua,  
munduko gizonentzat  
ezin obagua;  
señaletzat dauko  
eskuan loratua,  
ditxazko gizon Jaunak  
errebelatua.

9

Jose eta Maria  
dira esposatu,  
orri bere diote  
kontura entregatu.  
Jaungoikuaren Semia  
Mariak beregandu,  
Aur orri diozula  
ondo kontu artu.

10

Galilean daukazu  
familia ori,  
Zesar enperadore  
duela agintari;  
ordena eman diote  
ango jentiari:  
beriala errebistara  
presente egin bedi.

11

Errebista eginda  
gaba etorri da,  
aiñ zan ikusgarriya  
ango jente-pilla;  
beste diren guztiyak  
alojatu dira,  
Jose eta Maria  
ostaturen billa.

12

Amazazpi etxetan  
egin dute oles,  
gaurko alojamentu  
izango dan galdez;  
ainbeste abitantetan  
lekurik eman ez,  
Josepe triste dago  
penaz ta doloz.

13

Ateratu ziraden  
kalian kanpora,  
erretiratu ziran  
estalpe batera;  
gaurko alojamentuz  
an doiaz jartzera,  
astuaren ta idiyen  
lastuen artera.

14

Estrabilla onetan  
Jose ta Mariya,  
emen pasatu zuten  
euren afariya;  
allegatu zitzaian  
gabaren erdiya,  
Jesus irugarrena  
zuten fameliyan.

15

Askatxo batian da  
lastua berogarri,  
orrelan da mundura  
infante eder ori;  
beruaren egillia  
izanik berori,  
aberien artian  
pobre bat diruri.

16

Gaba izanagaiti  
bada emen argiya,  
zerutik etorri da  
ain ikusgarriya;  
narru gorriyan dago  
Aur jaio berriya,  
arnasaz berotzeko  
astua ta idiya.

17

Artzaiak arkumekin  
mendia barrera,  
aingeruak abisaurik  
or datoz Belena,  
nun da nola dan jaio  
Jesus Nazarena,  
oraindik mundura danik  
aurrik ederrena.

18

Aingeruen esana  
artzaiak mendian,  
ongiro sartu zuten  
gure memorian;  
salto ta brinko datoz  
gabaren erdian,  
ardiak utzirikan  
euren artegan.



19

Allegatu ziranian  
infante orrengana,  
presente egin zioten  
arkumetxo bana;  
ondo ezagaturik  
gau au ona zana,  
Aur onek badu ala-  
bantzak nork emana.

21

Ez du iñok ikusi,  
ez diteke jaio  
ama dontzella dala  
semerik geiago;  
infante orren ama  
beti alan dago,  
kristelik ederrena  
baño garbiyago.

20

Zeruetarrak asi ziran  
musikiaz jotzen,  
aingeruzko pilla bat  
gloriaz kantatzen;  
artzaiak belauniko  
Jesus adoratzen,  
Jose eta Maria  
begira zoratzen.

22

Orrelan jaio zaigu  
Aur ori Belenen,  
ori ere sinisten degu  
ikusi baño len;  
adoratu dezagun  
biotzetik emen,  
gero bizi gaitezen  
alkarrekin, amen.

Bertso auk *Imp. de Fernández y Diego - Eibar* moldiztegian argitara emandako paper batetik ditugu.

Noiz eta nork jarriak diran ez du paperak esaten, eta ori somatzeko biderik ez degu guk beintzat ikusten.

Izkera erdia bizkaiera eta erdia gipuzkoera da. Ala ere, bertso auk bi tokitan jaso dira jendearen aotik, eta biak Gipuzkoan: Ataunen eta Astigarretan.

Bertso auk ere, Gabon-gauaz atez ate kantari eta eske ibiltzeko mol-  
datuak dira; eta Astigarretan ala egiten omen zan. Ataunen, berriz, Urte  
Zaar gauean kantatzen omen ziran.

\* \* \*

Bertso-sail au *Anuario de Eusko-Folklore 1922* urtekarian ere agertu zan, Bizkaian jasota.

Baiña ez bertso guziak, banaka batzuk baizik, beste era batera ordenatuak eta aldaketa askorekin. Orregatik, danak jartzen ditugu emen:

1/1-4

Berri onakiñ gera  
jentia etorri,  
aingeruak zerutik  
digute ekarri.  
*Maria y Jose*  
*Jesus Maria.*

3/5-8

Geuk ere emon biar degu  
geuk ere alkarri,  
bijer zelebratzeko  
Pazko Eguarri.  
*Maria i Jose...*

4/1-4

Pasatu biar degu  
egun andijori  
alabantzak emoten  
zeruko erregeri.  
*Maria i Jose...*

4/5-8

Orrek merezi ditu  
baten lekuen bi,  
berorren etorrera  
santifikeu bedi.  
*Maria i Jose...*

10/5.8

Ordenak emon diote  
ango jentieri,

Belen'en errebista  
presentatu bedi.  
*Maria i Jose...*

11, 5-8

Beste diraden guztijak  
alojatu dire;  
Josepe ta Mariye  
ostatuen bille.  
*Maria i Jose...*

12/1-4

Amazazpi etxetan  
egin dute oles,  
alojamenturikan  
ixengo ete dan galdez.  
*Maria i Jose...*

12/5-8

Ainbat bittartetan  
lekurik emon ez!  
Josepe triste dago  
penaz eta dolorez.  
*Maria i Jose...*

13/1-4

Kaletikan kanpora  
dirade atera:  
erretiratu dire  
estalpe batera.  
*Maria i Jose...*

13/5-8  
Gaurko alojamentuz  
an doaz jartzera  
astoa ta idijen  
lastoen artera.  
*Maria i Jose...*

14/5-8  
Allegatu zigutzen  
gabaren erdijen,  
Jesus irugarrena  
degu familijen.  
*Maria i Jose...*

16/1-4  
Gaua ixenagaitik  
bazan an argije;  
zerutik etorri de  
bai ikusgarrije!  
*Maria i Jose...*

16/5-8  
Abilien daukagu  
Aur jaijo-parrije;  
arnasaz berotzeko  
astoa ta idije.  
*Maria i Jose...*

5/5-8  
Balle triste onetan  
egon bier beti,  
etorri ez-palixkaku  
Mesias zeruti.  
*Maria i Jose...*

\* \* \*

Sail ontako zenbait bertso, Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman aurkitu ditugu.

Ataungo Jokin Dorronsoro jaunak bialdu zizkion, azalean *Poesías Populares*, 1933 idatzita daukan sobre batean.

Bertso oiek onako auek dira: 1, 2/1-4, 3/5-8, 4, 5, 6/1-4, 10, 11, 12, 14, 15/1-4, 21/5-8, 20 eta 22/5-8.

Izenburua: Urte zar.

Aldaketak: 1/5: guk ere eman biar; 1/6: diogu alkarri; 1/7: ain da zo-ragarria; 1/8: imajiña (ori); 2/1; Oraingo notizia; 2/3: aingeruaren esana; 2/4: ez liteke duda; 3/5: egun onak ematen; 3/6: asten gera gaurtik; 3/8: ona Urteberri; 4/1: Pasatu biar degu; 4/7: beraren etorrera; 5/1: Adanek eta Ebak; 5/3: desterratuak gera; 5/7: ez bazaigu etortzen; 6/1: Profetak aditza; 6/2: eman zuen lenago; 10/1: Galilean dagoen; 10/3: zeru-lurren en-

peradore; 10/4: dago agintari; 10/5: ordena eman zien; 10/7: Belena erre-  
bistara; 10/8: presentatu bedi; 11/1: Errebista pasata; 11/2: etorri da gaba;  
11/6: erretira dira; 12/2: egin dute galdez; 12/3: alojamenturikan; 12/4:  
izango zan galdez; 12/7: Josepe triste dago; 14/3: antxe pasatu zuten; 14/4:  
beren aparria; 14/5: allegatu danean; 14/8: zuten familia; 15/2: lastoa bi-  
gungarri; 15/3: antxen jaioa degu; 20/1: Zerutarrak ai dira; 20/2: musikea  
jotzen; 20/4: gloriak kantatzen; 21/6: beti orla dago; 21/7: kristalik gar-  
biena.

Eta ondoren argibide jakingarri au: «Urte zar egunean Ataunen abes-  
tutzen dute».

\* \* \*

*Aitzol* zanaren bilduman dauden bertso oietzek, *Argia* astekarian ere  
agertu ziran, 1934.10.07-an. Itxura danez, iturri beretik datozen urak dira.  
*Argia*-ra ere Jokin Dorronsoro jaun orrek berak bialduko zituan.

Aldaketak: 1/8: mensajero ori; 3/8: asten gera gautik; 3/8: danok urte  
berri; 10/3: zeru-lurren nagusi; 11/5: beste jende guztiak; 12/2: egin zuten  
galdez; 14/1: Estrabia orretan.

\* \* \*

*Aitzol* zanaren bilduman, 1936 urtean bialdutako bertsoen artean, gai-  
ñean *Aitita malutakoren abestiak* idatzita daukan sobre batean, sail onta-  
ko zenbait bertso arkitu ditugu: 1, 3, 4, 5, 12, 20/1-4 eta 22/5-8.

Aldaketak: Izenburua: Gabonetakoa; 1/5: eman bear diegu; 1/6: guk  
ere alkarri; 1/7: ain da zoragarria; 1/8: enbajada ori; 3/4: noblezakin neu-  
rri; 4/1: Pasatu bear degu; 4/3: biar zelebrazteko; 4/4: egun aundi ori; 4/5:  
arek merezi ditu; 4/7: beraren etorrera; 5/2. utsegiteagatik; 5/4: gu parabi-  
sotik; 12/2: egin degu joles; 12/3: alojamenturikan; 12/5: ainbeste abitan-  
te ta; 12/7: Josepe triste dago; 20/1: Zerutarrak asi dira; 20/3: aingentalde  
bat; 20/4: Belenen kantatzen; 22/7: gero izan gaitezen.

Eta bertsoak nun jasoak diran adierazten duan argibide jakingarri au:  
“Astigarretan”.

\* \* \*

Itsasondoko Jesus Lete *Ibaiertz* jaunak gabon-kanta auen beste era bat argitaratu zuan *El Diario Vasco* egunkarian, 1995-XII-12-an, *Gabonetako kanta zaarrak* izenburuarekin

Aurretik argibide batzuk ematen ditu. Oietako bat, berak bertso aukeratuak dituan. Ataungo Juan Dorronsoro-k bialdu omen zizkion. Gabon-kanta auen bi era iritxi zaizkigu, beraz, Goierriko erri ortatik: bata Jokin Dorronsorok bialduta; bestea, bertso geiago duala, Juan Dorronsoro onek.

Ala bear dualakoan, bigarrenko au osorik eskeiñiko degu emen. One-la dio Jesus Lete adiskideak:

«Aurten 50 urte bete dira, ataundar Juan Dorronsoro nere adiskide fiñak, nere eskariz ondorengo kantu zaar oek eman zizkidala. Gaur nainko aaztuak badaude ere, gure errian, Itsasondon, arrakasta aundia izan zutelarik, itsasondotar batzuek, kanpo errian bizi direnak, Gabon inguruan eskatzen dizkidatelako, gaur DVn argitaratzea erabaki det. Ara no-la diren:

Berri onakin gera,  
jendeak, etorri,  
aingeruak Zerutik  
digute ekarri.

Egun onak ematen  
asten gera gaurtik,  
biar zelebrazteko  
Pazkua Eguarrik.

Guk ere eman bear  
diegu alkarri,  
ain da zoragarria  
enbajada ori.

Pasatu bear degu  
egun aundi ori,  
alabantzak ematen  
Zeruko Erregari.

Oraingo notizia  
egia klarua,  
aingeruaren esana  
ez liteke duda.

Adan eta Ebak  
uts egiñagatik,  
desterratuak gaude  
gu Paradisotik.

Onek merezi ditu  
baten lekuan bi,  
beraren etorrera  
santifika bedi.

Balle triste onetan  
egon bear betik,  
ez bazaigu etortzen  
Mesias Zerutik.

Profetak aditzera  
eman zuen lenago,  
Mesias prometitua  
etortzeko dago.

Galilean daukagu  
guk famili ori,  
Zesar enperadore  
dutela agintari.

Ordena eman zien  
ango jendeari:  
beraren errebixta  
presentatu bedi.

Errebixta pasata  
etorri zan gaua,  
ain zan ikusgarria  
ango jende pilla.

Bildu ziran guztiak  
erretira dira,  
Jose eta Maria  
ostatuaren billa.

Amazazpi etxetan  
egin zuten joles,  
alojamenturikan  
izango zan galdez.

Ainbeste abitantetan  
lekurik eman ez,  
Josepe triste dabil  
pena ta dolorez.

Josek esaten dio  
bere Mariari:  
«Estalpe bat badakit  
eta segi neri».

Portaletik kanpora  
estalpe batian  
an alojatu ziran  
abere artian.

Iskanbilla orretan  
Jose ta Maria,  
antxen pasatu zuten  
beren afaria.

Allegatu zanean  
gauaren erdia,  
Jesus irugarrena  
zuten familia.

Askatxo baten dago  
lastoa bigungarri,  
antxe jaioa degu  
Infante eder ori.

Gaueko amabiak  
jo duten orduan,  
gure Salbatzallea  
jαιο da munduan.

Belengo portaleko  
estalpe batian  
umil jαιο da Jesus  
ganadu artian.

Astoa ta idia  
dauzka aldamenian,  
arnasaz berotzeko  
oztutzen danian.

Zeru lurren Jabea  
izanaz beori,  
abere oien artean  
pobre bat dirudi.

Infante orren ama  
beti ola dago,  
kristalik ederrena  
baño garbiago.

Kristalean argia  
garbi da pasatu,  
len eta geroz ere  
donzella geratu.

Zerutarrak ai dira  
musikea jotzen,  
aingeruzko pillo bat  
gloria kantatzen.

Artzaiak belauniko  
Jesus adoratzen,  
Jose eta Maria  
begira zoratzen.

Guk ere adora zagun  
biotzetik emen,  
gero bizi gaitezen  
alkarrekin amen.

Irakurle: Zuk ere ikasi eta kan-  
tatu gogoz, jendea alaitzeko. Ga-  
bon eta Urte Berri On!».

\* \* \*

Bizkaiera eta gipuzkera naasturik zebiltzala esan degu Gabon-kanta auen leenengo eragatik. Gaiñontzekoetan, berriz, gipuzkera bakarrik aurkitzen degu.

Orregatik, gure iritzia auxe da: bertso auek gipuzkoar batek jarriak izango dirala, eta ondoren Bizkairaiño ere zabalduak. Baiña etzaizkigula iritxi jartzaille orrek jarri zituan bezelaxe, orain arte beintzat, baizik-eta Ataunen norbaiten buruan gorde ziran bezela, eta bai ere Bizkaiko kutsua artuta, ango buelta egin ondoren. Bertso-paper jatorra azalduko al da egunen batean!

## Egoarritako kantak

---

1

Jose eta Maria  
Eguarri bezperan  
Belengo ziudadian  
allegatu ziran.  
Ordurako gaixuak  
kantsatuak ziran,  
bañan ostatuik gabe  
an gelditu ziran.

2

Orduan esan zion  
Josek Mariari:  
«Eztigu ostaturik  
iñork eman guri;  
estalpe zar badakit  
eta segi neri,  
antxe deskantsatuko  
zera triste ori».

3

Portalepean sartu  
asto iriak, in,  
etzuten oi zuririk  
eraman berekin;  
antxen konpondu ziran  
ganbelako ondarrakin,  
ala ere kontentu  
pobreza arrek.

4

Ganbelan pararikan  
astoa ta iria,  
aien ondoan zeuden  
Jose ta Maria.  
Orazioa zuten  
bien afaria,  
artan ekarri zuten  
ia gau erdia.

5

Birjiña erregutzen  
gauaren erdian,  
belauneko jarririk  
umildade aundian.  
Bere Seme egizkoa  
ikusi naiean,  
nola munduratu zan  
instante batean.

6

Amak ikusi zuan  
Semea jaiorik,  
sekulan autsi gabe  
birjiñatasunik,  
eguzkiya pasata  
kristala osorik,  
izan gabe korputzak  
batere dañurik.



7

Gaur da, kristau neriak,  
zeru-lurren festa,  
goazen guztik Belena  
Jesus jaio da ta.  
Aingeruak zebiltzan  
soñu jo ta dantzan,  
pozaz zoraturikan  
artzaiak saltoka.

9

Goazen, goazen guztiyok  
Aurtxo orrengana,  
adoratuta egin  
ofrendatxo bana.  
Bitarteko pararik  
gure Ama ona,  
berak emango digu  
komeni zaiguna.

8

Millaka aingeruak  
daude zeruetan  
kantatzeko alabantzak  
pozaz beterikan.  
San Migel emen dago  
guztion kapitan,  
fediaren batalla  
irabazirikan.

Bertso auek Alegin eskuratu genituan, bertako Itxausti familiaren pa-  
peretan, makinaz idatzitako orri batean.

Bertso geiago ere izango ziran bearbada; baiña auek, norbaitek buruz  
ikasita zeuzkanak izango dira.

Orren ezaugarriak dirala esango genduke: testuaren zalantzak eta na-  
aspillak, alegia.

7/6 lerroan *soñu jota dantzan* irakurtzen da. Ez da ondo ezkontzen  
bertsoaren beste puntuekin. Ala, beste iturri batek *soñu eta kanta* dio, eta  
orrela askoz obeto dago.

8/7 lerroan *batallaren fedia* esaten du; baiña dudarik ez da *fedearen*  
*batalla* bear duala.

Leenengo bertsoa, or gorago jarri degun beste sail baten leenengoa da;  
itzez itz ia berdiña.

\* \* \*

Joakin Dorronsoro apaiz jaunak sail ontako bertso batzuk Zegaman bildu zituan, eta 1935-ean *Aitzol* zanaren bildumara bialdu.

Lau lerroko bertsoak idazten ditu onek, beste ordena batean eta oso aldatuta. Orregatik dauden bezela eskeintzen ditugu:

7/1-4

Gaur da, nere kristauak,  
zeru-lurren pesta;  
guazen guztiok Belena  
Jesus jaio da ta.

2/1-4

Orduan esan zion  
Josek Mariari:  
«Ez digute ostaturik  
eman nai guri.

7/5-8

Aingerutxoak dabiltz  
soñu eta kanta,  
pozaz zoraturikan  
artzaiak brinkoka.

2/5-8

Estalpe bat badakit  
eta segi neri,  
antxen deskantsatuko  
zera triste ori.

1/1-4

Jose eta Maria  
Eguarri bezperan  
Belengo ziudadea  
allegatu dira.

4/1-4

Ganbelan paraturik  
astoa ta idie,  
oien ondoan zeuden  
Jose ta Marie.

1/5-8

Ordurako tristek  
nekatuak ziran,  
bañan ostatu gabe  
an gelditu ziran.

4/5-8

Orazioa zuten  
bien aparie,  
artan ekarri zuten  
ia gau erdie.

3/3-6

Etzuen eramanik  
oi zuririk erekin,  
antxe konpondu ziran  
lasto ondarrakin.

5/1-4

Birjiña erregutzen  
umildade aundian,  
bere Seme eguzkie  
ikusi nayian.

5/7-8

Orra nun mundura dan  
instante berian.

Berriak:

Jesus jaioa da ta  
kotsola gaitian.

Adios, jente noblea,  
beste bat artean,  
limosna on bat orain  
guztion artean,  
naiago nuke orain banengo  
urrengo atean.

\* \* \*

The image shows a musical score for a song. It consists of five staves of music, all in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The music is written in a single melodic line. The first staff begins with a treble clef, a B-flat key signature, and a 3/4 time signature. The melody starts on a whole note G4, followed by quarter notes A4, B4, and C5. The second staff continues with quarter notes D5, E5, and F5, followed by a half note G5. The third staff starts with quarter notes A5, B5, and C6, followed by quarter notes D6, E6, and F6. The fourth staff begins with quarter notes G6, A6, and B6, followed by quarter notes C7, D7, and E7. The fifth staff concludes with quarter notes F7, G7, and A7, followed by a half note B7. The piece ends with a double bar line.

Azkoitin jaio eta Zarautzen bizi zan Patxi Larrañaga edo Patxi Barbero bertsolariak bertso auen doiñua eman zigun, saillaren bigarren bertsoa kantatuz. Magnetofonotik paperera solfeoz pasa duana, Donostiako Iñaki Karkamo adiskidea izan da:

Sail ontako zenbait bertso eskuz idatzitako paper zaar batean ere aurkitu ditugu, beste sail batzuetako zenbait bertsoekin; XIX mendekoa izango da, dudarik gabe, paper ori.

Orritxo ori anai jesuita batek eman zidan, Oñan geundela, 1956.11.13-an. Anai Manzisidor zan bera, Zumaiaiko baserri batekoa.

Berrogei ta amar bat urte aurretik, osaba bat ba omen zuan berak San Migel Artadiko elizan kantore zana, eta aren liburuetan azaldua omen da paper ori.

Bertsoak orri ortan naiko aldatuta daude eta osorik eskeiñiko ditugu:

1

Jesusa jaio zaigu  
gaber diz Belenen,  
adoratu dezagun  
kristauak lenbailen;  
Erregien antzera  
presenta gaitezen,  
gero negarrez beti  
egon ez gaitezen.

2

Gaur da, nere kristauak,  
zeru-lurren festa,  
guazen guziok Belena  
Jesus jaio da ta;  
aingeruak dabilta  
soñu eta kanta,  
pozaz zoraturikan  
artzaiaik brinkoka.

3

Jose eta Maria,  
Eguarri bezperan,  
Belengo portalian  
allegatu ziran;  
ordurako gaixuak  
nekatubak ziran,  
baña ostatuik gabe  
an gelditu ziran.

4

Amazazpi etxetan  
egin degu oles,  
alojamenturikan  
izango zan galdez;  
ainbeste abitantetan  
lekurik eman ez,  
Josepe triste dago  
penaz ta naigabez.

5

Orduan esan zion  
Josek Mariari:  
«Ez digu inork eman nai  
ostaturik guri;  
estalpe bat badaukat,  
segirazu neri,  
antxen deskantsatuko  
zera triste ori».

6

Gaberdia izanda're  
txoria kantatzen,  
bildots jaio berriak  
guziak dantzatzen;  
astua ta idia  
asnasaz berotzen,  
zerutik aingeruak  
gloriak kantatzen.

7

«Jose, ekar zadazu  
txortatxo bat egur,  
Aurra otzak dago ta  
berotu dezagun».  
«Ez du, ez, otzak ilko,  
Birjiña Maria,  
berotzen ari zaika  
astua ta idia».

### **Estribilloa**

Artzaiak datoz  
salto ta brinko  
mendien barrena,  
Jesus adoratzera  
al dan laisterrena.

\* \* \*

Donostiako Antonio Arzak zanak, *Euskal Erria* aldizkarian, 1882 urtean, idazkitxo bat agertu zuan, onela esanez:

«Jesus

Artzaiak datoz  
salto ta brinko  
mendiak barrena,  
Jesus adoratzera  
al dan lasterrena.

Nere txikitako kanta au datorkit burura, eta malkoa begira...  
1882-ko Abenduan».

XIX mendearen erdi aldera kantatzen zana degu, beraz, estribillo edo kantarte au.

\* \* \*

Irunen jaio eta Sorraluzen bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanak idazkitxo au bialdu zuan *Aitzol* zanaren bildumara:

«Ondarrabin oso antziñatik baserri danetan abesten zana:

*Niño chiquito hermoso,  
Jaungoiko aundiya,  
serás por muchos años  
ongi etorriya.*

*A la poca, la poca, la poca,  
María consolada;  
no te fies, José,  
no te fies por nada.*

«Meltxor. ekar zaidazu  
zamatxo bi egur,  
Aurra otzak iltzeko  
oso gera bildur».  
«Aurra ez otzak ilko,  
Birjiña Maria,  
Aurrak berekin dauka  
dibinidadia».

«*Deo gratias, buena gente...*»

---

1  
*Deo gratias, buena gente,*  
guztioi Gauon-gauean,  
Belendik gatoz kontsolaturik  
Jesus jaio danean.

2  
Ai au gauaren zoragarria,  
jaio da Jesus Belenen!  
Pozaren pozaz etorri gera  
kantatutzero gaur emen.

3  
Agur, agur, jente nobleak,  
berri on bat dakargu;  
atentzio bat eduki beza  
iñork aditu nai badu.

4  
Adan da Ebak egin zutean  
Paradisuan pekatu,  
gure nekeak (ta) trabajuak  
andikan ziran gertatu.

5  
Jaun Zerukoak berealarik  
ordutik zuen pentsatu  
denborarekin biarko zala  
beste Ebaren bat kriatu.

6  
Eba ederra Birjiña zala  
zorionen bat lasatu,  
aren entreña garbietan  
zuen gorputz bat formatu.

7  
Len eta gero dontzella garbi  
betiko izan zan gelditu,  
Adan berri bat izan zedin  
izaz mundue libratu. (*sic*)

8  
Adan berri bat gaurko gauean  
mundura etorri zaigu,  
lengo Adanekin Ebaren gaitzak  
nai zituala sendatu.

9  
Eba eder oi Joseperek  
Belenen degu topatu,  
ango estalpe pobre batean  
eman ziguten ostatu.

10  
Estalpe pobre onetan zeuden  
Jesus, Maria ta Jose,  
gure munduaren ejenplorako  
berak nai zuten alaxe.

11  
Jaungoikoaren Seme bakarra  
gaur gauaren erdian  
Belengo portalepean dago  
jaiorik narru gorrian.

12  
«Birjiña Ama Andrea,  
ai ori umildadea!  
Narru gorrian nola daukazu  
zeruen da lurren Jabea?»

13  
«Nere esposo justue,  
eidazu nere mantue,  
estali dezan entreñetatik  
jaio dan orren frutue».

14  
Jesus dultzea mundura zaigu  
pobreza aundi batekin,  
astoarekin, idiarekin,  
ollarraren soñuan.<sup>1</sup>

15  
Arnasarekin berotzen zuten  
astoak eta iriak,  
mantuarekin estali zezan  
Aurra Birjiña Mariak.

16  
Aurtxo ederra kontsolatzen du  
ollarraren soñuak,  
zereorrek zenduzkan beti presente  
gure munduko dañuak.

17  
Aingeru batek abisatu dit:  
«Artzai ona, mendian  
jaio dan aurra adoratzer  
gatoz gau onen erdian.

18  
Jesus dultzea gizon egin zan  
mundu onetan gugatik,  
gure penaren kontsuelua  
ekarri digu zerutik.

19  
Aditu dezu nola jaio zan  
gure Jabea pobrezan,  
ikasi zazu ejenplo ori,  
ez da geiago zer esan.

20  
Izarrak dira mudatu,  
mundu guztia argitu,  
gure Jesus nola jaio dan  
guk bear degu sinistu.

21  
Pazkoak biok onela,  
Jesus Aurraren ederra!  
Zeruen da lurren Jabea da ta  
nola litzake bestela?

22  
Gaurko gau oni Gauon deritzon,  
emen gabiltza dolorez,  
oñak busti, eskuak oztu,  
iñork ezer eman ez:  
karidade bat eskatzen degu  
jaio dan orren amorez.



Bertso auek Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman arkitu ditugu, *Poesías populares - 1933* izeneko zorroan, Ataungo Joakin Dorronsoro jaunak bialduta.

Bertsoen ondoren argibide au ematen da: Abesti au urtero abestutzen dute Ataunen.

Era au da danetan osoena. Orregatik jarri degu bera beste guzien aurretik, naiz eta zaarrena ez izan.

\* \* \*

Itzaurrean esan degunez, Alfonso María Zabala apaiz jauna zanak (1847-1919) *Gabon gau bat* ipuia bialdu zuan Donostiako Lore-jokoetara 1887 urtean, saria irabaziz. Ipui ortan bi gabon-kanta eskeintzen ditu. Oietako bat, azaltzen ari geran kanta onekin zer ikusirik duana, asieran beintzat. Ona emen:

Agur, jente noblia,  
berri on bat dakargu,  
atentzioa eduki beza  
iñork aditu nai badu.

Adan da Ebak egin zuten  
paradisuan pekatu,  
gure neke-pena guztiak  
andikan ziran gertatu.

Ikusi zuan Jesus maiteak  
gizona oso galdua,  
Betiko Aitak asarraturik  
itxi ziola zerua.

Orduan, bada, eskatu zion  
guretzat barkazioa,  
gurutzetikan emango ziola  
Berak *satispazioa*.

Eskeñi zuan etorko zala  
gizona salbatutzera,  
gure kulpa ta pekatuak  
bere gañean artzera.

Jesus emen da Salbatzalea  
munduan bear zuana,  
umil ta pobre larrugorrian  
datorkigu guregana.

Ez du berezi jauregirikan  
mundura argitaratzeko,  
estalpetxo bat tellatu gabe  
arkitu du jaiotzeko.

Egon zaitzte, kristau nereak,  
egon zaitzte sosegu,  
Jesus Belenen jaiou da eta  
pozkidaz bete bear degu.

Etxe ontako nagusi,  
itz oek ondo ikasi:  
limosna on bat ekarri beza  
baldin badegu merezi.

Gabon ontxo bat igaro beza  
pamili guziarekin,  
beste bat arte, bagoaz orain  
zure limosna onarekin.

\* \* \*

Felipe Ayerbek idazlan bat argitaratu zuan *Gabon-gaba ta Egoarriak* izenarekin, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1915 urtean.

Lan ortan sail ontako zenbait bertso eskeintzen ditu: 3, 4, 5, 6/1-2, 7/1-2, 8, 9, 10, 13, 16, 17 eta 11-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 3/1: Agur bai oste urena (noblea); 3/2: guk berri on bat da-kargu; 3/3: jaramona ar beza zintzoki; 4/1: Adan da Ebak egin zuten; 4/2: Eden baratzan pekatu; 4/3: gure neke arazoak; 5/1: Jaun Zerukoak ordutik zuan; 5/2: antxi antxika oldoztu (pentsatu); 5/3. Eba berri bat bearko zula; 5/4: iñoiz aldiari eraldu; 6/1: Eba berria Neskutsarekin; 6/2: zunian egin du; 7/1: len eta gero Neskuts garbia; 8/1: Adan berri bat izandu zedin; 8/2: Neskutsa zuan amatu; 8/3: Adanerekin Ebaren gaitzak; 9/1: Eba ederra Jo-seperek; 9/3: oien txiro ta apaltasunaz; 9/4: biziro gera arritu; 10/1: Be-lengo abere estalpean; 10/3: gere bizitzen erakusteko; 11/2: gaurko gaba-ren erdian; 11/3: entzun dezute nola jaio dan; 11/4: abere otxan tartian; 13/1: Nere emazte zuzena; 13/2: eiozu orri jantzia; 13/3: erraietaño estali dezan; 13/4: orain daukan billotzia; 16/1: Aurtxo eder au parrez jartzen du; 16/3: gorputz biguña berotzen dio; 16/4: idiak eta astuak; 17/1: Aingeru batek gaztigaturik; 17/2: artzai onai mendian; 17/3: jaio dan aur au agur-tutzer; 17/4: gatoz gabaren erdian.

Eta danen aurretik beste bi bertso auek:

Oles ta oles, lagun onak,  
gaur gera gaurko gauean,  
ai au gauaren zoragarria  
Jesus jaio danean!

Jesus gurea munduan dala  
esan digute Belenen,  
oitura ona galdu ez dedin  
gaur abiatu giñaden.

Esan bearrik ez dago norbaitek, agian Felipe Ayerbek berak, eskua go-gotik erabili duala bertso auetan, euskera *orraztearren* eta *garbitzearren*.

\* \* \*

R. M. Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 914 zenba-kian, onako koplak auek eskeintzen ditu, eta bai doiñua ere.

Emalea nor zan onela adierazten du: *De Plácido Arregi, de Ziordia*  
(*Burunda, AN.*)

Agur, agur, yende noblea,  
berri on bat dekargu:  
atentzio on bat iduki beza  
iñork aditu nai badu.

Ai, ai, ai, Amandrea!  
Ori da umildadea!  
Nola daukazun narru gorrian  
zeru ta lurren Yabea?

Adan da Ebak egin zutela  
Paradisuan bekatu.

*Allegro moderato*

A - gur a - gur, yen-de no - ble-a, be- rri  
on bat de- kar - gu, a - ten-tzi - oon bat i - du-ki  
beza i - ñork a - di - tu nai ba - du. A - dan da  
E-bak e - gin zu - te-la Pa-ra-di - su-an be-ka-  
tu. Ai ai ai A-man-dre - a — Ori da  
u - mil-da-de - a! No-la du - kazun na-rru go-  
rri - an ze-ru ta lu - rren ya-be - a.

Aita Frantzisko Etxeberria zanak, Andoainen jaso eta *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkarian 1924 urtean argitaratuak: 3, 4/1-2, 5/1-2; 5/3-4: 9/1-2; 13 eta 21-garren bertsoak azaltzen ditu.

Aldaketak: 3/1: Agur, agur, jende noblia; 3/2: guk berri on bat dakargu; 3/3: atentziyua eduki dezan; 4/1: Adan da Ebak egin zutela; 5/1: Jaun Zerukuak ordu artatik; 5/2: beriala zuen pentsatu; 5/3: Eba berrin bat denborarekin; 5/4: bearko zala kriatu; 9/1: Eba berria Joseperek; 9/2: Belenen degu billatu; 13/1: San Jose, gizon justua; 13/2: indazu arren mantua; 13/3: mantu berrian estal dezagun; 13/4: orain jaio dan frutua; 21/1: Egoarri biyar orrela; 21/2: Jesus aur orren ederra; 21/3: Birjiña Amaren Semea da ta; 21/4: nola liteke bestela?

Bai beste bertso auek ere bai:

Jesus, Jesus esango degu  
lendabiziko itzian,  
Jesuskristo izan dedilla  
beon ta gure etxian.

Goazen, bada, goazen,  
sartuko gera Belenen,  
Belenengo, Belenengo,  
Belenengo errian.

«Nora nai dezu, nora nai dezu,  
nora nai dezu, Josepe?».  
«Nik gaur Belena, nik gaur Belena,  
nik gaur Belena nai nuke».

Aingerutxuak dantzan zebiltzan  
kontsolazio aundian,  
astua eta idiarekin  
ollartxo baten erdian.

Aurretik, berriz, argibide auek ematen ditu:

«*La noche del 24 de Diciembre, un grupo de tres o cuatro mozos corre en cuestación las casas de su respectivo barrio. Los de una ballera o barrio rara vez hacen incursión por las casas que sean de otro barrio. El grupo de Goiburu, al acercarse al portal de una casa, canta los versos que transcribo abajo. El director del grupo canta una estrofa y los demás la repiten. El tiempo de la cuestación dura de diez de la noche hasta las tres o tres y media de la madrugada*».

Andoaingo Jose Antonio Loinaz-Otañoren paperetan ere azaldu dira bertso auek; baiña Aita Etxeberriak dituan bezela, ia aldaketarik gabe.

\* \* \*

*Anuario de Euskal Folklore* aldizkarian, 1933 urtean, sail ontako bertso batzuk agertzen dira, Itsasondoko Urkia baillaran jasota.

Aurretik, beste bertso au:

Joles ta joles, etxekotxoak,  
nik jotzen ditut atcak,  
nik jotzen ditut atcak eta  
ondo erantzun jendeak.

Ondoren, 3, 4, 5, 9, 10 eta 11-garrena, aldaketa auekin: 3/1: Agur da agur, jende nobleak; 3/2: berri onen bat dakargu; 3/3: atentzio on bat eduki beza; 4/3: gure neke eta trabajoak; 9/1: Eba ederra Joseperekkin; 9/4: eman zioten ostatu; 10/3: Estalpe pobre orretan zeuden; 11/1: Gure Jaunaren Seme bakarra; 11/2: gaurko gauaren erdian; 11/3: Astoarekin ta idiarekin; 11/4: ollarra bion erdian.

\* \* \*

Manuel Lekuona apaiz jaunak, bere *Aozko Literatura, Idazlan guziak I*, 439 orrialdean, sail ontako zenbait bertso agertzen ditu, Itsasondoko Urkia baillaran jasota: 3, 4, 5, 9, 10 eta 11-garrena.

Aldaketak: 3/3: Agur ta agur, jende nobleak; 3/2: berri onen bat dakargu; 3/3: atentzio on bat eduki beza; 4/3: gure neke eta trabajoak; 9/1: Eba ederra Joseperekkin; 9/4: eman zioten ostatu; 10/1: Estalpe pobre orretan zeuden; 11/1: Gure Jaunaren Seme bakarra; 11/2: gaurko gauaren erdian; 11/3: astoarekin ta idiarekin; 11/4: ollarra bion erdian.

Aurretik, berriz, beste bertso au:

Joles ta joles, etxekotxoak,  
nik jotzen ditut atcak;  
nik jotzen ditut atcak eta  
ondo erantzun jendeak.

\* \* \*

Ataungo Kreszentzio Imaz zanari sail ontako zenbait koplak jaso nizkion: 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7-garrena, aitatzerik merezi ez duten aldaketa batzuekin.

\* \* \*

*Deia* egunkarian, 1979-XII-23-an, Manuel Eguino-ren *Viejas canciones de Navidad en Elbarrena* idazlana agertu zan. Elbarrena ori Zizurkilkoa da.

Lan ortan sail ontako zenbait bertso ematen dira: 3, 4, 5, 9/1-2, 21 eta 13-garren bertsoak, ordena ortan.

Aldaketak: 3/1: Agur, agur, jende noblea; 3/2: guk berri on bat dakargu; 3/4: atenzio on bat eduki beza; 4/1: Adan ta Ebak egin zutela; 4/3: gure neke ta trabaju oiek; 5/1: Jaun Zerukoak ordu artatik; 5/2: beriala zuan pentsatu; 5/3: Eba berria denborarekin; 5/4: biarko zala kriatu; 9/1: Eba berria Joseperek; 13/1: San Jose gizon justua; 13/2: iguzu arren mantua; 13/3: mantu arekin tapa dezagun; 13/4: orain jaio dan frutua; 21/1: Pazkoak biak onela; 21/2: Jesus aur onen ederra; 21/3: Birjiña Amaren Semea da ta; 21/4: nola liteke bestela?

Bai ere beste bertso eta bertso-puska aukeratuak ere:

Jesus, Jesus esango degu  
lendabiziko itzian,  
Jesukristo sartu dedilla  
beron da gure etxean.

Nik gaur Belena, nik gaur Belena,  
nik gaur Belena nai nuke,  
goratzen bada goratzen  
sartuko gera Belenen.

Belenengo, Belenengo,  
oi Belenengo erria,  
aingerutxoak dantzan zebiltzen  
kontsolazio aundian.

Belenengo portaleko  
estalpe txiki batean,  
astoarekin idiarekin  
oiatxo baten erdian.

Jesus arnaska berotzen zuten  
ai au gabaren erdian,  
ai au gabaren zoragarria

Jesus jaio da Belenen.  
Etxe onetan sartu ote dan  
billa gabilza Beraren,

Jesukristo gure Jauna  
mundura jaio zanean,  
usai gozoak zabaldu ziran  
zeruan eta lurrian,  
zeruan eta lurrian,  
pazkoa bigarrenean.

Etxekoandre maitea,  
arren erruki zaitea,  
limosnarekin ez bada ere  
iriki eiguazu atea.

Emango bada, emazu,  
bestela ezetz esagu.

Limosna ere artu degu ta  
orain abia gaitian,  
adiosikan ez degu eta  
agur ikusi artian.

2/3 lerroa au beste onela esan bearko litzake: *goazen bada, goazen bada.*

\* \* \*

Zizurkilko Teodoro Mujikak zinta bat bialdu zigun kanta onekin, kantaria, bertako Serapio Mendizabal zala.

Letraren aldetik ez du onek aitatzerik merezi duen aldaketarik.

Baiña doiñua besteak ez, eta berak ematen digu:

The image displays a musical score for a piece in 2/3 time, D major (two sharps). The score is written on six staves of a grand staff. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a common time signature (C). The melody consists of eighth and quarter notes. The second staff continues the melody with some rests. The third staff also continues the melody. The fourth staff continues the melody. The fifth staff continues the melody. The sixth staff concludes the piece with a double bar line.

Itsasondoko Jesus Lete *Ibaiertz* adiskidea zanak *Joles ta joles*, *Gabon eskean* eta *Gabon koplak* izeneko bi idazlan argitaratu zituan *El Diario Vasco* egunkarian, 1986-XII-18-an eta 1992-XII-23-an, sail ontako bertso batzuk agertuz: 3, 4, 5, 9 eta 10-garrena.

Aldaketak: 3/1: Agur da agur jende nobleak; 3/2: berri onen bat dakargu; 3/3: atentzio on bat eduki beza; 4/3: gure neke ta bai trabajuak; 5/1: Jaun Zerukuak berialaxe; 5/4: Eba berri bat kreatu; 9/1: Joseperekín Eba berria; 9/4: eman zioten ostatu; 19/1: Estalpe pobre orretan zeuden.

Beste kanta asko ere bai. Baiña danak ere Santa Ageda bezperan-eta eskean ibiltzekoak.

Ortaz gaiñera argibide jakingarriak ematen ditu, 1986-XII-18-an:

«Bost-sei urte zituzten garaian gure erriko aurrek. Gabon abestiak kantatzen asten ziran. Beren etxepean edo inguruetako etxeetara egiten zuten beren lenengo irten alditxoak. Etziran etxetik geiegi urruntzen. Au zan beren abestia: «Beleren, bai, Beleren, / Jesus jaio da Nazaren, / Nazaren-go erria, / Gabon Gabonen erdia».

Gero, adiñean sartzen ari ziran eran, biña edo irunako taldeak osatzen zituzten. Mutillek –kontuan izan Itsasondorekin ari gerala– “Ogeitalaugarrena” abesten zuten; eta “Gaur da nere kristauak” neskatxek. Alderantziz bazan, mutillei “geldoak” deitzen zitzairen eta neskatxei “Mari mutillek”. Gerora, Don Benito Urteaga (G. B.), gure erriko apaiz zala, neska-mutillen taldeak eratu zitun eta abesti au erakutsi ere bai: «Arin, arin, guziok goazen, pozgarriz denok bete gaitzen...».

Illunabarrean asi eta gauean jarraituz, amasei urte ingurutik goragoko mutillek, kalez kale eta baserririk baserri, Gabon eskean irtetzen ziran. Berrekin izaten zituzten, laguntzaille bezela, filarmonika, eskusofua, dultzaiña edo panderoa. Urteen buruz abesti berri batzuek erriratu bazaizkigu ere, gure aurtzaro eta gazte denboran “Joles ta joles” zan puri-purikoa. Leendabizi batek, “soloak”, abesten zun, eta gero taldeak errepikatu....».

Eta 1992-XII-23-ko idazlanean:

«...Erriko gazteak, ogei urte inguruak, Gabon eskean, illunabar eta gauean kantatzen zituzten. Itsasondoko errian, mendian, baditugu bi auzo edo ballara, Goierri eta Urkia, ain zuzen. Bi ballara oetako gazteak ere, koplak abesten zituzten eta asko, etxez etxe errian kantatu ondoren, inguruko errietara joan oi ziran kantari. Gogoan det nere adiskide Bizente Ba-



randiaranek nola esaten duen, erriko “lanak” bukatu ondoren, mugante degun Aramara joan zirala ango erritarrak alaitzera.

Beste lagun batek esan zidan, Itsasondoko bazter guzietan kantatu ondoren, Zaldibiara joaten zirala gaberdiko mezatara, bidean zeuden etxeetan kantatuz.

Kopla oek, banan banan, aurrelari batek jaulkitzen zituen eta, gero, taldeak erantzun. Izaten zuten musikarik ere: panderoa, ago-soñu, esku-soñu, dultzaiña eta abar, laguntzaille bezela.

Jantziak, geienetan, bruxak izaten ziran lepoan zapiarekin eta abarkak oñetarako. Gogoan det bitxikeri bat. Eskupekoa ematera joan nintzan eta dultzaiñeroak bruxaz gañera, bere buruan, apaizaren bonatea zeukan bere bost-sei ttontorrekin. Ura umorea, ura!».

Beste kopla asko ere eskeintzen ditu Jesus Lete jaunak bere idazlan oietan. Baiña kopla oiek ez dira Gabon-kantak, baizik-eta eske-koplak, atez ate ibili ezker edozein egunetan kanta ditezkenak.

\* \* \*

Ataungo ikastolako 6, 7 eta 8-garren maillako ikasleak aldizkari-moduko bat atera zuten orain urte batzuk.

Aldizkari ortan sail ontako bertsorik geienak daude: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7/1-2, 8, 9, 10, 11/11-2, 14, 15/1-2, 16, 17, 11/3-4, 12, 18, 21, 20/1-2, 19 eta 22-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 2/4: kantatutzeko gaur emen; 3/1. Agur, agur, jente noblia; 4/3: gure neke ta trabajuak; 6/2: zorionen bat azaldu; 6/3: aren entraiña garbietatik; 9/1: Eba ederra Joseperek; 9/2: Belenen zuten topatu; 9/4: eman zioten ostatu; 12/4: zeru ta lurren jabea; 14/2: pobreza aundi batean; 14/3: astoarekin ta iriarekin; 14/4: oillarraren artean; 15/1: Arnasarekin berotzen dute; 16/3: zoorrek zenduzken beti presente; 17/1: Aingeru batek abisatu du; 17/3: jaio dan aurra adoratzeko; 17/: gatoz gauaren erdian; 18/1: Jesus dulzea gizon eginda; 19/1: Gure Jesus nola jaio dan; 21/1: Pazko apillek onela; 21/3: Zeru ta lurren jabea da ta; 22/1: Gaurko gau oni Gabon deritza; 22/6: jaio dan aurren amarez.

\* \* \*

---

<sup>1</sup> Esan bearrik ez dago bertso onek puntuak beste era batera beariko lituzkela.

## «Belengo portalian...»

---

1  
Belengo portalian  
Maria ta Jose  
aparia prestatzen  
orain ari dire.

2  
Nazaretik Belena,  
oso nekaturik,  
asto baten gañean  
ikusit ditut nik.

3  
Astoa ta iria  
daude portalian,  
Aurtxo bat jaiotzen da  
Gabon gaberdian.

4  
Belengo portaleko  
nere Andre Mari,  
esan zaiezu nor dan  
Aurtxo polit ori.

5  
Laztan bat emateko  
emaiazu neri,  
adoratu dezadan  
Jainko-gizon ori.

6  
Atozte, artzaitxoak,  
atozte Belena,  
ikusiko dezute  
aurrik ederrena.

7  
Jainkoak gizonentzat  
biraldu duana,  
orrentzako daramat  
bildotsik onena.

8  
Nagusi jauna, ara  
bukatu kantuak,  
berri on bana beza  
gure Jaungoikuak.

9  
Limosnaren zai gaude  
kanpoko atian,  
ori artuta gero  
beste bat artian.

Alfonso María Zabala apaiz jauna zana (1847-1919) orain baiño leen ere aitatu degu. *Gabon gau bat* ipuia bialdu zuan Donostiako Lore-jokoe-tara 1887 urtean, saria irabaziz.

Leen ere esan degunez, ipui ortan bi gabon-kanta eskeintzen ditu. Oie-tako bat goraxeago agertu degu.

Bestea berriz, aurreko orrialdean ortxe du irakurleak.

## Karteruaren Gabonak

---

Urte osoan pozik  
nabill atez ate,  
ibilliko ere bai  
bizi naizen arte,  
nai zaituztedalako  
zorionez bete:  
Jesus jaio da eta  
alegra zaitzte.

Berri txit onak beti  
dizkitzuet opa,  
txarrik baldin badator  
ezta nere kulpa;  
zuei dizuedan  
ondo naiak nauka  
jaio dan Jesus oni  
beti erreguka.

Neguko otzak eta  
udako beruak  
ematen dizkidate  
nere apuruak;  
baleude turro, kapoi,  
kopa ta puruak,  
kontserbatu litezke  
gure fueruak.

Ezertxo're eztiot  
iñori eskatzen,  
ematen didatena  
umill dakit artzen;  
turroi, kapoiak jan ta  
puruak fumatzen,  
bada ez det nai utzi  
fuerorik galtzen.

Ondo pasatu orain  
aurtengo Gabonak,  
ala nai izan beza  
gure Jesus onak;  
igarotzean gero  
lurreko egunak,  
zeruan artu bitza  
kartero ta danak.

**Pedro Migel Urruzuno**

Jose Luis Ansolari donkitua

*Argia* astekaria

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

## Gabon-jaiak

---

Eguerriak dira  
izaten alaiak,  
baldin badaude ondo  
orniturik maiak.  
Ugari daudenean  
kapoi ta turroiak,  
tripak dantzatzen ditu  
dama ta galaiak,  
pozak aita ta ama,  
arrebak, anaiak.  
Ala dizute opa  
nere ondo naiak,  
ondo igarotzeko  
beti Gabon-jaiak.

**Urruzunok**

*Argia* astekaria, 1922.0101.

*Koroi eder bat*, Auspoa 291, 2005

# Artzaien kantak

---

## Manuelek

Kontsolatu zaitetze,  
pakiak ditugu,  
egun jakindu det nik  
txit guztiz seguru;  
ez da gezurrezkoa  
gaurko papeleta,  
guzti-guztiya dago  
egiyaz beteta.

## Inaziok

Nondik jakindu dezu,  
nere lagun maitia,  
onelako berri on  
kontentuz betia?

## Manuelek

Zerutik jakin ditut  
oraingo berriak,  
ara bada zer diyoten  
aingerutxo biak.

## Aingeruak

Gloria zeruetan  
Jaungoiko Jaunari  
ta pakia lurrian  
gizon guztiari;  
zaitugu alabatzen,  
bedinkatzen eta alabatzen,  
graziak dizkizugu  
Jauna, zuri ematen.

## Estribillua

Lasterka Belena  
guztiyok guazen,  
pakien Egillea  
jaio dan ikusten;  
bada an arkitzen da  
lasto artean,  
txit umil jaiorik  
aska batean.

## Zortzikoa

Pakiaren Jabia  
dator pake oso,  
egitera pakia,  
pake guztiz gozo;  
pakia nai badezu,  
ai gizon tristia,  
pakerik onena da  
barrungo pakia.

## Estribillua

Jainkua bera  
gizon artean.  
Jainko gizona  
era batean;  
gizon tristiak,  
poztu zaitezte,  
zuen premiaz  
aztu zaitezte;  
ber-bertan dago  
gure pakia,  
ontzen badegu  
borondatia.  
Bai, arren, bada,  
Jesus maitia,  
pakia betor,  
betor pakia.

## Zortzikoa

Gerrarik okerrena  
barrunbian dezu,  
arren, barrunbe ori  
zuzen biar dezu;  
gerra au bukatzera  
Jaungoikua bera,  
zeruak utzirikan  
lurrera jetxi da.

Bertso edo kanta auek nundik ditugun ezin esango degu, ori apuntatzea aaztu egin zitzaigun eta.

Baiña kantatzeko ez-ezik, jendearen aurrean antzerki-modukoren bat egiteko moldatuak dirala ematen du. Alako antza artzen diegu guk beintzat.

Bi lagun azaltzen dira: *Manuel* eta *Inazio artzaiak*. Ortaz gaiñera, aingeruen koroa edo taldea ere or da. Eta *estribilloa* edo *zortzikoa* kantatzeko beste talderen bat bearko litzake.

Baiña etzan gaur bukatzen dan ortan bukatuko. Gaiari jarraituz, Jesusen jaiotzaren beste gertakizun guziak edo geienak aitatuko ziran.

Orregatik, pena geiago artzen degu bertso auen gaiñontzeko txeetasunak ez jakiteaz: nork jarri zituan, zein erritakoak diran, zein urtetakoak eta abar.

# Al Nacimiento de Jesucristo

## Cantos pastoriles





1

Jesus jaio baño  
bere lenagoti,  
barria banatu zan  
profeten agoti  
etorriko zala Jesus  
mundura zeruti,  
dontzella eder baten  
entrañaretati.

*Pentsamentu onekin  
guazen Belenera,  
jaio dan Erregia  
an adoratzera.  
Atentzio osoaz  
juaten bagera,  
orain da gero beti  
Jesusen aldera.*

2

Maria Birjina  
sagrarioa arturik,  
bederatzi illabetean  
zendukan gorderik,  
dañorikan bat bere  
egin bagerik,  
Belengo portalian  
an dago jaiorik.  
*Pentsamentu onekin...*

3

Abenduko illaren  
ogetalaugarrenian,  
Jesus jaio zagan  
Belengo urian,  
pesebre gogor eta  
turkoren artian,  
miseriaz beterik  
portale batian.  
*Pentsamentu onekin...*

4

Belengo portalian  
jaio da Semia,  
mundu guztien Jabea  
eta Erregia;  
alegradu guztiok  
geure biotzetan,  
guazen Belenera  
Jesus adoretan.  
*Pentsamentu onekin...*

5

Pozez bete gaitian  
jaiotza onetan,  
artzaiak bere badatoz  
Jesus adoretan,  
Ai Belen ditxosoa  
zorionekoa:  
jaiorik bertan dago  
geure Jaungoikoa.  
*Pentsamentu onekin...*

Gabon kanta auek Gernikako Jose Antonio Arana Martija adiskideak bialdu zizkigun, oar onekin:

«Hemen alboan doakizun eskuizkribua mikrofilm batetik atera dudan kopia da. Ez dakidana da nondik jaso nuen».

\* \* \*

Doiñua, berriz, R. M. Azkuek bere *Cancionero popular vasco* bilduman dakar, 954 zenbakian, Gipuzkoan Irungo Isabel Kerejetaren aotik jasota, era onetan:

Jesus yaio zan bainan lenagotik  
aritu zan Profetaren agotik  
bazatorrela Jesus mundura,  
dontzella eder baten erraietara.

\* \* \*

Kanta au Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman ere bazegoan. Amar bertso, gaiñera, Zumarragako Etxeberria'tar Borjak 1933 urtean bialduta. Guk an ikusi genduan orain urte mordoia. Oar bat artu eta, tamalez, kopian gabe utzi genduan. Orain, berriz, kanta ori bilduma ortatik atera eta kopian nai izan degu, baiña ez degu aurkitu.

## Erregiak datoz....

---

1

Arin datoz menditik  
iru erregiak,  
zillarrezko soñekuz  
ederki jantziak;  
bat da arpegi beltza,  
bestiak zuriak,  
nolanai izan bitez  
ongi etorriak.

2

Batek dakar eskuan  
intzentsu-ontzia,  
bestiak zapi gozoz  
bilduta urria,  
irugarrenak berriz  
mir usaigarria;  
bakoitzen Jesusentzat  
eskeintze berria.

3

Belengo estalpean  
auspeztuta dagoz,  
onuntz naiko nekekin  
iritxi ezkeroz;  
baiñan doatsu dira  
fedea meriyoz,  
jaio dan Aur ederra  
laztandurik gogoz.

4

Bera da fedearen  
azkengo sariya,  
egarri iraunkorren  
ase-iturriya;  
izarrak erakutsi  
duten Eguzkiya,  
Belengo Portaleko  
Aur zoragarriya.

5

Errege ta aginde  
mota guztikoak  
aundi egiten ditu  
Aurtxo Jaungoikoak;  
izan gaitezen bere  
legean zintzoak,  
Euskal Erriko gizon  
lege zarrekoak.

6

Jesus, erregeakin  
zuregana nator,  
etzaite atzeratu  
zikiña banator;  
zaletasun txar denak  
utziko ditut or,  
aurrera izan nadin  
eder ta illezkor.

Bertso auek Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso nituan, aibat bertso zaar bildu eta salbatu zuan gizona.

Egunkari edo aldizkari baten errekorrea da; baiña Urreta jaunak etzuan alboan idatzi ez egunik eta ez egunkariaren izenik.

Firma ere badute: *J. Zimela*. *Zimela* ez, baiña *Tximela* esaten zioten bertso-jartzaille ugaria izan zan Tolosan, izen-abizenak Luis Rezola Arana zituana.. Beraren bertso-bilduma: *Bakardadeko ametsak* I eta II, *Auspoo*, 204-205).

Baiña bi gizon izango dira; onako *J. Zimela* au leenagokoa.

Bertsoak irakurrita, ez du ematen auek moldatu dituana erri-bertsolari bat danik, erriagandik naiko urbil zegoan bertso-jartzaille eskolaturen bat baizik.

## «Adanen pekatuak...»

---

1  
Adanen pekatuak  
genduzkan galdurik,  
infernuko ondarrera  
betiko sarturik.  
Etzegoan gureztat  
erremediorik,  
Jesus jaio ezpalitz  
gutzaz kupiturik.

2  
Libre gerade orain  
betiko infernutik,  
iges egin dezagun  
pekatuetatik.  
Zerutako Erregea  
daukagu jaiorik,  
Belengo estalpean  
ganbelan jarririk.

3  
Gizonaren amorez  
gizona eginik,  
Belen eztu upatzen  
artu nai duanik.  
Zeruak eta lurrak  
bereak izanik,  
jaiotzeko denboran  
etzun ostaturik.

4  
Ostaturikan gabe  
Belengo kalean,  
an dago Jesus ona  
estalpe batean.  
Otzak illen ezpazun  
oraingo gabean,  
jaio bear izan zun  
abere artean.

5  
Astoak eta idiak  
zutean berotzen,  
Jesus zegoalako  
otzak akabatzen.  
Lasterkan Belenera  
guztiok goazen,  
Jesus adoratzera  
urbildu gaitezen.

Gabon-kanta au Aita Donostia zanak argitaratu zuan, letra eta doiñu, *Gure Herria* aldizkarian, 1934-an, ondoren onako argibide auek emanez:

«Ce Noël est connu à Azpiroz (vallée de Larraun-Navarra): les paroles ont été données dans la feuille religieuse Irugarren Prantzisko'tarra (n° 19, Janvier 1915), publiée à Pampelune par les R. R. P. P. Capucins de cette ville et destinée aux Tertiaires.

La musique m'en a été donnée par le R. P. Damaso de Intza, qui l'avait entendue à Azpiroz même. Elle a un certain caractère guipuzkoan (dont, d'ailleurs, une partie de la musique populaire de cette contrée est imprégnée)...».

Gure aldetik zera esango degu: 3/3 lerroa ez degu ulertzen, eta bearbada ez da ongi kopiatuta egongo.

Ona doñua:

A - da - nen pe - ka - tu - ak gen -  
 - duz - ken gal - du - rik in -  
 fer - nu - koon - da - rre - ra be -  
 ti - ko sar - tu - rik. — E - tze - go - an gu -  
 re - tzat e - rre - me - di - o - rik Je -  
 sus — ja - io ez - pa - litz gu -  
 tzaz ku - ni - tu - rik —

## Gabon-kantak

---

Gabon-kantak ere jarri omen zituan Ataungo Felipe Imaz bertso-lariak. Beraren anaiak emanda ditugu urrengo bertso eta argibide auk:

«Bertso asko ziran oiek. Ogei bat-edo. Eta ea geiago ziran gaiñera. Bertsoak moldatu bear zituala-ta ibili zan puska batean, eta andik egunetara oiek agertu zituan.

Gero, Gabon-egunean, eskean ibiltzeko oitura izaten zan emen, atez ate, taldean. Taldean edo bi edo iru igual, mendi auetan barrena, baserrietan.

Baserri bakoitzean zerbait ematen zuten. Orduan etzan dirurik izaten eta jateko zerbait. Ogi kozkor bat ere bai batzuetan, iru kozkor zituana. Opilla esaten zioten. Baiña ura ematea gauza aundia zan garai aietan.

Nexka eta mutil kozkorrak egunez ibiltzen ziran. Mutillak, berriz, parolak artu olioarekin eta petrolioarekin, eta Gabon-gaba geiena kanpoan pasatzen zuten. Illuntzeko zazpiak inguruan asi eta goizeko bostak arte igual. Emen beintzat bai. Elurretan askotan.

Onela kantatzen zuten:

Agur, agur, jente noblea,  
guk berri on bat dakargu;  
atentzinoa eduki beza  
iñork aditu nai badu.

Ataundar batek ateratakoa omen zan ori ere; errementari batek. Gure etxean izaten omen zan gaiñera: Estradaberrin. Angoxe nagusia izango zan. Etzan familikoa. Gure aurrekoak ara etorri baiño leenagokoak dira oiek; aspaldikoak. Afizionatu bat ura ere.

Etxean entzundako kontuak dira oiek. Gure anai zaarrak, Felipek, esaten zituanak, ni mutil kozkorra nintzala.

Eta berak beste oiek atera, oso politak gaiñera. Sail bat zan. Eta Aldakioko Txomin eta biak irten eta atez ate oiek kantatzen ibili. Oraindik ere bakar batzuk gogoan izango ditudala uste det:

Atrebentziarekin  
kuadrilla gera,  
arrimatu geranak  
etxe ontako atera;  
pozez kontsolaturik  
guztiok batera,  
albista bat zueri  
gatoz ematera.

Pasaturik orrela  
urtiak lau milla,  
gure billa badator  
Jaungoiko umilla;  
.....  
.....  
.....  
.....

Aditzera degunez  
Adan da Ebaren,  
gure lendabiziko  
guraso ziraden;  
aiek paradisoan  
pekatu eitiarren.  
guretzako lan txarrak  
gelditu ziraden.

San Joakin senar eta  
emazte Santa Ana,  
Maria da orien  
alaba laztana;  
Jaunak aukeratua  
beretzako Ama,  
beraren entraiñetan  
gizon egin zana.



## «Berri onan kantea...»

---

1  
Berri onan kantea,  
alegra gaitezen:  
Jaungoikoaren Semea  
jaio da Belenen.

2  
Nun jaio ote da?  
Ez dago dudarik:  
aingerutxo eder bat  
jetxi da zerutik.

3  
Artzaiak esan diote  
batak besteari,  
kontentuz beterikan  
dabiltz ardizari.

4  
Etxe onetan bada  
zenbat jende noble,  
ezer eman gabarik  
utzi nai ez dute.

5  
Ematen duena baño  
geiago naiago,  
beste onelakorik  
iñun ere ez dago.

6  
Adios, famili eder,  
portatutakoa,  
Aita Eternuak  
juntatutakoa.

Bertso edo kopla aukeratuak Jose Insausti bertsolariari zor dizkiogu. Aspaldikoak omen dira, bere aita zanaren aurtzaroan ere kantatzen omen ziran eta.

## Abenduko kantak

### Oiz eta Bizkargi mendi inguruetako auzo ta baserritxuetan kantetan diranak.

---

#### Gabon aurretikoak

1  
Abendu-poza kantetan gatoz,  
jauna, gaur zure etxera,  
abegi onez urten egizu  
gure kantak entzutera.  
Jesukristoren etorreria  
gatoz gu azaldutera,  
zelan zerutik etorri jakun  
Jesus Umia lurrera,  
pekatu danak parkatu eta  
zerura eroatera.

2  
Gure lenengo guraso Adan  
Jaunak egin ebanian,  
zorioneko ipiñi eban  
Paradisuen erdian,  
bere Legia betetu eta  
bizi zaittian bakian,  
gorputz da arima gero sartzeko  
zeruetako glorian;  
baña jausi zan arrokerizko  
pekatu itzalgarrian.

3  
Pekatu arek itxi zituan  
zeruetako atiak,  
seme danentzat galdu zaittian  
guztien apaingarria.  
Jesukristoren agindu onak  
aiztuta gizon guztiak,  
ausi ezinda argaltasunez  
pekatuaren katiak,  
inpernuetan jausitten ziran  
gizon errukigarriak.

4  
Baña Jaungoiko errukitsuak,  
gizonaren maittasunagaz,  
erabagi dau eroatia  
gizon guztiak Beragaz.  
Lurren erdian agertuten da  
gizonaren jantziagaz,  
ta erakusteko bere Legia  
guri ejemplo onagaz,  
Belengo kortan jaioten jaku  
umiltasun andiagaz.

## Gabon egunerakoak

5

Andra Maria, Jose dontsuaz,  
jaioterako egunetan,  
ostatu billa bizkor ebillan  
Belengo jauregietan;  
borondaterik aurkittu ez-da  
aren biotz gogorretan,  
txabolatxu bat aurkitzen dabe  
Belengo inguruetan.  
ta antxe jaio zan Jesus Umia  
gabeko amabiyetan.

*Gabeko amabiyak  
jo daben orduan,  
gure Salbagillia  
jaio da munduan.*

6

Zergaz estaldu bere gorputza  
ez dauko Jesus maittiak,  
aldamenetik berotzen dabe  
arnasaz asto ta idiak.  
Askatxu baten ipiñitten dau  
galtzu artian Mariak,  
ta agertzen dira Goi-aldietan  
aingeru-talde andiak,  
pozez beterik kantetan dabez  
kanta soñu pozgarriak:

*«Gloria zeruan da  
bakia lurrian,  
borondate oneko  
gizonen artian».*

7

Entzuten dabe artzain zintzoak  
aingeru-kanta ederrak,  
danak itxi ta arin-arinka  
doiaz Jesusen aurrera.  
Gizon guztien Salbagillia  
auspaztu ta adoretara,  
ta eskintzen dautsez opagei onak  
euren biotzez batera,  
pozez beterik kantetan dabe  
artzai guztiak batera:

*Jesus maitegarria,  
maite zaituguz guk,  
maite dozulako  
gizon guztiak Zuk.*

8

Ogei gizaldi izango dira  
Jesus Umia jaio zala,  
bere graziaz zoriontsuak  
danok izan zaittezela.  
Aingeruak lez, jaio-parria  
agertzen etorri gara,  
pozez beterik egin daizuen  
danok aurten Gabon-gaba,  
ta, etxeko-andra, artuko geunke  
limosnatxu bat, al bada.

*«Gloria zeruan da  
bakia lurrian,  
borondate oneko  
gizonen artian».*

Orain bagoaz emendik eta  
 agur urrengorartian,  
 eskarrrik asko, etxeko-andra,  
 Jesukriston izenian.  
 Zorion asko opa jatzuez  
 aurtengo Gabon-gabian,  
 urte luziak igaro eta  
 Jaungoikoaren grazian,  
 Jesus Umiak artu zaitzala  
 zeru zabal ederrian.

*«Gloria zeruan da  
 bakia lurrian,  
 borondate oneko  
 gizonen artian».*

Gabon-kanta au orritan agertu zan, *Librería de Gaubeca*. - *Guernica*-n argitarara emanda.

Ale bat, Gernikako Julio Bareño jauna zanak bialdu zidan.

Izenburuaren azpian adierazpen jakingarri bat ematen da, irakurleak ikusi duanez; eta bertsoen ondoren beste au, erderaz:

*«Estos «Villancicos de Navidad» han sido recopilados y publicados por el impresor Víctor de Gaubeca y Duo; siendo estos cantos navideños de los mejores que se conocen en toda la Comarca de las vertientes de Oiz y Bizkargui, tanto por su concepto literal como por el argumento tan encantador. – Se agradecerá la aportación de aquellos que no figuran en estas páginas, siempre que sean tradicionalmente populares, con objeto de editarlos en una publicación más amplia con sus correspondientes melodías».*

Orrela egin ote zuan ez dakigu: baiña asmo ona zala ezin ukatu.

## «Zeruko Erregia...»

---

Zeruko Erregia  
jaio zan orduan  
munduan,  
Herodes erregia  
enbidiaz betia  
bildurtuten asi zan.

2  
Herodes erregia,  
zek bildurtzen zaitu?  
Esaizu.  
Jaio dan infantia  
zeurorrek il eitia  
lograduko ez dezu.

3  
Iru errege datoz  
orientetikan  
Belenera,  
aurreti dakarrela  
izar argi eder bat  
bidia erakustera.

4  
Eldu zireanean  
Belengo erriko  
portalera,  
Jaunari adoratzera  
auspaz jausi zirean  
belaunbiko lurrera.

Ofrezietan deutsez  
euren presentiak  
nobliak.  
Batak dakar urria,  
besti orrek mirria  
da intzientsoa bestiak.

6  
Beste bide batetik  
biurtuten dira  
errira.  
Herodesen asmuak  
eta pentsamentuak  
orain burlatu dira.

7  
Herodes burlaturik  
gelditu zanian  
berenian,  
agindu eban ilteko  
inozente guztiak  
Belengo errian.

8  
Ai ze negar andiak  
orduan Belenen  
eukezen!  
Amaren bularretik  
errukia bagarik  
daruez umiak ilten.

*Moderato*



I - ru E - rre - ge da - tor



o - ri - en - te - ti - kan Be - le - ne - ra au -



rre - tik da - ka - rre - la ar - gii - zar e - der



bat bi - de - a e - ra - kus - te - ra. \_\_\_\_\_

Bertso auek *Euskalzale* aldizkaritik ditugu; 1897-ko Urtarrillaren 3-an agertu ziran.

Aurretik argibide auek ematen dira:

«Urtarrilan 6-garren egunean Eliza Ama Doneak iru urteurren, bata baino bestea pozgarriagoak, gomutaratuten daukuz. Bata da, Sortalde edo Orienteko Iru Erregeak Belengo Umea gurtutera etorri zireanekoa. Bestea, Jesus bateatu zanekoa. Irugarren urteurrena Kanako ezteguena da.

Guk, datorren asteko Donerik edo santurik agiriena, emen agertueran, lenengo urteurrenaren ganean zerbait esateko gogoia euki dogu; baina irakurten eztaquienak bere badakie Erregeen etorrerean barri, ta gauzeari obeto begiratuta, eta papera amaitu bear iakula ikusi dogunean, txikitari entzuniko neurtitz edo bertso batzuk ementxe ezarteko gogoia artu dogu».

Lerro auek idazten dituen R. M. Azkue degu, dudarik gabe, *Euskalzale* aldizkariaren zuzendaria bera zanez.

\* \* \*

Bere Kantutegian ere agertu zuan Azkuek kanta au, 958 zenbakian, al-dakatarik gabe eta doiñu onekin:

Ondoren, beste bertso bat dakar, Ondarroakoa esanez:

Iru Errege datoz  
orientetikan  
Belenera,  
aurretik dakarrela  
argi izar eder bat  
bidea erakustera.

\* \* \*

Gabon-bertso auk Ondarroako Jose Maria Etxaburu *Kamiñazpi* zarenaren esku-idatzi batean ere aurkitu ditugu. Berak bere jaioterrian jasoko zituan. Letrari begiratuta, argi ta garbi ikusten da kanta bera dala.

# Iru Errege

---

1

Iru Errege datoz  
oroien artetik,  
Erregiak  
aurretik dakarrela  
argi izar ederra  
bidiak erakustera.

2

Erodesek dirautse  
ainbat pregunteaz:  
«Nora zuaz?».  
«Belengo ziudadera,  
jaio dan infantia  
adoratzera guaz».

3

«Adoratzan dezutenian  
amendik erdue,  
nik ere zuen Errege ori,  
diñozuen jaun ori,  
adoratu nai neuke».

4

Juan dira Erregiak  
izarren atzetik,  
bidian artez eruan ditu  
eta ipiñi ditu  
Belengo portalian.

5

Jesus, Jose ta Maria  
topau zituenian,  
aldospian bertantxe jarri ziran  
Jauna adoratzera  
belauniko lurrian.

6

Beste bide batetik  
biurtuten dira  
Erregiak; Eroderen asmuak  
eta pentsamentuak  
bertan burlatuak dira.

7

Erodes burlaturik  
gelditu zanian,  
azkenian agindu eban iltzeko  
ume txiki guztiak  
Belengo ziudadian.

8

Ai ze negargarriyak  
orduán Belenen  
ziraden, amen bularretatik  
errukitu gaberik  
señak eroiezan ilten.



## Estribillo

*Zeruko Erregia  
jaio zan orduan  
munduan,  
Erodes erregia,  
inbiriak betia,  
bildurtuten asi zan.*

\* \* \*

Eta doiñua, Azkuek bere kantutegian dakarren gisan:

*Andante mosso*

I - ru E - rre - ge - da -  
toz O - ri - en - te - ti - kan -  
Be - le - ne - ra, au -  
rre - tik da - ka - rre - la i -  
zar ar - gi e - der - bat bi -  
de - a e - ra - kus - te - ra.

## «Iru errege datoz...»

---

1

Iru errege datoz  
neketan bidean,  
amabi egunetan da  
amabi gauean;  
izar argi bat dute  
laguntzen aurrean,  
berak ipiñi ditu  
Belengo lurtean.

### Estribillo

*Goazen, artzaiak,  
goazen Belena,  
zeren jaio dan  
gure Jesus ona;  
au da fortuna  
eldu zaiguna,  
gloriosua da  
gaurko eguna.*

2

Amaren besuetan  
ikusirik Aurra,  
irurak jatxi dute  
lurrera belauna;  
biotza jasorikan  
Aurtxoarengana,  
berak egin diote  
eskari on bana.  
*Goazen, artzaiak...*

3

Goazen, goazen Beleneraño,  
salto ta brinko egiñik.  
Au Aurtxo polito,  
graziaz ederto,  
ikusiko ez danik  
ura bezelakorik.

Goazen, goazen alkarrekin,  
zakua betetan kapoiakin,  
txistu, plauta, tronparekin,  
Anton da Peru gitarrakin.  
Askok esango dute  
zu orla ikusita:  
«Badirudi zaudela  
txispa arrapatuta».

Bertso auek Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman aurkitu genituan, 1936 urtean Markina-Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok bialduak, Ormaiztegin jasota.

Zein doiñutan kantatu bear diran ez dakigu.

Iru eta laugarren bertsoak beste sail batekoak izango dira.

*Bidetan* dio 1/2 lerroak; *bidean* idatzi degu, gaiñontzeko puntuak ala eskatzen dute eta.

## «Atozte danok len-bait-len...»

---

### Doiñua

Atozte danok len-bait-len,  
Jesus jaio da Belenen.  
Atozte danok len-bait-len,  
Jesus jaio da Belenen.  
Ikustera danok guazen  
zer ote dan ba gertatzen.  
Ikustera danok guazen  
zer ote dan ba gertatzen.  
Jaungoikoa zerutik jetxi-eta  
askatxoan dago jarria.  
Jaungoikoa zerutik jetxi-eta  
askatxoan dago jarria.  
Gloria, gloria Jaunari,  
gloria Jesus Aurrari,  
enda lurra gizonari (*sic*)  
ondasun pillak ugari.  
Goazen, goazen, goazen Belenera  
Jaun au adoratzera,  
Jaun au adoratzera  
goazen Belenera.  
Antxen dago portalepian.  
Goazen, goazen, goazen Belenera.

A - tos-te da - nok len - bait - len Je-sus jai-  
o da Be - le - nen. A - tos - te  
da - noklen - bait - len Je-sus jai - o da Be - le -  
nen. I - kus-te - ra da - nok goa-  
zen zer o - te dan bager - ta - tzen.  
I - kus-te - ra da - nok goa-zen zer o - te  
dan bager - ta - tzen. Jaun-goi - ko -  
a ze - ru - tik je - txie - ta as - ka - txo - an da - go ja - rri -  
a Jaun-goi - ko - a ze - ru - tik je -  
txie - ta as - ka - txo - an da - go ja - rri - a.

— Glo-ri - a, glo-ri - a Jau - na - ri, glo-ri - a  
 Je - sus Au - rra - ri en - da lu - rra gi - zo - na -  
 ri on - da - sun pi - llak u - ga - ri. Goa -  
 zen, goa - zen goa - zen Be - le - ne - ra Jaun  
 au a - do - ra - tze - ra, Jaun au a - do - ra -  
 tze - ra, goa - zen Be - le - ne - ra an - txen da -  
 go for - ta - le - pi - an  
 A - ma Bir - ji - ña - ren al - da - me - ni -  
 an. Goa - zen, goa - zen, goa -  
 zen Be - le - ne - ra.

Kanta au, doiñua eta letra alegia, *Aranzazu* (1971, abendua) illerokotik artua degu.

Firma bezela letra auek ageri dira: B. G. Esan bearrik ez dago *Biktariano Gandiaga* zana izango dala.

Aurretik argibide auek ematen ditu:

«Gabon-kanta hau Soraluzeko Julian Bandaormaetxeari jaso nion. “Aitagandik ikasitako abesti bat da. “Ez dot gaur arte iñoiz kantatu eta ez dotzat entzun iñori kantatzen”, esan zidan. Irakurleak ezaguna du, behar bada. Hala balu ere, barkatuko didala uste dut, kantu hau aspertzen ez dutenetako polita danez».

1931

## Gabon-kantak

### Zabaletatar Juanek jarriyak

---

Bedeinkatua, alabatua  
da Sakramentu Santua,<sup>1</sup>  
beraren onran kantatutzeko  
artua degun asmua;  
koplatxu oiek aditu bitza,  
nagusi on jaun prestua,  
komeni ezpada esan zaiguzu,  
litzake gure gustua.

Biba etxe ontan oraiñ bizi dan  
nagusi jaun serbitzala,  
ondo dakigu limosnatako  
oso leiala zerala;  
eta ondorengo famili dana  
izan biar du iguala,  
gure Jainkuak urte askuan  
ondo kontserba ditzala.

Memoriya arren argi zadazu,  
zeru ta lurren Jabia,  
enpleatzera nua Ark eman-  
dako abillidadia.  
Biba etxe ontan bizi dan jende  
prestuba eta noblia,  
nagusi jaunak kantatutzeko  
eman du libertadia.

Biba etxe ontako etxeoandre  
prestua eta argiya,  
desio diyot urte askoko  
osasuna ta biziya;  
kostunbre zarra galdu eztedin  
da egundañoko guztiya,  
gure Jainkuak pagatuko'io  
obra on oriyen sariya.

\* \* \*

Legiarekiñ Eguarri-jaien  
bezperan kunpli dezagun,  
nere lagunak, «Dios te salbe»  
garbuarekin erantzun.

**Danak:**

*Dios te salbe, ongi etorri,  
Jainkuak gabon diela,  
legiarekiñ kunpli dezagun  
Eguarri jaien bezpera.*

Biba etxe ontako galai gaztiak,  
nobliak eta bikañak,  
Euskal Erriko basarri-mutil  
egoki eta lirañak.  
*Dios te salbe...*



Ama Euskeraren seme maitiak,  
leialak eta azkarrak,  
zintzo guardatu'itzagun danok  
antziñako oitura zarrak.  
*Dios te salbe...*

Biba etxe ontako dama gaztiak  
edo maitetxo kutunak,  
izarra beziñ dizdizariyak,  
alaiak eta txukunak.  
*Dios te salbe...*

Apirilleko lore goiztarrak,  
apañak eta berdiñak,  
edertasunez iñon parerik  
ez daukaten imajiñak.  
*Dios te salbe...*

Bertso auek Errenteriko Juan Zalabeta zanak moldatuak dira.

*Bertsolariya* astekarian agertu ziran, 14 zenbakian, 1931.12.20-an.

Baita ere *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak* liburuan, Auspoa 63-64, 1967.

Leenengo bertsoaren asiera onela du *Bertsolariya*-k: «Bedeinkatua alabatua da Aldareko / Sakramentu Santua». Laburtu egin degu, Juan Zabaletaren anai Pellok esan zigunez jarririk.

1951

## Belabietatik iru Errege

---

1

Antziñatikan dator oitura,  
gañera bikaña berez,  
ea, Erregeak, urtero etorri,  
galdu ez dedin, mesedez.  
Guk badakigu inoiz ekaitzak  
jotzean ez dala errez,  
zaldiak ezin badira ibilli  
etorri zaitezte oñez.

3

Jostallu asko dakarkizute,  
nik dakiten baten poza,  
zapata uzteko apurtua du  
leioan zegon larrosa.  
Andaretxo bat eskatzen du ta  
amets ori zuek osa,  
autsi artean egin dezala  
bere besoetan goza.

3

Belabietatik iru Errege  
datoz urtero bezela,  
gure aurtxoak negar da negar  
egongo ziran bestela.  
Pitxi politez ongi beteta  
ekarri dute pardela,  
biar goizean apaindutzeko  
leioa edo lo-gela.

(1951)

**Luis Rezola, "Tximela"**

*Bakardadeko ametsak I, Auspoa*  
204, 1989

1952

## Iru Errege etorri dira

Doña: «Uso zuria zera zu...»

---

1

Billabonako errira  
iru Errege etorri dira:  
Baltasar, Gaspar, bestea Meltxor;  
zorutzen gaude begira.  
Lotan goxoro gaudela etorri  
zaitezte leio erdira.

2

Leioan oñetakoak  
amatxok jarritakoak.  
Joan dan urteko erregaliak  
ziran nere gogozkoak.  
Beste ainbeste gaur ere egin,  
Errege biotzekoak.

3

Au da nere zoramena,  
ain atsegin dago dena.  
Iru jaun aundi aurreko aldean,  
au da eskatzen detena:  
zuen gain dago poztasun dana  
ta utzi nai dezutena.

(1952)

**Luis Rezola, "Tximela"**

*Bakardadeko ametsak I*, Auspoa 204, 1989

1953

## Gabon eskean

---

1

Billabonako anai maitea,  
entzunez egon begira:  
Gabon gabaz nik eraman nai det  
illun dagona argira.  
Bost pezta eman nai ez baituzu  
jetxiko ditugu erdira,  
ezin bizirik dauden aientzat  
gaizki etorriko al dira?

2

Lenengo gora alkate jauna  
ta gero ondorengoak,  
ozturik dauden sendiak ea  
jartzen ditugun beroak.  
Guztion laguntzaren zai daude  
kixkurturikan gaxoak,  
oiek zutituko ditu gaurko  
zuen limosna goxoak.

3

Danori milla esker ta pozik  
aurrera goaz emendik,  
eskean artutako txanponak  
kontatuaz geldi-geldik.  
Bestentzat iaio biltzen ai gera  
paseaz kale ta mendik,  
ta beste zerbait eman nai dunak  
garaia dauka oraindik.

(1953)

**Luis Rezola, "Tximela"**

*Bakardadeko ametsak I, Auspoa 204, 1989*

## Jaiak ondo igaro

---

Begiratu utsakin  
Belen ingurura,  
pozaren ordeztartzen  
zaigu gaur trixtura.  
Maitasuna ekarri  
zendun zuk mundura,  
ta gu irauli gera  
danok gorrotura,  
orregatik gabiltza  
gabiltzan modura.

Zure dotrin ederra  
bota ankapera,  
amorrubiz goaz  
alkar ondatzera.  
Umillak zapalduta,  
arruak aurrera;  
izena degu baña  
kristauak ez gera,  
mingaña batera ta  
biotza bestera.

Beartsu jaio ziñan  
ta beartsu bizi,  
ta guk lezio ori  
eztegu ikasi.  
Geronek nai genduke  
jaun eta nagusi,  
gurutzeko odolez  
ginduzun erosi,  
zuk ainbat supritzerik  
ez gendun merezi.

Zure Eleizan ere  
ainbeste zarata,  
gazte ta zarrak ezin  
konpondu dira-ta.  
Besteari erantsi  
norberaren palta,  
geure bidetik gaude  
danok aterata,  
Jauna, barka zaiguzu  
argalak gera-ta.

Itxaropen pozgarriz  
barren oiek bete,  
urak beren bidea  
billatuko dute.  
Aurtxo Jaungoiko ori  
biotzetik maite;  
onezkero ederki  
aspertu zerate,  
jaiak ondo igaro,  
agur, urrenarte!

**Basarri**

*Zeruko Argia*, 1970.01.11

*Sortu zaizkidanak*, Auspoa 112,  
1973

*Nere bordatxotik*, Auspoaren Sail  
Nagusia, 1992

1970

## Egun pozgarriak

---

1

Urte au badijoa  
poliki-poliki,  
agur egingo digu  
guztiori aurki.  
Nola bukatuko dan  
zeñek erabaki?  
Orren berri Jainkoak  
bakarrikan daki.

2

Urreratu zaizkigu  
egun pozgarriak,  
emen dira Gabonak  
eta Eguarriak,  
gu alaitzen gaituzten  
jai zoragarriak,  
pakean ospatzeko  
Jainkoak jarriak.

3

Beti udaberria  
nai luke biotzak,  
neguan sumindutzen  
gaitulako otzak;  
baña poztuko gaitu  
Jesusen jaiotzak,  
munduko pekatua  
kentzen dun bildotsak.

4

Xinismengarri egin  
dedin miraria,  
Belenera dijoaz  
Jose ta Maria;  
izar dizdiratsu bat  
dute gidaria,  
Espiritu Santuak  
emanik argia.

5

Abenduak ogei ta  
laugarren eguna,  
ikasbide bikaña  
ematen diguna:  
Belenen estalpe bat  
otza ta illuna,  
Jaungoikoak beretzat  
aukeratu duna.

6

Toki arlote illun  
argi gabekoa,  
famili sagraдуаk  
arkitutakoa,  
ez palazio eder  
apaindutakoa;  
or jaioko da Jesus  
gure Jaungoikoa.

7

Danok mirari onen  
zai jarririk gaude,  
sortuko dan Aur ori  
da Kristo Errege;  
Bera izanagatik  
zeru-lurren Jabe,  
umil agertuko da  
arrokeri gabe.

8

Ostatutzat estalpe  
xaxtar bat arturik,  
agertuko da Jesus  
buru makurturik;  
eta gu berriz emen  
gabiltz arroturik,  
mundu zabal onetan  
ezin kabiturik.

9

Aita Santuak ere  
naiko min badauka,  
argatik ari zaigu  
beti erreguka:  
zertan gabiltzan ola  
anaioek burruka,  
arantzak eskeñiaz  
arrosaren truka.

10

Aitaren biotz bera  
naigabetu degu,  
argatik da guretzat  
oinbeste erregu;  
pakean bizitzeko  
eskatuzen digu,  
baña gerra-zaleak  
izan ordea gu.

11

Aberats ta beartsu,  
nola gazte ta zar,  
asmo on bana artu  
obe degu azkar;  
gure oker guzia  
gorrotoak dakar,  
grña txarrak utzita  
maita zagun alkar.

12

Zuk guretzat izanik  
ain biotz biguna,  
Jesus Aurtxoak, au da  
eskatzen deguna:  
emaiguzu pakea  
eta osasuna,  
ori baita munduko  
aberastasuna.

**Sebastian Salaberria**

Aiete, Abendua, 1970

*Zeruko Argia*, 1970.12.27

*Nere soroko emaitzak*, Auspoa

172, 1984

## Zoriona dakarten egunak

---

1

Urreratu zaizkigu  
Eguberri-jaiak,  
zoriona dakarten  
ain egun alaiak.  
Belen aldera datoz  
arkume ta artzaiak,  
poztu gaitezen, poztu,  
euskaldun anaiak.

2

Jesus agertzen zaigu  
beti biotz bigun,  
zeñen une gozoak  
eskeintzen dizkigun!  
Jai zoragarri auek,  
euskaldun da erdeldun,  
pake zorionsuan  
igaro ditzagun.

3

Gu nola egun argiz  
berdin arratsetan.  
pakearekin gabiltz  
beti ametsetan.  
Auxe eskatzen det nik  
nere otoitzetan,  
Jaunak banatu dezan  
danon biotzetan.

4

Munduan gaudelako  
pakearen gose,  
Belengo estalpera  
guk begiak luze.  
Orko janari gozoz  
nai genduke ase,  
arren, erruki, Jesus,  
Maria ta Jose.

**Sebastian Salaberria**

Aiete, 1975, Abendua

*Nere soroko emaitzak*, Auspoa

172, 1984



## Gabon-gaba

---

1  
Jose Nazareteko,  
Jerusalengo Miren,  
ostatu billa dabiz  
biak gaur Belenen.  
«Ez dago ostaturik!»  
dautsa erantzuten.  
eta sartuten dira  
estalpe zar baten,  
txiro ta ezer gabe  
Gabon izan arren.

2  
Txiro ta ixilik da  
Belengo askatxoa,  
ta bertan jaio biar  
Jesus Jaungoikoa;  
emon daiogun pozez  
ostatu beroa,  
geure biotz barruko  
maitasun sutsua,  
ordez emongo dauku  
betiko zerua.

3  
Entzun Gabonetako  
Jesusen bertsoak,  
diralako Belendik  
bidaldurikoak;  
neba, arreba, senide,  
sendi-gurasoak.  
Gabon eta Urte barri  
zorionekoak  
danoi eskintzen daukuz  
Jesus umetxoak.

4  
Etzaitzete aspertu  
nire bertsoakin,  
diralako egiñak  
maitasunarekin;  
eurak diñoena ondo  
ikasi ta egin,  
Belen maite dagigun  
gogo, biotz ta adin,  
pozez bizi gaitezaz  
Sendi Deunarekin.

**Balendin Enbeita**

*Nere apurra*, Auspoa 117-118,  
1974

# Gabon-abestiak



Dan, dan, dan, Jo - se e - ta Ma -



ri - a os - ta - tu bi-lla Be - le - nen;



dan, dan dan, ga-be - ko a - mai - ke - tan



dan, dan, da, a - ti - a jo - ten.



E - ta ba - rru - tik dan, dan a - sa-rrez



go-gor dau-tse e - ran - tzu - ten:



"dan,dan, dan ga-be - ko a - mai - ke - tan



dan, dan, zer da - ka - zue e - men.

## DOIÑUA: Nere apurra 59

1

*Dan dan dan* Jose eta Maria  
ostatu billa Belenen;  
*dan dan dan* gabeko amaiketan  
*dan dan dan* atia joten.  
Eta barrutik dan dan asarrez  
gogor dautsez erantzuten:  
«*Dan dan dan* gabeko amaiketan,  
*dan dan* zer dakazue emen?».

«*Dan dan dan* txiro ta eskale bi,  
edegixue atia,  
geugaz batera dakagulako  
munduko Salbagillia!».  
Eta barrutik gogor dirautse:  
«Beterik dogu etxia!».  
Ostatu barik geratzen dira  
Aita Jose ta Maria.

*Dan dan dan* gabeko amabiak,  
Belengo kanpaien itza,  
Aita San Josek Miren garbiai  
arriturikan dirautsa:  
«Entzuten dozu goitik datorren  
aingeru-tronpeta-otsa?».  
Une berian Miren garbiak  
dauka Jesusen jaiotza.

4




*Dan dan dan* aintza zero goietan,  
*dan dan dan* bakia emen!  
*Dan dan dan* aingeruak diñoë:  
«Jesus jaio da Belenen!».  
Artzaiñak ere pozagaz dabe  
Jesus nun dagon itantzen.  
Lenbailen danak joan nai dabe  
Jesus Aurtxo gurtutzen.

*Dan dan dan* pozez jo daigun bada,  
*dan dan* Belengo atia,  
antxe barruan daukagulako  
munduko Salbagillia.  
Aita San Jose ta Mariaz dago  
zeru ta lurren Jaubia,  
maitasun garbiz danoi eskintzen  
zoriona ta bakia.

### **Balendin Enbeita**

*Nere apurra*, Auspoa 117-118, 1974  
Doiñua: *Ardi txuriak*, Aita Mitxelenaren  
*Ogei Kanta Arantzazu-ko* liburuskatik artua.

# Gabonak dirala-ta



1  
Belengo oiartzuna  
urte guzietan;  
bakea eta poza  
bego sendietan!  
Baña bakerik ez da  
mundu zabaletan,  
bake ordeztu negarra  
sendi geienetan.

2  
Belengo seaskatik  
maitasunen eske,  
eta mundu guztia  
alkarraz burruke;  
bakoiñentzat berea  
emongo bageunke,  
zorioneko Gabon  
izango genduke.

3  
Bakea nai badogu  
ez inor zapaldu,  
menpean daguanari  
jasoten lagundu;  
baña gizona ez da  
malla ortara eldu,  
naiago dau munduan  
indarrez agindu.

4  
Alperrik dira gure  
mingañezko lanak,  
egintzaz ez bagera  
egizko gizonak;  
laguntza bearra dau  
menpean dagonak,  
onentzat ere bardin  
dituguz Gabonak.

5  
Gabon-egunak dira,  
oroitu bakoitza,  
poztu saminiñez diran  
anaien biotza;  
erriak izan daian  
biarko bizitza,  
bearrekoa dabe  
gaur gure laguntza.

6  
Belengo estalpean  
Jesus zelan zegon,  
Arek esandakoak  
aztuta ez egon;  
bidezko txiruari  
ostatua emon,  
anaiak dira eta  
anaiak lez jabon.

(1972)

**Balentin Enbeita**

*Nere apurra*, Auspoa 117-118, 1974

1972

## Gabon-jaietan

---

1

Bertso berrien zale zeraten  
euskaldun maitagarriak,  
bakar batzuek ortxe dijoaz  
zuengatikan jarriak.  
Pasa ditugu Santo Tomasak,  
Gabon da Egeberriak,  
sano ta ondo dagonantzako  
zein egun zoragarriak!

2

Bertso zar eta ipui kontatzen  
zenbat aiton eta amon,  
oitura ori galtzen ari da,  
lenago geiago zegon.  
Gaur bildu dira sendi guzia  
naiz len banaturik egon,  
egun auetan ikusitzen da  
maitasun asko nun dagon.

3

Emendik kanpo bizi diranak  
ez ditut aztutzekoak,  
pentsamentutan naiz emen egon  
eztira etortzekoak;  
beren matraillak malkoz bustiak,  
eta berdin etxekoak,  
beste urte bat iritxiko da,  
lagun zar biotzekoak!

4

Ta beste zenbait urrikalgarri  
urtetan gaixorik daude,  
oietaz pixkat oroitutzea  
ez ote genduke obe?  
Gaitz maltzur asko daude egiñik  
errugabe oien jabe,  
argatik daude gau eta egun  
ordu atsegin bat gabe.

5

Ain egoera samingarria  
pixkat poztu nai nuke nik,  
udaberria etorriko da  
negu illuna joanik.  
Anai-arreba errukarriak,  
ez aztu nere esanik:  
Salbatzallea jaio da eta  
ez galdu itzaropenik.

6

Zorion eta agur guztioi  
Manterolaren partetik,  
obeak jartzen saiatuko naiz  
orain datorren urtetik.  
Irakurle ta entzule danok,  
maite zaituztet gogotik,  
urte berri on zoriontsu bat  
opa dizutet Lezotik.

**Marzelino Manterola**

*La Voz de España*, 1972.12.30

*Zeruko Argia*, 1973.01.07

*Lore apal bat*, Auspoa 166, 1983

1974

## Berriro Gabon-jaiak

---

1

Ixillaldi bat egin ondoren  
berriro emen nazute,  
egun auetan gure lurrean  
bertsoa nork ez du maite?  
Bakar batzuek jarri ditut gaur,  
sail aundirik ez det bete,  
jai eder auen atsegingarri  
ortxen dijoazkitzute.

2

Orra berriro Gabon-jaietan,  
senide biotzekoak,  
apaindu dira bide zabalak,  
argitu dira txokoak.  
Naiz-ta jai auek izan danontzat  
berdin etorritakoak,  
sendi batzutan irriparra ta  
bestetan negar-malkoak.

3

Anai batzuek giltzapetuak,  
besteak soldadu joanak,  
ta beste asko gaitzaren mende  
gaxo-etxetan daudenak.  
Ta beste zenbait bearrezetan  
azken arnasa emanak,  
oien etxetan zer alaitasun  
ekarriko du Gabonak?

4

Lantegitako konpondu eziñak,  
danetan ekaitz zakarra,  
millaka esku lanikan gabe,  
nunbaitetik jan bearra.  
Eguberriak eztakarkite  
alaitasuna bakarra,  
leku askotan pozaren ordezt  
naigabea ta negarra.

5

Urtea azken egunetan da,  
bat geiago bizkarrean,  
jaio giñanok eriotza zor  
urruti edo urrean.  
Gorrotoa ta bekaizkeria  
dabilzkigu indarrean.  
zer gizatasun azaldu bear  
degu Jesusen aurrean?

6

Euskalerritik kanpo zaudeten  
millaka anai euskaldun,  
badakizute gure lur ontan  
gauzak nolatan dauzkagun.  
Zeru ta lurren Jabe danari  
erregutu dezaiogun,  
Urte Berri on zoriontsu bat  
guztiok izan dezagun.

**Marzelino Manterola**

*La Voz de España*, 1974.01.05

*Lore apal bat*, Auspoa 166, 1983

1975

## Gabon aurreko gogoetak

---

Pentsamentutan ler zoriz nabil  
sarritan gau eta egun,  
ez dakit nora ezkutatu dan,  
edo zentzua nun degun.  
Bi milla urte jaio ziñala,  
au garbi aitor dezagun:  
zer gertatzen da, Jesus maitea?  
Ez da batere ezagun.

Zakartu zaigu itxasoa ta  
ezin baretu iñola,  
lurra estali bear ote du  
amorrua dariola?  
Gurutze lotsagarri batean  
il ziñuten, eta... nola!  
Alperrikako izan ote zan  
eman zenduan odola?

Aurrerapenak aukeran daude,  
joak gaude errezero,  
erosotasun ugari sortu  
zaigu gabetik goizera.  
Ikusten danak au naigabea  
dakar nere biotzera,  
jakindurian aurrera goaz,  
gizatasunez atzera.

Gizona berez ain da eskasa,  
ain da txatxu ta ariña,  
birtute bidez ezin zapaldu  
txarrerako duan griña.  
Etzan ain errez nagusituko  
negarra eta samiña,  
kristau izena degunok beti  
kristau jokatu bagiña.

Gaur ekaitz gabe ez dago iñun  
ez erri, ez pamilirik,  
nagusi, morroi, apaiz, sekular,  
zar, gazte, aundi, txikirik.  
Noiz izan da len oraiñ aiñako  
gorroto ta inbiririk?  
*Pake urtea* degula aurtan?  
Ez da itxura aundirik.

Alai kantatu nai nuan, baiña  
barren au tristea dago,  
o, Jesus ona, noiz izan gera  
gaur baiño biurriago?  
Gizonengana inguratzeko  
beldurrez jarria nago,  
baiña Zugan nik orain sinisten  
sekula baiño geiago.

**Basarri**

*La Voz de España*, 1975.12.21  
*Kezka-giroan*, Auspoa 169, 1983  
*Nere bordatxotik*, Aupoaren Sail  
Nagusia, 1992



1975

## Gabon-kantak

---

1  
Berri ona zabaltzen  
gabiltz ethez etxe,  
zeruko aingeruak  
esan bezelaxe.  
Belengo Portaleko  
estalpe ortantxe,  
Jesus Aurtxo txikia  
jaio da oraintxe.

2  
Birjiñak jarri digu  
Jesus gure arten,  
da San Jose ari da  
laguntza ematen.  
Oraindik seaskarik  
nola ez daukaten,  
Aurtxoa jarri dute  
aska txiki baten.

3  
San Jose, arotza zu  
zaude aldamenen,  
beraz seaskatxo bat  
egizu lenbailen,  
artzaiak agurtzera  
etorri baño len,  
jakiñean baidaude  
zein jaio dan emen.

4  
Estalpean badago  
lasto eta garo,  
astoa ta idia  
bertantxe jan da lo;  
biak dute arnasa  
goxo ta oparo,  
eta Jesus txikia  
bero-bero dago.

5  
Artzaiak sartu dira  
estalpe barrura,  
Jesus, Maria ta Jose  
dauden ingurura;  
arkume eta kantu  
ta danak lillura,  
eta izar berri bat  
zerun agertu da.

6  
Erregeen ittulan  
izarra da jarri,  
aretxek eman die  
gertatuan berri  
Kasparri ta Meltxorri  
eta Baltasarri;  
gaiñera sari asko  
dituzte ekarri.

7

Intzentsua ta mirra,  
urra ere bai,  
ta muxu eman gabe  
ez dute joan nai;  
guk ere eskerrik asko  
emengo sariai,  
eta konpota janez  
gaua pasa alai.

**Jose Insausti**

*Beti bertsoa buruan*, Auspoa 276, 2002

1976

## Berriro ere Gabon-jaiak

---

1

Orra berriro Gabon-jaietan  
urte bat geiagorekin,  
zer buruzpide etorri zaidan  
nai al zenduteke jakin?  
Zer egiñikan ez neukan eta  
bertso jartzeari ekin,  
aberastasun auxe badaukat:  
umore ona nerekin.

2

Gabonak eta Eguberriak  
beti dira nabarmenak,  
urte guztiak dituan gau ta  
egunik pozgarrienak.  
Gozatzen dira gure gorputzen  
eta animen barrenak,  
zer esan berriz urte guztian  
bein etxera datorrenak?

3

Naigabe aundiz aitortzen diet  
zenbait mutil da neskaxi:  
badakizute guk ez degula  
zuentzat aterik itxi;  
zoritxarrean baditugu, bai,  
eta gaiñera ez gutxi,  
etxeratzerik ez daukatenak  
naiz Gabon-jaiak iritxi.

4

Gaitz maltzuraren mendean dauden  
millaka urrikalgarri,  
ezbearretan zauritutako  
beste ainbeste elbarri.  
Gabon atsegin zoragarri au  
naiz-ta berriro etorri,  
aientzat ez du pozikan eta  
alaitasunik ekarri.

5

Gaur egon arren oso indartsu  
sasoiko eta gordiña.  
pentsatu gero gerta leikela  
biariko gorputz egiña.  
Erabiliko ote genduke  
ainbat gorroto ta griña,  
zein ezerezak geran pixka bat  
konturatuko bagiña?

6

Negu beltzean sartuak gera,  
urte zarra azkenetan,  
zure errua ez izan arren  
mingotza ziñan benetan!  
Naigabe latzak utzi dituzu  
gure lur maite onetan,  
askok gogoan izango zaitu  
beren biotz-barrenetan.

7

Zarrak agurra egin orduko  
berria gurekin dago,  
etorkerari begiratuta  
gero ta itxusiago;  
pake santuan konpondu baiño  
alkar txikitu naiago,  
kristaua ez da errespetatzen  
zakurra baiño geiago.

8

Gure biotzak loturik daude  
grina gaiztoaren katez,  
alkar maitatuz asko liteke,  
gorrotoarekin batez.  
Etsai faltsoak jabetu dira  
daukagun zentzu arlotez,  
Belenen jaio ziñan Aurtxo  
gutaz errukitu zaitez!

9

Gure errua baldin badegu  
aitortu: Ni pekatari;  
jaso biotza, egin irripar,  
ez malkorikan ixuri.  
Zoriona ta alaitasuna  
zabaltzen ditut kantari,  
eta azkenik besarkada bat  
Euskalerra guztiari.

**Marzelino Manterola**

*La Voz de España*, 1976.12.26

*Lore apal bat*, Auspoa 166, 1983

## Gabon-Eguberriak

---

1  
Bertso batzuek nai dituenak  
entzun edo irakurri,  
une ontako nere asmoak  
ez dira gaizki etorri;  
berriro emen dira Gabonak,  
gaiñean da Eguberri,  
nere agurrik maitekorrenak  
ainbat euskaldun jatorri.

2  
Urteak azken egunak ditu,  
agur egin dezaiogun,  
bakoitzak berak jakingo degu  
zer moduz igaro degun.  
Bizi-eziñak, buru-austeak,  
ezbearrak gau ta egun.  
atseden eta pozikan gabe  
orrenbeste biotz bigun.

3  
Zenbat alargun, zenbat umetxo,  
malko gorriak boteak,  
zenbat guraso, zenbat senide,  
naigabe aundiz beteak;  
miñ ematen du bere maitea  
betiko eramateak,  
atsekabeen zuen lagun naiz,  
anai-arreba maiteak.

4  
Millaka lagun lanikan gabe  
itxaso ta legorrean,  
gero ta zama astunagoak  
beartsuen bizkarrean;  
palako eta musu eskeiñi,  
gero danba muturrean,  
ez ote gera bodegan sartu  
gora igo bearrean?

5  
Askotan pozez egonak gera  
Gabonak inguratzean,  
aurten malkoak irtengo dira  
askoren matrail-ertzean;  
ikusi eta entzuten danaz  
pixka bat oroituztean,  
maitasun-itzak mingaiñean da  
gorrotoa biotzean.

6  
Utzi ditzagun kontu illunak,  
naiz izan egi sakonak.  
naigabe asko berekin dauka  
trantze oietan dagonak.  
Poztu, aurtxoa, poztu, sasoiko,  
poztu, aiton da amonak,  
merezi duten gozotasuna  
izan dezaten Gabonak.

7

Ez da ekaitzik denbora ona  
ondoren ez duanikan,  
eta guk ere ez dezagula  
galdu itxaropenikan;  
arnas berri bat datorkigula  
Jesus Aurtxoagandikan,  
guztioi auxe opa dizutet  
biotz barren-barrendikan.

**Marzelino Manterola**

*La Voz de España*, 1977.12.24

*Lore apal bat*, Auspoa 166, 1983

1978

## Eguberri

---

Urteko egun pozgarriena,  
eldu zaigu Eguberri,  
Belengo izar paregabea  
ain zegoan dizdilari.

Orrek ez gaitu gu iñoiz azten,  
guk bai aztu degu Bera,  
ta ondorenak ikusten gaude:  
gaur nolatan bizi gera?

Igarle zarrek esandakoa  
orra beingoz egiztatu,  
ainguru saillek eta artzaiek  
aurrez-aurre begiztatu.

Gizonak eztu Jainko bearrik,  
bera egin baita Jainko,  
udazkeneko orbel gisara  
oso denbora gutxiko.

Iritxi zaigu irixtekoa,  
poz guztien sortzaillea,  
poztu izaki guztiok oro,  
jaio da Salbatzaillea!

Aurrerapen da zientzietan  
egin duala aurrera?  
Zeiñek lagundu dio ortara?  
Berez gai ote da bera?

Argibide bat ematearren,  
illunpez ez uzteko gu,  
errege danen Errege danak  
Semea bidali digu.

Jetxi ditzagun buru arroak,  
goazen apalki Belena,  
gure gaitzentzat antxe daukagu  
sendagairikan onena.

Gugatik jaio, gugatik bizi  
ta gugatik ilko dana,  
egun onetan umilki danok  
bil gaitezen Beragana.

Griña gaiztotan josiak gaude,  
gaiñez egiñak pekatuz,  
danetik garbi geldu gaitezke  
Orri laguntza eskatuz,

Neurririk gabe maitatzen gaitu,  
ezin esan leike nola,  
gu salbatzeko emango baitu  
gazterik azken odola.

O, Aurtxo Jesus, entzun zaidazu  
dakarkitan eskaria,  
ongi dakizu nolatan dagon  
gaur egun Euskalerrria.

Eziñezkorik ez da Zuretzat,  
Zuk guztia dezakezu,  
ain errukarri dan erri oni  
begiak luza zaizkatzu.

Asmo oneko gizonez berriz  
aberasten geranean,  
bizi izateak poz emango du  
gure mundu zabalean.

Xamurtu, eztitu ta gozatu  
euskal semeen biotzak,  
urrundu beingoz odol-ixurtze,  
gogorkeri eriotzak.

Entzun Zuk, arren!, eskari auek,  
entzun, arren!, Jesus Aurra,  
senda gaixorik dagon mundua,  
senda gure euskal lurra.

**Basarri**

*El Diario Vasco*, 1978.12.26

*Kezka-giroan*, Auspoa 169, 1983

*Nere Bordatxotik*, Auspoaren Sail  
Nagusia, 1992



## Gabonetan

---

1

Askatzaillea etorri zandik  
urteak igaro dira,  
askatasun au ez da zabaldu  
oraindik mundu guztira.  
Gabon-jaietan izar bat dogu  
Belen aldean dizdira,  
bere argia eldu daitela  
baita be gure errira.

2

Jaunan legeak beera eta  
gizonak jarriak gora,  
guzurra dago lege barruan,  
egia legez kanpora.  
Era orretan dago munduan  
gaurko gizonen ganora,  
egiarekin ezin mogitu  
guzurrarekin nainora.

3

Mundu onetan iñok nai badau  
bide argi ta zuzena,  
duda izperrik iñon ez dago,  
ori dogu Jesusena.  
Baiña nai eta ondo azaldu  
bere lege ta izena,  
diñoenak be ez dau betetzen,  
orrek emoten dau pena.

4

Andia dogu bakeen alde  
askoren itxaropena,  
baiña au lortu leukienak ez,  
or sartzen jaku eztena.  
Bakeen alde ez badaukagu  
bakea lortu leikena,  
egunen baten etorri leike  
ortik gizonen azkena.

5

Poztu gaitezen egon giñanok  
goiko itxaropenean,  
itxaron gendun izar argi au  
argiz agertu danean.  
Izar eder au agertu jaku  
Belengo zero ganean,  
egien alde zeñek itz egin  
sortu da zorionean.

6

Gabon-jaietan mundu guztia  
egiten jaku alaitu,  
Askatzailleak gizon guztiok  
nai gaitulako askatu.  
Ez daigun egin askatasun au  
bier etzirako aztu,  
egun alaiok egin daiguzan  
beti-betiko luzatu.

7

Erodes orrek ikusi nai zun  
Ume Jesusen odola,  
baiña zerutik etorri jakon  
aingeru ume-jagola.  
Eta Erodes esku igurtzen  
putzez beterik zegola,  
Ejitorantza iges eginda  
ezin atrapau iñola.

8

Kale guztiak argitan dagoz,  
Gabon dala da ezagun,  
baiña ez dakit misterio au  
sinistu leiken gaur egun.  
Kale guztiak argitan baiña  
barruak daukaguz ilun,  
eta lenengo geure argia  
bakoitzak ixitu daigun.

9

Zergaitik negar, ainbeste negar?  
Zergaitik negarrez urtu?  
Belen aldeko zeru ganean  
izar bat jaku agertu.  
Ta izar orrek gaba ilun au  
egiten dausku argitu,  
bakea eta poza nai dunak  
izar orreri jarraitu.

10

Egun onetan lagunentzako  
auxe gura dot eskatu:  
Ume Jesusek egin gaitzala  
askatu eta alaitu.  
Bere inguru danok jarrita  
askatasuna abestu,  
eta kopea gora jasota  
lagunak gogoan artu.

111

Zeruko Aitak ikusirikan  
gizon guztiok ain naspil,  
gu zuzentzeko Jesus bialdu  
maitasunez eta umil.  
Zeruko uso bakezale au  
gure buru gane dabil,  
Barri Onaren ekarle da ta  
tiroz guk ez dadigun il.

12

Zeruetara pasadizuan  
mundu onetara sartu,  
eta Jesusek ipini euskun  
zein bidetatik jarraitu.  
Berea dogu bide bakarra  
eta beste bat ez artu,  
ara ez dago beste biderik  
eta ez daigun erratu.

13

Gabon jaietan urte zarra il  
eta jaio urte barri,  
urte barri au izan daitela  
guztiorentzat ongarri.  
Diñogun legez egiz bagara  
zorionaren egarri,  
maitasunezko besarkada bat  
emon daiogun elkarri.

**Basilio Pujana**

*Oiuak*, Auspoa 251, 1997

## Jesus etorri jakun

---

1  
Jesus etorri jakun  
danok askatzeko,  
Gabon ospatzen dogu  
au gogoratzeko.  
Baiña urte danetan  
au jazoten jako:  
aurkitu artzain gitxi  
ta Erodes asko.

2  
Munduan dabiltzanak.  
Jesus, zure pausuz,  
guzurrez epaituta  
kartzeletan dozuz.  
Gizonak askatzeko  
ordenak dakazuz,  
munduan egiteko  
naiko dogu Jesus.

3  
Jesus Salbatzaillea  
munduratutean,  
ostatu eske dabil  
atean-atean.  
Azkenez jaio bear  
estalpe batean,  
andirik andiena  
txikien artean.

4  
Kristok ipini dausku  
bideko orratza,  
bere punta gidari  
jarririk gorantza;  
gero igon orduan  
munduko aldatza,  
aurkituko dugula  
Aitaren baratza.

5  
Gizon danok zentzuna  
urri daukagun lez,  
jai oneik artzen doguz  
farraz eta burlez.  
Geu askatzen etorri  
Jesus maitasunez,  
ta gizonak Berari  
ondo erantzun ez.

6  
Etorri da Mesias  
egon giñana zain,  
Erodes be an zegon  
andiki ta apain.  
Jesusek susmaturik  
traiziñoen usain,  
naiago izan zitun  
abere ta artzain.

7

Gaur mundu au dogun lez  
amurruz beterik,  
amurrutik ez datot  
gerrea besterik.  
Ezelan be ez dago  
bakea lortzerik,  
geuk geugan ez badogu  
barruko bakerik.

8

Guziok dakiguna  
egi bat au dala:  
txarrak jaten dabela  
onak egin ala.  
Zintzo eroateko  
au arlo zabala,  
Espiritu Santuak  
argitu gaitzala.

9

Mundua askatu zan  
Jesus etortean,  
baiña etzan onartu  
aroen artean.  
Bi milla urte eta  
gizonak katean,  
ia apurtzen diran  
aurtengo urtean.

10

Ain zan indar andiko  
izarren argia,  
Erodesez eskindu  
bere jauregia.  
Jesusen erantzuna  
nitzat larregia,  
susmatu ebalako  
ume-iltegia.

11

Jesuseren bidea  
egin dogu artu,  
gura dogu bertatik  
adorez jarraitu,  
naita bide au izan  
gogor eta estu,  
Jaunaren baratzera  
eroango gaitu.

12

Urte guztietan lez  
emen dogu Gabon,  
bakezaleok alkar  
zorionak emon.  
Erodes be or dabil  
eta lo ez egon,  
begiratu zerura  
izarra non dagon.

13

Urtea joan eta  
urtea etorri,  
Gabon jaien barruan  
dogu urte barri.  
Diñogun lez bagara  
zorion-egarri,  
besarkada bat emon  
guztiok alkarri.

14

Zeru eder guztia  
dogu izarratu,  
Belenera doana  
zuzenbide artu.  
Ezkutatzen bajaku  
barriri biurtu,  
ta askatasunera  
zuzenduko gaitu.

15

Etorri da Mesias  
guztion artera,  
mundua askatu ta  
danok salbatzera.  
Jokatuten badogu  
Beraren antzera,  
salbatuko gara, bai,  
Beragaz batera.

16

Belen ganean dogu  
dizdira izarra,  
borondate oneko  
gizonen iparra,  
biderako argia  
ta maitasun-garra,  
aldatza igoteko  
umillen indarra.

**Basilio Pujana**

*Oiuak*, Auspoa 251, 1997

## Gaur Gabon!

---

1  
Besarkada bero bat  
danontzat aurrena,  
maitetasuna degu  
gauzik bearrena.  
Asarre danak utzi,  
bildu alkarrena,  
Gabon emen baidegu  
bi millagarrena.

2  
Orain ogei gizaldi  
jaio zan Belenen,  
urtean bein ospatuz  
bizi gera emen.  
Zorionez iritxi  
bi millagarrenen,  
eskerrik asko, Jesus,  
zuretzako omen.

3  
Adan da Ebak pekatu  
egin zutenetik,  
zerurako biderik  
etzan gizartetik.  
Etzegen zer egiñik  
gizonen aldetik,  
salbazioa degu  
Belengo estalpetik.

4  
Aingeru ta artzaiak  
kantu ta irrintzi,  
munduan nor jaio zan  
nai adierazi.  
Pakean albistea  
gendun lendabizi,  
baiña agindu ortan  
ez gerade bizi.

5  
Berdin urrutian da  
berdin gertuenen,  
Jesus jaio zan lurra  
artuko det lenen.  
Baiña kezka gogor bat  
dabilkit neronen:  
Jesus alperrik jaio  
ote zan Belenen?

6  
Beartsutasuna gaur  
ez da onartua,  
aberasteko griña  
daukagu artua.  
Aundinai ori berriz  
oso indartua,  
Jesusen dotriñ ura  
ondo bazartua.

7

Gure artean danak  
ondo ezin izan:  
gaixo daudenak eta  
kartzela-bizitzan.  
Oien pamilikoak  
zein triste dabiltzan!  
Lagundu dezaiegun  
kristau baten gisan.

8

Pekatariak gera  
sortzez ta izatez,  
pauso asko ditugu  
gerontzat kaltez.  
Galtzera goaz, Jesus,  
tiroz ta gerratez,  
Belengo estalpetik  
errukitu zaitez.

**Txomin Garmendia**

2000-ko abenduaren 26-an  
Arrate Irratitik kantatuak.





## Aurkibidea

---

<b>Itzaurrea</b> .....	7
1814: Villancicos euskaros .....	13
1815: Eguberri kantak .....	15
1816: Eguberri kantak .....	17
1817: Eguberri kantak .....	19
1818: Donostiyako gazteak Erregeen gurtea edo adoraziyua	21
1819: Eguberrietako kantak .....	23
1828: Donostiyako gaztetxoak 1828garren urteko Eguberri bezpera gabea .....	25
1828: Jesusen jaiotzari .....	28
Gau pozgarriagorik .....	30
1829: Donostiyako gazteak Erregeen gurtea edo adoraziyua	32
1829: Eguerritako kantak .....	35
1830: Eguerritako kantak .....	38
1831: Gambrako gazteak .....	41
1831: Gabonetako kantak .....	42
1832: <i>Villancicos Euskaros</i> Gambrako gazteak .....	44
1833: Iru Errege gabea .....	46
1833: Donostiako gazteak Jesusen jaiotzari .....	48
Jesusen jaiotzako gau pozgarritsuan .....	50
1841: Jesusen jaiotzako kanta berriyak .....	55
1843: Jesusen jaiotzako kanta berriak .....	58
1844: Donostiako gaztetxoak iru Errege bezpera gabea ...	61
1845: «Aingeruak esan du...» .....	64
1849: Donostiako gazteak Iru Errege bezpera gabea .....	72
1849: Eguberriko kantak Donostikoak .....	74
1849: Donostiako galai gaztetxoak Jesusen jaiotzari .....	76
1850: Donostiako gazteak Errege bezpera gabea .....	78
<i>Al Nacimiento del Hijo de Dios</i> .....	80
1850: Tolosako Gabon-kanta zarrak .....	82
1850: Donostiako gaztetxoak Jesusen jaiotzari .....	84
1851: <i>Zorcico para Gabon, para Iglesia y Calle</i> .....	86
1854: Donostiako gaztetxoak Errege-bezperan .....	89

1857-ko kantak	92
1862: Lenengo gizona egitea eta Jesusen munduratzea	94
Zortzi bertso Jesusen jaiotzari	105
1867: Jesusen jaiotzako bertsuak	107
1868: «Aingeru eder batek...»	110
1868: «Ekustean Belenen...»	112
Izenik gozuen	114
Jesusen jaiotzearen gañeko lauko samurrak	118
Gabon-kanta zarrak (bizkaitarrez)	120
Gabon-kantak «Gabaren gaberdiyan...»	122
Bertso Berriak: «Abenduko illaren...»	124
«Abenduko illaren...»	129
1871: Artzai-kanta	136
1879: Jesusen jaiotzerako	137
1881: Jesus jaio berriari	139
1882: Gabonetarako kantak	141
1882: Jesus jaio berriari	143
1882: Iru Erregeen adorazioa	145
1883: Errege bezperako	147
1886: Gabon-kantak	149
1886: Artzaiak	151
1886: Iru Erregeak	153
1887: Jesusi	155
1888: Iru Erregeak	157
1888: Errege bezperan	159
1888: Jesusi	160
Bertso berriak: «Eguarri bezperan...»	162
Jesusen jaiotza	166
1892: Artzai kanta	179
1893: Jesusen jaiotza	180
Iru Errege	182
Gabon kantak	183
1895: Gabon kantak	185
1896: Gabon kantak	187
1897: Jesus jaio berriari	188
1898: Iru Erregeak	190
1898: Eguarri-Erregeak	192

1898: Jesusen jaiotzan	193
1899: Erregeak	195
1899: Iru Erregeak	196
1899: «Goazen alkarren laguntzen...»	198
Gabongo kanta	200
Donostiako gazteak iru Errege bezpera gabea	202
Jesusi kantatzeko Gabon-gabian	204
Mari Domingi	209
Artzai-kanta	213
Gabon kanta	216
Iru Errege Orianteko	217
Erregeen adorazioa	220
Gabon kanta (Bromakoak)	223
1901: Lege zarra	225
1902: Jesusen jaiotza	228
1902: Iru Erregeak	230
Gau on	231
1902: Gabon kanta	232
Jesusen jaiotza	234
<i>Villancicos</i> «Zeblebra zangun...»	236
1904: Nere bartko ametsa	237
«Belenen dago zeru guzia...»	239
1906: Jesus jaio berriari	241
1906: «Ariñ, ariñ. kristauak...»	242
1906: «Aingeru ta artzaiakiñ...»	243
1906: «Kantatu dezaiogun...»	244
1906: «Goazen guztiok...»	245
1906: «Gabaren erdian...»	246
1906: «Ai zeñ eder ta atsegiña...»	247
1906: «Atozte, kristauak...»	248
1907: Iru Erregeak Jesusekiñ izketan	249
1907: Artzaiak Jesusekin itzketan	250
1908: Erregeak Jesusekin itzketan	251
1908: Jesusen jaiotza	252
1908: Belengo estalpean	254
1908: Ama Birjiña ta Aurtxo	255
1909: Erregeak Jesusekiñ	256

1909: Aurtxo Jesusi .....	257
1910: Artzaiak atez ate eskian .....	259
1910: Iru Erregeak Jesusekin izketan .....	261
1918: Olentzaro abestiyak .....	262
Olentzero .....	265
Albako gultzurruna .....	271
«Lenengotik izan zan...» .....	273
Jesusen jaiotzako kantak .....	278
Jesusen jaiotza .....	281
Egoarritako kantak .....	291
« <i>Deo gratias, buena gente...</i> » .....	298
«Belengo portalian...» .....	309
Karteruaren Gabonak .....	311
Gabon-jaiak .....	312
Artzaien kantak .....	313
<i>Al Nacimiento de Jesucristo. Cantos pastoriles</i> .....	315
Erregiak datoz... .....	318
«Adanen pekatuak...» .....	320
Gabon-kantak .....	322
«Berri onan kantea...» .....	324
Abenduko kantak .....	325
Gabon egunerakoak .....	326
«Zeruko Erregia...» .....	328
«Iru Errege datoz...» .....	333
«Atozte danok len-bait-len...» .....	335
1931; Gabon-kantak Zabaletatar Juanek jarriyak .....	339
1951: Belabietatik iru Errege .....	341
1952: Iru Errege etorri dira .....	342
1953: Gabon-eskean .....	343
Jaiak ondo igaro .....	344
1970: Egun pozgarriak .....	345
Zorion dakarten egunak .....	347
Gabon-gaba .....	348
Gabon abestiak .....	349
Gabonak dirala-ta .....	351
1972: Gabon-jaietan .....	353
1974: Berriro Gabon-jaiak .....	354

1975: Gabon aurreko gogoetak .....	355
1975: Gabon-kantak .....	356
1976: Berriro ere Gabon-jaiak .....	358
Gabon-Eguberriak .....	360
1978: Eguberri .....	362
Gabonetan .....	364
Jesus etorri jakun .....	367
2000: Gaur Gabon .....	370